**Landa Garapeneko ekainaren 30eko 7/2022 Legeari lotutako**

# *Lurralde garapeneko programa*







araba álava foru aldundia diputación foral

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN Es futuro

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# AURKIBIDEA

1 | LANDA GARAPENEKO LEGEA — Pág. 5

1.1. 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenari buruzkoa — Pág. 6

1.2. Legean jasotako plangintza-tresnak: Lurralde Garapeneko Programa (LuGP) eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak (LGEP) — Pág. 9

1.3. Lurralde-garapeneko zenbat programa eta zergatik? — Pág. 11

1.4. Indarraldia — Pág. 12

2 | TESTUINGURUA — Pág. 13

Landa-ingurunean eragina duten megajoera sozialak, ekonomikoak, teknologikoak eta politikoak — Pág. 14

3 | "RURAL PROOFING" EDO "BERMERAKO LANDA MEKANISMOA APLIKATZEA" — Pág. 17

3.1. Hurbilketa terminologikoa eta gogoetak Europako eta Estatuko testuinguruan — Pág. 18

3.2. … Rural Proofing Landa Garapeneko 7/2022 Lege berrian — Pág. 20

4 | LANDA-INGURUNEARI BALIOA EMATEA — Pág. 21

5 | EAE-KO LANDA-INGURUNEAREN KARAKTERIZAZIO BERRIA: METODOLOGIA ETA EMAITZAK — Pág. 24

5.1. Landa-eremuen identifikazioa — Pág. 26

5.2. Arreta Bereziko Eremuak identifikatzea — Pág. 29

5.3. Udalerrien sailkapena, landa-eremuen arabera — Pág. 31

5.4. Landa-eremuen ezaugarriak, garapen-eremuen arabera — Pág. 33

5.4.1. Jarduera ekonomikoa sustatzeko eta dibertsifikatzeko ezaugarriak — Pág. 34

5.4.2. Bizi-kalitatearen eta ongizatearen esparruko ezaugarriak — Pág. 36

6 | JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-ADIERAZLEAK — Pág. 38

7 | DIAGNOSIA ETA GOMENDIOAK, BERMERAKO LANDA MEKANISMOA LANDA-GARAPENEKO 7/2022 LEGEAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERA APLIKATZEKO — Pág. 41

7.1. Nekazaritza, basogintza eta azpiegitura berdeen LPS — Pág. 44

7.2. Ekonomia sustatzea eta dibertsifikatzea — Pág. 49

7.3. Landa-biztanleen bizi-kalitatea eta ongizatea — Pág. 100

8 | ERANSKINAK — Pág. 190



*Koordinazioa*
*eta erredakzioa:*

hazi

# Sarrera

Duela hamarkada batzuetatik hona, Europako zein gure herrialdeko administrazioen funtsezko helburua izan da landa-ingurunearen garapena sustatzea, lurralde osoarekin ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa lortzeko hainbat politika landuz.

Urteetan zehar, politika horien oinarri izan behar diren jarraibideak zehazten eta aberasten joan dira, eta, denborarekin, iraunkortasunari, berrikuntzari, modernitateari eta eremu horiek bizitzeko eta ekintzailetzarako leku erakargarriak izateko beharrezkoak diren beste faktore batzuei pisu handiagoa eman
zaie, kohesioaren eta aukera-berdintasunaren ikuspegitik.

Paradigma horren barruan, Euskadi eta bere landa-ingurunea ondo zehaztuta daude ingurumena eta hazkunde ekonomikoa uztartuko dituen garapen-eredu batean aurrera egiteko. Zentzu horretan, nekazaritza-arloko euskal administrazioen helburuak, Landa Garapeneko Legea, horren adibide da, garapenaren ikuskera jasangarri horrekin bat datoz.

Horrela, antolamendu-dokumentu honen bidez, landa-plangintzatik Euskadiren lurralde-kohesioa eraikitzen lagundu nahi da, herrialde-helburu gisa, jarduera-eremu desberdinetatik zeharka esku hartu ahal izateko, landa-ingurunea funtsezko lehentasunetako bat bezala balioetsita. Zeharkako jarduera-eremua da, eta eragin positiboa sortzen eta Landa Garapeneko Legean definitutako helburu sektorialak lortzen laguntzen du.

---

*Euskadiren lurralde-kohesioa eraikitzea herrialdearen helburu gisa, jarduera-eremu desberdinetatik zeharka esku hartzeko aukera emango duena, landa-ingurunea funtsezko lehentasunetako bat bezala balioetsita”*

# 01. LANDA GARAPENEKO LEGEA



# 1.1.

## 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskadiko Landa Ingurunearen Garapenarena

Euskadiko Landa Ingurunearen Garapenaren 7/2022 Lege berria ekainaren 30ean onetsi zen Eusko Legebiltzarrean, adostasun handiarekin. Lege berri horrek landa-garapenaren estrategia berri bat markatzen du, euskal landa-ingurunearen garapen jasangarria funtsezko eragiletzat jotzen baitu Euskadi osoaren garapen eta kohesiorako, ekonomiari, gizarteari eta lurraldeari dagokienez, EBk bultzatzen duen Lurralde Kohesioko Politikarekin bat etorriz.

Legeak xede du euskal landa-ingurunea herrialdearen ekonomia-, gizarte- eta lurralde-arloko garapen eta kohesiorako funtsezko eragile bihurtzea; hala, landa-ingurunea lurraldearen gainerakoan berdintasunez txertatuko da bizi-kalitateari, berrikuntzari, modernotasunari eta ekintzailetzari dagokienez, eta horrekin batera, herrialdearen ikuspuntu integratuagoa lortzen lagunduko da. Hori guztia, alde batera utzi gabe nekazaritza-jarduerak Euskadiko lurraldearen eta ingurumenaren kudeaketan duen eginkizun estrategikoa, bai eta ekonomian eta elikagaien hornitzaile gisa duen eginkizuna ere.

Lege honen helburua da, beraz, landa-eremuen garapen iraunkorrak Euskadi osoa garatzen laguntzea, eremu horiek leku erakargarriak izan daitezen bizitzeko eta ekiteko, kohesioaren eta aukera-berdintasunaren ikuspegitik.

Legeak “rural proofing” (landa-lente) ikuspegia dauka eta euskal landa-eremuan izango duen eragina diseinatuko eta kontuan hartuko duten politikak egin nahi dira. Horretarako, aurreikusten da landa-eremuei eragingo dieten erakunde-plan, -programa eta -ekimenek, onartuak izan aurretik, Eusko Jaurlaritzako zein foru-aldundietako landa-garapeneko sail eskudunek horiei buruzko txosten lotesleak egin beharko dituztela.

Legea Euskal Autonomia Erkidegoan landa-garapeneko estrategia berri bat sustatzeko abiapuntua da.

Estrategia berri horren barruan honako alderdi hauek jaso beharko dira, besteak beste:

- Landatartasunaren kontzeptua barnean hartuko duen eta EBk bultzatzen duen Lurralde Kohesioko Politikarekin bat datorren lurralde-garapenaren kontzeptu baterantz joko duen ikuspegia.
- Lurraldean indarrean dauden politika publikoen koordinazio, integrazio eta elkarrekintza handiagoa.
- Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreetako jarduera ekonomikoei bultzada etengabea eta espezifikoa ematea, landa-eremuei datxezkien berezko jarduerak baitira.
- Gobernantza aurreratu berria ezartzea; gobernantza berri horrek zeharka jardungo du landa-ingurunean, eta paradigma berri horiei egokituko zaie.
- Indarrean dauden tresnak (finantza-arlokoak, antolakuntza-arlokoak, plangintzakoak, zonakatzekoak eta araugintzakoak) garatu edo eraldatzea, eta estrategia berri horretarako tresna berriak sortzea, besteak beste, lege hau, helburu estrategikoak, orokorrak eta sektorialak birdefinitzea.

Lege berri honen bidez, laburbilduta, NPBren «bigarren zutabearekin» eta LEADER ekimenarekin bat datozen lehengo landa-garapeneko politiken horizontea zabaldu nahi da, uste baita landa-lurraldeen kohesioaren helburuaren baitan kontuan hartu behar direla nekazaritza- eta baso-jarduera jasangarriak landa-ingurunean eta lurraldean dauzkan eraginak eta, hori ez ezik, landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko trukeak sustatu ahal izateko elementu guztiak ere. Horretarako, azpiegituretan eta ekipamenduetan aproposak diren baldintzak sortu behar dira, politiken eta planen ikuspegi integratzailea sendotu behar da, eta aipatu diren koordinaziorako, plangintzarako eta finantzaketarako tresna berriak egokitu eta sustatu behar dira, etorkizunean herrialde kohesionatua izatea lortu ahal izateko

Horretarako, Legeak hiru helburu estrategiko eta landa-garapeneko politiken ondoriozko helburu orokorrak proposatzen ditu:

**A. EAEko landa-espazioa sustatzea eta babestea,** bereziki nekazaritza-jarduerak okupatutakoa eta mendi-eremuak, EAEko lurraldea egituratzen duen eta lurraldearen paisaia bereizgarriena osatzen duen funtsezko elementu gisa

I. Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat.

II. Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat.

III. Natura-ondarea eta paisaia zaintzea, ikuspegi integral batetik. Ikuspegi horrek uztartu egingo ditu ingurumen-babesari, -kontserbazioari eta -leheneratzeari buruzko araudien betetzea baliabideen aprobetxamendu jasangarriarekin, garapen sozioekonomikoarekin eta gizarteak naturaguneez gozatzearekin, horietan bizi direnen bizimodua eta jarduerak errespetatuz.

IV. Energia sortzeko iturriak deszentralizatzea eta landa-ingurunea energiaz hornitzeko instalazio txikiak bultzatzea. Horiek bateragarriak izango dira ingurumena eta lurraldea zaintzearekin eta mantentzearekin.

**B. Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko,** herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den **lehen sektoreko jarduera errespetatuz.**

V) Euskal landa-ingurunean ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzea; xede horrekin, enpresa-dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzailetza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digitaletan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte.

VI) Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak.

**C. EAEko landa-biztanleen ongizate-maila** hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta **zahartzeari buelta ematea** ere, funtsezko faktorea baita **Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.**

VII) Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea, haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin.

**VIII)** IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik.

**IX)** Landa-ingurunean etxebizitzarako irispidea izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta.

**X)** Landa-ingurunearen natura-, kultura- eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea. Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira.

**XI)** Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan.

**XII)** Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko.

Era berean, Legeak **helburu sektorialak** jasotzen ditu, eta, horiek lortzeko, helburu horietako bakoitzean eskumena duten erakundeek eta organismoek koordinatuta lan egin beharko dute, landa-ingurunearen ezaugarrietan oinarrituta. Helburu horiek landa-ingurunearen ikuspegi orohartzailea, haren problematika eta funtzionaltasuna bistaratzen lagundu behar dute, diskriminazio positiboa eta haztapen malgua ahalbidetzeko, politika sektorialak aplikatzerakoan (ikus 8.1 eranskina).

Plangintza estrategikoko helburu eta tresna horiek guztiak bultzatzeko, beste batzuk gauzatu behar dira: **Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH),** Europar Batasunaren Food 2030 Estrategia, Europako Itun Berdean (**"Baserritik mahaira" eta "Biodibertsitatea 2030erako horizontean") eta 2021-2027ko Urte Anitzeko Finantza Esparrua.**



# 1.2.

## Legean jasotako plangintza-tresnak: Lurralde Garapeneko Programak (LuGP) eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak (LGEP)

Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legean xedatutakoaren arabera, lurralde- garapeneko programak euskal landa-ingurunearen plangintzako tresna nagusietako bat dira, eta, ondorioz, **landa-garapeneko politikaren elementu gakoak.**

Lege horren arabera, lurralde-garapeneko programek landa-ingurunearen lurralde-garapenerako **ekintza politiko instituzionalaren eta sektore anitzekoaren ibilbide-orri** gisa jardun behar dute, eta landa-garapeneko eskualdeko programak (LGEP) eta, hala badagokio, toki-garapeneko estrategiak egiteko eta lerrokatzeko gida izan behar dute. Hori guztia, bakoitzaren jarduera-eremu geografikoari eragiten dioten **lurralde-antolamenduko tresnak errespetatuz.**

Analisirako eta plangintzarako tresna gisa, lurralde-garapeneko programek administrazioen ekintzak bideratu behar dituzte Landa Ingurunearen Garapenaren 7/2022 Lege berrian jasotako garapen- eremuetan, ezaugarri eta jarraibide komun batzuei eutsiz. Zehazki:

**Lurralde garapeneko programen ezaugarri orientatzaileak**

1. **Integratzailea** izatea lurraldean (landagunean eta hirian) eragina duten beste plangintza-eremu, -eragile eta -esparru batzuekin, erakundeen arteko eta lurraldeen arteko koordinaziotik, eta tresnen arteko osagarritasunetik (planak eta programak) abiatuta.

2. Landa-ingurunearen diskriminazio positiboa **errazten duena** (hirugarren eragileen aurrean), ahaleginak premia gehien dagoen lekuetan ardazteko eta, aldi berean, landa-eremu guztiei laguntzeko.

3. **Diseinu erraz eta malgukoa** izatea, baina landa-inguruneko ekintza (“rural proofing”) bideratuko duten jarraibide argiak eta lotutako txostenak egitea barne hartzen dituena.

4. Sektore-, eskualde- eta toki-mailako **edukiak zehatzak eta egituratuak izatea.**

5. **Parte-hartzailea** izatea, plangintzako ziklo osoan inplikatutako eragile nagusiek parte hartuta eta partaidetzako goranzko (“bottom-up”) eta zeharkako (eremu eta eskualde bakoitzeko eragileen artean) metodologia arinak konbinatuta.

6. Diseinuari, prestaketari, finantzaketari eta hedapenari dagokienez **koherentea** izatea, aurreko aldietako ikaskuntzatik eta testuinguru berrirako egokitzapenetik abiatuta.

7. **Eraginkorra** izatea programen eta edukien homogeneizazioa lurralde bakoitzeko errealitatera eta baliabideetara egokitzeko orduan.

8. **Hedapena praktikoa eta eraginkorra** izatea, programa berriak (LuGP eta LGEP) landa-garapena kudeatzeko benetako tresna gisa erabili ahal izateko, epe labur eta ertainean.

9. **Aurreratua izatea egikaritzearen, emaitzen eta eraginen jarraipena eta ebaluazioa egiteko** eta landa-inguruneko herritarrei kontuak emateko tresnei dagokienez.

10. **Adimenduna** izatea (“Smart rural”), euskal landa-ingurunearen garapen jasangarri, adimendun eta integratzailea ahalbidetuko duten plangintza-tresna berriak egin eta ezartzeko orduan.

Lege berrian ezarritako definiziotik eta helburutik abiatuta zehazten da, beraz, landa-eremuen garapen xede duten politikak, helburu orokorrak, helburu sektorialak eta jarduketa-ardatzak lurralde-garapeneko programen (LuGP) itxurapean agertuko dira. Programa horiek erreferentzia-esparru gisa erabili behar dira, besteak beste, elementu hauetarako:

- Landa-garapenerako eskualdeetako programak (LGEP) eta, hala badagokio, tokiko garapen-estrategiak egin eta lerrokatzea.
- Landa-garapenerako laguntza- eta finantzaketa-programak definitzea.
- Landa-ikuspegia edo “rural proofing” sustatzea, landa-ingurunea biziberritzeko Bermeko Landa-Mekanismoa, eta landa-garapenaz haratagoko politika garrantzitsu guztiak landa-premietara eta -errealitateetara egokitzen direla bermatzea.

**Landa Garapeneko Eskualde Programen (LGEP)** kasuan, eta Legean ezarritakoa kontuan hartuta, programa horiek gauzatu egin behar dute LuGP-etan adierazitako helburu orokorrak, sektorialak eta lehentasunezko jarduera-ardatzak gauzatzea, eta eskualde mailan berezitzat jotzen direnak jasoaz.

# 1.3.

## Lurralde-garapeneko zenbat programa eta zergatik?

Legean jasotakoari erantzuteko, Legearen Helburu Estrategiko bakoitzerako “Bermerako Landa Mekanismoa” aplikatzeko Diagnostikoa eta Gomendioak garatuko dituen dokumentu bat egitea planteatzen da.

Horrela, helburu estrategiko honetarako >

**B)** **EAEko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatzeko eta dibertsifikatzeko beharrezkoa den erakundeen arteko koordinazioa bermatzea,** herrialdeko ekonomia iraunkorra garatzen eta eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak finkatzen laguntzeko, **betiere lehen sektorearen jarduera errespetatuz,** landa-eremuan funtsezkoa baita.

**Ekonomia Sustatzeko eta Dibertsifikatzeko** diagnostikoa eta gomendioak ditugu.

> Eta hurrengo helburu estrategikorako>

**C)** **EAEko landa-biztanleriaren ongizate-maila** eta hiri-biztanleriaren ongizate-maila berdintzea, bai eta landa-**ingurunearen despopulazioa eta zahartzea lehengoratzea ere, Euskadiren gizarte- eta lurralde-kohesiorako funtsezko faktore gisa.**

> **Landa-inguruneko biztanleen Bizi-kalitatea eta Ongizatea hobetzeko** diagnostikoa eta gomendioak garatu dira.

Eta, bestalde, **Euskadiko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala** berrikusteko eta berritzeko aurreikusitako lanek, EAEko Azpiegitura Berdeak kudeatzeko gidalerroak aplikatzeak eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berrietara (LAG) egokitzeak, hurrengo helburu estrategikoari erantzun egokia emango liekete:

**A)** **Euskal landa-eremua sustatzea eta zaintzea,** batez ere nekazaritza-jarduerak eta mendi-eremuek hartzen dutena, EAEko lurraldea egituratzen duen eta bertako paisaiarik adierazgarriena eratzen duen funtsezko elementu gisa.



**I.HE**
LANDA-INGURUNEA ZAINTZEA





**NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAREN LPS + AZPIEGITURA BERDEA**

**NATURA-ONDAREA ETA INGURUMENA**

**LURRALDE ANTOLAMENDUA**

**EKONOMIAREN DIBERTSIFIKAZIOA**

**BIZI-KALITATEA**

# 1.4.

## Indarraldia

Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legean ezarritakoaren arabera, Ekonomia Sustatu eta Dibertsifikatzeko Lurralde Garapeneko Programa aplikatzeko denbora-eremuak bat etorri behar du Europar Batasuneko egitura-funtsetarako indarrean dauden urte anitzeko finantza-esparruetan ezarritako indarraldiekin, eta 2027an amaituko da.

# 02.
# TESTUINGURUA



# Landa-ingurunean eragina duten megajoera sozial, ekonomiko, teknologiko eta politikoak

Joera eta eraldaketa global handiak daude maila sozial, ekonomiko eta teknologikoan, eta horiek gure gizartean eta, bereziki, landa-ingurunean duten eta etorkizunean izango duten eragina ez da alde batera utzi behar.

Hurrengo irudiak joera garrantzitsuenetako batzuk laburbiltzen ditu.

**Landa-ingurunean eragina duten megajoerak**

**SOZIALAK**

- Zahartze eta trantsizioa
- Osasuna eta ongizatea
- Talentuaren aldeko lehia
- Aldaketak lan-merkatuan

**GEOPOLITIKOAK**

- Hazkunde demografiko aldakorra
- Tentsio geopolitikoa
- Globalizazioa vs protekzionismoa
- Kontzientzia globala



- Azelerazio teknologikoa
- Bizitza digitala

- Aldaketen azelerazioa eta konplexutasuna
- Balio-katearen berregituraketa
- Negozio-eredu berriak eta merkatu-logikak
- Jasangarritasuna

**Gizartea**

- **Biztanleriaren zahartzeak** (bizi-itxaropena areagotzearen eta jaiotza-tasak behera egitearen ondorioz) eragina du "ongizate-estatuaren jasangarritasunean" gizarte garatuetan. **Aldi berean, handitu egiten dira ondasunak eta zerbitzuak sortzeko aukerak, handitzen ari den biztanleriaren segmentu batentzat** (aktibo gehiago).

- **Munduko hazkunde demografikoa**ren ondorioz, mundu osoan nekazaritza-produktuen eskaria % 50 handituko da 2050ean, eta horrek **aurre egin beharko die nekazaritzako elikagaien balio-kateari** eta ekoizpen-eredu tradizionalei.

- **Osasuna eta ongizatea lehentasunezko kezka dira. Ongizatearen kontzeptu integral** bat finkatzen da, produktu eta zerbitzuen merkatu berriak irekitzen dituena, osasuna elikadurarekin edo aisialdiarekin (kirola, yoga, …) bat egiten duelako.

- Demografia-aldaketek **talenturik, eskulan kualifikaturik eta beharrezko gaitasunik ez izatea** eragin dezakete. Horrek **talentuaren aldeko borroka** eragin dezake, eta lan- eta bizi-baldintza onak dituzten lekuek talentua erakarriko dute, beste batzuei kenduta.

- Aurreikusten da **lan-merkatuan eraldaketa garrantzitsua gertatuko dela. Aurrerapen teknologikoek lanaren automatizazioa erraztuko dute,** eta enpleguan aurreikus daitekeen eragina izango dute;aldi berean, lanpostu eta behar berriak sortuko dira. Lana gero eta malguagoa izango da (telelana, kontziliazioa…) eta gero eta gehiago sarean egingo dena.

**Geopolitika**

- **Munduko eskualdeetako hazkunde-tasen arteko aldeak** handiagoak izango dira Europatik urrun dauden eskualdeetan, bereziki Asian.

- Garapen bidean dauden herrialdeetan **erdi-mailako klasea eta haren erosteko ahalmena handitzea espero da.** Aurreikusten da Asiako kuota, erdi-mailako klase globalean, bikoiztu egingo dela, % 60raino, 2030ean**.**

- **Tentsio geopolitikoa** sendotuko da, **eta bloke-mundu baterantz aurrera egingo da.** Txinak protagonismoa irabazi du jarduera ekonomikoan, eta horrek Europaren lehiakor**ta**suna mehatxatzen du, lurralde fabrikatzaile eta erabakitzaile gisa.

- **Protekzionismoak eta dibisen gerrak zaildu egiten dute egoera,** eta eskualdeetako merkatuen aldeko lehiaketa-dinamika berriak planteatzen dituzte. Barne-merkatuak indartzen dira, baina kanpoko merkatuetan sartzea zailtzen dute (inbertsio eta tokiko presentzia handiagoa eskatzen baitute).

**Ekonomia eta enpresa**

- **Aldaketak gero eta azkarragoak dira, eta VUCA inguruneek** (volatile, uncertain, complex, ambiguous) eragina dute sektore gehienetan. Azelerazioak eta hiperlehiak presioa egiten diete enpresei, gero eta bizkorragoak eta proaktiboagoak izan behar baitute ingurune horretan, eta aldaketei eta aukerei aurrea hartzen saiatu behar dute.

- Disrupzio sistemikoak gertatzen dira aldian behin, eta, ondorioz, **erabat aldatzen da enpresen eta sektoreen konfigurazioa.**
- **Balio-kateak berregituratu egiten dira gero eta gehiago diren aliantzen ondorioz, eta beste sektore batzuetatik datozen sarrera berria**k agertzen dira.

- **Digitalizazioari lotutako negozio-eredu eta merkatu-logika berriak** sortzen dira. Plataforma-ereduak, erabilera partekatua, zerbitizazioa, esperientzia vs jabetza biderkatu egiten dira.

- Egungo eredu ekonomikoaren **jasangarritasuna**ri eta **klima-aldaketa**ri buruzko zalantzek ekoizpen- eta kontsumo-eredu berriak sustatzen dituzte, "zirkularragoak" eta ez hain intentsiboak hondakinei dagokienez, eta eskema berriak eskatzen dituzte gobernantzari, esperimentazio publikoari, lankidetzari (publiko-publikoa eta publiko-pribatua) eta herritarren parte-hartzeari dagokienez.

## Teknologia

- Teknologiak esponentzialki bizkortzen ditu bere garapena eta produktibitatea, eta **aldaketa ekonomiko eta sozialaren eragile** gisa kokatzen da, arlo guztietan duen garrantzi nuklearra erakutsiz. Desberdintze-faktore bat ez ezik, biziraupen-faktore bat ere bada.

- Informazioaren, komunikazioaren (Internet, mugikorrak, sentsorika, adimen artifiziala…) edo ekoizpenaren (3D inprimaketa, droneak, automatizazioa eta robotika) teknologien **demokratizazioak** aukera berriak eta lan-eredu deszentralizatuak eskaintzen dizkie enpresei eta partikularrei (tokiko merkatuetan edo merkatu globaletan, produktu/zerbitzu pertsonalizatuekin).

- **Digitalizazioa** guztizko kontzeptu gisa (prozesuen, kanalen eta negozio-ereduen eta abarren digitalizazioa), goragoko kontzeptu gisa (automatizazioaren kontzeptu ahalguztiduna ere menderatzen duena) eta kontzeptu bakar gisa (ia jarduera-eremu eta -sektore guztietan erabiltzen dena), ***SMART*** ikuspegiak bultzatzen dituena (lurralde, hiri eta sektoreetan, esaterako, nekazaritzan edo elikadura-katean).

- Hori guztia **bioteknologiaren, material aurreratuen, *big data*ren, digitalizazioaren, IoT-ren, robotikaren, sentsorikaren eta abarren garapenetik eratorritako eraldaketa handiak** ahaztu gabe.

# 03.
# “RURAL PROOFING” EDO “BERMERAKO LANDA MEKANISMOA” APLIKATZEA



# 3.1.

## Hurbilketa terminologikoa eta gogoetak Europako eta Estatuko testuinguruan.

**“Rural Proofing”** delakoa edo “**Bermerako Landa Mekanismoa” (BLM)** aplikatzea administrazioek hartzen duten konpromisoa da bultzatzen dituzten politikak eta legeria **“landa-lenteekin berrikusteko”,** landa-eremuei eta bertako biztanleei kalterik egiten ez dietela ziurtatzeko.

Rural Proofing metodologia testuinguru horretan sortu zen, araudia aztertzeko eta despopulazioaren aurka borrokatzeko tresna praktiko gisa, landa-biztanleria subjektu protagonista gisa jarrita. Horrek politika publikoen eta legeriaren eragin potentziala egiaztatzea baino zerbait gehiago eskatzen du, eta araudi guztia, estatukoa, eskualdekoa eta tokikoa, landa-premia eta -eskarietara egokitzen dela ziurtatzen du, bai ingurumenekoa, bai kulturala, soziala edo ekonomikoa.

Praktikan, horrek esan nahi du kontuan hartu behar direla, lantzen ari diren politiketan, landa-enpleguan dituzten inplikazio eta ondorio errealak eta potentzialak, positiboak eta negatiboak, zuzenak eta zeharkakoak, garapen-aukerak, gizarte-ongizatea, pertsona guztientzako aukera-berdintasuna eta landa-eremuetako eta -komunitateetako ingurumen-kalitatea. Zerbitzuak diren bezala zaintzen saiatu beharrean, politikak formulatzeko ardura dutenek aztertu beharko lukete **landa-komunitateek beren beharrak asetzeko eta desberdintasunak konpentsatzeko modurik onena bermatu dezaten, nahiz eta horrek landa-ingurunerako neurri, politika... bereiziak ezartzea esan nahi duen.**

**2016an Corken** egin zen Landa Garapenerako Europako Konferentzian, Nekazaritza eta Landa Garapenerako Europako komisarioak azpimarratu zuen garrantzitsua eta komenigarria dela “Rural Proofing” mekanismoak hartzea, gauzatzen diren politika guztiek modu sinergikoan lagun dezaten hiri- eta landa-biztanleriaren arteko berdintasuna bermatzen.

BLMak landa-biziberritzea sustatzen lagun dezake, landa-garapenaz haragoko politika garrantzitsu guztiak landa-premietara eta -errealitateetara egokitzen direla bermatuz. Landa-eremuetarako epe luzeko ikuspegian deskribatutako zeharkako elementuetako bat ere bada. Ikuspegian adierazten da EBk neurriak hartuko dituela BLM bat “Legeak hobeto egitea” programaren barruan sartzeko, batez ere, EBren ekimen handiek landa-eremuen inguruan aurreikusten duten eragina ebaluatzeko. Ikuspegiak, halaber, estatu kideei eskatzen die bermerako landa-mekanismoa nazio-, eskualde- eta toki-mailan aplikatzea planteatzeko.

Batzordearen ustez, BLM oinarrizko tresna da landa-lurraldeen oparotasuna handitzeko eta hiri-lurraldeekiko garapena orekatzeko; azken batean, lurralde-kohesioari laguntzea ahalbidetzen du.

Estatu mailan, Estatuko Administrazio Orokorrean **politika publikoen ebaluazioa instituzionalizatzeari buruzko abenduaren 20ko 27/2022 Legeak,** seigarren xedapen gehigarrian, Bermerako Landa Mekanismoa aipatzen du:

1. Gobernuak Landa-Mekanismo Berme-emaile bat bultzatuko du, eta diseinuan eta aplikazioan interesa duten eragileen parte-hartzea ziurtatuko du.

2. Mekanismo horrek honako hauek jasoko ditu beti:

   A) Politika publikoek lurraldean eta landa-ingurunean eta landa-gizartean dituzten ondorioen ebaluazioa txertatzea, lege honen 2.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

   B) Ebaluazio-metodologia espezifiko bat egitea, Europar Batasunak arlo horretan proposatutako printzipioak, gomendioak eta tresnak kontuan hartuko dituena.

Horrela, **Europa mailan Rural Proofing delakoa gomendatutako politika bat baino ez bada ere, Espainian nahitaez bete beharrekoa izatera igaro da.**

Kontzeptuaren alde edo bilakaera handia honetan datza:

- **Planteamendu klasikoa:** landa-lurraldeei **kalte-ordainak** ematera gehiago bideratutako politikak. Horrek **ikuspegi urbano-zentrista** dakar, orain Rural Proofing-ekin planteatzen den ikuspegi berritik aldenduta.

- Testuinguru honetan, **Rural Proofing Metodologia** araudia aztertzeko eta despopulazioaren aurka borrokatzeko tresna praktiko gisa sortu da, **landa-biztanleria subjektu protagonista gisa** jarriko duten politiken eta ekimenen bidez, bere potentzial guztia aprobetxatuz hobeto garatutako eta lehiakorragoak diren eremu bihurtzeko edo berriro izateko.

Berme-mekanismo hori aplikatzeak programa eta estrategia berriak diseinatzea esan nahi du, eta estrategia horiek:

- **Landa-komunitateen beharrak eta perspektibak** txertatzea.

- **Landa-eremuek irtenbide** berritzaileak, integratzaileak eta iraunkorrak emateko duten **ahalmena aintzat hartzea** eta aprobetxatzea.

Rural Proofing/Landa Berme Mekanismoa aplikatzeak eragina izan dezake politika, plangintza eta programazioen **diseinuaren fase guztietan** landa-eremuen desagregazioa eta fokua aztertzean. Une honetatik aurrera jardunez:

- Landa-eremuaren/hiri-eremuaren abiapuntuko egoeraren **diagnostikoa egitean,** eta arauak edo programak landutako eremuan.

- **Emaitzen aurreikuspena egitean.** Araua aplikatzeak aldez aurretik identifikatutako abiapuntuko egoeran izango duen eraginari buruzko prospekzioa jasoko da.

- “Landa-inguruneko **eraginaren balorazioa egitean** (positiboa edo negatiboa izan daiteke).

- Arauaren emaitzak hobetzeko egokitzat jotzen diren **hobekuntza-proposamenak** garatzean, landa- eta hiri-ekitatea bermatzen laguntzeari dagokionez.

Argi dago jarduteko modu berri horrek **aldaketak dakartzala**. Aldaketak beste sail eta erakunde batzuekiko gobernantza-ereduan, politiken diseinuan hasieratik parte hartzeko premian, zonaldeka bereizitako adierazleekin lan egiteko premian, salbuespenezko finantza-neurrien aplikazioan edo landa-ingurunerako ekintza positibo bereizien proposamenean, besteak beste.

# 3.2.

## Rural Proofing-a Landa Garapeneko 7/2022 Lege berrian

EAEko Landa Garapenerako 7/2022 Lege berriaren zioen azalpenean, Rural Proofing edo Landa Bermeko Mekanismoari **“zaintza-ikuspegia edo landa-lentea”** esaten zaio.

- Ikuspegi horrek landatartasunaren kontzeptua integratzen du, eta aurrera egiten du **lurralde-garapenaren** kontzepzio baterantz, EBk sustatzen duen Lurralde Kohesiorako Politikaren ildotik.

- EAEko landa-ingurunea funtsezko faktore gisa kokatzeko garapen eta kohesio ekonomikoan, sozialean eta lurralde-kohesioan, **landa-ingurunea gainerako lurraldeetan berdintasunez sar dadin.**

Alde horretatik, Lege honek aldaketa esanguratsuak ditu aurrekoarekin alderatuta, eta Bermerako Landa Mekanismo hau ezartzea ahalbidetzen dute. Zehazki, honako hauek aipatzen ditu:

- **PLANGINTZA-TRESNAK.** Lurralde Garapeneko Programen garapen-eremu bakoitzerako definizioa ezartzen du. Programa horiek txosten lotesleak egiteko esparru gisa jardungo dute (13.7 artikulua).

- **TXOSTEN LOTESLEAK.** Landa-eremuei eragiten dieten plan, programa eta ekimen instituzionalekin lotuta, landa-garapenaren arloan eskumena duten sailek, Eusko Jaurlaritzakoek zein foru-aldundietakoek, eman beharreko onarpena jaso aurretik prestatu beharreko txostenak.

# 04.
# LANDA-INGURUNEARI BALIOA EMATEA



Euskadi **geografikoki lurralde berezia da.** Hedadura txikia eta biztanleria ugaria. Biztanleria-dentsitatea 300 h/km2 baino gehiagokoa da. Izan ere, Europan **biztanleria-dentsitate** handiena duen eskualde ez-metropolitarretako bat da, EBko hirigune zentraletako berezkoa. Horri erliebearen eragina gehitzen badiogu (EBk Euskadiko udalerrien % 85 mendiko eremutzat jotzen ditu), okupazio-ahalmena duten lurzoruak izugarri murrizten dira, eta biztanleriaren benetako dentsitatea izugarri handitzen da horietan.

Beste elementu bat da Euskadi **Kantauri/Pirinio** errotulan kokatzen dela da, mendikateko punturik ibilgarrienean, Galiziatik Mediterraneoraino. Kokapen horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoa **korridore ekonomiko** bihurtu da Iberiar Penintsularen eta Europako gainerako herrialdeen artean, eta horrek **hiri- eta azpiegitura-presio handi**a eragin du landa-lurzoruan.

Egoera horrek **lehia handia sortzen du lurraldearen erabileragatik,** eta hiri- eta landa-eremuen arteko inbrikazio oso handia, oso antropizatuak eta askotan rurbanizazio-egoera maiz gertatzen dira bertan, batez ere lurraldearen isurialde kantauriarrean.

Baina landa-eremu mota horiek (biztanleria-dentsitate handia, mendia, ekosistema-aniztasuna...) ere **espazio-aldakortasun handia** dute, eta baldintza natural eta soziokulturalak nabarmen aldatzen dira haran batetik bestera, hiri batetik oso gertu dagoen eremu batetik eta hiri horren eragin txikiagoa duen beste batera... Horrek **aukera** interesgarriak eskaintzen ditu: nekazaritza eta basogintzako ekoizpenetarako hurbileko merkatuak, paisaia-erakargarritasuna, aniztasuna: kulturala, produktiboa, ekosistemikoa... Hori guztia herrialde sozioekonomiko garatu eta aktibo baten esparruan, bere **landa-inguruneari errekonozimendu handia** ematen diona: tokiko produktuaren eta gastronomiaren balorazioa, mendizaletasuna, natura, nortasuna...

Testuinguru hori dela eta, beharrezkoa da lurraldea ondo ezagutzen duten eta horren inguruko politika publikoak, baliabideak eta mikro ikuspegiak garatzea. Horien bidez, aukera-aberastasuna maximizatu eta horren arriskua landu ahal izango genuke. Gainera, **lurralde mailako kohesioa** bermatu behar da, lurralde bati (Euskadiri) aplikatutako tresna-kutxa **eta diskurtso orekatzaile gisa hartuta.** Izan ere, ezin dugu landa-inguruneaz hitz egin hiriko ingurunearekin duen lotura handia albo batera utzita eta gauza bera gertatzen da landa-garapenarekin, **ikuspegi sinergikoarekin, zeharkakoarekin eta koordinatuarekin lotuta** baitago sailen eta sektoreen arteko tresnak erabiltzeari dagokionez.

Ikuspegi hori koherentea da, gainera, Europako Batzordeak 2019. urtearen amaieran **Itun Berdea edo Green Deal** aurkeztu izanarekin, hau da, Europak gizarte ekitatibo eta oparoan hazkunde jasangarria lortzeko egin duen apustu handiarekin. Hazkunde ekonomikoak eraginkorra izan behar du baliabideen erabileran eta lehiakorra, eta oreka zaindua mantendu behar du ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-helburuen artean, eraldaketa digitalari lotuta.

Paradigma horren barruan, Euskadi eta haren landa-ingurunea ondo kokatuta daude ingurumena eta hazkunde ekonomikoa uztartuko dituen garapen-eredu batean aurrera egiteko. Zentzu horretan, nekazaritza-arloko euskal administrazioen helburuak (**Landa Garapeneko Legea** horren adibide da) garapenaren ikuskera jasangarri horrekin bat datoz.

Horrela, antolamendu-dokumentu honen helburua da landa-plangintzatik **Euskadiren lurralde-kohesioa eraikitzen laguntzea, herrialdearen helburu gisa**, jarduera-eremu desberdinetatik zeharka esku hartzea ahalbidetu dezan, landa-ingurunea funtsezko lehentasunetako bat gisa **balioetsiz**. Zeharkako jarduera-eremua da, eragin positiboa sortzen eta Landa Garapeneko Legean zehaztutako helburu sektorialak lortzen laguntzen duena.

Nekazaritza-arloko euskal administrazioak duela hamarkada batzuetatik ari dira landa-ingurunearen balioa nabarmentzeko lanetan. Horren froga da landa-ingurunearen **funtzio-aniztasuna aitortzeari** eta euskal gizartearentzat duen garrantziari buruzko ibilbide historiko labur hau:

## 1997

**Landa Garapenaren aldeko lehen Gizarte Ituna** sinatu zen: nekazaritza-erakundeen, finantza-erakundeen, instituzioen, enpresen, erakunde akademikoen eta abarren ordezkariek sinatu zuten landa-ingurunearen aldeko adierazpena. Itun horretan, batzuek kalitateko elikagaiak eta lehengaiak ekoizteko edo landa-ingurunearen ingurumen-balioak kudeatzeko konpromisoa hartu zuten, eta beste batzuek, berriz, ekarpen eta zerbitzu horien balioa aitortzeko eta **LANDA-INGURUNEA MANTENTZEKO HELBURUA** lortzen laguntzeko beharrezko neurriak eta pizgarriak ezartzeko konpromisoa hartu zuten.

## 1998

Eusko Legebiltzarrean **Landa Garapeneko lehen Legea** onartu zen. Lege horrek balioa ematen dio euskal landa-ingurunearen lanari, eta nabarmentzen du ekarpen garrantzitsuak egiten dituela gainerako gizartearentzat, funtzio anitzekoak, elikagaien eta kalitatezko lehengaien ekoizle, nortasun eta osasun-berme gisa, espazioaren kudeatzaile gisa eta baliabide naturalen, biodibertsitatearen eta paisaien administratzaile gisa. Nabarmentzekoa da gizarteari egiten zaion ekarpena herrialde osoaren diseinu sozioekonomikoan eta lurralde-diseinuan ematen zaion lekuaren araberakoa dela, hiri-munduarekin dituen harremanak orekatuz eta ingurune erakargarri bat eratzeko beharrezko baldintzak sortuz, despopulazioa geldiarazteko eta egoiliar berriak eta jarduera berriak erakartzeko gai izango dena.

## 2004

Itun Soziala berretsi zuten lehengo sinatzaileek eta hogei bat **atxikimendu berrik.** Horrek, azken batean, landa-mundua gizarte osoaren ondare natural gisa defendatzea esan nahi du.

## 2014

**Nirea programa:** landa-inguruneak bere kabuz aukerak eskaintzen dituela onartu nahi du, baina programa mantentzeak hiri-ingurunerako aukerak ere eskaintzen ditu. Programa honen helburua euskal gizartea bere tokiko ekonomiarekin berriz lotzea da. Baina, aldi berean, hiriaren eta landaren arteko **sinbiosia** ikusaraztea, aldeen arteko **elkarrizketa** sustatuz, eskutik helduta aurrera egiteko, "geurearen" **kontsumoa** sustatzeko eta **lehen sektorea eta landa-ingurunea** elkarrekin indartzeko. Bere filosofia da **"elkar ulertzeko, lankidetzan aritzeko eta gure lurraren etorkizuna sustatzeko leku bat sortzea".**

## 2022

**Landa Garapenerako 7/2022 Lege berria.** Landa-garapeneko estrategia berri bat ezartzen du, **EAEko landa-ingurunearen garapen iraunkorra funtsezko faktoretzat hartzen baitu Euskadi osoaren aurrerabidean eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioan,** EBk bultzatzen duen Lurralde Kohesioko Politikarekin bat datorren garapen-kontzepzio baterantz aurrera eginez.

# 05.
# EAEKO LANDA-INGURUNEAREN KARAKTERIZAZIO BERRIA: METODOLOGIA ETA EMAITZAK



Landa-garapenerako politiken eta estrategien ikuspegitik jardun behar den eremuen identifikazioa eta sailkapena 1998az geroztik egin dira, landa-garapenerako aurreko legea onartu zenetik aurrera. Karakterizazio-lan hori ez da xede baten modura ulertu behar, baizik eta EAEko landa-eremuetan eragina duten politikak eta dirulaguntza-programak diseinatu eta aplikatzeko tresna baten modura, landa-garapenaren Legearen esparruan.

7/2022 Lege berria onartu eta gero, karakterizazio-lana amaitu da, 7. artikuluan zehaztutako urratsekin bat etorriz. Prozesuan, lurralde-errealitateei hobekien erantzuten dieten parametroak identifikatu nahi izan dira, lurralde historiko guztiak zeharkatzen dituen ikuspegi trinko eta oso batetik.

Era horretan, partaidetza-prozesu bat egin da, diziplina anitzeko adituen ezagutzan eta aberastasun zein kontraste tekniko eta politikoetan oinarrituta.

Landa-eremuen karakterizazioaren gako nagusiak hauek dira:

- Aurreko aldietan ez bezala, karakterizazio honen emaitza ez da erreferentzia-mapa bakarra izan. Aitzitik, emaitzak hainbat maparen bidez ikusten dira, eta landa-eremuen egoera erakusten dute, helburuen eta azterketa-arloen arabera:
    - Landa-ingurunean eragina duten politika gehienek gutxieneko lurralde-oinarria udalerria dutela kontuan hartuta, udalerri-mailako azterketa egiten da, eta udalerrien sailkapena definitzen da beren landa-eremuen arabera. LuGP kasuan, analisiaren oinarri nagusia udalerria izango da.
    - Ondoren Landa Garapeneko Eskualde Programak (LGEP) garatzeko, laguntza-planak aplikatzeko eta politika espezifikoak zehazteko, diseinatzerakoan aintzat hartzen den desagregazio-maila hartuko da kontuan, eta udalerri-maila, erakunde-maila edo biak jaso ahal izango dira.
- Kategorizazioa aztertzeko, lehen bezala landa-mailei buruz hitz egin beharrean, *zaurgarritasun-mailak* zehaztu dira; hala, eremu bakoitzaren zaurgarritasuna agerian jartzen da, arlo eta gai zehatzekin lotuta. Hartara, Legea inplementatzearen ondoriozko lorpenak modu zuzenagoan neur daitezke, lege horretan jasota dauden helburuetako bakoitzari begira.

Askotariko sailkapen horren bitartez, landa-eremu bakoitzaren egoera modu zehatzago batean irakur daiteke eta ebaluazio etengabea egin daiteke. Beraz, administrazio arduradunek mugarriak, bitarteko ebaluazioak eta abar finkatu ditzakete, lurraldean egiten diren politikak eta neurriak baloratu eta, hala badagokio, birbideratzeko.

# 5.1.

## Landa-eremuak identifikatzea

EAEko landa-eremuak identifikatzeko lehen hurbilketa gisa, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) finkatutako definizioa erabili da. Horren arabera, landa-eremuak dira kilometro koadroko 150 biztanle baino gutxiagoko dentsitatea duten herri/udalerri guztiak.

Sailkapen horri jarraikiz, EAEko udalerrien % 60 landa-eremutzat jo daitezke, eta, gaur egun, euskal biztanleriaren % 8,2 eta azaleraren % 69 izango lirateke.




*1. irudia. Landa-eremuen sailkapena udalerri-mailan, ELGAren irizpideei jarraituz.*

*1. taula. ELGAren sailkapenaren emaitza nagusiak.*

| Eremu-mota | Udalerri-kopurua | | 2021eko biztanleria | | Azalera |
|---|---|---|---|---|---|
| **Landa-eremua** | 151 | 60,2% | 180.496 | 8,2% | 69,4% |
| **Ez da landa-eremua** | 100 | 39,8% | 2.012.751 | 91,8% | 30,6% |

Dena den, alde nabarmenak daude lurralde historikoen artean:

- Zehazki, kostaldeko lurralde historikoen (Bizkaia eta Gipuzkoa) izaera ez da horren landatarra. Bi kasuetan, 150 biztanle/km2-tik beherako udalerriak % 8 baino gutxiago dira (Bizkaian, % 5,8, eta Gipuzkoan, % 7,4).
- Araba, aldiz, landa-izaera nabariko lurralde bat da, biztanleriaren % 18,5 150 biztanle/ km2-tik beherako udalerrietan baitago, eta udalerri guztiak landa-eremuak dira, hiru izan ezik.

*2. taula. ELGAren sailkapenaren emaitza nagusiak, lurraldearen arabera.*

| Eremu-mota | Udalerri-kopurua | | 2021eko biztanleria | | Azalera |
|---|---|---|---|---|---|
| **Bizkaia** | | | | | |
| **Landa-eremua** | 60 | 53,6% | 66.158 | 5,8% | 63,3% |
| **Ez da landa-eremua** | 52 | 46,4% | 1.077.999 | 94,2% | 36,7% |
| **Gipuzkoa** | | | | | |
| **Landa-eremua** | 43 | 48,9% | 53.192 | 7,4% | 46,4% |
| **Ez da landa-eremua** | 45 | 51,1% | 665.693 | 92,6% | 53,6% |
| **Araba** | | | | | |
| **Landa-eremua** | 48 | 94,1% | 61.146 | 18,5% | 88,8% |
| **Ez da landa-eremua** | 3 | 5,9% | 269.059 | 81,5% | 11,2% |

Alabaina, EAEko landa-inguruneak berezitasunak ditu, landa-eremuak eta gainerakoak oso inbrikatuta daudelako; beraz, zaila da ELGAk planteatzen duen zedarritze geografikoa erabiltzea. Izan ere, ELGAren ikuspuntutik hiriguneak diren landa-eremu zabalak Legearen antolamendutik kanpo geratuko lirateke. Bestalde, lege berriak lurralde-kohesioaren ikuspuntu bat ezarri nahi du, eta landa-ingurunearen lurralde-errealitate desberdinak kontuan hartzen ditu: denak ez direlako berdinak eta haien garapena ezin delako modu uniformean planteatu. Ondorioz, EAEko landa-ingurunearen karakterizazio zehatzago bat egiteko borondatea sortu da.

Zehazki, **landa-eremuak identifikatzeko metodologia propio bat** proposatzen da: udalerriak sailkatzeko, biztanle-entitate berezien[1] segmentutan antolatu dira. Hala, landa-entitatetzat hartzen dira bi irizpide hauetako bat betetzen dutenak:

*3. taula. Landa-entitateak sailkatzeko irizpideak.*

| Irizpidea | Justifikazioa |
|---|---|
| **1.** Entitatean **2.000 biztanle edo gutxiago** daude. | 2.000 biztanleko muga landa-eremuen eta hiriguneen arteko langa dela ulertzen da. Bat dator EAEn 2007tik aurrera landa-garapenerako politikak aplikatzeko erabiltzen den parametroarekin. |
| **2.** Entitatean **2.000 biztanle baino gehiago** daude, baina entitateari dagokion udalerriak nekazaritzako Balio Erantsi Gordina **(BEGd),** arrantzarena kontuan hartu gabe, **BEGd osoaren % 3 edo handiagoa** da. | Biztanle-kopurua kontuan hartuz hirigune gisa identifikatuko litzateke, baina ulertzen da ezen, entitateari dagokion udalerriaren nekazaritzako BEGd-a balio osoaren % 3 baino handiagoa baldin bada, presentzia handia duela sektore horretan, eta, beraz, landa-entitatetzat jotzen da. % 3ko zifra hartu da, EAEko nekazaritzako BEGd-ak pisu txikia duelako oro har, EAEko nekazaritzako batez besteko BEGd-a % 1 ingurukoa baita. |

[1] EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak honela definitzen duen udalerri barneko unitatea: udal-mugarteko edozein eremu bizigarri, jendea bizi bada edo salbuespen gisa, baita jenderik bizi ez bada ere, udalerrian argi eta garbi bereizita badago, eta nahasteko aukera saihestuz

identifikatzen duen izendapen espezifiko batez ezagutzen bada.

Hala, lurraldea honela sailkatu da:

**A) Landa-entitateak:** lehenago adierazi diren baldintzak betetzen dituzte.

**B)** Hirigune gisa sailkatutako entitateetan, Udalplanen arabera **landa-eremuak edo eremu ez-urbanizagarriak** direnak. Horretarako, hiri-entitate bakoitzean elementu linealez (ibaiak, bide-sarea, etab.) bereizita dauden landa-eremuak multzokatu dira, eta hiri barneko eremu ez-urbanizagarri txikiak (adibidez, parkeak) baztertu dira, landa-inguruneari jarraitutasuna emateko. Esate baterako, hiri-entitate gisa sailkatu direnen barruan dauden eta baserriak dituzten eremu sakabanatuak kategoria horretan daude.

**C) Hiriguneak**

**D) Partzoneriak:** lursail partekatuak, udalerri bakar batenak ez direnak, baizik eta lurraldearen jabea den herrien komunitatearenak. Inor bizi ez denez, ezin zaizkie aipatu adierazleak aplikatu, baina landa-eremutzat jotzen dira abeltzaintza eta basogintzarako joeragatik, natura-izaera nabariagatik eta urbanizatuta ez egoteagatik.

*2. irudia. Landa-eremuak entitate-mailan identifikatzearen emaitza.*




Era horretan, azken sailkapenean, landa-eremuak EAEko entitate guztien % 92 dira. ELGAk proposatzen duen sailkapenarekin zuzenean alderatzen bada, sailkapen berria zabalagoa da. Biztanleria osoaren % 4 gehiago dauka, gutxi gorabehera (sailkapen berrian, % 12,4; ELGAk proposatutako sailkapenean, % 8,2), eta azalera osoaren % 26,6 gehiago (sailkapen berrian, % 96; ELGAk proposatutako sailkapenean, % 69,4).

**4. taula.** taulan, sailkapen berriaren emaitza nagusiak jaso dira:

| Eremu-mota | Eremu-kopurua | | 2021eko biztanleria | | Azalera |
|---|---|---|---|---|---|
| **Landa-entitatea + Hiri-entitateko landa-eremua** | 1.355 | 92,4% | 271.277 | 12,4% | 96,0% |
| **Hirigunea** | 111 | 7,6% | 1.921.970 | 87,6% | 4,0% |

***4. taula. Landa-eremuak entitate-mailan identifikatzearen emaitza nagusiak.***

# 5.2.

## Arreta Bereziko Eremuak (ABE) identifikatzea

Jarraian, EAEko landa-eremuak identifikatzearen ondorioz, Arreta Bereziko Eremuak edo ABEak identifikatuko dira; hots, egoera larriago edo kalteberago batean dauden udalerriak, nola ikuspegi soziodemografikotik hala ikuspegi ekonomikotik, eta, gainera, lehen sektorearen mende daudenak neurri handiagoan.

**ABEak identifikatzeko lurralde-oinarria udalerria izan da,** eremu kalteberago horietan politika integralak finkatu behar direla komenigarritzat jotzen baita, inpaktua handiagoa eta emaitzak hobeak izan daitezen.

Identifikatzeko abiapuntua udalerrien hautaketa izan da; zehatz-mehatz, **BEGd osoaren % 3ko BEGd-a edo handiagoa duten udalerriak, baldin eta udalerri horiek osatzen dituzten entitateetako bakoitzean 2.000 biztanle edo gutxiago badaude.**

Udalerri-hautaketa horri adierazle konposatu bat aplikatu zaio hainbat aldagai soziodemografiko eta ekonomiko erabiliz. Normalizatu egin dira[2] eta inpaktuaren arabera gehitu/kendu dira:

| Aldagaiak |
|---|
| Biztanleriaren hamar urteko bilakaera |
| Maskulinitate-tasa |
| Zahartzea |
| Per capita BPGa |
| Errenta pertsonala |

*IKUSI 8.2. ERANSKINA KARAKTERIZAZIOA. - 5. taula. ABEak identifikatzeko aldagaiak.*[3]

Adierazle konposatua kalkulatu ondoren, ABE-en atalasea zehaztu zen. Hortik behera, udalerriak ABEak direla ulertzen da.

Halaber, adierazle konposatuan duten puntuazioa alde batera utzita, 300 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriak ABEtzat jotzen dira, baldin eta nekazaritzako BEGd-a % 3 edo handiagoa bada. Hala, biztanle-kopuruaren arabera egoera kritikoan egon daitezkeen udalerrientzako arreta lehenetsi nahi da. Biztanleria-muga hori udalerriak bizirik irauteko atalasea dela ulertzen da.

[2] Adierazle konposatua eta txosten honetan erabili diren gainerako adierazleak kalkulatzeko, aldagaiak normalizatu dira batezbestekoa eta desbideratze estandarra oinarritzat hartuta. Aldagai bakoitzaren balio normalizatua izaeraren arabera gehitu/kendu da, amaierako balioa lortu den arte.

[3] Aldagai guztiak udalerri-mailakoak dira.

*3. irudia. Arreta Bereziko Eremuak.*




Emaitza da 61 udalerri sartzen direla ABE-en kategorian; hots, gutxi gorabehera, EAEko udalerri guztien % 24,3, biztanleria osoaren % 1,4 eta azalera osoaren % 29.

*6. taula. ABEak identifikatzearen emaitza nagusiak.*

| Eremu-mota | Udalerri-kopurua | | 2021eko biztanleria | | Azalera |
|---|---|---|---|---|---|
| **Arreta Bereziko Eremuak** | 61 | 24,3% | 30.134 | 1,4% | 29,0% |
| **Besteak** | 190 | 75,7% | 2.163.113 | 98,6% | 71,0% |

# 5.3.

## EAEko udalerrien sailkapena landa-eremuen arabera

Landa-eremuak eta ABEak identifikatzeko azterketak bateratzea ezinbestekoa da EAEko udalerrien sailkapenaren ikuspegi osoa lortzeko, landa-izaeraren arabera.

Sailkapen-maila honen identifikazioa beharrezkoa da, erakundearteko koordinazio-ekintzen izaeragatik eta plangintza estrategikoko hizkuntza estandarizatuagoa eta gainerako sailek erabiltzeko modukoa behar delako. Era horretan, bateratzeko aukera egongo da eta konparaziozko azterketak egin ahalko dira plangintza estrategikoko esparruekin, eta, hala, lurralde-kohesioan elkarrekin aurrera egiteko programa, politika eta jardueren garapena errazagoa izango da.

Horiek horrela, karakterizazioa honela banatu da:

1. **Arreta Bereziko Eremuak.** Kategoria honen baitan jarraitzen dute ABE-en azterketan lortu diren udalerri guztiek (61).

2. **Entitate guztiak landa-izaerakoak diren udalerriak.** Izenak dioen bezala, entitateen % 100 landa-entitatetzat jotzen diren udalerriak.

3. **Landa-habitat sakabanatuko udalerriak.** Kategoria honetan, landa-eremuak eta hiriguneak dauden udalerri guztiak daude

*4. irudia. . Udalerrien sailkapena, landa-eremuen arabera*



ABE gisa sailkaturiko 61 udalerrien zati handi bat (EAEko udalerri guztien % 24,3) Araban dago nagusiki.

Eta entitate guztiak landa-izaerakoak diren 99 udalerrietan (guztien % 39,4), EAEko biztanleriaren % 5,6 dago. Gehienbat, Bizkaiko kostaldean, erdialdean eta hegoaldean daude, Arabako iparraldean eta Gipuzkoako erdialdeko eta hegoaldeko eremu isolatuetan.

Azkenik, landa-habitat sakabanatuko udalerriek Gipuzkoako zati handi bat eta Bizkaiko zati bat hartzen dituzte, eta biztanleriaren % 93,0 dira. 91 udalerri dira, hirigunearekin inbrikazio-maila handiagoa dutenak.

*7. taula. EAEko landa-eremuen karakterizazioaren emaitza nagusiak.*

| Eremu-mota | Udalerri-kopurua | | 2021eko biztanleria | | Azalera |
|---|---|---|---|---|---|
| **Arreta Bereziko Eremuak** | 61 | 24,3% | 30.134 | 1,4% | 29,0% |
| **Entitate guztiak landa-izaerakoak diren udalerriak** | 99 | 39,4 | 123.903 | 5,6% | 33,9% |
| **Landa-habitat sakabanatuko udalerriak** | 91 | 36,3% | 2.039.210 | 93,0% | 37,1% |

# 5.4.

## EAEko landa-eremuen karakterizazioa garapen-arloen arabera

7/2022 Legeak xedatzen duen bezala, landa-eremuen karakterizazioa egin da EAEko landa-eremuen zaurgarritasun-mailak zehaztuz, garapen-arlo hauek oinarritzat hartuta:

- **Jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea.**
- **Bizi-kalitatea eta ongizatea.**

Arlo horiek 7/2022 Legean bertan jasota dauden helburu estrategikoetako birekin lotuta daude:

*8. taula. Landa-ingurunearen garapenaren 7/2022 Legearen helburu estrategikoak.*

| Garapen-arloa | Helburu estrategikoak |
|---|---|
| **Jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea** | Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria garatu dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezar daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz. |
| **Bizi-kalitatea eta ongizatea** | EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako. |

Ahalik eta karakterizaziorik zehatzena lortzeko, neurketarako lurralde-oinarria biztanle-entitateak izan dira. Hala ere, udalerriei buruzko balioak erabili behar izan dira zenbaitetan, datuak zailak zirenean edo daturik ez zegoenean.
Halaber, karakterizazioetan aldez aurretik egindako azterketak erabili dira:

- ABEak identifikatzeko, ABE udalerrien azterketa erabili da. Kasu honetan entitateekin lan egingo denez, ABE udalerri bat osatzen duten entitate guztiak ABEtzat joko dira, eta 1.zaurgarritasun-maila esleituko zaie (zaurgarritasun-mailarik handiena).
- Hiri-entitateak 3.1. atalean azaldutako metodologia erabiliz identifikatu dira eta halakotzat joko dira aurrerantzean ere. Hala, zaurgarritasun- maila dela eta, karakterizaziotik kanpo geratuko dira. Hori jakinda, horrelako entitateetan dauden landa-eremuak azterketa egiteko gehitu dira, landa-entitateen baliokidetzat hartuta. Landa-entitate bakoitzeko landa-eremuak elementu linealek bereizita (adibidez, ibaiak, bide-sareak, etab.) multzokatu dira, eta azalerei ikusmen-kontrastea egin zaie. Bestalde, hiri barneko eremu txikiak baztertu dira (parkeak, esate baterako), landa-inguruneari jarraitutasuna emateko. Eta, hiri-entitate baten parte direnez, zaurgarritasun-mailarik txikiena esleitu zaie: 4. KMa (ez-urbanizagarria).

Orduan, gainerako entitateak aztertuko dira, hau da, ABE gisa identifikatu ez direnak eta 2., 3. eta 4. zaurgarritasun-mailak izango dituztenak. Banaketa tertziletan oinarriturik finkatu da, zaurgarritasun-maila bakoitzeko (2., 3. eta 4. KMak) entitateen kopurua modu orekatuan banatuz.

## 5.4.1 Karakterizazioa, jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko arloan

Garapen-arlo hau 7/2022 Legean jasotako helburu estrategiko eta orokor hauekin lotuta dago:

*9. taula. Jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko arloaren helburu orokorrak.*

| Helburu estrategikoak | Helburu orokorrak |
|---|---|
| **Jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea EAEko landa-eremuetan, herrialdearen garapena jasangarria izaten eta eremu horietan biztanleak eta zerbitzuak ezartzen laguntzeko.** | Euskal landa-ingurunean ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzea; xede horrekin, **enpresa-dinamismo endogenoa indartzea** eta berrikuntzari lotutako ekintzailetza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren *(smart territory)* testuinguru digitaletan, baita **landa-eremuko balio-kate berriei** lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte. |
| | **Ekonomia dibertsifikatzea** eta **enpresak sortzea** euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten **nitxo ekonomikoetan:** turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak. |

Arlo honetako karakterizazioa egiteko, adierazle konposatu bat eraiki da, zenbait aldagai soziodemografiko eta ekonomiko biltzen dituena. Oro har, neurketa egiteko lurralde-oinarria biztanle-entitatea izan da, karakterizazioa ahalik eta zehatzena izateko. Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan, datuak lortzea zaila da eskala honetan, edo ez dago daturik, eta udalerri-mailako balioak erabili behar izan dira (esate baterako, nekazaritzako BEGd-a).

Gainera, zaurgarritasun-mailak neurtzeko orduan, entitatea dagoen udalerriaren tipologia aintzakotzat hartu da, haren izaerak udalerria osatzen duten entitateen garapen-maila baldintzatuko duelakoan, ezbairik gabe. Izan ere, udalerri handiago baten (edo garapen-maila handiagoa duen udalerri baten) barruan dagoen entitate baten errealitatea eta udalerri txikiago batean (kalteberagoa) dagoen entitate batena ez dira berdinak. Halatan, udal-biztanleriarekin zerikusia duen zuzentzaile bat aplikatu da.

Zehazki, entitateak katalogatzeko aldagai hauek darabiltzan adierazle konposatu bat finkatu da:

| Aldagaiak |
|---|
| Distantzia errepide nagusietaraino |
| Okupazio-tasa |
| Nekazaritzako Balio Erantsi Gordina |
| Zerbitzuen establezimendu-kopurua |
| Batez besteko malda |
| Heziketa-maila (lanbide-heziketa eta goi-mailako heziketa) |
| Udalerriko biztanleria |

***IKUSI 8.2. ERANSKINA KARAKTERIZAZIOA - 10. taula. Jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko arloan entitateak katalogaziorako aldagaiak.***

Adierazle horiek normalizatu eta gehitu ondoren, landa-entitateak sailkatu dira zerrenda herenetan banatuz eta zaurgarritasun-mailak esleituz:




*5. irudia. Entitateen karakterizazioa, jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko arloan.*

Taula honetan, aldagaiak aplikatuz lortu diren emaitzak laburbildu dira:

*11. taula. Karakterizazioaren emaitza nagusiak jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko arloan.*

| Eremu-mota | Entitate-kopurua | | 2021eko biztanleria | | Azalera |
|---|---|---|---|---|---|
| **Arreta Bereziko Eremuak, 1. KMa** | 323 | 23,3% | 30.134 | 1,4% | 29,0% |
| **2. KMa** | 317 | 22,9% | 24.297 | 1,1% | 22,1% |
| **3. KMa** | 316 | 22,9% | 62.072 | 2,8% | 21,5% |
| **4. KMa** | 317 | 22,9% | 144.563 | 6,6% | 19,7% |
| **Hiri-entitateak*** | 111 | 8,0% | 1.932.181 | 88,1% | 7,8% |
| **4. KMa, ez-urbanizagarria** | | | 10.211 | 0,5% | 3,8% |
| **Hirigunea** | | | 1.921.970 | 87,6% | 4,0% |

**111 hiri-entitateen artean, 82tan landa-eremua ere badago (4. KMa, ez-urbanizagarria)*

## 5.4.2 Karakterizazioa, bizi-kalitatearen eta ongizatearen arloan

Garapen-arlo hau 7/2022 Legean jasotako helburu estrategiko eta orokor hauekin lotuta dago:

*12. taula. Bizi-kalitatearen eta ongizatearen arloko helburu orokorrak.*

| Helburu estrategikoak | Helburu orokorrak |
|---|---|
| EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako. | Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. |
| | Landa-ingurunean **etxebizitzarako irispidea izatea**, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta. |
| | Landa-ingurunearen **natura-, kultura- eta identitate-ondare** materiala nahiz immateriala babestea. Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira. |
| | Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki **hezkuntzan eta osasunean**, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. |
| | **IKTak erabiltzea,** landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. |
| | **Berrikuntza** landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan. |

Aurreko arloan bezala, adierazle konposatu bat finkatu da entitateen karakterizazioa egiteko. Adierazle hori kalkulatzeko, aurreko arloaren kasuan nabarmendu diren ezaugarri berak erabili dira.

| Aldagaiak |
|---|
| Distantzia LHko ikastetxeetaraino |
| Distantzia 10.000 biztanletik gorako entitateetaraino |
| Elkarte-kopurua |
| Errenta pertsonala |
| Etxebizitza nagusia |
| Zerbitzuetan diharduten establezimenduen kopurua (txikizkakoak eta jatetxeak) |
| Batez besteko malda |
| Udalerriko biztanleria |

***IKUSI 8.2. ERANSKINA. KARAKTERIZAZIOA- 13. taula. Entitateen karakterizazioa egiteko aldagaiak, bizi-kalitatearen eta ongizatearen arloan.***

Adierazle horiekin, emaitza hauek lortzen dira:




*6. irudia. Karakterizazioa entitatearen arabera, bizi-kalitatearen eta ongizatearen arloan.*

Taula honetan, aldagaiak aplikatuz lortu diren emaitzak laburbildu dira:

*14. taula. Karakterizazioaren emaitza nagusiak, bizi-kalitatearen eta ongizatearen arloan.*

| Eremu-mota | Entitate-kopurua | | 2021eko biztanleria | | Azalera |
|---|---|---|---|---|---|
| **Arreta Bereziko Eremuak, 1. KMa** | 323 | 23,3% | 30.134 | 1,4% | 29,0% |
| **2. KMa** | 317 | 22,9% | 23.146 | 1,1% | 26,0% |
| **3. KMa** | 316 | 22,9% | 49.450 | 2,2% | 18,4% |
| **4. KMa** | 317 | 22,9% | 158.336 | 7,2% | 18,8% |
| **Hiri-entitateak*** | 111 | 8,0% | 1.932.181 | 88,1% | 7,8% |
| | | **4. KMa, ez-urbanizagarria** | 10.211 | 0,5% | 3,8% |
| | | **Hirigunea** | 1.921.970 | 87,6% | 4,0% |

**111 hiri-entitateen artean, 82tan landa-eremua ere badago (4. KMa, ez-urbanizagarria)*

# 06.
# JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO - ADIERAZLEAK









EAEko udalerriek beren landa-eremuetan oinarrituta izan duten bilakaera aztertu eta ebaluatzeko, Landa Garapeneko Legean ezarritako helburu estrategikoei lotutako adierazle batzuk hautatu dira

3 garapen-eremuren inguruan taldekatuta

aurkezten diren jarraipen-adierazleak:

- EAEko landa-espazioa sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak okupatutakoa eta mendi-eremuak, EAEko lurraldea egituratzen duen eta lurraldearen paisaia bereizgarriena osatzen duen funtsezko elementu gisa.
- Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz.
- EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.

24 funtsezko adierazle ezarri dira guztira. Adierazle horiei esker, eremu bakoitzaren ikuspegi orokorra eta xehatua izateaz gain, eremu horien bilakaera aztertu ahal izango da, lurraldean jarduteko plan eta programak aplikatzean oinarrituta.

| Adierazlea | Definizioa |
|---|---|
| **Landa-eremua zaintzea** | |
| **Nekazaritzako lurzoruen eta erabileren bilakaera** | Nekazaritzako SIGPAC erabileren azalera, Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko antolamendu-kategorien arabera banakatuta:<br>▪ Balio estrategiko handia<br>▪ Trantsizioko landa-paisaia<br>▪ Basogintza<br>▪ Baso barbana<br>▪ Larre menditarrak<br><br>“Parke Naturalak, Biotopoak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba”, gune horietako nekazaritza-erabileren bilakaera ikusteko. |
| **Nekazaritzakoak ez diren erabileren bilakaera nekazaritza-lurretan** | Nekazaritzakoak ez diren SIGPAC erabileren azalera, Nekazaritza eta Basogintzaren LAParen antolamendu-kategoria bakoitzaren barruan. |
| **Nekazaritza erabileren bilakaera lurzoru sailkatuetan** | Nekazaritzarako SIGPAC erabileren azalera, Udalplanaren arabera bizitegitarako, jarduera ekonomikoetarako eta sistema orokorretarako kalifikatutako lurzoruen barruan. |
| **Parke naturaletako mendi publikoetako abeltzaintza-etxola** | Parke naturaletako herri-larreek erabiltzen dituzten abelburuen kopurua (eta aldia, ahal bada), espezieka |
| **Parke naturaletan bazka daitekeen azalera** | NPB laguntzetan diruz lagundu daitezkeen larreen azalera.<br>Azalera osoari dagokionez, diruz lagundu daitekeen azalerak ez ditu barne hartzen gehiegizko malda dutenak, eraikinak edo beste ez-produktibo batzuk dituztenak, lurzoru biluzia edo harritsua dutenak, sastrakadi bazkaezinak dituztenak edo zuhaitzak dituztenak.<br>Lurzati bakoitzean diruz lagun daitekeen larre-azaleraren eta azalera osoaren arteko erlazioari Larreak Diruz Laguntzeko Koefizientea deitzen zaio. |
| **Nekazaritzako azalerak Natura-gune Babestuetan** | Lurzatien azalera, SIG-PAC erabileren arabera, Natura Ondarearen Gune Babestuetan (parke naturalak, erreserbak, paisaia babestuak, Urdaibai eta Natura 2000) guztiz edo partzialki kokatuta egonik, NPBko deklarazioetan sartzen direnak. |

| Adierazlea | Definizioa |
| --- | --- |
| **Nekazaritza ekologikora bideratutako lurzoruaren %** | Ekoizpen ekologikora bideratutako lurzoru-azaleraren ehunekoa, nekazaritza-azalera erabilgarriaren aldean. |
| **Ekologikoan inskribatutako abelburuen %** | Ekoizpen ekologikoan inskribatutako abelburuen ehunekoa, abelburu guztien aldean. |
| **Instalatutako potentzia, 10.000 biztanleko energia elektriko berriztagarriko eskala txikiko instalazioena (< 1MW).* 1** | Energia berriztagarrien LAParen arabera (< 1MW) eskala txikikotzat jotzen diren energia eolikoko, fotovoltaikoko eta hidraulikoko instalazio guztien potentzia instalatua, 10.000 biztanleko. |
| **Autokontsumorako instalazioetan instalatutako potentzia elektrikoa 10.000 biztanleko.* 2** | Autokontsumorako instalazioen potentzia instalatua, apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren arabera, 10.000 biztanleko energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena. |
| **Jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea** | |
| **Okupazio-tasa (osoa eta sexuaren araberakoa)** | Okupatuta daudenen proportzioa, lan egiteko adinean dagoen biztanleria osoarekiko. |
| **Per capita BPGa** | Udalerriaren Barne Produktu Gordin osoa zati biztanle-kopuru osoa. |
| **BEGd-a sektorearen arabera (%-a eta balio absolutua)** | Proportzio honek adierazten du zenbatekoa den nekazaritzako Balio Erantsi Gordina (arrantza alde batera utzita), entitateari dagokion udalerriko Balio Erantsi Gordin osoaren aldean.<br>Nekazaritzako BEGd-an, ekoizpen-sektoreko BEGd-a soilik sartzen da, balio-katearen gainerakoa kontuan izan gabe. |
| **Afiliatu-kopurua sektorearen arabera (%-a eta balio absolutua)** | Biztanleen artean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian zenbat afiliatu dauden zenbatzen da sektore bakoitzean, afiliatua zer udalerritan bizi den kontuan hartuta. |
| **Heziketa-maila (lanbide-heziketa eta goi-mailako heziketa, %-a)** | Goi-mailako ikasketak edo lanbide-heziketako ikasketak dituzten biztanleen proportzioa. |
| **Biztanleriaren bizi-kalitatea eta ongizatea** | |
| **Udalerriko biztanleria** | Bizitokia erreferentziako lurraldean duten pertsona guztiek osatzen dute biztanleria; alegia, EAEko udalerriren batean erroldatuta daudenek erreferentziako urteko abenduaren 31n, bertan egon edo ez egon. |
| **Maskulinitate-tasa** | Gizon-kopurua 100 emakumeko. |
| **Zahartze-indizea** | 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa udalerrian. |
| **Biztanleriaren hamar urteko bilakaera** | Biztanleriaren aldaketa 2011tik 2021era bitarte, ehunekotan. |
| **Banda zabala (%)** | Telefonia mugikorreko sareetan Interneterako konexio mugikorra duten atarien ehunekoa, telefono mugikor bat, modem eramangarri bat, tableta bat edo beste gailu bat erabilita. |
| **Etxebizitza nagusia (%)** | Entitate aztergaiko etxebizitzen artean, gutxienez pertsona bat erroldatuta dagoen etxebizitzen proportzioa. |
| **Zerbitzuetan diharduten establezimenduen kopurua (txikizkako saltokiak eta jatetxeak)** | Txikizkako saltoki eta jatetxea gisa katalogatutako (CNAEko 47 eta 56 kodeak) zerbitzuetan diharduten establezimenduen kopurua, dagokion entitatean. |
| **Errenta pertsonala (osoa eta sexuaren araberakoa)** | 18 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzaren eransketa, lanaren errentek, jarduera ekonomikoen ondoriozko errentek, transferentziek edo prestazio sozialek eta kapital higigarri eta higiezinagatik jasotako transferentziek osatzen dutena. |
| **Mugikortasunaren adierazlea** | [4] Ministerioak justifikatzea falta da. |

*IKUS 8.3 ERANSKINAK - 6. ATALA - DR LEGEAREN ADIERAZLEAK*

# 07.
# DIAGNOSIA ETA GOMENDIOAK, BERMERAKO LANDA MEKANISMOA LANDA-GARAPENEKO 7/2022 LEGEAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERA APLIKATZEKO





# Sarrera

Landa-garapenak, landa-ingurunearen garapen jasangarria, adimentsua eta integratzailea lortu nahi duen heinean, askotariko gaiak biltzen ditu, eta inplikatutako lurralde-eremu eta eremu funtzional guztietan zeharkako neurriak eta politikak ezartzeko beharra dakar.

Lurralde-garapeneko programek landa-ingurunearen lurralde-garapenerako ekintza politiko instituzionalaren eta sektore anitzekoaren ibilbide-orri gisa jardungo dute, baina bakoitzaren jardun-eremu geografikoari eragiten dioten lurralde-antolamenduko tresnak errespetatu beharko dituzte.

Ildo horretan, lurralde-garapeneko programek zehazten diren garapen-eremu bakoitzerako landa-eremuen diagnostikoa ezarri beharrari erantzuten diote, legean eremu horiei lotuta ezarritako helburu orokorrei dagokienez, eta argi eta garbi adierazi behar dituzte helburu sektorialak, jarduera-ardatzak eta horien garapenean inplikatutako eragile instituzionalak.

Bere bultzada politikoa ardazte aldera eta izapidetze administratiboko prozesuan ekonomizatze aldera, egokitzat jo da beste sail batzuen plangintza estrategikoko politiken azterketa guztia eta ondorengo landa ingurunerako hobekuntza proposamenak Lurralde Garapeneko Programa bakar batean egituratzea. Programa hori, funtsean, hiru azterketa eremutan egituratuko da, Landa Garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legean ezarritako helburu estrategikoekin bat datozenak:

1. Euskal landa-eremua sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak eta mendi-eremuek hartzen dutena, EAEko lurraldea egituratzen duen eta bertako paisaia adierazgarriena eratzen duen funtsezko elementu gisa.

2. Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, horrela herrialdearen ekonomia jasangarria garatzen eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak finkatzen lagun dadin, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz.

3. EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.

# 7.1. NEKAZARITZA, BASOGINTZA ETA AZPIEGITURA BERDEEN LURRALDE PLAN SECTORIALA (LPS)

Euskal landa-eremua, bereziki nekazaritza-jarduerak eta mendi-eremuek hartzen dutena, sustatzeko eta zaintzeko lehen helburu estrategiko horri lotutako helburu orokorrak eta sektorialak kontuan hartuta, azpimarratu behar da lurralde-antolamenduko tresnak arduratzen direla batez ere horietaz. Tresna horien artean, bereziki nabarmentzen dira Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala eta natura-ondarea kontserbatu eta lehengoratzekoak, azken hauen artean azpimarratzekoak izanik Parke Naturalen eta Erreserba Naturalen Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak eta Urdaibaiko Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana.

Uste da nekazaritza-administrazioek planteatutako eta, kasu batzuetan, abian diren tresna horien berrikuspen kritikorako eta egokitzapenerako prozesuak egokiak izango liratekeela, eta Landa Ingurunearen Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legean ezarritako “rural proofing” eskakizunei erantzungo lieketela.

Landa Garapenerako Eskualde Programetan berariaz kontuan hartzeko eta garatzeko, hiru jarduera-ardatz espezifiko identifikatu dira (ikusi taula).

| | | |
|---|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **a) Euskal landa-eremua sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak eta mendi-eremuek hartzen dutena, EAEko lurraldea egituratzen duen eta bertako paisaia adierazgarriena eratzen duen funtsezko elementu gisa.** | |
| **OBJETIVO GENERAL** | **A3HO.** Natura-ondarea eta paisaia zaintzea ikuspegi integral batetik, honako hauek uztartuta: ingurumena babesteko, kontserbatzeko eta lehengoratzeko araudiak betetzea eta baliabideen aprobetxamendu jasangarria, garapen sozioekonomikoa eta gizarteak natura-guneez gozatzea, bertan bizi diren pertsonen bizimodua eta jarduerak errespetatuz, betiere. | |
| **MATERIA** | **Natura-ondarea eta ingurumena zaintzea** | |
| **OBJETIVOS SECTORIALES** | | **Ardatzak** |
| | **C1HS.** Ekosistemak eta haien zerbitzuak mantentzen eta lehengoratzen laguntzea, bereziki Natura 2000 Sareko espazioak eta habitatak, bai eta abian jartzen diren ekintza-planetan katalogatutako paisaiak ere, kudeaketa-planak eta -tresnak eta basoko jarduera eta jarduera ekonomiko tradizionalak mantentzea bateragarri eginez, eta espazio horiek zaintzearekin eta euskal herritarrek horietaz gozatzearekin bateragarriak diren jarduera ekonomiko berriak garatzea.<br>**C2HS.** Naturagune babestuek –Natura 2000 Sareak, bereziki– landa-eremuetako jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko eta sustatzeko sortzen dituzten aukerak eta kanpo-eraginak aprobetxatzea.<br>**C3HS.** Euskadi 2030 Biodibertsitate Estrategiaren eta Europar Batasuneko 2030 Biodibertsitate Estrategiaren garapena laguntzea.<br>**C4HS.** Ingurumena babesten laguntzea, narriadurari aurrea hartuz eta kaltetua izan den lekuetan lehengoratzen lagunduz, uraren, lurzoru emankorraren, biomasaren, biodibertsitatearen eta paisaiaren kudeaketa jasangarriaren bidez, giza jardueren eta lurraldearen kontserbazioaren arteko oreka bilatuz.<br>**C5HS.** Klima-aldaketaren arloan EAEren helburuak Europar Batasunaren klima-helburuekin lerrokatzea.<br>**C6HS.** Neurri jasangarriak sustatzea, nekazaritza- eta basogintza-jardueraren ondoriozko zerbitzu ekosistemikoak eta beste ingurumen kanpo-eragin positibo batzuk sustatzen laguntzeko, eta haien onarpen soziala errazteko. | **1.** Azpiegitura berdea eta natura-ondarearen gune babestuak<br>**2.** Natura-ondarea zaintzea eta balioa ematea.<br>**3.** Nekazaritza-lurzorua eta landa-habitata babestea, mantentzea eta lehengoratzea |

## Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (LPS)

Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak (LAG) erreferentziazko esparru orokorra dira espazioen eta lurraldearen antolamenduari eta erabilerari dagokienez, administrazio publikoen politika sektorialak formulatzeko eta gauzatzeko.

Indarrean dauden LAGek (2019) landa-habitataren arloko helburuen artean ezartzen dute nekazaritza-lurzorua babestea –bereziki balio estrategiko handikoa– landa-eremua zaintzeko, egungo nekazaritza-lurzorua babesteko eta gutxiegi erabilitako azalerak aktibatzeko ingurune fisikoaren kudeaketa-tresna gisa.

Eta jarraibideen artean zehazten dute zaintza hori, nekazaritza ustiategien jarraitutasuna ziurtatzea, nekazaritza-jardueratik abiatuta baserriak mantentzea, etab.

Elementu horietatik abiatuta, LAGek zuhurtasun batzuk jasotzen ditu lurzoruak okupatzeko prozesuen aurrean (hiri-hazkundeko perimetroak mugatzea, lurzoru urbanizagarriko eremu zaharkituak berrikustea, gaitasun agrologikoko faktoreak azpiegiturak kokatzeko irizpidetzat hartzea...).

Era berean, LAGek eskatzen dute lurraldea antolatzeko tresnek (LPP eta LPS) landaguneak eta naturaguneak hobetzeko ekintza positiboko programak eta neurriak sartzea, lortu beharreko helburu zehatzak, beharrezko neurri guztiak, horiek aplikatzeko eta finantzatzeko erantzukizunak eta gauzatzeko epeak definitzeko, 7/2022 Legean aurreikusitako Lurralde Garapeneko Planen figurarekin bat etorriz.

Era berean, aipatzekoa da Nekazaritza eta Basogintzako LPSak honako helburu hauek dituela:

- Nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, eta, bereziki, balio agrologiko handiko lurzorua.
- Gaur egungo landa-panorama zehaztea: nekazaritza-jarduerak, ustiategi produktiboenak, uzte-arrisku handiena dutenak... non dauden jakitea erraztea.
- Plangintza landa-irizpideetatik planteatuko duen lurralde-antolamendua sustatzea (ERRONKAK: ... Landa-eragileak eta -herriak antolamendu- eta babes-politiken barruan inplikatzea, landa-eremuak esparru sozioekonomikoaren ikuspegian duen zeregina berriz definitzea: erabilera publikoa, bizi-kalitatea...).

Landa-ingurunearen garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legeak zehazten du landa eremuen karakterizazioak kontuan hartuko duela Legearen beraren helburuekin lotutako garapen-eremuak ezartzea, eta ezartzen du landa eremuen garapen sozioekonomikora bideratutako politikek, helburu orokorrek, helburu sektorialek eta jarduera ardatzek lurralde-garapen programen forma hartuko dutela, ezartzen den garapen-eremu bakoitzerako bat landuz.

Ildo horretan, Legeak helburu estrategikotzat jotzen du EAEko landa-eremua sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak eta mendi-eremuek hartzen dutena, EAEko lurraldea egituratzen duen funtsezko elementu gisa. Era berean, eremu horretako helburu orokor gisa ezartzen du euskal landa-eremuaren lurralde-antolamendu egokia –betiere, lurralde-garapen iraunkorreko metodo baten arabera–, indarrean dauden lurralde-antolamenduko tresnekin bat etorriz.

EAEren eremuan, ezin zaio ekin euskal landa-eremuaren lurralde-antolamendu egokiaren helburu orokor hori lortzeari, kontuan hartu gabe erreferentziazko arau-esparru zabal bat dagoela lurralde-antolamenduaren arloan zein nekazaritza-lurzoruaren erregulazio eta babesaren arloan, Legeak berak gogorarazten duen bezala, indarrean dauden antolamendu-tresnekin bat etorriz jarduteko eskatzen baitu.

Horrela, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, II. tituluan, nekazaritza-lurzoruaren erregulazio espezifikoa jasotzen du, euskal landa-eremua egituratzen duen elementutzat hartuta, eta aitortzen du nekazaritza-ustiategien lurralde-funtzioen artean dagoela lurralde-oreka babestea eta landa-guneetako sare sozioekonomikoa zaintzea, eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plana Sektoriala (Nekazaritza eta Basogintzako LPSa) ezartzen du erreferentzia-esparru gisa nekazaritza-lurzoruari buruzko alderdiak arautzeko eta landa-eremu hori antolatzeko.

Nekazaritza eta Basogintzako LPSa euskal landa-eremua antolatzeko erreferentzia-esparrutzat hartzea lurraldea antolatzeko tresna gisa duen izaeran oinarrituta egituratzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak ezartzen duenez, lurralde-antolamendua honako tresna hauen bidez egingo da:

- Lurralde Antolamendurako Gidalerroak (LAG)
- Lurralde-Plan Partzialak (LPP)
- Lurralde Plan Sektorialak (LPS)

2019an Lurraldearen Antolamendurako Gidalerro (LAG) berriak behin betiko onartu ondoren, eta gaur egun indarrean dagoen Nekazaritza eta Basogintzako LPSarekin zentzuzko denbora-tarte bat igaro ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta Nekazaritza Administrazioaren artean (Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Nekazaritzako eskumena duten Foru-sailekin batera) adostu zen Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren funtzionamenduaren ebaluazio espezifiko bat egitea –hura indarrean jarri zenetik aurrerakoa–, LPSaren araudia aplikatzean zalantzak sortzen dituzten alderdiak ebaluatzeko. Haren inguruko zenbait aldaketa-proposamen ere landu dituzte (ikus eranskina).

Nekazaritza eta Basogintzako LPSa betetzearen balorazio-prozesu hau aktibatzeak eta berrikuspen kritikoak, baita ondorengo aldaketa prozedurak ere, zentzu berezia hartzen dute, eta hala badagokio, babesa jasotzen dute Lurralde Garapenerako Programa honen babesean, Landa-ingurunearen garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legearen esparruan.

## Azpiegitura berdea eta natura-ondarearen gune babestuak.

Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroek azpiegitura berdea ezartzen dute, eta honako hauek osatzen dute:

**A.** Beren ingurumen-balioengatik babestutako guneak.

**B.** Korridore ekologikoen sarea.

**C.** Ibilguak eta haien eremuak, azaleko urak babesteko kategoria dutenak, RAMSAR hezeguneak eta Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak inbentariatutako ur-masa guztiak.

**D.** Funtzio anitzeko beste espazio batzuk.

Azpiegitura berdea eskala desberdinetan definitu behar da, erregulazio egokia barne. Lurralde-plan partzialak EAE mailako eta eremu funtzionalen mailako eskalaz arduratzen dira, eta hirigintza-plangintza, aldiz, tokiko eskalaz.

NOGBei dagokienez, bai Natura Ondareari buruzko araudiak, bai Lurralde Antolamenduari buruzkoak, lehenengoaren lehentasuna ezartzen dute bigarrenaren aldean. Horren ondorioz, lurralde-antolamenduko tresna guztiek, Nekazaritza eta Basogintzako LPSa barne, bere eremutik kanpo uzten dute edo NOGBen berezko tresnen plangintza eta antolamendua osatzen dute.

Horiek Natura Baliabideak Antolatzeko Planen bidez egiten dira. Plan horiek espazio jakin bateko naturagune babestuak osatzen dituzten elementuak planifikatzeko tresna espezifikoak dira, eta horiek mugatu, tipifikatu, sarean integratu eta lurraldearen gainerakoarekin duten harremana zehazten dute.

NBAPak nahitaezkoak dira parke naturaletarako, erreserba naturaletarako eta paisaia babestuetarako, eta Eusko Jaurlaritzak egin eta onartzen ditu. Leku berean naturagune babestuen kategoria bat baino gehiago gainjartzen badira eta horietako baterako plangintza-tresna NBAP bat balitz, kategoria horien plangintzak eta araudiak NBAParen bidez koordinatu behar dira.

Euskadiko parke natural guztiak eta erreserba natural gehienak Natura 2000 Gune gisa onartu dira. Beraz, bi figura horien plangintza-tresnak NBAP batean koordinatu behar dira. Orain arte, Valderejoko eta Izkiko NBAPen kasuan baino ez da burutu prozesu hori.

Urdaibaiko Biosferaren Erreserbak berezko araubide juridikoa du, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legetik eratorria, eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean gauzatzen da. Eusko Jaurlaritzak egin eta onartzen du, eta haren aplikazio-eremua 5/1989 Legea indarrean sartzean lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta zeuden lurrak dira. NBAPei bezala, lurralde-plangintzaren gaineko nagusitasuna aitortzen zaie.

Europako Batzordearen arabera, Azpiegitura Berdea estrategikoki planifikatutako naturaguneen eta erdi-naturaguneen sarea da, bai eta onura ekologiko, ekonomiko eta sozial ugari eskaintzeko diseinatu eta kudeatutako beste ingurumen-elementu batzuen sarea ere. Naturagune babestuek, baina batez ere parke naturalek eta biosfera-erreserbek (nagusiki landa-eremuetan kokatuak) ingurumenaren eta garapen sozioekonomikoaren arloko helburuei erantzuten diete. Biodibertsitatea babesteko figura espezifikoagoen kasuan ere, hala nola Natura 2000 sarearen kasuan, helburuak lortzeko hartzen diren neurriek gizarte-, ekonomia- eta toki-premiak kontuan hartzeko betebeharra dute.

Beraz, alderdi sozial eta ekonomikoek arreta berezia jaso behar dute azpiegitura berdea osatzen duten espazioen plangintza-tresnetan, haien onurak maximizatu ahal izateko eta landa-garapenaren hiru helburu estrategikoak lortu ahal izateko.


6
Euskal Baserria Arrautza
Landako oiloen arrautzak
Huevos de gallinas camperas

# 7.2.

## EKONOMIA SUSTATZEA ETA DIBERTSIFIKATZEA

Landa-garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Lege berriari lotutako Ekonomia Sustatzeko eta Dibertsifikatzeko berme-mekanismo landatarra aplikatzeko diagnostikoa eta gomendioak.

Eskema honetan jasotzen den bezala, Landa Garapeneko 7/2022 Legeak Sustapen eta Dibertsifikazio Ekonomikoaren arloan bete behar diren Helburu Estrategikoak, Helburu Orokorrak eta Helburu Sektorialak jasotzen ditu.

Horietan oinarrituta, eta dokumentu honen edukiak egituratu eta antolatzeko helburuarekin, Legean jasotako helburuak benetan betetzea lortzeko landu beharreko arloak, ardatzak eta sektorekako jarduera-azpi-ardatzak identifikatu dira.

# EDUKIEN EGITURA


| | | |
|---|---|---|
| 7.2.1 | EKONOMIA SUSTATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO EREMUA AZTERTZEKO DOKUMENTUAREN EGITURA | Pág. 51 |
| 7.2.2 | HELBURU ESTRATEGIKOAK, HELBURU OROKORRAK, ARLOAK, HELBURU SEKTORIALAK ETA ZEIN ARDATZI LAGUNTZEN DIEN EKONOMIA SUSTATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO DIAGNOSTIKOA | Pág. 53 |
| 7.2.3 | ERAGILE NAGUSIAK | Pág. 60 |
| 7.2.4 | AMIA (OROKORRA)) | Pág. 61 |
| 7.2.5 | JARDUTEKO ARDATEN ETA AZPIARDATEN ESKEMA | Pág. 65 |
| 7.2.6 | 1. ARDATZA. EKINTZAILETZA | Pág. 66 |
| 7.2.7 | 2. ARDATZA. LEHIAKORTASUNA | Pág. 75 |
| 7.2.8 | 3. ARDATZA. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA | Pág. 81 |
| 7.2.9 | 4. ARDATZA. LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK | Pág. 87 |

# *7.2.1* EKONOMIA SUSTATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO EREMUA AZTERTZEKO DOKUMENTUAREN EGITURA

**HELBURU ESTRATEGIKOA**

**HELBURU OROKORRAK**
*(5)*

**HELBURU SEKTORIALAK**
*(31-32)*

| **ARLOAK** *(6)* |
|---|
| Landa-inguruneko ehun ekonomikoaren dibertsifikazio eta enplegu-sorrera |
| Nekazaritza, Basogintza eta Elikadura |
| IKTaks |
| Berrikuntza |
| Hezkuntza, Kirola eta Kultura |
| Landaguneetako eta landa-entitateetako oinarrizko azpiegiturak |

| **ARDATZAK** *(4)* | **AZPI-ARDATZAK** |
|---|---|
| Ekintzailetza | 5 |
| Lehiakortasuna | 5 |
| Enplegua eta prestakuntza | 4 |
| Lehentasu-nezko sekto-reak | 5 |

Horrela, Legeak 7 Helburu Orokor (HO)[5] identifikatzen ditu, eta horiek beste hainbeste arlori lotuta daude:

| | | |
|---|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz** | |
| **HELBURU OROKORRAK** | | **ARLOAK** |
| | **B1HO.** Euskal landa-ingurunean ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzea; xede horrekin, enpresa-dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzailetza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digitaletan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte | Landa-inguruneko ehun ekonomikoaren dibertsifikazio eta enplegu-sorrera |
| | **B2HO.** Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hauda, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak | Nekazaritza, Basogintza eta Elikadura |
| | **A3HO.** Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna, euskal landagunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun- eta enplegu-iturria eta euskal gizartearentzako oinarrizko ondasunen hornitzailea delako, lurraldearekiko errespetua duen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduen alde eginez. | |
| | **C2HO.** IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. | IKTak |
| | **C5HO.** Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan. | Berrikuntza |
| | | Hezkuntza, Kirola eta Kultura |
| | | Landaguneetako eta landa-entitateetako oinarrizko azpiegiturak |

5 Helburu orokorren izendapenak eta kodifikazioak helburu horien trazabilitate hobea ahalbidetzen dute

# 7.2.2 HELBURU ESTRATEGIKOAK, HELBURU OROKORRAK, ARLOAK, HELBURU SEKTORIALAK ETA ZEIN ARDATZI LAGUNTZEN DIEN EKONOMIA SUSTATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO DIAGNOSTIKOA

| | | |
|---|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz** | |
| **HELBURU OROKORRAK** | **B1HO.** Euskal landa-ingurunean ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzea; xede horrekin, enpresa-dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzailetza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digitaletan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte | |
| **ARLOAK** | **Landa-inguruneko ehun ekonomikoaren dibertsifikazio eta enplegu-sorrera** | |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | | **ARDATZAK** |
| | **D1HS. Kalitatezko enplegu egonkorra sortzen** sustatzea eta laguntzea, landa-eremuetako biztanleek aukera berdinak izan ditzaten. Horretarako, arreta berezia jarriko da **emakumeentzako, gazteentzako eta enplegua lortzeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuentzako** programa espezifikoen garapenean. | Enplegua eta prestakuntza |
| | **D2HS. Ekintzailetzari eta landa-ingurunean eragina duten enpresen sorrerari laguntzen dioten funts, programa eta jarduketa instituzionalak koordinatzea,** kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko eta mantentzeko. | Ekintzailetza<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **D3HS. Lanaren antolaketarako eredu berriak** garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horien garapenaren bidez, **kalitatezko enplegua** lortzeko **eta belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoek, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0 abeltzaintzak eskaintzen dituzten aukerak** aprobetxatuko dira. | Ekintzailetza<br>Lehiakortasuna<br>Enplegua eta prestakuntza |
| | **D4HS.** Euskal landa-ingurunean **enpresa txiki eta ertainak eta mikroenpresak atzitzeko eta egonkortzeko tresnak eta ekipamenduak** bideratzea; horretarako **oinarrizko zerbitzuak** txertatzea, hala nola finantza-, aseguru-, aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak, enpresa-bilbeari testuinguru trinkoa eta fidagarria ziurtatzeko eta, hala, testuinguru horretatik abiatuta lan egiteko. | Ekintzailetza<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **D5HS.** Landa-ingurunean **guneak gaitu eta dinamizatzea,** gune fisiko nahiz birtualak, non **ekintzaileek** beren ekintzailetza-prozesua garatu ahalko duten, **arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana** sustatuz eta gune horien sareko kudeaketa bultzatuz. | Ekintzailetza<br>Lehentasunezko sektoreak |

| ARLOAK | Landa-inguruneko ehun ekonomikoaren dibertsifikazio eta enplegu-sorrera | |
|---|---|---|
| HELBURU SEKTORIALAK | **D6HS. Landa-turismo jasangarria** sustatzea, bai eta **jarduera horri lotutako jarduera ekonomikoak ere, hala nola, gastronomia, merkataritza, tokiko merkatuei lotutako ekipamenduen modernizazioa, nekazaritza-turismoak, kanpinak, landetxeak eta ostatu-eskaintzako beste modalitate batzuk.** Horretarako, landako ostatu-establezimenduen garapena bultzatuko da, masifikazioa saihesteko eta jarduera tradizionalak eta natura-ingurunea errespetatzeko helburuarekin. | Ekintzailetza<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **D7HS. Ekosistemak eta ekosistemen zerbitzuak iraunarazteari eta leheneratzeari lotutako jarduera ekonomiko jasangarriak bultzatzea, eta biztanleriaren osasuna eta ongizatea** hobetzen laguntzen dutenak ere bai. | Ekintzailetza<br>Lehiakortasuna<br>Enplegua eta prestakuntza |
| | **D8HS. Prestakuntza-programak** garatzea, **ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzeko eta** landa-ingurunean **enpresa-dinamismoa indartzeko** | Ekintzailetza<br>Lehiakortasuna<br>Enplegua eta prestakuntza<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **D9HS. Emakumeen presentzia** handiagoa sustatzea landa-inguruneko **enpresa, kooperatiba, elkarte eta,** oro har, erakundeen erabaki-organoetan, ingurune horretan emakumearen **ahalduntzea** indartzeko. | Ekintzailetza<br>Enplegua eta prestakuntza |
| | **D10HS.** Landa-ingurunean **lehen mailako jarduera dibertsifikatzen eta jarduera berriak garatzen** laguntzea. | Ekintzailetza<br>Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **D11HS.** Landa-ingurunean lehendik dauden jarduerak indartzea, horien modernizazioa bultzatzea eta jarduera berriak ezartzea ahalbidetuko duen **politika fiskala** garatzea. | Ekintzailetza<br>Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |

| | | |
|---|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz** | |
| **HELBURU OROKORRA** | **B2HO.** Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak<br><br>**A2HO.** Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna, euskal landagunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun- eta enplegu-iturria eta euskal gizartearentzako oinarrizko ondasunen hornitzailea delako, lurraldearekiko errespetua duen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduen alde eginez | |
| **ARLOAK** | **Nekazaritza, Basogintza eta Elikadura** | |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | | **ARDATZAK** |
| | **B1HS. Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna handitzea,** eta horretarako produktuen berezitasunerako pizgarriak ematea kalitatean, ingurumen-jasangarritasunean eta elikadura-segurtasunean oinarrituta; ekoizpen naturala eta ekologikoa sustatzea; sektorea egituratzen laguntzea asoziazionismoaren eta kooperatibismoaren bidez, eta merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak optimizatzeko, arreta berezia eskainita garapen endogenoko jarduketei eta merkaturik hurbilenetan egin beharreko sustapenari. Lehentasunezko arreta eskainiko zaie familia-ustiategiei, bereziki horien titularra emakumea edo nekazari gaztea denean | Ekintzailetza,<br>Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **B2HS.** Baso-kudeaketa jasangarria eta orekatua bultzatzea, baso autoktonoak eta jarduera tradizionalaren osagarri izango diren aukera-nitxo berriak sustatuz eta enplegu egonkorrak, seguruak eta kalitatezkoak sortuz eta mantenduz, horretarako bitartekoak ezarrita. | Lehiakortasuna<br>Enplegua eta prestakuntza<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **B3HS.** Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Planarekin koordinatuta, nekazaritzako elikagaien industriaren garapena indartzea, bereziki lehen sektorearen eragile den horren garapena, eta elikaduraren balio-katean integrazio bertikala egiteko prozesuak ere bai; horren haritik, balio-kate horretan garrantzi handiagoa emango zaie ekoizleei, gastronomia-ondarea errebalorizatzeko eta balio erantsi handiagoa sortzeko bitartekoak baitira. | Ekintzailetza,<br>Lehiakortasuna<br>Enplegua eta prestakuntza<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **B4HS. Nekazari-errentari eusten laguntzea,** Nekazaritza Politika Bateratuaren finantza-baliabideak optimizatuz eta behar bezala kudeatuz. | Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **B5HS. Belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea sektorean, familia-nekazaritzarekin batera, eta emakumezko nekazariei protagonismo handiagoa ematea,** Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean xedatutakoarekin bat. | Ekintzailetza,<br>Lehentasunezko sektoreak |

| ARLOAK | Nekazaritza, Basogintza eta Elikadura | |
|---|---|---|
| HELBURU SEKTORIALAK | **B6HS. Erraztea eta ikuskatzea lehen sektoreak ekoizpen-kostuak baino prezio handiagoak jasotzen dituela bere produktuen truke,** horrela ezartzen baitute Estatuko araudiak (Elikadura Katearen Legea) eta Europakoak, sektore bideragarri eta lehiakorrari eusteko helburuarekin. | Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **B7HS. Euskal nekazaritza-ekologiako ondarea mantentzea eta bultzatzea.** | Lehentasunezko sektoreak |
| | **B8HS. Lehen sektoreko produktuak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea sustatzea,** banaketa- eta merkaturatze-kanalak sustatuz. | Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **B9HS. Europar Batasunaren Baserritik Mahaira estrategia babestea eta hori garatzen laguntzea.** | Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **B10HS. Kontratazio publiko arduratsuko baldintza-agiriak sustatzea,** gizarte- eta ingurumen-irizpideak lehenesteko helburuarekin | Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak |

<table>
<tr><td>HELBURU ESTRATEGIKOA</td><td colspan="2">Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz</td></tr>
<tr><td>HELBURU OROKORRA</td><td colspan="2">C2HO. IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik</td></tr>
<tr><td>ARLOAK</td><td colspan="2">IKTak</td></tr>
<tr><td rowspan="4">HELBURU SEKTORIALAK</td><td></td><td>ARLOAK</td></tr>
<tr><td>I1HS. Telekomunikazio-azpiegituren hedapena bultzatzea eta horretarako bidea ematea, modu berean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta bereziki azken teknologiako banda zabala hedatzea, landa-eremuko eragileek globalizazioan sartzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten, hala saihestuko baita hiriko lurraldearen eta landa-eremuko lurraldearen arteko arrakala digitala.</td><td>Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak</td></tr>
<tr><td>I2HS. Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema berriak ikertu eta bultzatzea, IKTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez.</td><td>Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak</td></tr>
<tr><td>I3HS. Gastronomia eta elikaduraren balio-katearen digitalizazio integrala sustatzea, lurralde adimendunaren euskal estrategiarekin bat etorriz.</td><td>Lehiakortasuna<br>Lehentasunezko sektoreak</td></tr>
</table>

| | | |
|---|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz** | |
| **HELBURU OROKORRA** | **C5HO.** Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan. | |
| **ARLOAK** | **Berrikuntza** | |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | | **ARDATZAK** |
| | **J1HS.** Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetza bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharrizanak bete ditzaten. | Lehiakortasuna<br><br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **J2HS. Gaikuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartzea,** landa-inguruneko eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dezaten eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboa eduki dezaten. Horrekin batera, prestakuntza hori euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuko da. | Enplegua eta prestakuntza<br><br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **J3HS. Ezagutzaren sozializazioa sustatzea, akademiaren, ikerketaren eta aholkularitzaren esparruetatik nekazaritza-elikaduraren sektorera transferitzen dela ziurtatuz, baita esparru akademikoari nekazaritza-sektorearen behar zehatzak helaraztea** ere. Horrez gain, ezagutzaren trukea erraztea azken erabiltzaileen eta elikaduraren balio-kateko mailen artean. | Lehiakortasuna<br><br>Lehentasunezko sektoreak |
| | **J5HS. Talentua landa-eremuetara erakartzeko bide egokiak prestatzea,** ekintzailetza bultzatuz eta enpresa berritzaileei inguru horietan kokatzeko erraztasunak emanez. | Ekintzailetza<br><br>Enplegua eta prestakuntza<br><br>Lehentasunezko sektoreak |

<table>
<tr><td>HELBURU ESTRATEGIKOA</td><td colspan="2">Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz</td></tr>
<tr><td>HELBURU OROKORRA</td><td colspan="2"></td></tr>
<tr><td>ARLOAK</td><td colspan="2">Hezkuntza, Kirola eta Kultura</td></tr>
<tr><td rowspan="2">HELBURU SEKTORIALAK</td><td></td><td>ARDATZAK</td></tr>
<tr><td>G3HS. Landa-eremuetako biztanleen unibertsitateko, lanbideko eta lanerako prestakuntza sustatzea, biztanle horien beharrizan zehatzei egokitutako prestakuntza garatuz</td><td>Enplegua eta prestakuntza<br><br>Lehentasunezko sektoreak</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>HELBURU ESTRATEGIKOA</td><td colspan="2">Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz</td></tr>
<tr><td>HELBURU OROKORRA</td><td colspan="2"></td></tr>
<tr><td>ARLOAK</td><td colspan="2">Landaguneetako eta landa-entitateetako oinarrizko azpiegiturak</td></tr>
<tr><td rowspan="3">HELBURU SEKTORIALAK</td><td></td><td>ARDATZAK</td></tr>
<tr><td>E1HS. Energia berriztagarri eta jasangarriei lotutako azpiegituren garapena indartzea, bereziki baso-biomasa erabiltzen duten azpiegiturena, helburu hirukoitz batekin: Euskadiren energia-nahikotasuna handituko duten energia-forma garbiak sortzea; ekonomiaren garapenerako nitxo berriak inplementatzea, eta baso-azalera handien kudeaketa ziurtatzea, hala arrisku naturalak saihestuz eta lurraldearen iraunarazpenean lagunduz, eta iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea, bai landa-guneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan.</td><td>Lehentasunezko sektoreak</td></tr>
<tr><td>E5HS. Lantegiak, eraldaketa-zentro txikiak, hiltegiak eta antzeko azpiegiturak sustatzea, ekoizpen-eredu jasangarriagoak bultzatzeko, etorkizunean elikadura-autosufizientzia handitzeko eta 0 km-ko elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezkoen hornitzaile izateko.</td><td>Ekintzailetza<br><br>Lehiakortasuna<br><br>Lehentasunezko sektoreak</td></tr>
</table>

## 7.2.3 FUNTSEZKO ERAGILEAK

Ekonomiaren sustapen eta dibertsifikazioaren arloko funtsezko eragileen ekosistema

### EKONOMIA ARLOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

**EUSKO JAURLARITZA**

**TOKIKO ETA ESKUALDEKO ERAGILEAK**

Udalak

**FORU ALDUNDIAK**

### LANDA GARAPENERAKO ERAGILEAK

ADRLs

· Tokiko Garapen Agentziak
· Behargintzak
· Kuadrillak

### EZAGUTZA ERAGILEAK

- Zentro teknologikoak
- Unibertsitateak
- Lanbide heziketa zentroak
- Negozio eskolak
- Nekazaritza eskolak
- Beste prestakuntza-eragile batzuk
- Profesionalen Elkargoak
- BERCs
- BRTA
- CICs
- BCSC
- BAIC
- ZIUR
- Tknika
- Ikerbasque
- Orkestra
- ...

### ERAGILE GAKOAK

### GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

- Merkataritza ganberak
- Elkarteak (Aktiba, ATRAE, Kongresuen eta ekitaldien enpresa-antolatzaile profesionalak, HAGI, Landa-hotelen elkarteak, Destino Bilbao, Ostalaritzako enpresaburuak, Merkataritza elkarteak, ...)
- Ugazabak eta Sindikatuak
- Innobasque
- Klusterrak (Gaia, Elikadura, Energia, Basque Health Cluster)

### FINANTZAKETA

- Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen laguntzak
- Funts pribatuak
- Business Angels
- Azeratzaileak, inkubagailuak eta venture builders
- Ekintzaileen sareak
- Sozietateak eta kapital-funts pribatuak
- Abalak, maileguak eta arrisku-kapitaleko funtsak
- ...

### AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

**AZPIEGITURAK**

- Parkeen sarea
- BICak
- Industrialdeak
- Azeratzaileak / inkubagailuak
- Unibertsitateak
- Garraioen, logistikaren, telekomunikazioen, energiaren eta lurzoruaren azpiegiturak.
- ...

**LAGUNTZA ZERBITZUAK**

- BICak
- Lanbide
- Euskalit
- Bizkaia Talent
- Euskal Ekintzailetzaren Behatokia
- Euskadiko Turismoaren Behatokia
- Industria Koiunturaren Behatokia
- Banda Zabal Ultralasterraren Behatokia
- Euskadiko Lehiakortasun Foroa
- Lege-aholkularitza, aholkularitza fiskala, finantzarioa, sektoriala/ teknologikoa,jabetza intelektuala ...

### ENPRESA JARDUERA

- Enpresak
- Enpresa arloko I+G unitateak
- Ekintzaileak

## 7.2.4 AMIA

| | INDARRAK | AHULEZIAK |
|---|---|---|
| **Jarduera ekonomikoa landa-ingurunean** | ▪ **Nekazaritza-sektoreak pisu handia** landa-ingurunean sortutako **enpleguan eta aberastasunean, e**ta ekoizpen-sektorearen egituratze-maila handia.<br>• **Enpresa eragileak e**gotea, bereziki nekazaritzako elikagaien eta zuraren balio-kateari lotua**k**<br>• **Nekazaritzako elikagaien katea profesionalizatzea eta** nekazaritzako elikagaien industriaren euskarri izan diren azpisektore produktibo lehiakorrak garatzea**.**<br>• **Turismo-sektorearen hazkundea,** kalitatera eta jasangarritasunera bideratutako proiektuekin<br>• **Etorkizunerako potentziala duten sektore batzuen presentzia gero eta handiagoa (adibidez, energia, aisia, osasuna…)**<br>• **Kalitate-ziurtagiriek babestutako nekazaritzako elikagaien ekoizpen ugari egotea** | ▪ Landa-inguruneko enpresen nolabaiteko desabantaila lehiakorra hiri ingurunearen aldean<br>▪ Dibertsifikazio mugatua eta sektore tradizionalekiko nolabaiteko mendekotasuna (bereziki nekazaritzako elikagaien sektorearekiko), potentzial handiko sektoreetan enpresa gutxi baitaude<br>▪ Enpresen batez besteko tamaina txikia<br>▪ Landa-ingurunera inbertsioak eta jarduera ekonomiko berriak ekartzeko zailtasuna<br>▪ Programen eta laguntzen baldintzak landa-inguruneko enpresa-ehunaren berezitasunetara egokitzeko beharra<br>▪ Nekazaritza-sektorerako finantza-tresna espezifiko gutxi egotea (funtsezkoa landa-ingurunean)<br>▪ Landa-eremu askotan hurbileko merkataritzak ez izatea<br>▪ Ustiategien kopurua gero eta txikiagoa izatea (txikiak direlako, are txikiagoak emakumeek zuzendutakoak).<br>▪ Aisiari eta turismoari lotutako azpiegiturak gehiago garatzeko potentziala<br>▪ Dirulaguntzekiko mendekotasun handia /baldintzatuta |
| **Emprendimiento** | ▪ Nolabaiteko **dinamismoa enpresen sorreran** sektore batzuetan, batez ere turismoari lotutakoetan<br>▪ **Emakumeen ekintzailetzaren** presentzia handia (2015-2022 aldian Geroak lagundutako proiektuen % 55)<br>▪ Landa-ingurunean **ekintzailetzari** fase guztietan **laguntzeko ekosistema** bat egotea.<br>▪ **Lanbide-heziketako zentroen sarearekiko konexioa/lankidetza,** ekimen ekintzaileak sustatzeko | ▪ **Ekintzailetza-kultura eta -ekimen gutxi** landa-biztanleen artean, oro har<br>▪ **Ekintzailetza-jarduera mugatua nekazaritza- eta basogintza-sektorean** (langile berriek ez dute orekatzen zahartzeak eragindako lan-uztea)<br>▪ **Proiektu ekintzaile ez oso berritzaileak** orokorrean<br>▪ **Proiektu ekintzaileak finantzatzeko programen eta mekanismoen ikusgarritasuna hobetzeko** gaitasuna<br>▪ **Programen eta laguntzen baldintzak** landa-inguruneko enpresa-ehunaren berezitasunetara egokitzeko beharra<br>▪ Etorkizunerako potentziala duten sektore/eremuetara gehien bideratuta dauden proiektu ekintzaileei laguntzeko **teknikarien trebakuntza indartzeko** beharra |

| | INDARRAK | AHULEZIAK |
|---|---|---|
| **Talentua eta lan-merkatua** | ▪ Azken urteetan landa-eremu askotan **biztanleria berreskuratzea** | ▪ Biztanleen **zahartze progesiboa**<br>• **Belaunaldien arteko erreleboa**ren beharra<br>• **Eskulan kualifikaturik eza,** nekazaritza- eta basogintza-sektorean nabarmena dena<br>• **Enplegu-eskaintza urria eta** lan-merkatuko **eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak**<br>• **Lan-egoera ez izatea oso erakargarria gazteentzat**<br>• **Genero-desberdintasuna** lan-eremuan<br>• **Biztanleriaren prestakuntza-/trebakuntza-maila hobetu daitezke** (adibidez, digitalizazioaren arloko gaikuntza) |
| **Berrikuntza / I+G** | ▪ **I+G zentro espezializatuak eta erreferentziazko zentroak nekazaritzako elikagaien katean**<br>▪ Elikaduraren balio-katearen **berrikuntzaren arloan eraldaketan eta dibulgazioan esperientzia duten sareak eta egiturak egotea** (Katilu)<br>▪ Landa-ingurunean berrikuntzari laguntzeko programak eta egiturak. | ▪ Landa-inguruneko **enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza gehiago bultzatzeko** beharra<br>▪ I+G+b arloko profesionalizazio- eta inbertsio-mailak hobetu daitezke landa-inguruneko funtsezko sektoreetan, hala nola basogintza-sektorean edo nekazaritzako elikagaien sektorean<br>▪ **Programen eta laguntzen baldintzak** landa-inguruneko enpresa-ehunaren berezitasunetara egokitzeko beharra<br>▪ **Koordinazio ahula AKISeko** (Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Sistema) eragileen eta mailen artean, informazio- eta jarraipen-sistema integralik gabekoa.<br>▪ **Nekazaritza-sektoreko I+G+b arloko inbertsio-maila txikiak eta sektorean dagoen berrikuntzaren ezagutzaren eta hedapenaren transferentziarik eza** |
| **IKT** | ▪ Digitalizazioaren aldeko apustu instituzionala, eta EAEn **laguntza-neurri ugari** egotea<br>▪ Landa-eremuetan belaunaldi berriko banda **zabaleko azpiegiturak jartzea** (konektibitatea hobetzea). | ▪ **Digitalizazioaren arloan aholkularitza eta trebakuntza handiagoa emateko** beharra (gaitasun digitalak)<br>▪ **Programen eta laguntzen baldintzak** landa-inguruneko enpresa-ehunaren berezitasunetara **egokitzeko** beharra<br>▪ **IKT gutxi sartzea nekazaritzan eta elikagaien industrian,** beste ekoizpen-sektore batzuekin alderatuta<br>▪ **Online kanalaren sartze-maila mugatua nekazaritzako elikagaiak merkaturatzean** |

| | INDARRAK | AHULEZIAK |
|---|---|---|
| **Lehiakortasunean eragina duten beste faktore batzuk (adib.:** | ▪ Landa-ingurune hurbila eta **hiri-ingurunearekin lotua; horrek ahalbidetu egiten du ekipamendu eta zerbitzuekiko hurbiltasuna**<br>▪ Natura 2000 Sarea ezartzea eta **natura-ingurunea zaintzeko eta kudeatzeko politikak hedatzea** | ▪ **Nekazaritza-lur gutxi,** eta haren gaineko espekulazio-eragiketak eta hirigintza-presioa<br>▪ **Hobetu daitezkeen komunikazio eta garraio publikoko azpiegiturak**<br>▪ **Egoera desberdina ekipamenduei, zerbitzuei** eta lehiakortasunean eragiten duten beste aldagai batzuei dagokienez<br>▪ **Landa-inguruneak** lurralde-kulturari eta nortasunari **egiten dion ekarpenaren aitorpena hobetzeko ahalmena**<br>▪ Landa-guneek bizitegi-funtzioa izateko joera (kultura-nortasuna galtzea) |
| **GOBERNANTZA** | ▪ **Landa-garapeneko politika espezifikoak** egotea (landa-ingurunearen garapenaren legearen, lurralde-garapeneko planen (berriak) eta eskualdeko landa-garapeneko programen bidez)<br>▪ Landa-inguruneko **ekintzaileetzari laguntzeko sistema,** askotariko eragileen bidez (HAZI, nekazaritza-eskolak, lurralde-kapilaritateko eragileak…)<br>▪ Ekonomia sustatzera eta dibertsifikatzera bideratutako **kudeaketa- eta gobernantza-egiturak** egotea | ▪ **Landa-ingurunea gutxi aintzatestea** euskal administrazio publikoen **sektoreko plan eta politiketan**<br>▪ **Landa-inguruneko enpresa gehienak laguntza- edo finantzaketa-programa batzuetatik kanpo uzten dituzten dimentsio-irizpideak** (fakturazioa, enplegua) kontuan hartzea<br>▪ **Eragileen arteko koordinazioa hobetzeko** ahalmena<br>▪ **Udalaz gaindiko politika orokorrak, toki-garapeneko premien kaltetan** |

## AUKERAK

### POTENTZIALA DUTEN SEKTOREAK EDO EREMUAK

- **Landa-ingurunean hazteko eta jarduera ekonomiko berria sortzeko ahalmena duten sektoreak:** elikadura, osasuna, ongizatea, turismoa, ekosistemen babesa, etab.
- **•Informazio- eta komunikazio-teknologietan oinarritutako** jarduera ekonomiko berria sortzeko aukerak
- Jasangarritasunaren eta ingurumenaren babesaren ikuspegiak **energia berriztagarriekin eta landa-ingurunеko kontserbazio-jardunekin lotutako proiektuak garatzeko aukerak eskaintzen ditu.**
- **Aberastasuna baliabide naturaletan eta kultura-ondarean,** eta horrek aukera ematen du **landa-turismoa** eta naturarekin lotutako jarduerak garatzeko.
- Abelbideen eta bide naturalen sare zabala hobeto baliatuta **ekoturismoa sustatzeko** aukera.
- **Ekoizpen- eta kontsumo-joera berrien sorrera,** jarduera ekonomiko berria sortzeko aukera izan dezaketenak: tokiko merkatuen pisu handiagoa, ekonomia zirkularra, lankidetza-ekonomia, produktu ekologikoak, eta abar.
- **Nekazaritzako elikagaien sektoreak bere ekoizpen-egitura beste sektore batzuetara dibertsifikatzeko duen ahalmena,** hala nola bioekonomiara, ekonomia zirkularrera, energia-efizientziara, ingurumenaren jasangarritasunera, zuraren erabilera berrietara, etab.
- **Baso- eta nekazaritza-baliabide ugari haren balioa handitzeko**
- **Tokiko produktuaren, elikagai jasangarrien eta kalitatezko elikagaien eskaera gero eta handiagoa**
- **Jarduera ekonomiko berria sortzeko aukera,** landa-ingurunearen ase gabeko beharrei erantzuteko

### PERTSONAK ERAKARRI ETA ATXIKITZEA

- Azpiegituren hobekuntza baliatuta **profesional liberalak ezartzea**
- **Belaunaldien arteko erreleboa, pertsonak erakartzeko eta atxikitzeko aukera gisa**
- Landa-ingurunea beren bizitza- eta lanbide-proiektua garatzeko ingurune gisa baloratzen duten **gazteak erakartzea**
- **Teknologia**ren hedapenak eta **telelanaren onarpen gero eta handiagoak** Euskadiko landa-ingurunean enpresa eta ekintzaileak ezartzea sustatzeko aukerak ematen dituzte.
- **Merkaturatzeko aukera eta digitalizaziotik eratorritako bezeroekiko harreman** berriak
- **Landa-ingurunearen pertzepzio positibo progresiboa hiri-biztanlearen ikuspegitik, irisgarritasuna eta konektibitatea hobetzen direla baliatuta.**

### ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN LEHENTASUNA

- **Berrikuntzak eta ekintzailetzak gizartean duten zereginari laguntza publikoa eta pribatua ematen jarraitzea eta gero eta handiagoa izatea.**
- Bioekonomiaren arloko Europako eskualde aurreratuekiko **lotura (bioeskualdeak)**

## MEHATXUAK

- **Herritarren zahartzea**
- **Talentua erakartzeko beste lurralde batzuen lehia**
- **Lurzoruaren artifizializazioa eta espazioaren erabilera berriak:** nekazaritzako azalera erabilgarria murriztea eta zuhaitzak dituen baso-azalera handitzea; horrek areagotu egiten du sektorean lanean hasi nahi dutenentzat lurra lortzeko zailtasuna
- **Merkatu globalizatuko lehia handitzea nekazaritzako elikagaien sektoreko** produktu eta zerbitzuetarako, **eta horrek errentagarritasuna mugatu dezake** berrikuntza- eta digitalizazio-aukerak baliatzen ez badira.
- **Ziurgabetasuna energia berriztagarrien arau-esparruan**

# 7.2.5 ARDATZEN ETA AZPI-ARDATZEN JARDUN ESKEMA

## Landa-ingurumenari BALIOA EMATEA

### 1. EKINTZAILETZA

**1.1** Espiritu ekintzailea
**1.2** Ideiak eta proiektuak identifikatzeko/sortzeko zaintza
**1.3** Pertsonei eta proiektuei laguntzea eta prestakuntza
**1.4** Ekintzailetza berritzailea
**1.5** Erakundeen funtsen, programen eta jarduketen fiskalitatea eta koordinazioa

### 2. EGUNGO EHUNAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

**2.1.** Berrikuntza / I+G
**2.2.** Digitalizazioa
**2.3.** Barne-ekintzailea
**2.4.** Emakumea zuzendaritza-postuetan
**2.5.** Jasangarritasuna

### 3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

**3.1.** Kalitatezko enplegua eta lan-eredu berriak
**3.2.** Belaunaldien arteko erreleboa
**3.3** Lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboen enplegua
**3.4.** Prestakuntza

### 4. Arreta LEHENTASUNEZKO SEKTOREETAN

**4.1** Elikaduraren balio-kalitatea
**4.2** Zuraren balio-katea
**4.3** Turismoa, merkataritza eta haiekin lotutako jarduerak
**4.4** Energia,bioekonomia eta haiekin lotutako jarduerak
**4.5** Osasuna eta ongizatea

**PRINTZIPIOAK** | Genero-berdintasuna | Jasangarritasuna | Erakunde arteko lankidetza eta sareko lana | Euskara

# 7.2.6. 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA

| 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA |
|---|
| **ARLOA: Landa-inguruneko ehun ekonomikoaren dibertsifikazioa eta enplegu-sorrera**<br><br>**B1HO.** Euskal landa-ingurunean ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzea; xede horrekin, enpresa-dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzailetza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digitaletan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte |
| **D2HS. Ekintzailetzari eta** landa-ingurunean eragina duten **enpresen sorrerari laguntzen dioten funts, programa eta jarduketa instituzionalak koordinatzea,** kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko eta mantentzeko.<br><br>**D3HS. Lanaren antolaketarako eredu berriak** garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horien garapenaren bidez, **kalitatezko enplegua** lortzeko eta **belaunaldien arteko erreleboa** eta **emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoek, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0 abeltzaintzak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuko dira.**<br><br>**D4HS.** Euskal landa-ingurunean **enpresa txiki eta ertainak eta mikroenpresak atzitzeko eta egonkortzeko tresnak eta ekipamenduak** bideratzea; horretarako **oinarrizko zerbitzuak** txertatzea, hala nola finantza-, aseguru-, aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak, enpresa-bilbeari testuinguru trinkoa eta fidagarria ziurtatzeko eta, hala, testuinguru horretatik abiatuta lan egiteko.<br><br>**D5HS.** Landa-ingurunean **guneak gaitu eta dinamizatzea,** gune fisiko nahiz birtualak, non **ekintzaileek** beren ekintzailetza-prozesua garatu ahalko duten, **arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana** sustatuz eta gune horien sareko kudeaketa bultzatuz.<br><br>**D6HS. Landa-turismo jasangarria** sustatzea, bai eta **jarduera horri lotutako jarduera ekonomikoak ere, hala nola, gastronomia, merkataritza, tokiko merkatuei lotutako ekipamenduen modernizazioa, nekazaritza-turismoak, kanpinak, landetxeak eta ostatu-eskaintzako beste modalitate batzuk.** Horretarako, landako ostatu-establezimenduen garapena bultzatuko da, masifikazioa saihesteko eta jarduera tradizionalak eta natura-ingurunea errespetatzeko helburuarekin.<br><br>**D7HS. Ekosistemak eta ekosistemen zerbitzuak iraunarazteari eta leheneratzeari lotutako jarduera ekonomiko jasangarriak** bultzatzea, eta **biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzen** laguntzen dutenak ere bai.<br><br>**D8HS. Prestakuntza-programak** garatzea, **ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzeko eta** landa-ingurunean **enpresa-dinamismoa indartzeko.**<br><br>**D10HS.** Landa-ingurunean **lehen mailako jarduera dibertsifikatzen eta jarduera berriak garatzen** laguntzea.<br><br>**D11HS.** Landa-ingurunean lehendik dauden jarduerak indartzea, horien modernizazioa bultzatzea eta jarduera berriak ezartzea ahalbidetuko duen **politika fiskala** garatzea. |

## 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA

**ARLOA: Nekazaritza, Basogintza eta Elikadura**

**B2HO.** Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak

**A2HO.** Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna, euskal landagunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun- eta enplegu-iturria eta euskal gizartearentzako oinarrizko ondasunen hornitzailea delako, lurraldearekiko errespetua duen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduen alde eginez.

**B1HS. Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna handitzea,** eta horretarako produktuen berezitasunerako pizgarriak ematea kalitatean, ingurumen-jasangarritasunean eta elikadura-segurtasunean oinarrituta; ekoizpen naturala eta ekologikoa sustatzea; sektorea egituratzen laguntzea asoziazionismoaren eta kooperatibismoaren bidez, eta merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak optimizatzeko, arreta berezia eskainita garapen endogenoko jarduketei eta merkaturik hurbilenetan egin beharreko sustapenari. Lehentasunezko arreta eskainiko zaie familia-ustiategiei, bereziki horien titularra emakumea edo nekazari gaztea denean.

**B3HS. Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Planarekin koordinatuta, nekazaritzako elikagaien industriaren garapena indartzea, bereziki lehen sektorearen eragile den horren garapena,** eta elikaduraren balio-katean integrazio bertikala egiteko **prozesuak** ere bai; horren haritik, balio-kate horretan garrantzi handiagoa emango zaie ekoizleei, gastronomia-ondarea errebalorizatzeko eta balio erantsi handiagoa sortzeko bitartekoak baitira.

**B5HS. Belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea sektorean,** familia-nekazaritzarekin batera, eta emakumezko nekazariei protagonismo handiagoa ematea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean xedatutakoarekin bat.

ARLOA: **Berrikuntza**

**C5HO.** Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan.

**J5HS. Talentua landa-eremuetara erakartzeko bide egokiak** prestatzea, ekintzailetza bultzatuz eta enpresa berritzaileei inguru horietan kokatzeko erraztasunak emanez

**ARLOA: Landaguneetako eta landa-entitateetako oinarrizko azpiegiturak**

**E5HS. Lantegiak, eraldaketa-zentro txikiak, hiltegiak eta antzeko azpiegiturak sustatzea,** ekoizpen-eredu jasangarriagoak bultzatzeko, etorkizunean elikadura-autosufizientzia handitzeko eta 0 km-ko elikagai seguru, **osasungarri eta kalitatezkoen hornitzaile izateko.**

# ERREFERENTZIAZKO ARAU-ESPARRUA ETA ESPARRU ESTRATEGIKOA

## 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA

**Aztertutako estrategia eta programa nagusiak, eta EKINTZAILETZA arloan duten eragina**

Zuzeneko eragina
Zeharkako eragina

| | | |
|---|---|---|
| **1** | Ekintzailetzaren Erakundearteko Plana - EEP 2024. | Zuzeneko eragina |
| **2** | Euskadiko Landa- eta Itsas-ingurunean Ekintzailetzari Laguntzeko Esparru Estrategikoa | Zuzeneko eragina |
| **3** | Enpleguaren Euskal Estrategia 2030 | Zeharkako eragina |
| **4** | Enpleguaren Plan Estrategikoa 2021-2024 | Zeharkako eragina |
| **5** | Lanbide Heziketako Euskal Plana | Zeharkako eragina |
| **6** | Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plana 2021-2024 | Zuzeneko eragina |
| **7** | ZTBP 2030 eta RIS3 Euskadi Espezializazio Adimentsuko Estrategia | Zeharkako eragina |
| **8** | Euskadiko Eraldaketa Digitaleko Estrategia 2025 | Zuzeneko eragina |
| **9** | Euskal Turismoaren Estrategia 2030 | |
| **10** | Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa – PEGA Berria 2024 | Zuzeneko eragina |
| **11** | Euskadiko Elikaduraren eta Zuraren Balio Kateko Ekintzailetza Estrategia | Zuzeneko eragina |
| **12** | Egurraren Sektoreko Plan Estrategikoa - SEPE | Zuzeneko eragina |
| **13** | Euskadiko Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoa 2023-2027 | Zuzeneko eragina |
| **14** | Euskadi Basque Country 2030 Agenda | Zuzeneko eragina |
| **15** | Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030 | Zeharkako eragina |
| **16** | Euskadiko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa 2024 | Zeharkako eragina |
| **17** | Bizkaia Goazen 2030 Estrategia | Zuzeneko eragina |
| **18** | Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa 2020-2030 | Zuzeneko eragina |
| **19** | ArabarEKIN Gobernuaren Plan Estrategikoa | Zuzeneko eragina |

## EUSKADIKO EKINTZAILETZA EKOSISTEMAREN MAPA, 2021



# 1. ARDATZA. EKINTZAILETZA. AZPI-ARDATZAK ETA LEHENTASUNAK BERMERAKO LANDA MEKANISMOA APLIKATZEKO




**1.**

**EKINTZAILETZA**

**Ekintzailetza** sustatzea **eta jarduera ekonomiko berriak sortzea** da landa-inguruneko ekonomiaren dibertsifikazioaren arloko **erronka nagusietako bat.**

**1. ARDATZA - EKINTZAILETZA:**
Legean definitutako helburu sektorialak lortzeko honako **5 azpi-ardatz** hauen inguruko lehentasunak jorratu behar dira

1. **Espiritu, balio eta kultura ekintzaileak** sustatzea
2. Ideiak eta proiektuak identifikatzeko/sortzeko zaintza ahalbidetzea
3. Pertsona eta proiektu ekintzaileei **laguntza eta prestakuntza emateko sistema** indartzea
4. **Ekintzailetza berritzailea** bultzatzea
5. **Fiskalitateak eta finantzaketak** (erakundeek modu koordinatuan bultzatutako funtsak eta laguntza-programak) landa-ingurunean jarduera ekonomiko ekintzailea sortzen laguntzea

| 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERA AZPI-ARDATZAK** | **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK** | **LEHENTASUNA** | |
| | | **ABE** | **LANDA INGURUNEA** |
| **1. Espiritu ekintzailea** | ▪ **Landa-ingurunean espiritu ekintzailearen sentsibilizazioaren arloan dauden** neurriak eta **programak indartzea** (adib. Ostegun ekintzaileak…). | | X |
| | ▪ **Landa-inguruneari ikusgarritasun handiagoa ematea** (haren espezifikotasunak aintzat hartzen direla bermatuta) **EAEn dauden espiritu ekintzailearen inguruan sentsibilizatzeko programa eta ekimenetan** (adibidez: BICek sustatutako sentsibilizazio-jarduerak). | | X |
| | ▪ **Hezkuntza-erakundeekiko** (unibertsitateak, lanbide-heziketako eskolak eta beste ikastetxe batzuk) **lankidetza indartzea, balio eta kultura ekintzailearen hedapena sustatzeko, eta ikasleen artean landa-ingurunean proiektuak garatzeko interesa pizteko.**<br>• Unibertsitateak (adib.: Zitek, Inizia, Entreprenari, … programak)<br>• Lanbide Heziketa (adib.: Ikasenpresa programa, Urrats bat programa…) | | X |
| | ▪ Landa-ingurunean **ekintzailea aintzatesteko ekintzak** bultzatzea eta landa-ingurunean arrakasta izan duten **ekintzaileen kasuak** sustatzea eta **hedatzea** (emakumeei ikusgarritasuna emanez). Adibidea:<br>• Araba Ekinean. Ekintzaileen esperientzien dibulgazio-ekintzak: “Zure ideiak balio du” lehiaketa, marketplazeak, enpresa-azoka, tailerrak, B2B topaketak (Business-tobusiness), Startup Europe Week Vitoria-Gasteiz…<br>• BEAZ hedatzeko ekintzak | | X |
| **2. Ideiak eta proiektuak identifikatzeko/ sortzeko zaintza** | ▪ **Landa-ingurunearen beharrak, ekiteko aukerak sor ditzaketenak,** identifikatzea eta hedatzea (zerbitzu berriak, ondorengotza-prozesuak/belaunaldien arteko erreleboa/enpresa transmisioa…), foroak antolatuz eta zaintza-ekintza espezifikoak bultzatuz. | X | X |
| | ▪ **Landa-munduan** (beste udalerri edo eskualde interesgarri batzuetan) **EAEra eraman edo EAEn errepika daitezkeen ekintzailetza-aukera eta -kasu arrakastatsuak zaintzeko eta identifikatzeko sistema** bat sustatzea, landa-ingurunean “ideia ekintzaileen banku” bat sortu ahal izateko. | | X |

“ABE” laukia markatuta agertzen denean, aditzera ematen du Arreta Bereziko Zonak, landa-zonak izateagatik duten beharraz gain, beste jarduera espezifiko batzuk eskatzen dituzte.
“Landa Ingurunea” laukia markatuta dagoenean, esan nahi du landa-ingurunea dela, oro har, jarduketa berezia behar duena. ABEak barne

| 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERA AZPI-ARDATZAK** | **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK** | **LEHENTASUNA** | |
| | | **ABE** | **LANDA INGURUNEA** |
| **3. Ekintzaileei eta proiektuei laguntza eta prestakuntza ematea** | ▪ Landa-ingurunean **ekintzailetzari laguntzeko neurri espezifikoak** bultzatzen jarraitzea (aholkularitzaren, prestakuntzaren, finantzaketaren, tutoretzaren… arloan) **egungo programetan** (adib. Leader, Erein, Geroa, Gaztenek, Ostegun ekintzaileak…). | X | X |
| | ▪ **EAEn ekintzailetzari laguntzeko dauden programa eta neurri espezifikoetan** (aholkularitzari, prestakuntzari, finantzaketari, tutoretzari, lehiakortasunari… dagokienez) l**anda-ingurunearekiko diskriminazio positiboa** sustatzea **(edota ez dela baztertzen ziurtatzea)**. Adibidea: UP Euskadi ataria, Ekintzaile, Aurrera, Lanbide Aholkularitza, Bizkaia Sortzailea, Enpresako proiektu berritzaileen garapena, Enpresa berritzaileen sorrera, Emekin, Txekin… | X | |
| | ▪ **Ekintzaileei laguntzeko eragile eta programetarako sarbidea eta informazioa** bermatzea (baita administrazio-izapideak, kokalekuak bilatzea, arau-eskakizunei buruzko informazioa, laguntza teknologikoa, etab. ahalbidetzea), **erakundeen arteko lankidetza handiagoa bultzatuz:**<br>• Liburuxkak/informazioa landa-inguruneko ekintzailearen profilera eta beharretara egokitzea<br>• Administrazio-izapideak eta -prozesuak sinplifikatzea (izapidetze telematikoa, prozesuak eta hizkuntza sinplifikatzea, epeak hobetzea…)<br>• Landa-ingurunean ekintzaileen esku dauden eragileen, zerbitzuen eta azpiegituren mapa egitea eta hedatzea, ekintzailetza-zikloaren behar eta etapa bakoitzerako<br>• Izapideak egiteko leihatila bakarrak edo informazio-, aholkularitza- eta laguntza-guneak ezartzea landa-inguruneko ekintzaileen eskura<br>• Arreta eman eta esku-hartzeko zerbitzu pertsonalizatuen garapena indartzea | | X |
| | ▪ **Talde teknikoen trebakuntza indartzea** landa-ingurunean laguntzeko sisteman (HAZI, LGEak…). | | X |

“ABE” laukia markatuta agertzen denean, aditzera ematen du Arreta Bereziko Zonak, landa-zonak izateagatik duten beharraz gain, beste jarduera espezifiko batzuk eskatzen dituzte.
“Landa Ingurunea” laukia markatuta dagoenean, esan nahi du landa-ingurunea dela, oro har, jarduketa berezia behar duena. ABEak barne

| 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERA AZPI-ARDATZAK** | **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK** | **LEHENTASUNA** | |
| | | **ABE** | **LANDA INGURUNEA** |
| **3. Ekintzaileei eta proiektuei laguntza eta prestakuntza ematea** | ▪ **Zerbitzu** (finantzarioak, aseguruak, aholkularitza eta kudeaketa…), **azpiegitura** (ekipamenduak…) **eta espazio** (fisikoak eta birtualak, prestakuntza arlokoak, lab/factory+coworking, networking…) erakargarriak **sustatu eta erakartzea** landa-ingurunera ETEak eta mikroenpresak erakartzeko eta han finkatzeko. | X | X |
| | ▪ **Landa-ingurunean ekintzaileak trebatzeko** ekintzak bultzatzea, EAEko hezkuntza-ekimen eta -eragileekin lankidetzan (batez ere Lanbide Heziketako Zentroak). | | X |
| | ▪ **Know-how, esperientzia** eta ekintzailearen **tutoretzan** laguntza ematen duten landa-inguruneko **enpresa eragileetarako sarbidea** erraztea. | | X |
| | ▪ **Landa-inguruneko emakumeentzako aholkularitza-ekintzak eta -programak** abian jartzea. | | X |
| **4. Ekintzailetza berritzailea bultzatzea** | ▪ EAEn **ekintzailetza berritzaileari**/oinarri teknologikoko ekintzailetzari **laguntzeko dauden programa eta neurri espezifiko**etan (adibidez, Ekintzaile, Aurrera, Basque Funtsa…) landa-ingurunearekiko diskriminazio positiboa sustatzea. | X | |
| **5. Ekintzailetzari eta enpresen sorrerari laguntzeko funts, programa eta jarduera instituzionalen fiskalitatea eta koordinazioa** | ▪ Landa-ingurunean **ekintzailetza-proiektuak bultza ditzaketen erosketa publiko berritzaileko ekimenak** diseinatzea eta abian jartzea. | | X |
| | ▪ **Elkarlaneko ekintzailetza-ekimenen garapena sustatzea** (ekintzaileak, enpresa berriak, finkatutako enpresak, beste eragile batzuk), merkatuetara sartzea eta haien hazkundea errazteko | | X |
| | ▪ **Kenkariak, salbuespenak eta beste neurri fiskal** gehigarri **batzuk aplikatzeko aukera aztertzea,** landa-eremuetan ekintzailetza sustatzeko. | | X |
| | ▪ EAEn eta Europan eskuragarri dauden **proiektu berriak finantzatzeko iturri eta mekanismo pribatuen** aniztasuna **ikusaraztea.** | | X |

"ABE" laukia markatuta agertzen denean, aditzera ematen du Arreta Bereziko Zonak, landa-zonak izateagatik duten beharraz gain, beste jarduera espezifiko batzuk eskatzen dituzte.
"Landa Ingurunea" laukia markatuta dagoenean, esan nahi du landa-ingurunea dela, oro har, jarduketa berezia behar duena. ABEak barne

## FINANTZA LAGUNTZAK

### 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA

#### FINANTZA-LAGUNTZAK JASOTZEKO AUKERAK

- Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren eta haren mendeko erakundeen laguntza-programak eta -neurriak: Leader, Erein, Gaztenek, Geroa…
- Eusko Jaurlaritzaren beste laguntza-programa eta -neurri batzuk (batez ere Industria Sailburuordetzarenak, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzarenak/SPRI): Ekintzaile, Aurrera, Basque Funtsa…
- Foru-aldundien laguntza, zerbitzu eta funtsen programak: Araba Ekinean, Bizkaia Sortzailea, BFAren Enpresa-proiektu berritzaileen garapena, BFAren Enpresa berritzaileen sorrera, GFAren Emekin, GFAren Txekin, Ekintzailetza eta Gizarte Berrikuntza Programa (BFA),...
- Unibertsitateentzako laguntza-programak: Zitek, Inizia, Entreprenari, … programak
- Lanbide Heziketako zentroentzako laguntza-programak: Ikasenpresa programa, Urrats bat programa…
- Bestelako inkubazio- eta azelerazio-programa batzuk
- Europako eta estatuko dirulaguntzak eta funtsak
- Tokiko erakundeen dirulaguntzak
- Beste finantzaketa-mekanismo pribatu batzuk

## ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK

### 1. ARDATZA - EKINTZAILETZA

#### ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK

- Landa-inguruneari balioa emateko ekintzak diseinatzea, jarduera ekonomiko eta proiektu ekintzaile berrien garapena bultzatzeko.
- Landa-inguruneko arrakasta-kasu eta -esperientzien ikusgarritasuna modu proaktiboan hedatzea/sustatzea edozein sentsibilizazio-, prestakuntza-ekimenetan.
- Euskal landa-ingurunearen beharrei eta aukerei buruzko azterlanak/informazioa prestatzea eta hedatzea.
- Landa-ingurunean jarduera ekonomikoa sortzeko ideiak eta beharrak partekatzeko foroak eta espazioak sortzea eta sustatzea, eta proiektuen, pertsonen eta finantzaketaren arteko lotura aktiboki ahalbidetzea.
- Edozein eremutako proiektu edo esperientzia pilotu berriak landa-ingurunean gara daitezen edo presentzia izan dezaten sustatzea.
- Ekintzailetzari laguntzeko programetan, ABE-etan bultzatzen diren proiektu ekintzaileak positiboki diskriminatzeko aukera balioestea (laguntzaren zenbatekoa % x handitzea), bai ekintzailetza orokorrean, bai ekintzailetza berritzailean.
- Ekintzailetza sustatzeko programak eta neurriak landa-inguruneko enpresa-ehunaren berezitasunetara egokitzen direla ziurtatzea (irizpide ez-baztertzaileak, informazio argia eta proiektuen profilera egokitua, etab.).
- Ekintzailetzari laguntzeko programa, estrategia eta politika publikoetan landa-inguruneari buruzko lan-ildo espezifikoren bat sartzea sustatzea (adibidez, estrategia giltzarriren baten definizioan eta diseinuan parte hartuz).

# 7.2.7. 2. ARDATZA - LEHIAKORTASUNA

**2. ARDATZA - LEHIAKORTASUNA**

**ARLOA: Landa-inguruneko ehun ekonomikoaren dibertsifikazio eta enplegu-sorrera**

**B1HO.** Euskal landa-ingurunean ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzea; xede horrekin, enpresa-dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzailetza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digitaletan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte

**D3HS. Lanaren antolaketarako eredu** berriak garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horien garapenaren bidez, **kalitatezko enplegua lortzeko eta belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoek, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0 abeltzaintzak eskaintzen dituzten aukerak** aprobetxatuko dira.

**D7HS. Ekosistemak eta ekosistemen zerbitzuak iraunarazteari eta leheneratzeari lotutako jarduera ekonomiko jasangarriak** bultzatzea, eta **biztanleriaren osasuna eta ongizatea** hobetzen laguntzen dutenak ere bai

**D8HS. Prestakuntza-programak** garatzea, **ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzeko eta** landa-ingurunean **enpresa-dinamismoa indartzeko.**

**D9HS.** Emakumeen presentzia handiagoa sustaztea landa-inguruneko enpresa, kooperatiba, elkarte eta, oro har, erakundeetako erabaki-organoetan, ingurune horretan emakumearen ahalduntzea indartzeko.

**D10HS.** Landa-ingurunean **lehen mailako jarduera dibertsifikatzen eta jarduera berriak garatzen laguntzea.**

**D11HS.** Landa-ingurunean lehendik dauden jarduerak indartzea, horien modernizazioa bultzatzea eta jarduera berriak ezartzea ahalbidetuko duen **politika fiskala** garatzea.

**ARLOA: Nekazaritza, Basogintza eta Elikadura**

**B2HO. Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak**

**A2HO. Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna, euskal landagunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun- eta enplegu-iturria eta euskal gizartearentzako oinarrizko ondasunen hornitzailea delako, lurraldearekiko errespetua duen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduen alde eginez.**

**B1HS. Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna handitzea, e**ta horretarako produktuen berezitasunerako pizgarriak ematea kalitatean, ingurumen-jasangarritasunean eta elikadura-segurtasunean oinarrituta; ekoizpen naturala eta ekologikoa sustatzea; sektorea egituratzen laguntzea asoziazionismoaren eta kooperatibismoaren bidez, eta merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak optimizatzeko, arreta berezia eskainita garapen endogenoko jarduketei eta merkaturik hurbilenetan egin beharreko sustapenari. Lehentasunezko arreta eskainiko zaie familia-ustiategiei, bereziki horien titularra emakumea edo nekazari gaztea denean

**B2HS.** Baso-kudeaketa jasangarria eta orekatua bultzatzea, baso autoktonoak eta jarduera tradizionalaren osagarri izango diren aukera-nitxo berriak sustatuz eta enplegu egonkorrak, seguruak eta kalitatezkoak sortuz eta mantenduz, horretarako bitartekoak ezarrita.

**B3HS.** Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Planarekin koordinatuta, **nekazaritzako elikagaien industriaren garapena indartzea, bereziki lehen sektorearen eragile den horren garapena, eta elikaduraren balio-katean integrazio bertikala egiteko prozesuak ere bai;** horren haritik, balio-kate horretan **garrantzi handiagoa** emango zaie **ekoizleei,** gastronomia-ondarea errebalorizatzeko eta balio erantsi handiagoa sortzeko bitartekoak baitira.

**B4HS. Nekazari-errentari eusten laguntzea,** Nekazaritza Politika Bateratuaren finantza-baliabideak optimizatuz eta behar bezala kudeatuz.

**B6HS. Erraztea eta ikuskatzea lehen sektoreak ekoizpen-kostuak baino prezio handiagoak jasotzen dituela bere produktuen truke,** horrela ezartzen baitute Estatuko araudiak (Elikadura Katearen Legea) eta Europakoak, sektore bideragarri eta lehiakorrari eusteko helburuarekin

**B8HS. Lehen sektoreko produktuak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea sustatzea, banaketa- eta merkaturatze-kanalak sustatuz**

**B9HS. Europar Batasunaren Baserritik Mahaira estrategia babestea eta hori garatzen laguntzea.**

**B10HS.** Kontratazio publiko arduratsuko baldintza-agiriak sustatzea, gizarte- eta ingurumen-irizpideak lehenesteko helburuarekin.

## 2. ARDATZA - LEHIAKORTASUNA

ALOA: **Berrikuntza**

**C5HO.** Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan sistémica.

**J1HS.** Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetza bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharrizanak bete ditzaten.

**J3HS. Ezagutzaren sozializazioa sustatzea, akademiaren, ikerketaren eta aholkularitzaren esparruetatik nekazaritza-elikaduraren sektorera transferitzen dela ziurtatuz, baita esparru akademikoari nekazaritza-sektorearen behar zehatzak helaraztea e**re. Horrez gain, ezagutzaren trukea erraztea azken erabiltzaileen eta elikaduraren balio-kateko mailen artean.

ARLOA: **IKTak**

**C2HO.** IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik.

**I1HS. Telekomunikazio-azpiegituren hedapena** bultzatzea eta horretarako bidea ematea, modu berean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta bereziki azken **teknologiako banda zabala hedatzea, landa-eremuko** eragileek globalizazioan sartzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten, hala saihestuko baita hiriko lurraldearen eta landa-eremuko lurraldearen arteko arrakala digitala.

**I2HS. Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema berriak ikertu eta bultzatzea, I**KTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez.

**I3HS. Gastronomia eta elikaduraren balio-katearen digitalizazio integrala** sustatzea, lurralde adimendunaren euskal estrategiarekin bat etorriz inteligente

**ARLOA: Landaguneetako eta landa-entitateetako oinarrizko azpiegiturak**

**E5HS. Lantegiak, eraldaketa-zentro txikiak, hiltegiak eta antzeko azpiegiturak sustatzea, ekoizpen-eredu jasangarriagoak bultzatzeko,** etorkizunean elikadura-autosufizientzia handitzeko eta 0 km-ko elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezkoen hornitzaile izateko.

# ERREFERENTZIAZKO ARAU-ESPARRUA ETA ESPARRU ESTRATEGIKOA

## 2.ARDATZA - LEHIAKORTASUNA

**Aztertutako estrategia eta programa nagusiak, eta LEHIAKORTASUN arloan duten eragina**

- Zuzeneko eragina (berdea)
- Zeharkako eragina (urdina)

| | | |
|---|---|---|
| **1** | Ekintzailetzaren Erakundearteko Plana - EEP 2024. | Zeharkako eragina |
| **2** | Euskadiko Landa- eta Itsas-ingurunean Ekintzailetzari Laguntzeko Esparru Estrategikoa | Zeharkako eragina |
| **3** | Enpleguaren Euskal Estrategia 2030 | Zeharkako eragina |
| **4** | Enpleguaren Plan Estrategikoa 2021-2024 | Zeharkako eragina |
| **5** | Lanbide Heziketako Euskal Plana | Zeharkako eragina |
| **6** | Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plana 2021-2024 | Zuzeneko eragina |
| **7** | ZTBP 2030 eta RIS3 Euskadi Espezializazio Adimentsuko Estrategia | Zuzeneko eragina |
| **8** | Euskadiko Eraldaketa Digitaleko Estrategia 2025 | Zuzeneko eragina |
| **9** | Euskal Turismoaren Estrategia 2030 | Zuzeneko eragina |
| **10** | Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa – PEGA Berria 2024 | Zuzeneko eragina |
| **11** | Euskadiko Elikaduraren eta Zuraren Balio Kateko Ekintzailetza Estrategia | Zeharkako eragina |
| **12** | Egurraren Sektoreko Plan Estrategikoa - SEPE | Zuzeneko eragina |
| **13** | Euskadiko Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoa 2023-2027 | Zuzeneko eragina |
| **14** | Euskadi Basque Country 2030 Agenda | |
| **15** | Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030 | Zeharkako eragina |
| **16** | Euskadiko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa 2024 | Zeharkako eragina |
| **17** | Bizkaia Goazen 2030 Estrategia | Zuzeneko eragina |
| **18** | Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa 2020-2030 | Zuzeneko eragina |
| **19** | ArabarEKIN Gobernuaren Plan Estrategikoa | Zuzeneko eragina |

## 2. ARDATZA. LEHIAKORTASUNA. AZPI-ARDATZAK ETA LEHENTASUNAK BERMERAKO LANDA MEKANISMOA APLIKATZEKO




**2.**

**Lehiakortasuna**

Jarduera ekonomiko berriak sortzearekin batera, garrantzitsutzat jotzen da **egungo enpresa-ehunaren lehiakortasuna hobetzeko** neurriak diseinatzea, **eta barne-ekintzailetza bultzatzea,** landa-inguruneko enpresentzat **lehiarako abantaila-iturri gisa.**

**PRINTZIPIOAK** | Genero-berdintasuna | Jasangarritasuna | Erakunde arteko lankidetza eta sareko lana | Euskara

**2. ARDATZA - LEHIAKORTASUNA:**
Legean definitutako helburu sektorialak lortzeko honako **5 azpi-ardatz** hauen inguruko lehentasunak jorratu behar dira

1. **I+G+b sustatzea landa-inguruneko enpresetan, ikuspegi zabalarekin** (produktu eta zerbitzu berrien garapena, berrikuntza negozio-ereduetan, berrikuntza prozesuetan, berrikuntza antolaketan…)
2. Landa-inguruneko enpresak **digitalizatzen / **teknologia digitalak txertatzen laguntzea
3. Barne-ekintzailetzako proiektuak sortzea eta abian jartzea bultzatzea (laguntza, finantzaketa…)
4. **Landa-inguruneko enpresetako erabaki-organoetan emakumeen presentzia handiagoa** sustatzea
5. Landa-inguruneko enpresen **trantsizioa** bultzatzea, enpresa-eredu jasangarriago baterantz

<table>
<tr><th colspan="4">2.ARDATZA - LEHIAKORTASUNA</th></tr>
<tr><th rowspan="2">JARDUERA AZPI-ARDATZAK</th><th rowspan="2">BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK</th><th colspan="2">LEHENTASUNA</th></tr>
<tr><th>ABE</th><th>LANDA INGURUMENA</th></tr>
<tr><td rowspan="5">Berrikuntza / I+G</td><td>▪ Landa-inguruneko enpresen artean I+G+b sustatzera bideratutako sentsibilizazio ekintza espezifikoak diseinatzea, haien profil eta beharretara egokitutako ikuspegiarekin.</td><td></td><td>X</td></tr>
<tr><td>▪ I+G+b bultzatzeko EAEn dauden programa eta neurrietan landa-ingurunearekiko diskriminazio positiboa sustatzea. Adibidea:<br>• Innobideak/Kudeabide indartzea – berrikuntza bultzatzea<br>• Hazinnova sustatzea – enpresak berrikuntza-jardueretarantz mobilizatzea<br>• Gauzatu Industria - ETE industrialen edo industriarekin lotutakoen sustapena, oinarri teknologikoa eta/edo berritzailea badute, Euskadin garatzen den garapen teknologikoan eta berrikuntzan duten eragina handitzeko helburuarekin<br>• Indartu – enplegua sortzen duen ekoizpen-inbertsioa</td><td>X</td><td></td></tr>
<tr><td>▪ ETE-en eta mikroETE-en teknologia berrietan oinarritutako negozio-eredu berritzaile berrietarako trantsizioa sustatzea, arrakasta-kasuak hedatzeko ekintzen bidez.</td><td></td><td>X</td></tr>
<tr><td>▪ Landa-inguruneko enpresen arteko lankidetzaren bidez proiektu berritzaileen garapena sustatzeko ekintzak diseinatzea.</td><td></td><td>X</td></tr>
<tr><td>▪ Ezagutzaren eta berrikuntzaren dibulgazioan eta transferentzian sakontzea, eragileen elkarrekintzak hobetzea ahalbidetuko duten mekanismoak sortuz. Adibidea:<br>• Enpresen eta eragileen berrikuntzarako foroa/bloga, ekimen ekintzaileak zabaltzeko<br>• LivingLabs<br>▪ Beste topagune batzuk</td><td></td><td>X</td></tr>
</table>

"ABE" laukia markatuta agertzen denean, aditzera ematen du Arreta Bereziko Zonak, landa-zonak izateagatik duten beharraz gain, beste jarduera espezifiko batzuk eskatzen dituzte.
"Landa Ingurunea" laukia markatuta dagoenean, esan nahi du landa-ingurunea dela, oro har, jarduketa berezia behar duena. ABEak barne

| 2.ARDATZA - LEHIAKORTASUNA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERA AZPI-ARDATZAK** | **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK** | **LEHENTASUNA** | |
| | | **ABE** | **LANDA INGURUMENA** |
| **Digitalizazioa** (konektibitatea, IKTen aplikazioa, administrazio elektronikoa, telelana, coworking, etab) | ▪ Sentsibilizazio, prestakuntza eta orientazio espezializatuko ekintzak diseinatzea (hitzaldiak, aholkularitza-programak, prestakuntza-jardunaldiak…), landa-inguruneko enpresen artean teknologia digitalak sartzea sustatzeko (Gaitasun Digital Profesionalen Programa, Mikroenpresentzako eta autonomoentzako prestakuntza eta aholkularitza tresna digitalen erabileran eta ezarpenean…) | | X |
| | ▪ **EAEn teknologia digitalen erabilera sustatzeko dauden programa eta neurrietan landa-ingurunearekiko diskriminazio positiboa** sustatzea (adibidez: Mikroenpresa Digitala Inplantalariak, Industria Digitala, Zibersegurtasun Industriala, Basque Digital Innovation Hub, Gipuzkoa Digitala, Trantsizio digital eta berderako planak…) | X | |
- 3. ARDATZA: TELEKOMINIKAZIOAK Pág. 121
- 4.ARDATZA: BIDE-SAREA ETA BIDEAK Pág. 127
- 5. ARDATZA: IRISGARRITASUNA Pág. 129

7.3.4 | C6HO. OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUA: LANDA-INGURUNEKO DESPOPULATZEAREN AURKAKO BORROKA, ZERBITZU ESPEZIFIKOAK EMANEZ Pág. 131

- 6. ARDATZA: GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA Pág. 132
- 7. ETA 8. ARDATZAK: HAUR HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO HEZKUNTZA Pág. 134
- 9. ARDATZA: DERRIGORREZKOA EZ DEN HEZKUNTZA Pág. 140
- 10. ETA 11. ARDATZAK: LEHEN MAILAKO OSASUN-ARRETA ETA ARRETA ESPEZIALIZATUA Pág. 144
- 12. ARDATZA: ARRETA FARMAZEUTIKOA Pág. 148
- 13. ARDATZA: GIZARTE-ARRETA Pág. 151
- 14., 15. ETA 16. ARDATZAK: KULTURA, KIROLA ETA AISIA Pág. 155

7.3.5 | C5HO. GIZARTE-BERRIKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA IKERKETA: BERRIKUNTZA LANDA-INGURUNEAN TXERTATZEA, ERALDAKETA SOZIAL, DIZIPLINA ANITZEKO ETA SISTEMIKOAREN ARDATZA DELAKOAN. Pág. 158

- 17., 18. ETA 19. ARDATZAK: GIZARTE-BERRIKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA IKERKETA Pág. 169

7.3.6 | C2HO. ERALDAKETA DIGITALA: IKTAK ERABILTZEA BIZI-KALITATEA HOBETZEKO ETA LANDA-INGURUNEAREN ISOLAMENDUA ARINTZEKO Pág. 163

- 20. ARDATZA: ERALDAKETA DIGITALA Pág. 163

7.3.7 | C4HO-ONDAREA: LANDA-INGURUNEAREN NATURA-, KULTURA- ETA NORTASUN-ONDAREA ZAINTZEA Pág. 166

- 21. ETA 22. ARDATZAK: KULTURA-ONDAREA KONTSERBATZEA ETA HEDATZEA Pág. 166
- 23. ARDATZA: EUSKARA SUSTATZEA Pág. 169

7.3.8 | A1HO. LURRALDE-ANTOLAMENDUA. EUSKAL LANDAGUNEAREN LURRALDE-ANTOLAMENDUA BEHAR BEZALA EGITEA, IKUSPEGI INTEGRALA, SISTEMIKOA ETA SEKTORE ANITZEKOA EDUKIKO DUEN LURRALDE-GARAPENEKO EREDU JASANGARRI OREKATU BATEN ARABERA Pág. 174

- 24. ARDATZA: LURRALDE-ANTOLAMENDUKO TRESNAK Pág. 174

7.3.9 | C3HO. ETXEBIZITZA: ETXEBIZITZARAKO IRISPIDEA IZATEA, EREMU BAKOITZAREN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK ETA PAISAIA- ETA INGURUMEN-ARLOKO EZAUGARRIAK ERRESPETATZEN DITUEN HIRIGINTZA BATEAN OINARRITUTA Pág. 178

- 25. ETA 26. ARDATZAK: ETXEBIZITZA-ESKAINTZA ETA ONDARE HIGIEZINA BIRGAITZEA Pág. 178
- 27., 28., 29. ETA 30. ARDATZAK: ERRONKA DEMOGRAFIKOA, PARTAIDETZA ETA ARRETA KOMUNITARIOA, GENERO-BERDINTASUNA ETA GAZTERIA Pág. 185

# 7.3.1. EREMUA AZTERTZEKO DOKUMENTUAREN EGITURA BIZTANLERIAREN BIZI-KALITATEA ETA ONGIZATEA




## Egiteko prozesua:

1. **Egoeraren DIAGNOSTIKOA egitea**
   Egungo egoeraren diagnostikoa egitea bizi-kalitatearen helburu orokor eta sektorialei dagokionez, landa-eremuen ezaugarriak eta sailkapena aintzat hartuta.

2. **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK identifikatzea (ZER)**
   Egoeraren diagnostikoan oinarrituta, BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK identifikatzea (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)

3. **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK formulatzea (NOLA)**
   Bizi-kalitateari lotutako gaietan eskumena duten eragile instituzionalekin itunak egiteko gomendioak formulatzea.

Hurrengo eskeman Bizi-Kalitate eta Ongizaterako atala lantzeko erabilitako lan-metodologia jasotzen da.

**IKUSPEGIA**

| HELBURU OROKORRA ETA SEKTORIALA identifikatzea | PLANAK, PROGRAMAK, POLITIKAK identifikatzea | ERAGILEAK identifikatzea | LuGP egiteko oinarrizko printzipioak |
|---|---|---|---|
| 7/2022 Legearen erreferentzia-esparrua:<br>■ Euskadiko landa-eremuko biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzearekin lotuta dauden helburu orokorrak<br>■ Helburu sektorialak: ur-hornidura, saneamendua, telekomunikazioak, garraioa eta mugikortasuna, etxebizitza, hezkuntza, kultura, osasuna, gizarte-arreta... | Eskumen-esparrua<br>■ Arloko eskumenen banaketa<br>■ Indarrean dauden araudi eta plangintzen analisia<br>■ Rural proofingaren tratamendua | ■ Bizi-kalitateari buruzko gaietan eskumena duten eragile instituzionalak identifikatzea. | 7/2022 Legearen erreferentzia-esparrua hauetan aplikatuta:<br>■ Rural proofing ikuspegia<br>■ Prozesu parte-hartzailea<br>■ Koordinazioa,zeharkatasuna<br>■ Genero-ikuspegia<br>■ Euskararen erabileraren sustapena |

**METODOLOGIA**

**FASEAK:** INSIGHTS → DIAGNOSTIKOA → BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK → ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK

**PROZESUAK:** PARTAIDETZA ETA KONTRASTEA



## Metodologia

| | |
|---|---|
| **INSIGHTS** | Bizi-kalitaterako LuGPa egiteko, lanaren oinarrizko atala izan da Landa Garapeneko 7/2022 Legean identifikatutako Bizi-kalitateko Helburuei zuzenean lotutako araudi, plan, programa, politika, funts eta eragileak identifikatzea eta aztertzea. |
| **DIAGNOSTIKOA** | Insights fasean aztertutako informaziotik abiatuta, landa-eremuen bizi-kalitatearen egoeraren diagnostikoa egin da, jarduketa-ardatzetan egituratuta. Diagnostiko horretan garapenerako aukera eta oztopoak identifikatzen dira. Horrez gain, landa-eremuen klasifikazioan oinarrituta, hasierako lurralde-egoera berezia dagoen aztertzen da. |
| **BERME LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK** | Diagnostikoan oinarrituta, bermeko landa-mekanismoa aplikatzeko lehentasuna identifikatzen dira (rural proofinga). Lehentasun horiek lehentasunezko jarduketa-ildoak direla ulertzen da, hau da, rural proofinga aplikatzeko "zer" egin behar den galderari erantzuten diote, landa-eremuen bizi-kalitatea hobetu ahal izateko. |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK** | Lehentasunezko jarduketa-ildoak erreferentziatzat hartuta, itunak egiteko gomendioak proposatzen dira, hau da, rural proofing ikuspegia "nola" aplikatu galderari erantzuten dioten proposamenak. |

Hortaz, Legeak **7 Helburu Orokor (HO)**[6] identifikatzen ditu, zeinak beste arlo batzuei lotuta dauden:

| HELBURU ESTRATEGIKOA (BIZI-KALITATEA) | LANDA-INGURUNEAREN GARAPENAREN 7/2022 LEGEAN JASOTAKO HELBURU OROKORRAK (BIZI-KALITATEA) | ARLOA |
|---|---|---|
| **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.** | ▪ **C1HO.** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak **diren azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. | **AZPIEGITURAK** |
| | ▪ **C6HO.** Landa-ingurunean despopulatzearen aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean,** seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. | **OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK** |
| | ▪ **C5HO. Berrikuntza** landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan. | **BERRIKUNTZA SOZIALA, GAIKUNTZA ETA IKERKETA** |
| | ▪ **C2HO. IKTak erabiltzea,** landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. | **ERALDAKETA DIGITALA** |
| | ▪ **C4HO.** Landa-ingurunearen **natura-, kultura- eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea.** Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira. | **ONDAREA** |
| | ▪ **A1HO:** Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat. | **LURRALDE ANTOLAMENDUA** |
| | ▪ **C3HO.** Landa-ingurunean **etxebizitzarako irispidea** izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta | **ETXEBIZITZA** |

6 Helburu orokorren izendapenak eta kodifikazioak helburu horien trazabilitate hobea ahalbidetzen dute

# 7.3.2. HELBURU ESTRATEGIKOAK, HELBURU OROKORRAK, ARLOAK, HELBURU SEKTORIALAK ETA ZEIN ARDATZI LAGUNTZEN DIEN BIZI-KALITATEAREN ETA ONGIZATEAREN DIAGNOSTIKOA

Bestalde, bizi-kalitateari lotutako 7 Helburu Orokorren barruan **22 Helburu Sektorial[2] (HS)** zehazten dira, eta, horien baitan, **26 jarduketa-ardatz.**

Gainera, Bizi-kalitate eta Ongizaterako diagnosiak **helburu ez-sektorial** batzuk identifikatzen ditu, eta horien zeharkakotasuna eta landa-eremuetako bizi-kalitatean duten eraginaren ondorioz, garrantzitsutzat jo da 4 jarduketa-ildotan lantzea.

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C1HO.** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. |
| **ARLOA** | **AZPIEGITURAK** |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **E1HS. Energia berriztagarri eta jasangarriei lotutako azpiegituren garapena indartzea, bereziki baso-biomasa erabiltzen duten azpiegiturena,** helburu hirukoitz batekin: Euskadiren energia-nahikotasuna handituko duten energia-forma garbiak sortzea; ekonomiaren garapenerako nitxo berriak inplementatzea, eta baso-azalera handien kudeaketa ziurtatzea, hala arrisku naturalak saihestuz eta lurraldearen iraunarazpenean lagunduz, eta **iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea,** bai landaguneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan.<br>• **E2HS. K**alitatezko oinarrizko azpiegituren sare bat bultzatzea, zeinak bermatuko baitu landa-inguruneko biztanleriak **ur-, saneamendu-, telekomunikazio- eta elektrizitate-hornidura zerbitzuak** eskura ditzan.<br>• **E3HS.** Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, **errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea, e**ta landa-eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharrizanei egokitzen zaizkien **sistema alternatiboak** sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz.<br>• **I1HS. Telekomunikazio-azpiegituren** hedapena bultzatzea eta horretarako bidea ematea, modu berean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta bereziki azken teknologiako **banda zabala hedatzea,** landa-eremuko eragileek globalizazioan sartzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten, hala saihestuko baita hiriko lurraldearen eta landa-eremuko lurraldearen arteko arrakala digitala. |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 1. Ur-hornidura eta saneamendua<br>2. Energia-hornidura (elektrizitatea, gasa…) eta energia berriztagarri eta jasangarriak<br>3. Telekomunikazioak<br>4. Errepide- eta bide-sarea<br>5. Irisgarritasuna |

[2] Helburu Sektorialen (HS) izendapena eta kodifikazioari esker, hobe diseinatu daitezke.

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C6HO.** Landa-ingurunean despopulatzearen aurka borrokatzea, zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. |
| **ARLOA** | OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **F2HS.** Landa-inguruneko biztanleria mantentzea eta handitzea. Xede horrekin saihestuko da biztanleriak eremu horiek uztea eta populazio-dentsitate handiagoko beste batera joatea gutxieneko biztanleriari bide emango zaio, iraunarazteko eta zerbitzu berriak abian jartzeko, bereziki **osasun- eta hezkuntza-zentroak,** eta populazio berria kokatzea erraztuko da, modu ordenatuan.<br>▪ **G1HS.** Behar diren zerbitzuak ezartzea landa-eremuko biztanleriak **hezkuntza-eskaintza** behar bezala eskura dezan bultzatzea, **biztanleria horren berezitasunak kontuan hartuko dituzten irizpide eta baremoak erabiliz,** bereziki derrigorrezko irakaskuntzari dagokionez, urrunen dauden eta tamaina txikiena daukaten biztanleguneetan.<br>▪ **G2HS.** Behar diren zerbitzuak ezartzea landa-eremuko biztanleriak **hezkuntza-eskaintza** behar bezala eskura dezan bultzatzea, **biztanleria horren berezitasunak kontuan hartuko dituzten irizpide eta baremoak erabiliz,** bereziki derrigorrezko irakaskuntzari dagokionez, urrunen dauden eta tamaina txikiena daukaten biztanleguneetan.<br>▪ **G2HS.** Irakaskuntzaren kalitatea sustatzea, euskal landa-ingurunearen eta, batik bat, **lehenengo sektorearen berezitasunei egokitzen zaizkien hezkuntza-arloko eredu, teknika eta jarraibide berritzaileetara** joz; eredu, teknika eta jarraibide horiek, era berean, landa-eremuetako biztanleek ezagutzeko eta baloratzeko modukoak izango dira, eta lehentasun gisa eremu horietako emakumeen eta gazteen prestakuntza eta gaikuntza bultzatuko dute.<br>▪ **G3HS. Landa-eremuetako biztanleen unibertsitateko, lanbideko eta lanerako prestakuntza** sustatzea**,** biztanle horien beharrizan zehatzei egokitutako prestakuntza garatuz.<br>▪ **G4HS. Hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak orokorrean antolatzeko bidea ematea, eta horretarako, balio eta funtzio anitzeko ekipamenduak sustatzea,** eta dauden desorekak zuzentzea.<br>▪ **H1HS. Osasun-baliabideak urrunen dauden eta tamaina txikiena daukaten landaguneetako biztanleengana modu progresiboan hurbilduko dituen osasun-eskaintza** sustatzea, **bereziki lehen mailako arretan, pertsona nagusiei** eta behar bereziak dituztenei **artatze egoki bat eskainiz.**<br>▪ **H2HS.** Landa-eremuko biztanleriaren beharrizanei erantzuteko bereziki diseinatutako **farmazia-eskaintza** sustatzea.<br>▪ **H3HS. Landa-entitate eta -udalerrietan jarduten duten Euskal Osasun Sistemako profesionalei eta zentroei** bitarteko eta teknologia modernoak eskura jartzea; bereziki, telemedikuntza.<br>▪ **H4HS.** Gizarte-ongizateko ekipamenduen garapenean laguntzea, talderik kalteberenei arreta berezia emanda. |
| | 6. Garraioa eta mugikortasuna.<br>7. Haur Hezkuntza<br>8. Derrigorrezko hezkuntza<br>9. Derrigorrezkoa ez den goi-mailako hezkuntza<br>10. Lehen mailako osasun-arreta<br>11. Osasun arreta espezializatua<br>12. Arreta farmazeutikoa<br>13. Gizarte-arreta<br>14. Kultura<br>15. Kirola<br>16. Aisialdia |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C5HE. Berrikuntza** landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan.. |
| **ARLOA** | **BERRIKUNTZA SOZIALA, GAIKUNTZA ETA IKERKETA** |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **D3HS.** Lanaren antolaketarako eredu berriak garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horien garapenaren bidez, kalitatezko enplegua lortzeko eta belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoek, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0 abeltzaintzak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuko dira.<br>▪ **J1HS.** Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetza bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharrizanak bete ditzaten.<br>▪ **J2HS.** Gaikuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartzea, landa-inguruneko eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dezaten eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboa eduki dezaten. Horrekin batera, prestakuntza hori euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuko da..<br>▪ **J4HS.** Euskal landa-ingurunean berrikuntza sozialaren eredu jakin bat garatzea; eredu horren oinarriak dira eragile anitzeko ikuspegiak, baterako sorkuntza, herritarren zientzia eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-formula berrien aldeko apustua. |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 17. Berrikuntza soziala<br>18. Gaikuntza berrikuntzan<br>19. Ikerketa |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C2HO. IKTak erabiltzea,** landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. |
| **ARLOA** | **ERALDAKETA DIGITALA** |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **I2HS.** Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema berriak ikertu eta bultzatzea, IKTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez.. |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 20. Eraldaketa digitala |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C4HO. Landa-ingurunearen natura-, kultura-** eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea. Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira. |
| **ARLOA** | **ONDAREA** |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **G5HS. Landa-eremuko kulturaren eta ondarearen ezagutza, zabalkundea eta balioa sustatzea,** gizarteak orokorrean landa-ingurunean dauden prozesu eta balioen berririk ez daukala-eta, egoera hori gainditzeko modua delakoan.<br>▪ **G6HS. Landa-eremuetako natura-, historia-, kultura- eta paisaia-ondarea** berreskuratzea, **kontserbatzea, garatzea eta zabaltzea, euskararen erabilera eta sustapena zeharka bultzatuz.** |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 21. Kultura-ondarea kontserbatzea<br>22. Kultura-ondarea hedatzea<br>23. Euskara sustatzea |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **A1HO.** Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat |
| **ARLOA** | **LURRALDE ANTOLAKUNTZA** |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **A1HS.** Bidea ematea Lurralde Antolamenduko Gidalerroak **(LAG),** lurralde-plan partzialak (LPP), lurralde-plan sektorialak **(LPS)** eta hiri antolamenduko plan orokorrak **(HAPO) onartzeko edo berrikusteko prozesuak** landagunea zaintzeko lagungarriak izan daitezen, eta 9. Artikuluan aurreikusten diren lurralde-garapeneko programetan (LuGP) jasotako beharrizan eta estrategiak kontuan har daitezen horiek idaztean.<br>▪ **A3HS. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adieraztea eta adostea** landagunea kontserbatzeari dagokionez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diren irizpideak |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 24. Lurraldea antolatzeko tresnak |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C3HO.** Landa-ingurunean **etxebizitzarako irispidea** izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta. |
| **ARLOA** | ETXEBIZITZA |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **F1HS. Kalitatezko etxebizitza-politika bat bultzatzea, landa-ingurunearen beharrei eta aukerei egokituta,** ingurune hori ohiko bizileku gisa erakargarri bihurtuko duena, espekulazioa saihestuko duena eta landa-inguruneko gazteei bidea emango diena etxebizitza eskuratzeko<br>• **F3HS.** Ondare higiezina hobetzen eta kontserbatzen laguntzea, eta hala, ondare horren nortasun kulturala zaintzea |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 25. Etxebizitza-eskaintza<br>26. Ondare higiezina birgaitzea |

Ardatzak Helburu Orokor eta Sektorialetan oinarrituta identifikatzeaz gain, beste **4 ardatz** identifikatu dira, **ez-sektorialak** direnak. Azken horiek bizi-kalitateari lotutako helburu estrategikoa lortzen laguntzen dute, eta populazioen dinamikoei eta kohesio sozialari lotuta daude zeharka. Hauek dira ardatzak:

▪ 27. Erronka demografikoa.
▪ 28. Partaidetza eta arreta komunitarioa.
▪ 29. Genero-berdintasuna.
▪ 30. Gazteria.

Bizi-kalitate eta Ongizaterako 7.3 atalean, 30 jarduketa-ardatzetako bakoitzean, honako eduki hauek lantzen dira:

- Landa-eremuen egoera orokorrari buruzko **diagnostikoa:**
    - Ardatz bakoitzari lotutako esparru arauemaile eta estrategikoa.
    - Ardatzaren egoerari lotuta (diagnostikoa), aintzat hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak.
    - Ardatz bakoitzari lotutako helburu sektorialak garatzeko aukera eta oztopoak.
    - Ardatz bakoitzari buruzko lurralde-diagnostikoa (landa-eremuen sailkapena/kategorizazioa - zonakatzea aintzat hartuta)
    - Ardatzari lotutako helburu sektorialak lortzeko tartean dauden eragilerik garrantzitsuenak.
- Bermeko Landa-mekanismoa aplikatzeko **lehentasunak (lehentasunezko jarduketa-ildoak)** (ZER). Diagnostikoan oinarrituta, lehentasunak identifikatu dira: “zer” galderari erantzuten dioten lehentasunezko jarduketa-ildoak. Horiek identifikatu egin behar dira rural proofinga aplikatzeko, eta, ondorioz, landa-eremuetan bizi-kalitatea hobetzeko.
- Itunak egiteko **gomendioak** (NOLA): lehentasunezko jarduketa-ildoak abiapuntutzat hartuta, itunak egiteko hainbat gomendio proposatzen dira, hau da, rural proofing ikuspegia “nola” aplikatu galderari erantzuten dioten proposamenak.
- **Berariazko lurralde-tratamendua:** Arreta Bereziko Eremuetan (ABE) eta gainerako landa-eremuetan egoera berezirik dagoen edo ez identifikatzen da egindako sailkapenaren arabera.
- **Jarduketa-ardatzaren lehentasuna** (Oso handia, handia, ertaina, txikia). Legeak adierazten du sustatu behar diren jarduketa-ardatzak identifikatu, eta, egindako sailkapenean eta lurralde historiko bakoitzean eragina duten berezitasunetan oinarrituta, lehentasuna eta eremu-ikuspegia adierazi behar direla. Horrez gain, helburua lortzeko lan egin behar duten eragile instituzional nagusiak ere adierazi behar dira.
- **Finantza-laguntza jasotzeko aukera,** ardatz bakoitzean identifikatutako gomendioak gauzatzeko.

## 7.3.3 C1HO: AZPIEGITURAK: AZPIEGITURA, ZERBITZU ETA EKIPAMENDU PUBLIKOAK HOBETZEA

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C1HO.** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. |
| **ARLOA** | AZPIEGITURAK |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **E1HS. Energia berriztagarri eta jasangarriei lotutako azpiegituren garapena indartzea, bereziki baso-biomasa erabiltzen duten azpiegiturena,** helburu hirukoitz batekin: Euskadiren energia-nahikotasuna handituko duten energia-forma garbiak sortzea; ekonomiaren garapenerako nitxo berriak inplementatzea, eta baso-azalera handien kudeaketa ziurtatzea, hala arrisku naturalak saihestuz eta lurraldearen iraunarazpenean lagunduz, eta **iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea,** bai landaguneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan.<br>• **E2HS.** Kalitatezko oinarrizko azpiegituren sare bat bultzatzea, zeinak bermatuko baitu landa-inguruneko biztanleriak **ur-, saneamendu-, telekomunikazio- eta elektrizitate-hornidura zerbitzuak** eskura ditzan.<br>• **E3HS.** Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, **errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea,** eta landa-eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharrizanei egokitzen zaizkien **sistema alternatiboak** sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz.<br>• **I1HS. Telekomunikazio-azpiegituren** hedapena bultzatzea eta horretarako bidea ematea, modu berean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta bereziki azken teknologiako **banda zabala hedatzea,** landa-eremuko eragileek globalizazioan sartzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten, hala saihestuko baita hiriko lurraldearen eta landa-eremuko lurraldearen arteko arrakala digitala. |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 1. Ur-hornidura eta saneamendua<br>2. Energia-hornidura (elektrizitatea, gasa…) eta energia berriztagarri eta jasangarriak<br>3. Telekomunikazioak<br>4. Errepide- eta bide-sarea<br>5. Irisgarritasuna |

## 1. ARDATZA: UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDUA

| **1.Ardatza: Ur-hornidura eta saneamendua** |
|---|
| **E2HS.** Kalitatezko oinarrizko azpiegituren sare bat bultzatzea, zeinak bermatuko baitu landa-inguruneko biztanleriak **ur-, saneamendu-, telekomunikazio- eta elektrizitate-hornidura zerbitzuak** eskura ditzan. |
| **C1HO:** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. |

## ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- Kantauri Ekialdeko Demarkazioko Plan hidrologikoaren agiriak 2022-2027
- Kantauri Mendebaldeko Demarkazioko Plan hidrologikoaren agiriak 2022-2027
- Ebroko Plan Hidrologikoa 2022-2027
- Lurralde Historikoen Legeak adierazten du foru-aldundiek interes orokorrekoak ez diren obra publikoen eskumen esklusiboaren titularrak direla, udalaz gaindiko izaera duten zerbitzu publikoak emateko eta koordinatzeko arduradun gisa. Betalde, udal-administrazioak biztanleei ur-hornidura eta saneamendua eman eta hondakin-urak araztu behar ditu.
- Foru administrazioak udalei laguntzen die hornidura eta saneamendua bermatzeko beharrezkoak diren obra publikoak finantzatzen.
- Euskadik, plangintza hidrologikoari dagokionez, hiru eskumen-esparru ditu: URAk EAEko lurraldean soilik dauden arroetan du eskumena. Arro horiek Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrologikoa osatzen dute. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eskumena du autonomia-erkidego bat baino gehiago gurutzatzen duten eta urak Kantauri itsasoan isurtzen di- ren arroetan. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, aldiz, eskumena du autonomia-erkidego bat baino gehiago gurutzatzen duten eta Ebro ibaian isurtzen diren arroetan.

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

Gipuzkoan, udalerri asko sistema mankomunatuetan bildu dira hornidura eta ur-hondakinen arazketa modu eraginkorragoan kudeatzeko: Txingudiko zerbitzuak (Irun eta Hondarribia), Añarbeko urak (Donostialdeko 10 udalerri biltzen ditu) eta Gipuzkoako Urak (GU). Azken hori Foru Aldundiak (% 25) eta Añarbe edo Txingudiko mankomunitatekoak ez diren udalerriek osatzen dute. Ermua eta Mallabia Bizkaiko udalerriei ere zerbitzua ematen die.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (BUP) lehen mailako sarearen kudeaketaz arduratzen den erakundea da, hau da, Bizkaiko milioi bat biztanle inguruen ur-edangarria horitu eta hondakin-urak arazten ditu. Laurogeita hamazazpi udalerrik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak osatzen dute.

Araban 7 partzuergo daude, eta URBIDE da guztietan garrantzitsuena. Gainerako udalerriek modu independentean kudeatzen dute. Arabako Foru Aldundiak Arabako uraren hornidura eta saneamendurako plan zuzentzailea (2016-2026) du.

## 1.ARDATZA: Ur-hornidura eta saneamendua

**ABE udalerrien egoera, ur-hornidura eta saneamendurako partzuergo bateko kide direna ala ez.**

| Lurralde Hist. | LGE | Udalerria | Ur/Saneamendu partzuergoa |
|---|---|---|---|
| Araba | Añana | Añana | EZ |
| Araba | Añana | Armiñón | Urbide |
| Araba | Añana | Berantevilla | Urbide |
| Araba | Añana | Erriberagoitia/Ribera Alta | Urbide |
| Araba | Añana | Kuartango | Urbide |
| Araba | Añana | Lantarón | Urbide |
| Araba | Añana | Valdegovía/Gaubea | Urbide |
| Araba | Añana | Zambrana | Urbide |
| Araba | Izki | Arraia-Maeztu | Urbide |
| Araba | Izki | Bernedo | EZ |
| Araba | Izki | Campezo/Kanpezu | Urbide |
| Araba | Izki | Harana/Valle de Arana | Urbide |
| Araba | Izki | Lagrán | EZ |
| Araba | Izki | Peñacerrada-Urizaharra | EZ |
| Araba | Lautada | Barrundia | Urbide |
| Araba | Lautada | Iruraiz-Gauna | Urbide |
| Araba | Lautada | San Millán/Donemiliaga | Urbide |
| Araba | Lautada | Zalduondo | EZ |
| Araba | Arabako Errioxa | Baños de Ebro/Mañueta | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Elvillar/Bilar | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Kripan | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Lanciego/Lantziego | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Lapuebla de Labarca | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Leza | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Moreda de Álava/Moreda Araba | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Navaridas | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Samaniego | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Villabuena de Álava/Eskuernaga | Arabako Errioxa |
| Araba | Arabako Errioxa | Yécora/Iekora | Arabako Errioxa |
| Bizkaia | Enkarterrialde | Artzentales | EZ |
| Bizkaia | Enkarterrialde | Galdames | BUP |
| Bizkaia | Enkarterrialde | Karrantza Harana/Valle de Carranza | EZ |
| Bizkaia | Enkarterrialde | Lanestosa | EZ |
| Bizkaia | Enkarterrialde | Trucios-Turtzioz | BUP |
| Bizkaia | Gorbeialde | Arakaldo | EZ |
| Bizkaia | Gorbeialde | Ubide | BUP |
| Bizkaia | Jata Ondo | Meñaka | EZ |
| Bizkaia | Lea Artibai | Aulesti | BUP |
| Bizkaia | Lea Artibai | Ziortza-Bolibar | BUP |
| Bizkaia | Urremendi | Busturia | BUP |
| Bizkaia | Urremendi | Ea | BUP |
| Bizkaia | Urremendi | Ereño | BUP |
| Bizkaia | Urremendi | Errigoiti | EZ |
| Bizkaia | Urremendi | Forua | BUP |
| Bizkaia | Urremendi | Morga | BUP |
| Bizkaia | Urremendi | Nabarniz | BUP |
| Gipuzkoa | Debagaraia | Leintz-Gatzaga | GU |
| Gipuzkoa | Goimen | Altzaga | GU |
| Gipuzkoa | Goimen | Gabiria | GU |
| Gipuzkoa | Goimen | Gaintza | GU |
| Gipuzkoa | Goimen | Mutiloa | GU |
| Gipuzkoa | Goimen | Zerain | GU |
| Gipuzkoa | Tolomendi | Baliarrain | GU |
| Gipuzkoa | Tolomendi | Elduain | GU |

| **EJE 1: Abastecimiento de Agua y Saneamiento** | | | |
|---|---|---|---|
| **ABE udalerrien egoera, ur-hornidura eta saneamendurako partzuergo bateko kide direna ala ez.** | | | |
| **TT.HH.** | **ADR** | **Municipio** | **Agua/Saneamiento Consorciado** |
| Gipuzkoa | Tolomendi | Gaztelu | EZ |
| Gipuzkoa | Tolomendi | Hernialde | GU |
| Gipuzkoa | Tolomendi | Larraul | GU |
| Gipuzkoa | Tolomendi | Orendain | GU |
| Gipuzkoa | Tolomendi | Orexa | GU |
| Gipuzkoa | Urkome | Beizama | GU |
| Gipuzkoa | Urkome | Errezil | GU |

Ur-hornidura eta saneamendu partzuergoren bateko kide ez diren eta udal-kudeaketa egiten duten udalerriak

| **Ur-hornidura eta saneamendu partzuergoren bateko kide ez diren eta udal-kudeaketa egiten duten udalerriak** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Lurralde hist.** | **Eskualdea** | **LGE** | **Udalerria** | **Zonifik.** |
| Araba | Añana | Añana | Añana | ABE |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Bernedo | ABE |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Lagrán | ABE |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Peñacerrada-Urizaharra | ABE |
| Araba | Arabako Lautada | Lautada | Zalduondo | ABE |
| Bizkaia | Arratia-Nervión | Gorbeialde | Arakaldo | ABE |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Artzentales | ABE |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Errigoiti | ABE |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Karrantza Harana | ABE |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Lanestosa | ABE |
| Bizkaia | Uribe | Jata Ondo | Meñaka | ABE |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Gaztelu | ABE |
| Araba | Gorbeia inguruak | Mairuelegorreta | Aramaio | EGL |
| Araba | Arabako Lautada | Lautada | Asparrena | EGL |
| Araba | Arabako kantauriarra | Zabaia | Okondo | EGL |
| Araba | Gorbeia inguruak | Mairuelegorreta | Urkabustaiz | EGL |
| Araba | Gorbeia inguruak | Mairuelegorreta | Zuia | EGL |
| Bizkaia | Arratia-Nervión | Gorbeialde | Arrankudiaga-Zollo | EGL |
| Bizkaia | Uribe | Jata Ondo | Arrieta | EGL |
| Bizkaia | Durangaldea | Urkiola | Garai | EGL |
| Bizkaia | Arratia-Nervión | Gorbeialde | Otxandio | EGL |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Alkiza | EGL |
| Araba | Arabako Lautada | Lautada | Agurain/Salvatierra | LHS |
| Bizkaia | Durangaldea | Urkiola | Amorebieta-Etxano | LHS |
| Bizkaia | Durangaldea | Urkiola | Berriz | LHS |
| Bizkaia | Arratia-Nervión | Gorbeialde | Orozko | LHS |

***ABE:*** *Arreta Bereziko Eremuak*

***EGL:*** *Entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udalerriak*

***LHS:*** *Landa-habitata sakabanatua duten udalerriak*

## 1.ARDATZA: Ur-hornidura eta saneamendua. E2HS / C1HO

### AUKERAK

- Azken hamarkadetan inbertsio handiak egin dira, eta horiei esker hornidura eta saneamendu-sistemak nabarmen hobetu dira.
- Halaber, efizientziari dagokionez, hobekuntzak egin dira (kontsumoa, ihesak…)
- Udalerri gehienak partzuergoetako kide dira, eta, ondorioz, kudeaketa integrala da.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Landa-biztanlegune batzuk ez daude ur-hornidurako eta ur-hondakinen arazketarako sistema nagusietara konektatuta.
- Landa-eremuko udalerri eta auzo batzuk ez dira partzuergo edo mankomunitateetako kide.
- Hornidura eta saneamendua udalaren eskumena da; ondorioz, inbertsio-partidak mugatuak dira.
- Klima aldaketak eta gero eta ohikoagoa den muturreko beroak arazoak sor ditzakete horniduran. Gainera, lehen sektorearen ur-beharrak egoera larriagotzen du.
- Hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak mantentzea oso garestia da, eta etengabe berritu behar dira.
- Landa-eremu batzuetara, udan, bisitariak eta bigarren etxebizitza duten pertsonak iristen dira, eta horrek ur-kontsumoa nabarmen igotzea eragiten du. Ondorioz, hornidura mugatu egin behar izaten da.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik. Egoera oso bestelakoa izan daiteke landagunearen arabera, edo partzuergo edo mankomunitate bateko kide izatearen arabera.
- Bizkaian BUPeko kide ez diren 13 udalerri daude eta Gipuzkoan partzuergoetan ez dauden bi udalerri. Araban, ordea, egoera ezberdina da.
- Eskumena udalei dagokie, eta, ondorioz, estaldura- eta inbertsio-mailak aldatu egiten dira udalerri batetik bestera.

### BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK

- Turismoaren eragina (bigarren etxebizitzak). Landa-eremuaren arabera eragina ezberdina da.
- Sare nagusiari lotuta ez dauden landaguneak kuantifikatzeko berariazko ad hoc lan bat behar da.
- Gipuzkoan sakabanatutako guneak daude, hornidura- eta saneamendu-arazoak dituztenak, eta aurreikusi da etorkizunean egoera larriagotu egin daitekeela.
- Bizkaian, kudeaketan aldeak daude; izan ere, tokiko erakunde batzuk partzuergoetan daude, eta beste batzuk ez.

## AGENTE GARRANTZITSUENAK

- **Udalak**
- **Foru-aldundiak**
- **Partzuergo eta mankomunitateak**
- **URA**
- **Demarkazio hidrografikoak**

| 1.ARDATZA: Ur-hornidura eta saneamendua. E2HS / C1HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **HANDIA**<br>Gipuzkoa: OSO HANDIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik. Egoera oso bestelakoa izan daiteke landagunearen arabera, edo partzuergo edo mankomunitate bateko kide izatearen arabera. |
| **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER).** | |
| 1. Landa-eremuko udalerriak eta –guneak pixkanaka ur-hornidura eta saneamenduko sistema orokorretan sartzeko aukera/egokitasuna aztertzea, modu horretan klima aldaketaren ondorioz (lehorte luzeak…) egoera zaurgarrian geratzen ez direla bermatzeko. Horretarako mankomunitate, partzuergo, udal eta URArekin lan egingo da. | |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK formulatzea (NOLA)** | |
| 1. Foru-aldundi, udal eta LGE-ekin batera ur-hornidura eta saneamenduen sare orokorrei lotuta ez dauden landa-eremuak aztertzea, partzuergoetan san daitezkeen baloratzeko.<br>2. Sartzeko proposamena egitea, egokitzat jotzen bada.<br>3. Saneamenduaren arloan, lehentasunezko jarduketa espezifikoak garatzea. | |
| **FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKOA AUKERAK** | |
| ▪ Partzuergoetako kide diren udalerrietan azpiegiturak hobetzeko foru-laguntza espezifikoak daude. Halaber, kudeaketa-erakundeek (partzuergo eta mankomunitateek) ere inbertsio-planak dituzte. | |

## 2. ARDATZA. ENERGIA BERRIZTAGARRI ETA JASANGARRIAK. ENERGIA-HORNIDURA (ELEKTRIKOA, GASA…)

| 2. ARDATZA: Energia berriztagarri eta jasangarriak. Energia-hornidura (elektrikoa, gasa…) |
|---|
| ▪ **E1HS.** Energia berriztagarri eta jasangarriei lotutako azpiegituren garapena indartzea, bereziki baso-biomasa erabiltzen duten azpiegiturena, helburu hirukoitz batekin: Euskadiren energia-nahikotasuna handituko duten energia-forma garbiak sortzea; ekonomiaren garapenerako nitxo berriak inplementatzea, eta baso-azalera handien kudeaketa ziurtatzea, hala arrisku naturalak saihestuz eta lurraldearen iraunarazpenean lagunduz, eta iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea, bai landaguneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan.<br>▪ **E2HS.** Kalitatezko oinarrizko azpiegituren sare bat bultzatzea, zeinak bermatuko baitu landa-inguruneko biztanleriak ur-, saneamendu-, telekomunikazio- eta elektrizitate-hornidura zerbitzuak eskura ditzan. |
| **C1HO:** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 4/2019 LEGEA, OTSAILAREN 21EKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKOA
- 254/2020 DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- TRANTSIZIO ENERGETIKOARI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZ LEGE-PROIEKTUA
- EUSKADIKO ENERGIA ESTRATEGIA
- 2021-2024 ENERGIA TRANTSIZIOAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN PLANA
- 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, sektore elektrikoari buruzkoa

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- **2021-2024 Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planaren** helburua da emisioak murriztea eta energia berriztagarriak indartzea, bai eta lurraldea klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea ere. Plana Euskadiko Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren lehen Legearen aurreko urrats gisa onetsi da. Planak, zehazki, berotegi-efektuko gasen emisioa % 30 murriztea, energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea , eta Euskadi klima-aldaketarekiko erresiliente izatea bermatzea du helburu.

- Euskadiko landagune ia guztiek ohiko sare elektrikorako konexioa dute, eta horniduraren kalitatea da eremu horietan aurre egin beharreko arazo nagusia; izan ere, etenak egon ohi dira eta matxurak konpontzeko denbora luzea behar izaten dute, batez ere fenomeno meteorologiko bortitzen ondoren.

- Foru-aldundiek landa eremuen garapenerako eta jendea eremu horietan bizitzeko dirulaguntzak egokitu dituzte, besteak beste, hornidura hobetzeko laguntzak, nahiz eta oso orokorrak eta zenbateko txikikoak izan.

- Araudi energetiko berriak kontsumorako energia berriztagarriak sortzeko eta kudeatzeko ahalmena ematen die biztanleei, kontsumitzaile aktiboen eta komunitate energetikoen figura berrien bidez.

- Komunitate energetikoak: Komunitate energetikoen bidez herrialdeko balio eta egitura energetikoa lotzeaz gain, proiektu handiagoak

sortzea ahalbidetzen du, bizilagun gehiago barne hartuko dituena. Formula horrek tamaina handiko azpiegitura energetikoak ahalbidetuko ditu, gertuko energia sortuko dutenak (0 kilometrokoa), horren parte diren pertsona eta familiek instalazio fotovoltaikoei lotutako ekonomiak aprobetxatu ditzaten, instalazio horiek berezko gisa identifikatu ditzaten, eta kontsumo elektrikoaren totalaren baliokidea den energia-bolumena sortu dezaten.

**2. ARDATZA. Energia berriztagarri eta jasangarriak. Energia-hornidura (elektrizitatea, gasa…)**
**E1HS eta E2HS / C1HO**

**AUKERAK**

- Araudi eta instituzioen bidez bultzada eman zaie aurrezteko, energia-efizientziaren eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko neurriei.
- Komunitate energetikoak sortzeko mugimendua abiarazi da.
- Kontsumorako energia berriztagarriak sortzeko eta kudeatzeko ahalmena ematen ari zaie biztanleei, kontsumitzaile aktiboen eta komunitate energetikoen figura berrien bidez.
- 0km energia: Kooperatibak sortzen ari dira, herrialdeko balio eta egitura energetikoa lotzeaz gain, proiektu handiagoak sortzea ahalbidetu eta bizilagun gehiago barne hartuko dituztenak.
- Nekazaritza-jarduerarekin bateragarriak diren eredu jasangarriak sustatzea.

**GARAPENERAKO OZTOPOAK**

- Hornidura elektrikoaren kalitatean arazoak daude, eta horiek bizilagunen bizi-kalitatea baldintzatzeaz gain, jarduera ekonomikoak ezartzea eta/edo garatzea ere baldintzatu dezakete.
- Gar-hornidurari dagokionez, udalerri txikietan oso azpiegitura gutxi daude, eta, ondorioz, bizilagunek hornidurarako beste modu batzuk bilatu behar dituzte.
- Espainiako Sare Elektrikoa goi-tentsioko azpiegituren arduraduna da, eta, ondorioz, horren inbertsioen mende gaude.
- Nekazaritza-erabileren eta instalazio fotovoltaiko eta/edo eolikoen bateragarritasunari buruzko araudi argirik eta erabakirik eza.
- Energia berriztagarrietarako lehengaia den baso-masak behera egitea.

**LURRALDE-DIAGNOSTIKOA**

**LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**

- Printzipioz, ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik. Etorkizuneko LGEPetan landu beharko da modu zehatzagoan.

**BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK**

- • Berariazko ad hoc lan bat egin behar da, gas-horniduraren kalitatean akats sistematikoak dituzten landaguneak kuantifikatzeko.

**AGENTE GARRANTZITSUENAK**

- **Udalak**
- **Foru-aldundiak**
- **EJ - EEE**
- **Espainiako Sare Elektrikoa**

**ABE udalerrien egoera etxebizitzetako gas-horniduraren estalduraren arabera (%)**

| Lurralde hist. | Eskualdea Eustat | LGE | Udalerria | Gasa duten etxebizitzen % |
|---|---|---|---|---|
| Araba | Añana | Añana | Añana | 22,0 |
| Araba | Añana | Añana | Armiñón | 0,0 |
| Araba | Añana | Añana | Berantevilla | 0,0 |
| Araba | Añana | Añana | Erriberagoitia/Ribera Alta | 13,5 |
| Araba | Añana | Añana | Kuartango | 15,9 |
| Araba | Añana | Añana | Lantarón | 0,3 |
| Araba | Añana | Añana | Valdegovía/Gaubea | 25,1 |
| Araba | Añana | Añana | Zambrana | 11,5 |
| Araba | Arabako Lautada | Lautada | Barrundia | 41,3 |
| Araba | Arabako Lautada | Lautada | Iruraiz-Gauna | 0,0 |
| Araba | Arabako Lautada | Lautada | San Millán/Donemiliaga | 0,0 |
| Araba | Arabako Lautada | Lautada | Zalduondo | 0,0 |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Arraia-Maeztu | 1,1 |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Bernedo | 0,0 |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Campezo/Kanpezu | 24,2 |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Harana/Valle de Arana | 12,8 |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Lagrán | 7,6 |
| Araba | Arabako Mendialdea | Izki | Peñacerrada-Urizaharra | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Baños de Ebro/Mañueta | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Elvillar/Bilar | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Kripan | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Lanciego/Lantziego | 2,7 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Lapuebla de Labarca | 13,8 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Leza | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Moreda de Álava/Moreda Araba | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Navaridas | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Samaniego | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Villabuena de Álava/Eskuernaga | 0,0 |
| Araba | Arabako Errioxa | Arabako Errioxa | Yécora/Iekora | 10,9 |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Artzentales | 0,0 |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Galdames | 0,0 |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Karrantza Harana/Valle de Carranza | 11,0 |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Lanestosa | 0,0 |
| Bizkaia | Enkarterri | Enkarterrialde | Trucios-Turtzioz | 0,0 |
| Bizkaia | Arratia-Nervión | Gorbeialde | Arakaldo | 12,3 |
| Bizkaia | Arratia-Nervión | Gorbeialde | Ubide | 33,7 |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Busturia | 9,5 |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Ea | 16,2 |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Ereño | 0,0 |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Errigoiti | 0,0 |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Forua | 45,1 |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Morga | 0,0 |
| Bizkaia | Busturialdea | Urremendi | Nabarniz | 0,0 |
| Bizkaia | Lea Artibai | Lea Artibai | Aulesti | 41,0 |
| Bizkaia | Lea Artibai | Lea Artibai | Ziortza-Bolibar | 38,0 |
| Bizkaia | Uribe | Jata Ondo | Meñaka | 0,0 |
| Gipuzkoa | Debagaraia | Debagaraia | Leintz-Gatzaga | 19,1 |
| Gipuzkoa | Goierri | Goimen | Altzaga | 0,0 |
| Gipuzkoa | Goierri | Goimen | Gabiria | 0,0 |
| Gipuzkoa | Goierri | Goimen | Gaintza | 0,0 |
| Gipuzkoa | Goierri | Goimen | Mutiloa | 12,0 |

| Lurralde hist. | Eskualdea Eustat | LGE | Udalerria | Gasa duten etxebizitzen % |
|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa | Goierri | Goimen | Zerain | 5,5 |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Baliarrain | 16,0 |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Elduain | 4,2 |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Gaztelu | 0,0 |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Hernialde | 0,0 |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Larraul | 31,0 |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Orendain | 0,0 |
| Gipuzkoa | Tolosaldea | Tolomendi | Orexa | 0,0 |
| Gipuzkoa | Urola Kosta | Urkome | Beizama | 0,0 |
| Gipuzkoa | Urola Kosta | Urkome | Errezil | 2,1 |

**2. ARDATZA. Energia berriztagarri eta jasangarriak. Energia-hornidura (elektrikoa, gasa…)**
**E1HS eta E2HS / C1HO**

| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
|---|---|
| OSO HANDIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Printzipioz, ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER).**

1. Landa-eremuetan, eta, batez ere, sakabanatutako eremuetan, energia hornidura jasangarri, egonkor eta kalitatezkoa sustatzea.
2. Energia elektrikoaren horniduraren kalitatea hobetzea landa-eremuko udalerrietan.
3. Energia berriztagarrien programak abian jartzea. Landa-ingurunea egokitzea eta indartzea.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK formulatzea (NOLA)**

1. Berariazko ad hoc lan bat egitea, gas-horniduraren kalitatean akats sistematikoak dituzten landaguneak kuantifikatzeko.
2. Km0 energia: EEEk landa-ingurunean komunitate energetikoak sortzen laguntzea, herrialdeko balio eta egitura ekonomikoa lotzeaz gain, proiektu handiagoak sortzea ahalbidetu eta bizilagun gehiago barne hartuko dituena.
3. EEErekin batera lan egitea landa-eremuetan energia-efizientzia, energia aurrezpena eta zerbitzu elektrikoa hobetzera bideratutako jarduketak garatzeko. Horretarako, auditoretza energetikoak egingo dira zenbait eskualdetan.
4. Nekazaritza-erabileren eta instalazio fotovoltaiko eta/edo eolikoen bateragarritasunari buruzko araudi argiak sortzeko lan egitea.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKOA AUKERAK**

- Emisio eta Transferentzia Kutsagarrien Europako Erregistroaren (PRTR) (2023-2026) eranskinak, REPowerEU funtsen bidez, jarraipena eman eta indartu egingo ditu energia autokontsumorako eta energia biltegiratzeko eta komunitate energetikoei laguntzeko PRTR 2021-2023ko programak.

## 3. ARDATZA: TELEKOMUNIKAZIOAK

**3. ARDATZA: Telekomunikazioak**

- **E2HS.** Kalitatezko oinarrizko azpiegituren sare bat bultzatzea, zeinak bermatuko baitu landa-inguruneko biztanleriak **ur-, saneamendu-, telekomunikazio- eta elektrizitate-hornidura zerbitzuak** eskura ditzan.
- **I1HS: Telekomunikazio-azpiegituren** hedapena bultzatzea eta horretarako bidea ematea, modu berean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta bereziki azken teknologiako banda zabala hedatzea, landa-eremuko eragileek globalizazioan sartzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten, hala saihestuko baita hiriko lurraldearen eta landa-eremuko lurraldearen arteko arrakala digitala.

**C1HO:** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin.

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- Euskadi Banda Zabala Programa
- Banda Zabalaren Hedapen Plana (BZHP)

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Banda zabala Euskadi osoan hedatzea "2020 Euskadi Agenda Digitalaren" barne dagoen proiektu estrategikoa da. Horrekin, errentagarritasun txikia dela eta, telekomunikazioen konpainiek esku hartzen ez duten biztanlegune txikietara banda zabala hedatu nahi da.
- Edonola ere, egun ez dira aurreikusitako erritmo eta epeak betetzen ari, eta, ondorioz, zerbitzurik gabeko "eremu zuriak" daude. Egun, Euskadiko atarien % 92,4k banda zabal ultralasterrerako konexio finkoa du. Hala ere, ABE-etan ehuneko hori % 89,1ekoa da. Bizkaian dago hedapenik txikiena; izan ere, atarien % 16,3k ez du oraindik banda zabaleko estaldura.
- Banda zabalaren hedapena batzuetan ez da eraginkorra administrazioko arazoengatik eta kableak jarri behar diren lurren jabetzagatik, edo mugikorren estalduragatik.

| | Zerbitzurik gabeko atariak | ABE atariak | % estaldurarik gabe |
|---|---|---|---|
| **ABE** | 2.487 | 22.921 | **10,9%** |
| **EAE, guztira** | 14.187 | 185.751 | **7,6%** |

| 3. ARDATZA: Telekomunikazioak | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ABE udalerria** | **ZERBITZUA DUTENAK** | **LAGUNTZA PUBLIKOEKIN HEDATZEN** | **ESKARIRIK GABE** | **ZERBITZURIK GABE (2024 SAILK. ZU-RIAN JAKINA-RAZ.)** | **ZERBITZU-RIK GABE (ZURIA 2023)** | **Zerbitzu-rik gabe, guztira** | **Bizkaiko ABEak, guztira** | **Estal-durarik gabe-koen %** |
| Ereño | 20 | 84 | 5 | 2 | 20 | 111 | 131 | % 84,7 |
| Meñaka | 121 | 112 | 1 | 5 | 4 | 122 | 243 | % 50,2 |
| Morga | 123 | 102 | 2 | | | 104 | 227 | % 45,8 |
| Errigoiti | 178 | 51 | 2 | 3 | 7 | 63 | 241 | % 26,1 |
| Ziortza-Bolibar | 130 | 14 | 2 | 1 | 28 | 45 | 175 | % 25,7 |
| Galdames | 384 | 64 | 5 | 7 | 4 | 80 | 464 | % 17,2 |
| Karrantza Harana/ Valle de Carranza | 1265 | 163 | 12 | 16 | 13 | 204 | 1.469 | % 13,9 |
| Busturia | 438 | 42 | 5 | | 15 | 62 | 500 | % 12,4 |
| Ea | 328 | 3 | 4 | 17 | 15 | 39 | 367 | % 10,6 |
| Artzentales | 339 | 24 | 4 | | 2 | 30 | 369 | % 8,1 |
| Aulesti | 251 | 1 | 1 | 10 | 8 | 20 | 271 | % 7,4 |
| Nabarniz | 140 | 7 | 1 | | | 8 | 148 | % 5,4 |
| Trucios-Turtzioz | 345 | 11 | 6 | | | 17 | 362 | % 4,7 |
| Lanestosa | 152 | 3 | 1 | | | 4 | 156 | % 2,6 |
| Forua | 302 | 4 | 1 | | | 5 | 307 | % 1,6 |
| Arakaldo | 61 | | 1 | | | 1 | 62 | % 1,6 |
| Ubide | 110 | | 1 | | | 1 | 111 | % 0,9 |
| | | **Bizkaia ABE, guztira** | | | | **916** | **5.603** | **16,3%** |
| | | **Bizkaia, guztira** | | | | **5.577** | **89.518** | **6,2%** |

**EJE 3: Telecomunicaciones**

| ABE udalerria | ZERBITZUA DUTENAK | LAGUNTZA PUBLIKOEKIN HEDATZEN | ESKARIRIK GABE | ZERBITZURIK GABE (2024 SAILK. ZURIAN JAKINARAZ.) | ZERBITZURIK GABE (ZURIA 2023) | Zerbitzurik gabe, guztira | Gipuzkoako ABEak, guztira | Estaldurarik gabekoen % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Leintz-Gatzaga | 78 | 27 | | | | 27 | 105 | 25,7% |
| Elduain | 82 | 6 | 2 | | 6 | 14 | 96 | 14,6% |
| Zerain | 116 | 18 | | | | 18 | 134 | 13,4% |
| Gaztelu | 60 | 6 | | | 1 | 7 | 67 | 10,4% |
| Errezil | 280 | 23 | | | 2 | 25 | 305 | 8,2% |
| Baliarrain | 64 | 5 | | | | 5 | 69 | 7,2% |
| Orexa | 41 | 3 | | | | 3 | 44 | 6,8% |
| Beizama | 96 | 7 | | | | 7 | 103 | 6,8% |
| Mutiloa | 112 | 7 | | | 1 | 8 | 120 | 6,7% |
| Orendain | 106 | 6 | | | 1 | 7 | 113 | 6,2% |
| Gabiria | 275 | 10 | 1 | | 3 | 14 | 289 | 4,8% |
| Larraul | 83 | 1 | | | | 1 | 84 | 1,2% |
| Hernialde | 125 | 1 | | | | 1 | 126 | 0,8% |
| Altzaga | 71 | | | | | 0 | 71 | 0,0% |
| **Gipuzkoako ABEak, guztira** | | | | | | **137** | **1.726** | **7,9%** |
| **Gipuzkoa, guztira** | | | | | | **6.112** | **61.945** | **9,9%** |

| EJE 3: Telecomunicaciones | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ABE udalerria** | **ZERBITZUA DUTENAK** | **LAGUNTZA PUBLIKOEKIN HEDATZEN** | **ESKARIRIK GABE** | **ZERBITZURIK GABE (2024 SAILK. ZURIAN JAKINARAZ.)** | **ZERBITZURIK GABE (ZURIA 2023)** | **Zerbitzurik gabe, guztira** | **Arabako ABEak, guztira** | **Estaldurarik gabekoen %** |
| San Millán/ Donemiliaga | 447 | 12 | 12 | 2 | 243 | 269 | 716 | 37,6% |
| Iruraiz-Gauna | 307 | 6 | 9 | 5 | 130 | 150 | 457 | 32,8% |
| Lagrán | 317 | | 6 | 3 | 113 | 122 | 439 | 27,8% |
| Arraia-Maeztu | 535 | 21 | 9 | 25 | 98 | 153 | 688 | 22,2% |
| Kuartango | 303 | 46 | 12 | | 3 | 61 | 364 | 16,8% |
| Barrundia | 686 | 55 | 21 | | 37 | 113 | 799 | 14,1% |
| Peñacerrada-Urizaharra | 350 | 3 | 5 | 2 | 36 | 46 | 396 | 11,6% |
| Bernedo | 797 | 33 | 11 | | 39 | 83 | 880 | 9,4% |
| Valdegovía/ Gaubea | 1567 | 8 | 36 | | 101 | 145 | 1712 | 8,5% |
| Armiñón | 172 | 1 | 4 | | 10 | 15 | 187 | 8,0% |
| Añana | 307 | | 3 | | 23 | 26 | 333 | 7,8% |
| Leza | 307 | 18 | 1 | | | 19 | 326 | 5,8% |
| Erriberagoitia/ Ribera Alta | 1044 | 17 | 16 | | 31 | 64 | 1108 | 5,8% |
| Zalduondo | 141 | 4 | 1 | | 3 | 8 | 149 | 5,4% |
| Navaridas | 225 | 11 | 1 | | | 12 | 237 | 5,1% |
| Lantarón | 929 | 7 | 11 | | 30 | 48 | 977 | 4,9% |
| Berantevilla | 448 | 6 | 5 | | 5 | 16 | 464 | 3,4% |
| Zambrana | 621 | 7 | 4 | | 6 | 17 | 638 | 2,7% |
| Elvillar/Bilar | 353 | 6 | 1 | | 2 | 9 | 362 | 2,5% |
| Campezo/ Kanpezu | 927 | 11 | 4 | | 7 | 22 | 949 | 2,3% |
| Villabuena de Álava/ Eskuernaga | 295 | 4 | 2 | | | 6 | 301 | 2,0% |
| Moreda de Álava/ Moreda Araba | 395 | 6 | 1 | | 1 | 8 | 403 | 2,0% |
| Harana/ Valle de Arana | 370 | | 6 | | | 6 | 376 | 1,6% |
| Baños de Ebro/ Mañueta | 306 | | 1 | | 2 | 3 | 309 | 1,0% |
| Lanciego/ Lantziego | 582 | | 3 | | 2 | 5 | 587 | 0,9% |
| Samaniego | 249 | 1 | 1 | | | 2 | 251 | 0,8% |
| Yécora/Iekora | 406 | | 2 | | 1 | 3 | 409 | 0,7% |
| Lapuebla de Labarca | 570 | | 1 | | 2 | 3 | 573 | 0,5% |
| Kripan | 202 | | | | | 0 | 202 | 0,0% |
| | **Arabako ABEak, guztira** | | | | | **1.434** | **15.592** | **9,2%** |
| | | **Araba, guztira** | | | | **2.498** | **34.288** | **7,3%** |

## 3. ARDATZA: Telekomunikazioak. E1HS eta E2HS / C1HO

### AUKERAK

- Erakundeek konpromisoa dute EAEko lurralde osoan banda zabala hedatzeko. Proiektu estrategikoa.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Biztanle gutxiko eremuetan mugikorren estaldurak batzuetan mugatu egiten du biztanleak mantentzea edo finkatzea.
- Egun ez dira landa-eremuetan banda zabala ezartzeko aurreikusitako erritmo eta epeak betetzen ari, eta, ondorioz, zerbitzurik gabeko “eremu zuriak” daude.
- Kableak jarri behar diren lurretan administrazioko eta jabetzako zailtasunak daude.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Oraindik konexiorik ez duten landaguneak identifikatzeko mapa dago.
- ABE eremuetan, estaldura txikiagoa da EAEn baino: Atarien % 10,9 estaldurarik gabe ABEn eta % 7,6 EAEn.
- Bizkaiko udalerri batzuetan, hala nola Ereño edo Meñakan, banda zabala duten atarien ehunekoa % 50 baino txikia-goa da.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Foru-aldundiak**
- **EJ**
- **Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa**

<table>
<tr><th colspan="2">3. ARDATZA: Telekomunikazioak. E1HS eta E2HS / C1HO</th></tr>
<tr><td>JARDUKETAREN LEHENTASUNA</td><td>LURRALDE-TRATAMENDUA</td></tr>
<tr><td>HANDIA<br>Gipuzkoa:<br>OSO HANDIA</td><td>LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)<br>▪ Banda zabalaren hedapena lehenestea estaldura arazoak dituzten eremuetan, ABE udalerrietan.</td></tr>
<tr><td colspan="2">BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)</td></tr>
<tr><td colspan="2">1. Banda zabal ultralasterra landa-eremuetara hedatzen dela bermatzea, eta, hala, enpresen lehiakortasunari eustea eta lurralde-oreka bermatzea landa-eremuetako bizi-kalitatean: Banda Zabalaren Hedapen Planaren (BZHP) aldi baterako hedapena eta eremu zuriak 0ra murriztea.<br>2. Mugikorren estaldura bermatzea landa-eremuaren zati handienean.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)</td></tr>
<tr><td colspan="2">1. Euskadi Banda Zabala Programarekiko erakundearteko konpromisoa berrestea eta lehentasunezko epeak ezartzea.<br>2. Administrazio publikoen arteko lankidetza indartzea sare eta azpiegitura publiko digitalak instalatzeko edo ustiatzeko.<br>3. Hiri-ingurunearen aldean, telekomunikazio-zerbitzuak (estaldura mugikorra, satelitea, banda zabala…) eskuratzeko prezioetan diskriminaziorik ez dagoela bermatzea.<br>4. Neutraltasun teknologikoa sustatzea (landa-inguruneko pertsonei askatasuna ematea beren beharretara ondoen egokitzen den teknologia aukeratzeko), gaitasun handiko azpiegituren (ez zuntza bakarrik) eta landa-ingurunera egokitutako irtenbide integratuen hedapena bizkortzeko, ingurunearen premien arabera.</td></tr>
<tr><td colspan="2">FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKOA AUKERAK</td></tr>
<tr><td colspan="2">▪ UNICO Banda Zabala programaren laguntza-ildoa.<br>▪ Programaren oinarriak:<br>• ETD / 704/2021 agindua, ekainaren 25ekoa (2021/07/02ko BOE)<br>• ETD / 348/2020 agindua, apirilaren 13koa (2020/04/16ko BOE)</td></tr>
</table>

## 4. ARDATZA: ERREPIDE- ETA BIDE-SAREA

| 4. ARDATZA: Errepide- eta bide-sarea |
|---|
| ▪ **E3HS.** Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, **errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea,** eta landa-eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharrizanei egokitzen zaizkien **sistema alternatiboak** sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz. |
| **C1HO.** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra, 2017-2028
- Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideak Erabili, Kontserbatu eta Zaintzeko 1995eko otsailaren 13ko 6/95 Foru Araua
- 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoa
- 5/2021 FORU ARAUA, urriaren 20kokoa, Bizkaiko Errepideei buruzkoa
- Bizkaiko Errepideen arloko LPS, Gipuzkoako Errepideen arloko LPS eta Arabako Errepideen Arloko LPS.
- Bizkaiko Bizikleta Bideen LPS, Arabako Bizikleta Bideen eta Bide Berdeen LPS eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPS

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Landa-espazioaren egituraren eta konfigurazioaren ondorioz, bide-azpiegiturak eta garraio publikoek garrantzi handia dute, landa-populazioak oinarrizko zerbitzuetarako irisgarritasuna ahalbidetzen baitute, baita garapen ekonomikoa eta enpleguaren sorrera bultzatu ere.
- Bide-azpiegiturak (LPSak) ordenatzeko berezko tresna sektorialaz haratago, Euskadiren tamaina txikia izan arren, garraio-azpiegiturak oraindik ere hobetu daitezke landa-ingurunean, batez ere **landa-bideen** egoerari eta mantentzeari dagokionez (asfaltatzea, lur-jausiak konpontzea, sarbideak egokitzea, babesak jartzea, etab.); hau da, landa-bideak titulartasun publikoko komunikazio-bideak dira, biztanleguneak eta errepideak landa-finkekin, ibaiekin, basoekin, mendiekin, herri-lurrekin edo larreekin lotzen dituztenak, eta batez ere finka edo nekazaritzako ustiategien zerbitzurako erabiltzen direnak.

| 4. ARDATZA: Errepide- eta bide-sarea. E3HS / C1HO |
|---|
| **AUKERAK** |
| ▪ Landa-eremuen bide-sarea, oro har, egoera onean dago eta bizi-kalitate eta ongizatearen arloan helburu nagusiak betetzen laguntzen du. |
| **GARAPENERAKO OZTOPOAK** |
| ▪ Ardatz nagusietatik kanpo, bigarren mailako errepideak ea biztanleguneetara iristeko errepideak hobetu behar dira.<br>▪ Landa-bideak mantentzen oso garestiak diren azpiegiturak dira, eta foru-aldundietako eta udaletako aurrekontuak mugatuak dira. |

| LURRALDE-DIAGNOSTIKOA |
|---|
| **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)** |
| ▪ Nolanahi ere, ardatz nagusietatik kanpo, bigarren mailako errepideak eta biztanleguneetara iristeko errepideak hobetu behar dira.<br>▪ Landa-bideen mantentzerik eza faktore mugatzailea da; izan ere, foru-aldundietako eta udaletako aurrekontuak mugatuak dira. |
| **BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK** |
| ▪ Berariazko ad hoc lan bat egiteko beharra, akats sistematikoak dituzten landaguneak kuantifikatzeko.<br>▪ Sakabanatuta dauden eremuen egoera mugatzaileagoa da. |

| ERAGILE GARRANTZITSUENAK |
|---|
| ▪ **Foru-aldundiak**<br>▪ **Udalak**<br>▪ **Kontzejuak** |

| **4. ARDATZA: Errepide- eta bide-sarea. E3HS / C1HO** | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **HANDIA**<br>Bizkaia:<br>OSO HANDIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Lurralde-tratamenduak ez ditu aintzat hartzen hiru kategoriak, baizik eta lurraldearen egoera eta eremu sakabanatuen presentzia. |
| **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)** | |
| 1. Ustiategietara iristeko bideen eta landa-bideen sarea egokitzea eta hobetzea, lurraldearen berezitasunak aintzat hartuta.<br>2. Landa-bideak mantentzeko eta hobetzeko programa espezifikoak zehaztea | |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)** | |
| 1. Jarduketa horri lotutako aurrekontua areagotzea foru-aldundien laguntza-ildoen esparruan.<br>2. Epe ertaineko eta luzeko plangintza adostea eta lehentasunak ezartzea. | |
| **FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKOA AUKERAK** | |
| ▪ www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2009/04/20090402a063.pdf?hash=989ba71a199c43c5672991c0c2d24627&idioma=CA<br>▪ https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak/-/laguntza/2022/26/OREK01<br>▪ https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-caminos-rurales | |

## 5. ARDATZA: IRISGARRITASUNA

| 5. ARDATZA: Irisgarritasuna |
|---|
| ▪ **E3HS.** Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, **errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea,** eta landa-eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharrizanei egokitzen zaizkien **sistema alternatiboak** sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz. |
| **C1HO:** Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren **azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea,** haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna
- Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia
- Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana
- 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituzte Hiri-inguruneen irisgarritasuna, publikoak, eraikinak eta informazio-sistemak eta komunikazioa

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Nazio Batuen 2006ko Konbentzioaren 9. artikulua: “Estatu Alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte, pertsona desgaituek, gainerakoen baldintza berberetan, ingurune fisikorako, garraiorako, informaziorako eta komunikazioetarako irispidea izan dezaten, informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak barne, bai eta jendeari irekitako edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuetarako irispidea ere, **hiriguneetan nahiz landaguneetan”.**
- Landa-eremuko udalerrietan orografiaren eta eremu horien lurralde-konfigurazioaren ondoriozko arazo espezifikoak daude.

| 5. ARDATZA: Irisgarritasuna. E3HS / C1HO |
|---|
| **AUKERAK** |
| ▪ Landa-auzoak eta hiriguneak lotzeko oinezkoentzako bideak egiteko obra asko egiten ari dira. |
| **GARAPENERAKO OZTOPOAK** |
| ▪ Landaguneen orografiaren eta eremu horien lurralde-konfigurazioaren ondoriozko arazo espezifikoak daude.<br>▪ Adinekoen eta ikasleen kasuan, segurtasun eta irisgarritasun arazoak daude ekipamendu publikoetara edo garraio-geralekuetara iristeko joan-etorriei dagokionez, arriskutsuak izan baitaitezke; izan ere, ez dago joan-etorri hori segurua egiten duen espaloirik eta/edo azpiegiturarik. |

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

**LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**

- ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik.
- Irisgarritasunaren arloan, landa-ingurunean ez da tratamendu espezifikorik egiten.

**BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK**

- Berariazko ad hoc lan bat egiteko beharra landaguneen arazoa kuantifikatzeko/neurtzeko.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **EJ**
- **Udalak**
- **Kontzejuak**

## 5. ARDATZA: Irisgarritasuna. E3HS / C1HO

| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
|---|---|
| TXIKIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik.<br>▪ Proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Landa-eremuetan bizi diren pertsona guztiek ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak (informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak barne) eta jendeari irekitako edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuk modu seguruan eskuratzen dituztela bermatzea.
2. Erabilera publikoko espazio eta zerbitzuetarako irisgarritasuna egokitzea eta hobetzea; izan ere, funtsezko elementua dira pertsona guztien oinarrizko eskubideak betetzen direla bermatzeko.
3. Zerbitzu eta instalazio publikoetarako irisgarritasuna mantentzeko eta hobetzeko programa espezifikoak diseinatzea.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)**

1. Hauetan sartzeko oztopo eta trabak identifikatzea eta ezabatzea: eraikinak, bide publikoak, garraioa eta kanpoko zein barneko beste instalazio batzuk, hala nola eskolak, etxebizitzak, instalazio medikoak eta lantokiak; baita informazio, komunikazio eta beste mota batzuetako zerbitzuak ere, zerbitzu elektronikoak eta larrialdietako zerbitzuak barne.
2. Ekipamendu publikoetara edo garraio-geralekuetara iristeko joan-etorrietan segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzea.
3. Landa-auzoak eta hiriguneak lotzeko bizikleta-bideak eraikitzea.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- Enplegu eta Gizarte Politikak Sailak urtero deitzen du laguntzen agindua, udal eta tokiko erakunde txikiei zuzenduta, irisgarritasun-planak egitea sustatzeko, egungoak eguneratzeko, plan horietan aurreikusitako obrak egiteko eta hirigunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko, horien jarduketa-esparruen barne, eta, azkenik, irisgarritasuna bermatzeko ekipamendua eskuratzeko eta instalatzeko.
- Itzuli beharrik gabeko laguntzak ERREHABILITAZIO INTEGRAL ETA ERAGINKORREKO OBRA KOMUNITARIOETARAKO (3. lerroa), etxebizitzak eta eraikinak birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren arloko jarduketa babesgarrien finantza-neurrien programaren esparruan.
- Hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentzako, toki erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautu eta horietarako 2020ko deialdia egiten da.

## 7.3.4 C6HO. OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUA: LANDA-INGURUNEKO DESPOPULATZEAREN AURKAKO BORROKA, ZERBITZU ESPEZIFIKOAK EMANEZ

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | • **C6HO.** Landa-ingurunean despopulatzearen aurka borrokatzea, zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. |
| **ARLOA** | OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **F2HS.** Landa-inguruneko biztanleria mantentzea eta handitzea. Xede horrekin saihestuko da biztanleriak eremu horiek uztea eta populazio-dentsitate handiagoko beste batera joatea; gutxieneko biztanleriari bide emango zaio, iraunarazteko eta zerbitzu berriak abian jartzeko, bereziki **osasun- eta hezkuntza-zentroak,** eta populazio berria kokatzea erraztuko da, modu ordenatuan.<br>• **G1HS.** Behar diren zerbitzuak ezartzea landa-eremuko biztanleriak **hezkuntza-eskaintza** behar bezala eskura dezan bultzatzea, biztanleria horren **berezitasunak kontuan hartuko dituzten irizpide eta baremoak erabiliz,** bereziki derrigorrezko irakaskuntzari dagokionez, urrunen dauden eta tamaina txikiena daukaten biztanleguneetan.<br>• **G2HS.** Irakaskuntzaren kalitatea sustatzea, euskal **landa-ingurunearen** eta, batik bat, lehenengo **sektorearen berezitasunei egokitzen zaizkien hezkuntza-arloko eredu, teknika eta jarraibide berritzaileetara joz;** eredu, teknika eta jarraibide horiek, era berean, landa-eremuetako biztanleek ezagutzeko eta baloratzeko modukoak izango dira, eta lehentasun gisa eremu horietako emakumeen eta gazteen prestakuntza eta gaikuntza bultzatuko dute.<br>• **G3HS. Landa-eremuetako biztanleen unibertsitateko, lanbideko eta lanerako prestakuntza sustatzea,** biztanle horien beharrizan zehatzei egokitutako prestakuntza garatuz.<br>• **G4HS. Hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak orokorrean antolatzeko bidea ematea, eta horretarako, balio eta funtzio anitzeko ekipamenduak** sustatzea, eta dauden desorekak zuzentzea.<br>• **H1HS. Osasun-baliabideak urrunen dauden eta tamaina txikiena daukaten landaguneetako biztanleengana modu progresiboan hurbilduko dituen osasun-eskaintza sustatzea, bereziki lehen mailako arretan, pertsona nagusiei** eta behar bereziak dituztenei artatze egoki bat eskainiz.<br>• **H2HS.** Landa-eremuko biztanleriaren beharrizanei erantzuteko bereziki diseinatutako **farmazia-eskaintza** sustatzea.<br>• **H3HS. Landa-entitate eta -udalerrietan jarduten duten Euskal Osasun Sistemako profesionalei eta zentroei** bitarteko eta teknologia modernoak eskura jartzea; bereziki, telemedikuntza.<br>• **H4HS. Gizarte-ongizateko ekipamenduen garapenean laguntzea,** talderik kalteberenei arreta berezia emanda. |
| **JARDUKETA - ARDATZAK** | 6. Garraioa eta mugikortasuna.<br>7. Haur Hezkuntza<br>8. Derrigorrezko Hezkuntza<br>9. Derrigorrezkoa ez den goi-mailako hezkuntza<br>10. Lehen mailako osasun-arreta<br>11. Osasun arreta espezializatua<br>12. Arreta farmazeutikoa<br>13. Gizarte-arreta<br>14. Kultura<br>15. Kirola<br>16. Aisialdia |

## 6. ARDATZA: GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

| 6. ARDATZA: Garraioa eta mugikortasuna |
| --- |
| ▪ **E3HS.** Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, **errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea,** eta landa-eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharrizanei egokitzen zaizkien sistema alternatiboak sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz. |
| **C6HO.** Landa-ingurunean despopulatzearen aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean,** seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- EUSKADIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN LEGEA
- 4/2004 LEGEA, martxoaren 18koa, Errepideko Bidaiari Garraioarena.
- Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua
- EUSKADIKO GARRAIO JASANGARRIAREN 2030 GIDA PLANA
- ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA (2025-2035).

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Landa-espazioaren egituraren eta konfigurazioaren ondorioz, bide-azpiegiturak eta garraio publikoek garrantzi handia dute, landa-populazioak oinarrizko zerbitzuetarako irisgarritasuna ahalbidetzen baitute, baita gizarte-kohesioa, garapen ekonomikoa eta enpleguaren sorrera bultzatu ere.
- Arau-esparruak eskubidea aitortzen duen arren, irisgarritasun unibertsala bermatzen duen garraio publikoaren eskaintza ematea oso zaila da, Euskadiko lurralde konfigurazioa dela eta.
- Edonola ere, alderdi gakoa da, batez ere oinarrizko zerbitzuetarako irismena bermatzearekin lotzen delako: hezkuntza, osasun- eta gizarte-arreta.

| 6. ARDATZA: Garraioa eta mugikortasuna. E3HS / C6HO |
| --- |
| **AUKERAK** |
| ▪ Foru-aldundiek eta udalek eskaintzen duten garraio publikoa azken urtetan asko hobetu den arren, oraindik ez da iristen sakabanatutako landagune guztietara.<br>▪ Azken urteetan mugikortasun-formula berriak sortzen ari dira landa-biztanleguneak hobeto konektatzeko. Horretarako eskarien araberako zerbitzuak eta auzotaxi zerbitzua ezarri dira. |
| **GARAPENERAKO OZTOPOAK** |
| ▪ Landaguneen orografiaren eta eremu horien lurralde-konfigurazioaren ondoriozko konexio arazo espezifikoak daude.<br>▪ Landa-auzoetako bizilagunek arazoak dituzte herrigunera iristeko; izan ere, ez dago garraio-zerbitzurik edo daudenek maiztasun txikikoak dira.<br>▪ Pertsonak herrien artean (eskualde barnean) komunikatzen dituen garraio publikorik ezak gizarte-ehun aktibo eta dinamikoa sortzea eragozten du. Hori bereziki adierazgarria da gazteentzat.<br>▪ Oztopo horiek are gehiago larriagotzen dira zahartze-indize altua duten landa-eremuetan. |

| LURRALDE-DIAGNOSTIKOA |
|---|
| **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)** |
| ▪ ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik.<br>▪ Landa-ingurunea ez da modu berezian tratatzen erreferentziazko esparru arauemaile eta estrategikoetan. |
| **BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK** |
| ▪ Berariazko ad hoc lan bat egiteko beharra, garraio-arazoak dituzten landaguneak kuantifikatzeko eta identifikatzeko.<br>▪ Sakabanatuta dauden eremuen egoera mugatzaileagoa da. |

| ERAGILE GARRANTZITSUENAK |
|---|
| ▪ **Foru-aldundiak**<br>• **Udalak** |

| 6. ARDATZA: Garraioa eta mugikortasuna. E3HS / C6HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **OSO HANDIA** | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Ardatz honen ondoriozko jarduketak lehenestea ABE-etako udalerrietan. Dena den, etorkizuneko LGEPetan eskualde bakoitzeko behar espezifikoak jaso ahal izango dira. |
| **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)** | |
| 1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-oreka eta ehun ekonomikoaren lehiakortasuna sustatzea, irisgarritasun unibertsala eta lurraldeko barneko zein kanpoko konexioa sustatzen duten garraioen azpiegitura-sarearen bidez.<br>2. Ondasun eta zerbitzuetara mugikortasun-baldintza apropos, irisgarri eta seguruetan iritsi ahal izatea, ahalik eta ingurumen- eta gizarte-inpaktu txikienarekin.<br>3. Garraio publikoko zerbitzua izatea mugikortasun-baldintza egoki, irisgarri eta seguruekin, bizitokia gorabehera, eta ahalik eta ingurumen- eta gizarte-inpaktu txikienarekin, eta oinarrizko zerbitzuetarako irismena ez izatea landa-populazioarentzat garestiagoa hirikoentzat baino. | |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)** | |
| 1. Rural proofinga kontuan hartzea mugikortasun-plan berrietan, eta, foru-aldundiekin eta udalekin batera, helburu edo ildo espezifikoak definitzea.<br>2. Eskualde eta udalerri barneko garraioa hobetzea udalerrien eta horien landa-eremuen iragazkortze hobea ahalbidetzen duten garraio-ereduen diseinuaren bidez, LGE eta foru-aldundiekin elkarlanean.<br>3. Guztiei egokitutako mugikortasun-eredu jasangarri berriak sustatzea, landa-ingurunean ez dauden oinarrizko zerbitzuetarako irismena bermatzen dutenak (osasuna, hezkuntza…), LGE eta foru-aldundiekin elkarlanean. | |
| **FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK** | |
| ▪ Garraio publikoaren eskaintza foru-aldundien eta udalen eskumenekoa da. | |

# 7. ETA 8. ARDATZAK: HAUR HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO HEZKUNTZA

**7. eta 8. ARDATZAK: Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Hezkuntza**

- **F2HS.** Landa-inguruneko biztanleria mantentzea eta handitzea. Xede horrekin saihestuko da biztanleriak eremu horiek uztea eta populazio-dentsitate handiagoko beste batera joatea gutxieneko biztanleriari bide emango zaio, iraunarazteko eta zerbitzu berriak abian jartzeko, bereziki **osasun- eta hezkuntza-zentroak,** eta populazio berria kokatzea erraztuko da, modu ordenatuan.
- **G1HS. Behar diren zerbitzuak ezartzea** landa-eremuko biztanleriak **hezkuntza-eskaintza** behar bezala eskura dezan bultzatzea, biztanleria horren berezitasunak kontuan hartuko dituzten **irizpide eta baremoak erabiliz,** bereziki derrigorrezko irakaskuntzari dagokionez, urrunen dauden eta tamaina txikiena daukaten biztanleguneetan.
- **G2HS. Irakaskuntzaren kalitatea** sustatzea, euskal landa-ingurunearen eta, batik bat, lehenengo sektorearen berezitasunei egokitzen zaizkien hezkuntza-arloko eredu, teknika eta jarraibide berritzaileetara joz; eredu, teknika eta jarraibide horiek, era berean, landa-eremuetako biztanleek ezagutzeko eta baloratzeko modukoak izango dira, eta **lehentasun gisa eremu horietako emakumeen eta gazteen prestakuntza eta gaikuntza** bultzatuko dute.
- **G4HS. Hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak** orokorrean antolatzeko bidea ematea, eta horretarako, balio eta **funtzio anitzeko ekipamenduak** sustatzea, eta dauden desorekak zuzentzea.

**C6HO.** Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan** eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko.

## ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.
- Hezkuntza Azpiegituren Plana 2019-2023.
- Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana 2019-2022
- Heziberri 2020 – Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa (2014-2020).
- Eskola Txikiak sarearen Plan Estrategikoa 2020-2024
- Agindua, 2022ko abenduaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko Hezkuntza Sailaren mendeko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan 2023-2024 ikasturtean izena emateko eskabideak aurkezteko egutegi komuna eta onartzeko epea, bai eta ikastetxe horietan ikasleak onartzeko jarraibideak ere.
- 30/2023 dekretua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen Dekretua.
- 164/2023 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak finantzatuta daukaten eskola-garraioari buruzkoa.
- 297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003- 2004 ikasturteetan arautzen dituena.
- Agindua, 2008ko apirilaren 10ekoa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa garatzen duena.
- Haurreskoletako ikasleak onartzeko irizpideen araudia: 5/03-2023 Erabakia, plazen eskaintza, funtzionamendua eta haurren izen-emate arauak onesten dituena 2023-24 ikasturterako

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Hezkuntza esku-hartzeko lehentasunezko elementu gisa hautematen ez diren arren, zerbitzuen eskaintza hezkuntza-azpiegiturak baino irizpide kritikoagoa dela nabarmendu da. Ildo horretan, eskola-garraioa landa-ingurunean arazo gehien sortzen dituen elementua da.

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzaren Legeak, landaguneetako hezkuntzari buruzko tratamendu espezifikoa egiten ez duen arren, ezartzen du EAEko ikasle guztiek hezkuntza integral eta inklusiboa jasotzeko eskubidea dutela, horien bizilekua gorabehera. Horrez gain, eskolen autonomia bermatzen du pedagogia, antolakuntza eta kudeaketa-arloan, baita hezkuntza-proiektua definitzean ere; hala, landa-ingurunean dauden eskolek ingurune horren ikuspegia eta idiosinkrasia txertatu eta horren balioa azpimarratu dezakete.

- **Eskola Txikiak** lehen mailako (6-12 urte) eta Haur Hezkuntzako (2-6 urte) zerbitzuen erreferentzia dira landa-eremuetan. Zentro horiek beren idiosinkrasia, metodologia eta sistema pedagogikoak dituzte. Eskola Txikiek ezaugarri hauek dituzte: (i) titulartasun publikokoak dira, (ii) landa-ingurunean daude eta (iii) gela bakarrean zenbait adinetako haurrak egotea sustatzen dute.

- Hezkuntza Saila eskola-mapa eta Euskadiko hezkuntza-eskaintza definitzeko eskumena duen eragilea da; Haurreskolen eta Eskola Txikien kasuan, aldiz, udalek dute udalerriko hezkuntza-azpiegituren titulartasuna.

- 2019-2023 aldirako Hezkuntza Azpiegituren Planak Eskola Txikien garrantzia azpimarratzen du. Dena den, aurreikusitako 245 obretatik soilik 8 egingo dira Eskola Txikietan, eta Udalaguntza urteko laguntzen programak ez du inolako diskriminazio positiborik egiten landa-eremuetako udalerrietan (ez balorazio-irizpideetan, ez laguntzen zenbatekoan).

- Haur-Hezkuntzari-**Haurreskolei** (0-3 urte) dagokien arau-esparruak landa-eremuen berezitasuna aitortzen du; izan ere, zenbait adinetako haurrek osatutako ikasgelak sortzea ahalbidetzen du, eta hezitzaileko gehieneko ikasle-ratioa ezartzen du. Horrez gain, instalazioak irekitzeko eta mantentzeko bete beharreko baldintzak definitzen ditu. Egun, **Haurreskola berria irekitzeko gutxieneko ikasle-kopurua 3 da.** Ratio hori txikia da udalerri handietan eta landa-eremuko udalerrietan zerbitzu bera eskaini ahal izateko.

- Ikasleek Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan Hezkuntza Sailaren zentro publikoetan (edo Sailak itunpeko zentroetara bidaltzen baditu) eskola-garraioa erabiltzeko eskubidea izateko baldintza da ikaslearen etxebizitzatik eskolara oinez 2 km edo gehiagoko tartea egotea. 217/2021 Dekretuaren 1. artikuluaren arabera, ibilbiderik laburrenak ez baditu segurtasuneko gutxieneko baldintzak betetzen eta ikasleek beren osotasun fisikoa arriskuan jartzen badute, bide hori ez da kontuan izango, eta proposatutako beste bide batzuk hartuko dira aintzat. Kasu horretan, eskolak egiaztatu beharko du bide horretatik ezin dela ibili. Dena den, baliteke distantziaren aldagaia ez izatea aproposena landa-eremuan hezkuntza-zentroen irisgarritasun-maila neurtzeko; izan ere, joan-etorriaren denborak eta igarotzeko baldintzek (aldapak, segurtasuna, oinezkoentzako azpiegiturak…) zehaztu beharko lukete eskubide hori izateko irismena.

## DIAGNOSTIKOA

- Euskadin, egun, 237 Haurreskola daude, eta horietatik 23 (% 9,7) ABE udalerrietan kokatzen dira, eta 66 EGL udalerrietan, non entitate guztiak landa izaerakoak diren. Horrek esan nahi du ABE udalerrien % 62,3k ez dutela Haurreskola zerbitzurik. Ehuneko hori % 33koa da EGL udalerrietan.

- 2021-2022 ikasturtean zehar, EAEko Lehen Hezkuntzako ikasle guztien % 8,4 ABE edo EGLtzat jotzen zen udalerri bateko eskola batean zegoen matrikulatuta. Ikasle horien gehiengoa Bizkaiko zentroetan zegoen (5.410 - % 50,9).

| | Ikasleak | % |
|---|---|---|
| 3 landa-habitata sakabanatua duten udal. | 115.750 | 91,6% |
| 2 entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udal. | 9.822 | 7,8% |
| ABE V1 | 797 | 0,6% |
| **Orokorra, guztira** | **126.369** | **100,0%** |

***Iturria:*** *Eustat. Eskola-jardueraren estatistika*

- Haur Hezkuntzari dagokionez, 2021-2022 ikasturtean ikasleen % 7,6 ABE edo EGL udalerritzat (entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udalerriak) hartzen den udalerri batean zegoen matrikulatuta. Kopuru hori bereziki altua da Bizkaian, 2.714 ikasle baitaude matrikulatuta kategoria horietakoudalerrietan

| | Ikasleak | % |
|---|---|---|
| 3 landa-habitata sakabanatua duten udal. | 70.620 | 92,4% |
| 2 entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udal. | 5.255 | 6,9% |
| ABE V1 | 563 | 0,7% |
| **Orokorra, guztira** | **76.438** | **100,0%** |

***Iturria:*** *Eustat. Eskola-jardueraren estatistika*

- Eustatek 2021/2022 ikasturteko eskola-jardueraren Estatistikatik lortutako datuen arabera, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasle ia guztiak LHS (landa-habitata sakabanatua duten udalerriak) kategoria duen udalerri batean daude matrikulatuta; 3.859, ordea, ABE edo EGL kategoriako udalerrietan daude matrikulatuta. Horrek esan nahi du bi kategorietako 13 udalerri baino ez zutela derrigorrezko bigarren hezkuntza eskaini 2021-2022 ikasturtean, eta horietatik 3 ABE udalerriak ziren: Kanpezu, Iruraiz-Gauna, Karrantzako harana eta Lapuebla de Lacarca.

| | Ikasleak | % |
|---|---|---|
| 3 landa-habitata sakabanatua duten udal. | 83.722 | 95,6% |
| 2 entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udal. | 3.530 | 4,0% |
| ABE V1 | 329 | 0,4% |
| **Orokorra, guztira** | **87.581** | **100,0%** |

***Iturria:*** *Eustat. Eskola-jardueraren estatistika*

## 7. eta 8. ARDATZAK: Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Hezkuntza. F2HS, G1HS, G2HS, G4HS / C6HO

### AUKERAK

- Eskola Txikiak sarea izatea; Lehen Hezkuntzako kalitatezko zerbitzua eskaintzen du, eta landa-eremuen berezko balioak eta idiosinkrasia errespetatzen ditu. Borondatezko sarea da, non Eskola Txikiak sartzen diren, eta sareak berak definitutako oinarrizko printzipioak partekatzen dituzte.
- Hezkuntza-zerbitzuen eskaintzarik ez dagoen landa-eremuko udalerrietan eskatu ahalako eskola-garraioko zerbitzuak daude, herritar guztiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Hezkuntza Sailarekin eta beste sail batzuekin koordinatuta, Haur Hezkuntzako (0-3 urte) zerbitzua arautzeko baldintzak malgutu ditzake. Egun, Haurreskola bat irekitzeko eta mantentzeko gutxieneko ikasle-kopurua hiru da, landa-eremuko ikasleei hezkuntza- eta asistentzia-izaerako kalitatezko zerbitzurako sarbidea errazteko asmoz.
- Euskadiko Hezkuntzaren Legeak (37. art.) egoera ahuleko eta autonomia garatzeko zailtasunak dituzten eskolei asistentzia eta laguntza espezifikoa ematen die, ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen beharretara egokitutako hezkuntza-proiektuak eta curriculumak indartu ditzaten.
- Hezkuntza Sailean indarrean dauden plangintza-dokumentu gehienek landa-inguruneko ikuspegi espezifikoa integratzen ez duten arren, Hezkuntzaren Legeak esparrua eskaintzen du rural proofinga aplikatu ahal izateko. Adibidez, 36. artikuluan adierazten da kontratu programak sor daitezkeela eskoletan definitzen den Plan Estrategikoaren jarduketetarako itunak egin ahal izateko; horrela, Hezkuntza Sailak egoera ahuleko inguruneetan dauden eta autonomia garatzeko zailtasunak dituzten hezkuntza-zentroei asistentzia eta laguntza espezifikoa emango du, hezkuntza-proiektuak eta curriculumak indartu ditzaten. 61. artikuluan Udaleko hezkuntza-kontseiluen sorrera jasotzen da, eskolek beren idiosinkrasiarekin bat datozen hezkuntza-proiektu komunitarioak konfiguratu eta susta ditzaten. 98. artikuluan autonomia pedagogikoa ematen zaio eskolari, hezkuntza-proiektua definitu dezan.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Jaiotza-tasak behera egiten duen testuinguru honetan, ondorioa are larriagoa izan daiteke landa-ingurunean Eskola Txikiak eta Haurreskolak mantentzeko.
- Eskola Txikiek Hezkuntza Saileko laguntza-zerbitzuetara iristeko zailtasuna (logopedak, BeA…), ikasle-kopuruaren arabera zehazten baita.
- Eskola Txikietako irakasleen aldaketa eta landa-ingurunean dauden hezkuntza-zentroek erakargarritasun txikia libre dauden irakasleen plazak betetzeko.
- Eskola Txikiek derrigorrezko Lehen Hezkuntza eskaintzen dute, baina ia ez dago Derrigorrezko Bigarren-Hezkuntzako eskaintzarik landa-eremuko udalerrietan.
- Landa-eremuan zailtasunak edo behar bereziak dituzten ikasleei laguntzeko sendotze zerbitzuen gabezia dago, eta hori oso elementu bereizgarria da hiri-ingurunearekin alderatuta.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Oro har, ez da landa-eremuaren tratamendu espezifikorik egiten ez Legean ez Sailaren plangintza-dokumentuetan. Dena den, Haur Hezkuntzako eskolen (Haurreskolak) ratioak eta baldintzak, baita Eskola Txikien mantentzea eta sorrera ere, zehazten diren dekretuetan malgutu egiten dira eskatutako elementuak, landa-inguruneetako zentroen jarraitutasuna bermatzeko edo abian jartzeko.

### BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK

- Egun, EAEn 49 Eskola Txiki daude. Gehienak Gipuzkoan daude (26), Bizkaian 19 eta Araban 4.
- Landa-eremuan Lehen Hezkuntzarako sarreren adierazlea bereziki altua da Araban eta Bizkaian. Gipuzkoan, lurralde-ordenamendua dela eta, ratio horrek emaitza hobea du. Gipuzkoan adierazlerik okerrenak dituzten udalerriak Bedaio (1,53), Altzola (Aia 1,51) eta Aratz-Matxinbenta (Beasain 1,35) eta Arantzazu(Oñati 1,35) dira.
- Arabako Errioxan eta Enkarterrin zaila da Lehen Hezkuntzako irakasleen plazak betetzea, eta Haurreskolen kasuan, arazo horrek ere Enkarterriri eragiten dio.

| ERAGILE GARRANTZITSUENAK |
|---|
| ▪ **Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza Saila**<br>• **Haurreskolak Partzuergoa.**<br>• **Udalak.**<br>• **Eskola Txikien sarea** |

| 7. eta 8. ARDATZAK: Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Hezkuntza. F2HS, G1HS, G2HS, G4HS / C6HO | |
|---|---|
| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
| ERTAINA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Haur Hezkuntzako zentroen ratio eta baldintzak udalerrien hiru kategorien berezitasunetara egokitzea (egun 2.000 herritar baino gutxiagoko udalerriaren definizioa aplikatzen da).<br>▪ Ahalegin berezia egitea Arabako Errioxan eta Enkarterrin; izan ere, bi eremu horietan zaila da Lehen Hezkuntzako irakasleen plazak betetzea, eta Enkarterrin (Haurreskolak) Haur Hezkuntzako plazak betetzea. |

**PRIORIDADES PARA APLICAR EL MECANISMO RURAL DE GARANTIA (líneas de actuación prioritarias) (QUÉ)**

1. Rural proofinga Hezkuntza Saileko plangintza-tresna berrietan integratzea, hala nola Hezkuntza Azpiegituren Plan berrian edo Eskola Txikien Plan Estrategikoan.
2. Hezkuntza-zentroei emandako laguntza-zerbitzuen definizioan landa-ikuspegia integratzea, Eskola Txikiek ere horietarako irismena izan dezaten modu partekatuan (logopeda, BeA).
3. Betetzen zailak diren irakasle-plazak betetzeko pizgarriak sortzea eta errotazioa murriztea landa-eremuetan.
4. Eskola Txikien ikuspegia kontuan hartzea unibertsitateko prestakuntza, irakasleen etengabeko prestakuntza eta zuzendaritza-taldeetan.
5. Landa-eremuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zerbitzuak eskaintzeko aukerak aztertzea.
6. Eskolako garraio-eskubidearen baldintzak landa-errealitatera egokitzea.
7. Behar bereziak dituzten haurrek hezkuntza sendotzeko zerbitzuak eskura ditzaten erraztea.

**RECOMENDACIONES PARA LA CONCERTACIÓN (CÓMO)**

1. Eskola Txikientzako plan estrategikoa eguneratzean, Eskola Txikia zer den adostea eta definitzea, epe-luzerako ikuspegia ezartzea eta ikuspegi hori lortzeko jarduketak zehaztea; horrela, Eskola Txikien sarearekin lankidetzan, lan-ildo nagusiak eta Hezkuntza Sailetik espero diren etorkizunerako helburuak definitzeko. Plan estrategiko hori Hezkuntza Saileko plan, ekintza eta proiektu guztien esparrua izan beharko da, Eskola Txikien espezifikotasunetan arreta jarriz.
2. Eskola Txikien hezkuntza-laguntzarako zerbitzuak (logopeda…) izateko baldintzak egokitzea eta malgutzea, zuzendaritzei laguntzeko administrari-plazak sortzeko erraztasuna ematea, eta, horrez gain, baliabide horiek zenbait eskolaren artean partekatzeko aukera ematea.
3. Hezkuntza Sailak eskatzen dituen izapideak eta dokumentuak Eskola Txikien beharretara eta errealitatera egokitzea, zuzendaritzen lan-karga arintzeko xedez: (i) Eskola Txikiei eskatutako dokumentu guztien azterketa xehatua egitea; (ii) Eskola Txikien errealitatearekin bat datorren dokumentu- egituraren-proposamena egitea; (iii) Eskola Txikiei eskatutako dokumentu eta izapideak eguneratzea eta berritzea.
4. Lehen Hezkuntza zein Haur Hezkuntzako zentroetan betetzen zailak diren Irakasleen plazak betetzea errazten duten formula eta pizgarriak aztertzea (pizgarri ekonomikoak, etxebizitzarako sarbidea...); eta plaza horietarako lan-kontratuek zentroan irauteko gutxieneko aldia zehazteko bideragarritasuna aztertzea.
5. Rural proofinga Hezkuntza Saileko plangintza-tresnetan sartzea, hala nola Hezkuntza Azpiegituren Plan berrian edo Udalaguntza laguntzen programa, non Eskola Txikiekiko diskriminazio positiboko irizpideak txertatu daitezkeen: Laguntzen ehunekoa areagotzea landa-eremuetan eta balorazio-irizpideetan.

6. Eskola Txikietan lan egiten duten irakasleen prestakuntza etengabea hobetzea:
   - Lurralde historiko bakoitzeko Eskola Txikietan lanean hasten diren irakasle berrientzako mintegiak egitea.
   - Lurralde historiko bakoitzeko Eskola Txikietan eskarmentu handia duten irakasleek prestakuntza-mintegiak ematea, haien ezagutzen berri emateko eta partekatzeko.
   - Prest Gara planean Eskola Txikiei buruzko gai espezifikoen ikastaroak sartzea, hezkuntza-zentro horietan inolako eskarmenturik ez duten irakasleentzat.
7. UPV/EHUrekin batera udako ikastaroak egitea, eta bertan Eskola Txikiei lotutako gai espezifikoa lantzea, irakasle zein ikasleei zuzenduta.
8. Euskal unibertsitateetako magisteritzako unibertsitate-graduetan Eskola Txikientzako metodologia eta didaktika espezifikoak sartzea sustatzea konfigurazio askeko irakasgai, master eta abarren bidez (irakasle berrientzako prestakuntza).
9. Lurralde historiko guztietan Eskola Txikietan zuzendaritza-taldeei zuzendutako prestakuntzak ematea, bai berrientzat bai karguan mantentzen diren taldeentzat ere.
10. Eskola Txikien errealitateari lotutako unibertsitateko ikerketa sustatzeko jarduketak garatzea:
    - Eskola Txikien Sareak, Sailak eta unibertsitateek osatzen duten lantaldea sortzea, unibertsitatean Eskola Txikiei lotutako ikerketa eta azterketak sustatzeko eta ikerketa-ildoak adosteko.
    - Euskal unibertsitateek Eskola Txikietarako adostu diren eta garrantzitsuak diren ikerketa-ildoetan ikertzeko finantzaketa ematea.
11. Eskola Txiki batzuetan, Lehen Hezkuntzaz Hezkuntzaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzeko aukerak aztertzea (DBH Txikia).
12. Zero eta hiru urte arteko umeentzako Hurreskolen titular diren toki-korporazioentzako dirulaguntzen deialdiaren bidez landa-eremuko udalerriei ematen zaien laguntzen ehunekoa areagotzeko aukera aztertzea.
13. Eskola-garraioaren dekretuan distantziaren ordez (gaur egun 2 km) lekualdaketa-denboraren aldagaia zerbitzu hori izateko eskubidea lortzeko elementu gisa aintzat hartzeko aukera aztertzea.
14. Hezkuntza sendotzeko zerbitzua behar bereziak dituzten eta landa-eremuetan dauden ikasleei hurbiltzeko konponbideak aztertzea (bekak, garraio-kostuak estaltzeko familientzako laguntzak…).
15. ABE eta EGL kategoriako landa-eremuetan bizi diren Haur Hezkuntzako ikasleek (Haurreskolak) banakako garraioa izateko aukera aztertzea (dirulaguntzak), baldin eta ez badute zerbitzu hori udalerrian bertan.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzako eta Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleentzat hainbat laguntza eta beka eskaintzen dituen arren, koadro honetan beste erakunde eta administrazioekin politika publikoak ituntzeko garrantzitsuenetako batzuk jasotzen dira soilik:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Udalaguntza Laguntzen Programa
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren patio-inklusiboen laguntzen programa.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Zero eta hiru urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako laguntza ekonomikoak.
- Eskola-garraiorako banakako esleipenak, maila hauetan ari diren ikasleentzat: Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko hirugarren maila, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketa

## 9. ARDATZA: DERRIGORREZKOA EZ DEN HEZKUNTZA

**9. ARDATZA. Derrigorrezkoa ez den hezkuntza**

- **F2HS.** Landa-inguruneko biztanleria mantentzea eta handitzea. Xede horrekin saihestuko da biztanleriak eremu horiek uztea eta populazio-dentsitate handiagoko beste batera joatea gutxieneko biztanleriari bide emango zaio, iraunarazteko eta zerbitzu berriak abian jartzeko, bereziki **osasun- eta hezkuntza-zentroak,** eta populazio berria kokatzea erraztuko da, modu ordenatuan.
- **G2HS. Irakaskuntzaren kalitatea** sustatzea, euskal landa-ingurunearen eta, batik bat, lehenengo sektorearen berezitasunei egokitzen zaizkien hezkuntza-arloko eredu, teknika eta jarraibide berritzaileetara joz; eredu, teknika eta jarraibide horiek, era berean, landa-eremuetako biztanleek ezagutzeko eta baloratzeko modukoak izango dira, eta lehentasun gisa eremu horietako emakumeen eta gazteen prestakuntza eta gaikuntza bultzatuko dute.
- **G3HS.** Landa-eremuetako biztanleen **unibertsitateko, lanbideko eta lanerako prestakuntza** sustatzea, biztanle horien beharrizan zehatzei egokitutako prestakuntza garatuz.
- **G4HS. Hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak** orokorrean antolatzeko bidea ematea, eta horretarako, balio eta funtzio anitzeko ekipamenduak sustatzea, eta dauden desorekak zuzentzea.

**C6HO.** Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan** eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko.

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 Legea
- Lanbide Heziketako 6. Euskal Plana (2022-2024)
- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko 1/2013 Legea, Lanbide Heziketako 4/2018 Legeak aldatu zuena.
- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren 17/2008 Legea
- 164/2023 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak finantzatuta daukaten eskola-garraioari buruzkoa.

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Derrigorrezkoa ez den hezkuntza arautzen duen lege-esparruak ez du landa-eremuari buruzko tratamendu espezifikorik egiten. Hala ere, urrutiko irakaskuntza IKTen bidez sustatzeko beharra ezartzen du. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak BIRT LH plataformak sortu ditu, urrutiko LH prestakuntza eskaintzen duena modu telematikoan; UHEI-IVED Bigarren Mailako Hezkuntza eta Batxilergoko titulua on line lortzeko; eta Hiru.eus plataforma, bizialdi osoko ikaskuntzako doako prestakuntza-edukiak eskaintzeko online.
- Nahiz eta Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legeak ezarri Bizialdi Osoko Ikaskuntzako Euskal Kontseiluak Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Plan Estrategikoa sortu behar duela, dokumentu hori ez dago eskuragarri bitarteko elektronikoen bidez.
- Derrigorrezkoa ez den hezkuntzari buruzko arazo nagusia landa-inguruneko prestakuntza-eskaintza txikia edo eskaintzarik eza da. Arabak du egoerarik kritikoena, eta, zentzu horretan, bertan detektatzen da esku-hartzeko beharrik handiena.

- Derrigorrezkoa ez den hezkuntzaren arazo nagusietako bat **eskola-garraioaren eskaintza txikia** da, baita landa-inguruneetan **Batxilergoko eta erdi-mailako eta goi-mailako Prestakuntza Graduetako ikasleek hezkuntza-zentroetara iristea** ahalbidetzen duen garraio publikoko eskaintza txikia izatea ere. Egoera hori are larriagoa da garraio pribatua lortzeko aukerarik ez duen kolektiboa delako.

- Nolanahi ere, Eskola-garraioko Dekretu berriarekin, egoera hori arindu egingo da; izan ere, Batxilergoko eta Prestakuntza Graduetako ikasleek eskola-garraioko zerbitzua erabili ahal izango dute, honako muga hauekin:

    - Ikasleek garraio publikoko eskaintza txikia duten eremuetan bizi beharko dute, eta etxebizitzatik eskolara iristeko joan-etorriak zailtasun berezia izan behar du. Egoera hori maiz ikusten da landa-eremuko udalerrietan.

    - Eskola-garraioko zerbitzuan plaza hutsak egotea.

    - Etxebizitza eta eskolaren arteko distantziak 4 kilometrotik gorakoa izan behar du.

    - Ikasleak 21 urte baino gutxiago izan beharko ditu ikasturtea amaitzen den urtean.

    - Ikasleak Hezkuntza Sailaren erabile- rabaimena lortu beharko du. Baimen hori lortu ezean, garraio-dekretu berriak banakako **esleipenen deialdian** parte hartzeko aukera ematen du, garraio-kostuan konpentsatzeko.

- Arazo hori arintzeko, orain arte Arabako Aldundiak udalerri batera mugitu behar diren Batxilergoko eta erdi-mailako zein goi-mailako Heziketa Zikloko ikasleen garraioa finantzatzeko laguntza espezifikoen ildoa zuen.

- Landa-eremuko biztanleriak erregimen bereziko zerbitzuetara (hizkuntzak, arteak eta kirolak) sartzeko dituen zailtasunak. Egoera hori are gehiago larritzen da garraio publiko erregularraren eskaintza txikiagatik, eta garraio-gastuak konpentsatzeko familientzako laguntza eskasengatik.

**9. ardatza: Derrigorrezkoa ez den hezkuntza. F2HS, G1HS, G2HS, G4HS / C6HO**

**AUKERAK**

- Nekazaritako eta elikagaigintzako prestakuntza ez arautua Eusko Jaurlaritzako Sailaren eskumena da, zeinak nekazaritza-arloko eskumena duen. Ondorioz, landa-eremuko ikuspegia txertatu daiteke Batzorde Mistoaren bidez, LHko Koordinazio Organo Gorenari ekarpenak eginez.
- Nekazaritzako prestakuntza-zentroak 3 lurralde historikoetan daude, eta sektoreari prestakuntza espezializatua eskaintzen diote (Arkauti, Derio, Fraisoro eta Gomiztegi).
- Urrutiko doako prestakuntza eskaintzen duten zerbitzu publikoak daude: BIRT-LH (urrutiko LH eta profesionaltasun egiaztagiriak); UHEI-IVED (Oinarrizko Hezkuntza, DBH, Batxilergoa); Hiru.eus (bizialdi osoko ikaskuntzako plataforma).
- Eskualde-mailako Ikasgida bitartekaritza-zerbitzuak izatea. Bizialdi osoko ikaskuntzarako jarduerei buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzen du.
- Lanbide Heziketako 6. Planak landa-eremuko ikuspegia sartzen du bai prestakuntza-edukietan (agroteknologia, bioekonomia eta elikadura osasuntsua), bai sartzeko aukera-berdintasuna bermatzeko baliabideen hedapen eta funtzional-irizpideen definizioan.
- Landa-eremuko biztanleriaren gaikuntza-maila eta prestakuntza-irismena areagotzea. Horretarako, landa-ingurunean nagusi diren ekoizpen-sektoreei lotutako prestakuntza-eskaintza txertatu behar da urrutiko hezkuntzako plataforma digitaletan, batez ere BIRT-LHn.

**GARAPENERAKO OZTOPOAK**

- Eskola-garraioko edo garraio publikoko zerbitzuen eskasia erregimen bereziko hezkuntza-zerbitzuetarako sarbidea errazteko (hizkuntzak, arteak eta kirolak).
- Landa-eremuen artean aldeak dauden arren, oro har LH eta Batxilergoko eskaintza txikia dago landa-inguruneetan (adibidez, arte-batxilergoa probintzietako hiriburuetan baino ez da eskaintzen).
- Bizialdi Osoko Ikaskuntzan, plan estrategikoaren falta.
- Jaiotza-tasak behera egiteak ondorio are larriagoak izan ditzake landa-eremuetan, eta hezkuntza-baliabideak eta arlo horietako laguntza-zerbitzuak murriztea ekar lezake.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

**LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**

- Lege-esparruan (LH Legea eta Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren Legea) ez da landa-eremuen tratamendu espezifikorik egiten; hala ere, bi kasuetan IKTen bidez urrutiko irakaskuntza sustatzeko beharra adierazten da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzan nekazaritza-arloan eskumena duen Saila nekazaritzako eta elikagaigintzako prestakuntza ez arautuaren definitzeaz arduratzen da, eta Batzorde mistoaren bidez unibertsitateko gradu berriak abiarazi eta nekazaritza- eta elikagaigintza- jarduera garatzeko beharrezko titulazioak egituratu ditzake.

**BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK**

- Ad hoc azterketak egiteko beharra arazoa lurralde-mailan kuantifikatu eta neurtzeko.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza Saila**
- **Eusko Jaurlaritza – Lanbide**
- **BIRT-LH – Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratua**
- **UHEI-IVED – Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua**
- **Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena – Eusko Jaurlaritzako sailek garatutako estrategietan eragina duten politiken koordinazioa.**
- **Bizialdi Osoko Ikaskuntzako Euskal Kontseilua.**
- **Nekazaritzako LHren Batzorde Mistoa.**

| 9. ARDATZA: Derrigorrezkoa ez den hezkuntza. F2HS, G1HS, G2HS, G4HS / C6HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **ERTAINA** | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Lege-esparruan ez da landa-eremuen tratamendu espezifikorik egiten; hala ere, bi kasuetan IKTen bidez urrutiko irakaskuntza sustatzeko beharra adierazten da.<br>▪ Proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako, baina etorkizuneko LGEPen esparruan eskualde bakoitzaren kasuistika identifikatu beharko da |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Eskola-garraioko eta garraio publikoko zerbitzua bermatzea, derrigorrezkoa ez den hezkuntza-zentroetara (Batxilergoa eta LH) eta erregimen bereziko hezkuntza-zerbitzuetara (hizkuntzak, arteak eta kirolak) iritsi ahal izateko
2. Landa-eremuetan derrigorrezkoa ez den hezkuntzaren eskaintza areagotzea.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)**

1. Eskola-garraioari buruzko dekretu berriak Batxilergoko eta erdi-mailako Prestakuntza Graduetako ikasleei eskola-garraioko zerbitzua erabiltzeko aukera ematen dien arren, etxebizitza eta eskolaren artean gutxienez 4 kilometroko distantzia egoteko baldintza mantentzen du. Landa-ingurunean neurketa-aldagaiak lekualdatzeko denbora izan beharko luke, eta ez distantzia.
2. Familientzako laguntza-programak edo bekak sortzeko aukera aztertzea, erregimen bereziko hezkuntza-zerbitzuak (hizkuntzak, arteak eta kirolak), sendotze-zerbitzuak eta behar bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-laguntza jaso ahal izateko.
3. Foru-aldundiekin eta/edo udalekin garraio publikoko eskaintza areagotzeko eta/edo egokitzeko itunak egitea, landa-eremuan bizi diren ikasleen beharretara egokitu dadin hezkuntza arautuari zein erregimen bereziko hezkuntza-zerbitzuei (hizkuntzak, arteak, kirolak) dagokionez.
4. BIRT-LH plataforma digitaletan landa-ingurunearen garapen jasangarriari lotutako erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntzak gehitzea, eta Hiru.eus-en landa-inguruneari egokitutako bizialdi osoko ikaskuntzaren berariazko edukiak.
5. Bizialdi Osoko Ikaskuntza Plana sortzea, rural proofing ikuspegia gehitzea, eta, horrez gain, landa-inguruneko biztanleriaren eskari eta beharrei erantzuna ematen dieten edukiak integratzea.
6. 118/2019 Dekretuak arautatako laguntzetan rural proofinga gehitzea, bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko, eta landa-ingurune eta –eskualdeetan arlo horretan jarduketak egin ahal izateko. Horretarako, diruz lagundutako jardueretan azpikontratazioen ehunekoa (egun % 50) areagotu ahal izango da onuradun-mota horietarako, baita landa-eremuko udalerrietan egindako jarduketei puntuazio handiagoa ematen dieten balorazio-irizpideak gehitu ere.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- Arabako Foru Aldundia: 2022/2023 ikasturtean batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdia.
- Eusko Jaurlaritza: 118/2019 dekretua, Bizialdi osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jardueran garatzen dituena.

## EJES 10 Y 11: ATENCIÓN SANITARIA PRIMARIA Y ESPECIALIZADA

**10. eta 11. ARDATZAK: Lehen mailako osasun-arreta eta arreta espezializatua**

- **H1HS.** Osasun-**baliabideak urrunen dauden eta tamaina txikiena daukaten landaguneetako biztanleengana modu progresiboan hurbilduko dituen osasun-eskaintza** sustatzea, **bereziki lehen mailako arretan, pertsona nagusiei** eta behar bereziak dituztenei **artatze egoki bat eskainiz.**
- **H3HS. Landa-entitate eta -udalerrietan jarduten duten Euskal Osasun Sistemako profesionalei eta zentroei** bitarteko eta teknologia modernoak eskura jartzea; bereziki, telemedikuntza.

**C6HO.** Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean,** seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko.

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 8/1997 LEGEA, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- Agindua, 2018ko apirilaren 20koa, Osasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Eremuak finkatzen dituena
- Osasun sailaren Marko Estrategikoa 2021-2024
- Osakidetzako Plan Estrategikoa 2023-2025
- Euskadiko Lehen Mailako Arretarako Estrategia
- Adinekoen Arreta Plana
- Euskadiko Osasun Plana 2030
- 13/2023 LEGEA, azaroaren 30ekoa, Euskadiko Osasun Publikoarena

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Detektatu den **arazo nagusia osasun-zerbitzuen eskaintzarekin eta horien irisgarritasunarekin** dago lotuta, **eta ez hainbeste azpiegiturekin.** Osasun Sailaren Marko Estrategikoan (2021-2024) adierazitakoa kontuan hartuta: “helburua da desberdintasunik gabeko osasuna, gertuagoa, pertsonen zerbitzura dagoena izatea”. Horri lotuta, osasun-eskaintza maila aztertzea komeni da, batez ere Euskadiko landa-eremu batzuetan eskaintzen den lehen-mailako arreta.

- **2019an egindako Lehen Mailako Arretarako Estrategiak** laguntza-ildo bat aurreikusten du, zehazki, 2. ildoa: “Lehen Mailako Arretako taldeen egitura erronka demografiko eta epidemiologikoetara egokitzea”. Zuzenean lotuta dago helburu sektorial honekin. Estrategia hori hedatzen hasi zenean, COVID-19aren pandemia hasi zen, eta horrek eragin handia izan du bi maila asistentzialetan: lehen mailakoa eta espezializatua. Horren ondorioek **Estrategia hori berrikusteko beharra** plazaratu dute **(une honetan egiten ari da),** eta horrek **“rural proofinga”** sartzeko aukera dakar.

- Osakidetzak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, **Osasun Kontseiluaren** programa dago (erizaintzako profesionalek urteko 365 egunetan 24 orduz egunean ematen duten arreta-zerbitzu ez-presentziala), seguruenik euskal biztanleek oro har gutxi ezagutzen duten zerbitzua. Zerbitzu-sorta hori osasun-baliabideak urrutiko biztanleei hurbiltzean datza. betiOn-eko

(teleasistentzia zerbitzua) deiak askotan zerbitzu horretara bideratzen dira deia egiten duen pertsonaren osasunarekin lotuta daudenean. Hauek dira Osasun Kontseiluak **ematen dituen zerbitzuak,** helburu honekin lotuta daudenak: **Arreta ez-presentziala urteko 365 egunetan eta 24 orduetan, paziente kronikoen jarraipena, larrialdiekin koordinazioa eta telefono bidezko osasun-aholkua.** Zerbitzu horrek helburu sektorial hau betetzen laguntzen du.

- Profesionalei lotuta, **2023-2025 Osakidetzako Plan Estrategikoak profesionalentzako ildo estrategiko zehatza** jasotzen du: “osasun-emaitzekin eta ezagutza eta berrikuntza sortzearekin konprometituta dauden profesionalak” eta **eraldaketa digitalari lotutako helburu espezifikoa** Berrikuntza eta Ikerketari buruzko 6. ildo estrategikoan. Kasu honetan, garrantzitsuena da hedapena bi helburuetan egiten den, baita landa-ingurunearen espezifikotasuna zer neurritan kontuan hartzen den ere.

- Euskal Osasun Sistema Publikoan egiten diren inbertsioak Sailak edo Osakidetzak sustatutako planen hedapenaren bidez zehaztuko dira. Zerbitzu Erakundeen mailan (ESI) ere identifikatzen diren inbertsio-beharrak aurkez daitezke.

- **Euskadiko Osasun Publikoaren Legearen** printzipio gidarietan adierazten da Garapen Jasangarriko eta Osasuneko Helburuekin lerrokatuta dagoela politika guztietan, baita “One health” / “Osasun bakarra” kontzeptuarekin ere. “Animalien eta ekosistemaren osasuna zaintzeak pertsonen osasuna hobetzen laguntzen du”. Jakina da egiaztapen horrek zuzeneko erreferentzia egiten diola landa-inguruneari. 34.2 artikuluan adierazten da gainerako sailek batera egin dezaketela lan osasun publikoan ekitatea bermatzeko. Horrez gain, sektorearteko izaerako gobernantza-figurak kontuan hartzen baditugu, argi dago etorkizunean onesteak landa-lentea kontuan hartzeko aukera ematen duela.

- Ildo horretan, berriki onetsitako **2030 Osasun Planaren** hedapena aukera ona da landa-lentea gehitzeko.

- Azkenik, **jardunbide egokiak** aintzat hartzea proposatzen da, pertsonak osasun-zerbitzuetara hurbiltzeko baliagarriak direla erakutsi baita. **Behemendik** Gipuzkoan (Oarsoaldea, Buruntzaldea eta Irun) duen **garraio-zerbitzua da,** udalek finantzatutakoa. Adineko pertsonak edo behar bereziak dituzten pertsonak “laguntzen” dituen garraio-zerbitzua da, eskari bidez. Etxean jasotzen dituzte eta joan-etorrian laguntzen zaie, izapide batzuk egin ahal izateko, besteak beste, medikuen kontsultara joateko.

## 10. eta 11. ARDATZAK: Lehen mailako osasun-arreta eta arreta espezializatua. H1HS, H3HS / C6HO

### AUKERAK

- Euskadiko osasun publikoa arautzen duen esparru juridikoa: Euskadiko Osasun Publikoaren Legearen 38.2 artikuluak gainerako sailekin (Rural proofing) lankidetzan aritzeko aukera ematen du
- Landa legea eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako erronka demografikotik eratorritako lehentasunak.
- Osasun Sailaren eta Osakidetzaren estrategia berriak, besteak beste, 2030erako Osasun Plana, Lehen Mailako Arretako Plan berria (rural proofinga txertatzeko unean zirriborro fasean dago).
- Aurretik dauden osasun-azpiegituren sarea.
- Jardunbide egokiak pertsonak osasun-zerbitzuetara hurbiltzeko garraio-zerbitzuetan (Behemendi).
- Osasun Aholkua programa, pertsonei 24 orduko arreta indibidualizatua ematen diena.
- Osasun-zerbitzuak digitalizatzeko estatuko estrategiaren ondoriozko funtsak baliatzea. Digitalizazioa asistentzia-zerbitzua hurbiltzeko eta, ondorioz, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko aukera gisa. Edo anbulantziak kokatzeko aplikazioak.
- Gizarte-zerbitzuekin (besteak beste, betiON) konektatzeko aukera.
- Osasun-sektorean inbertitzeko Europako funtsak.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Hiru hiriburuetatik urrun dauden zerbitzu-eremuetan profesionalak txertatzeko zailtasunak.
- Zerbitzuetan sartzeko zailtasuna (joan-etorrietan ematen den denbora) eta landa-ingurunean mugikortasun arazoak dituzten pertsonei orokorrean baliabideak hurbiltzeko zerbitzu-eza.
- Kontsultategietan egunak eta ordutegiak murriztearen ondorioz, asistentziaren kalitatea galtzea.
- Euskal herritarren osasun-asistentzian ekitate eza, baldin eta ez bada rural proofinga txertatzen aintzat hartuta populazioaren tamaina ez ezik baliabideetarako irisgarritasuna ere (batez besteko distantzia handiak > 10.000 guneetara) aintzat hartuta. Bereziki Karrantzan eta Arabako zenbait eremutan: Asparrena, Bernedo, Kanpezu, Kripan, Kuartango, Harana, Valdegovía/Gaubea).
- Diagnostikoak berandu egiteko arriskua eta, ondorioz, landa-eremuetan morbimortalitate-tasa handitzea.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Landa-eremuko udalerri batzuek ez dute dagozkien osasun-zerbitzurik.
- Detektatu den arazo nagusia osasun-zerbitzuen eskaintzarekin (egungo zerbitzuak galtzea edo okertzea) eta horien estaldurarekin dago lotuta, eta ez hainbeste azpiegiturekin. Landa-eremuko udalerriak osasun-arloko profesionalek aukeratzen dituzten osasun-zentroetatik urrun daude, eta horrek zailtzen du zerbitzua estaltzea eremu horietan.
- Landa-eremuko udalerri gehienek ez dute irisgarritasuna bermatzen duen garraio-zerbitzurik.

### BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK

- Ad hoc azterlanak egiteko beharra, jasotzen diren oinarrizko osasun-zerbitzuen kalitateari dagokionez udalerri defizitarioen lurralde-mailako arazoak kuantifikatzeko eta neurtzeko: profesionalak, irisgarritasuna. Bereziki, lehen mailako arretari dagozkionak.
- Euskal herritarren osasun-asistentzian ekitate eza, aintzat hartuta populazioaren tamaina ez ezik baliabideetarako irisgarritasuna ere (batez besteko distantzia handiak > 10.000 guneetara) aintzat hartuta. Bereziki Karrantzan eta Arabako zenbait eremutan: Asparrena, Bernedo, Kanpezu, Kripan, Kuartango, Harana, Valdegovía/Gaubea).

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza-Osasun Saila-Plangintza Zuzendaritza**
- **Osakidetza-Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza- Lehen Mailako Asistentziako, Ospitaleko Asistentziako eta Erizaintzako zuzendariordetzak**

## 10. eta 11. ARDATZAK: Lehen mailako osasun-arreta eta arreta espezializatua. H1HS, H3HS/C6HO

| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
|---|---|
| OSO HANDIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Lehen mailako arretari dagokionez, ardatz honen ondoriozko jarduketak lehenestea ABE-etako udalerrietan.<br>▪ Arreta espezializatuari dagokionez, proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako, baina etorkizuneko LGEPen esparruan eskualde bakoitzaren kasuistika identifikatu beharko da. |

### BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)

1. Rural proofinga osasun arloko politika, programa eta zerbitzuetan txertatzea, bereziki Osasun Sailean (2030eko Osasun Plana, Legegintzaldirako lehentasunak...) eta Osakidetzan (Osakidetzaren Plan Estrategikoa, Lehen Mailako Arreta Plana, Humanizazio Plana...) egiten diren estrategia eta planetan, eta landa-inguruneari heltzeko eremu espezifiko bat definitzea. Osasun-eremuak eta zerbitzuen mapa ikuspegi berri horren arabera berrikustea.
2. Rural proofinga osasun digitalaren estrategian eta egiten diren inbertsio-erabakietan txertatzea.
3. Landa-eremuetan Osasun Kontseilua bultzatzea, eta pertsonei ematen zaien tratuaren eta laguntzan asistentziaren hurbiltasuna ahalbidetzen duten aurrerapen teknologikoak ematea.

### ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)

1. Ekintza positiboak sustatzea, osasun-arloko profesionalek landa-destinoak hauta ditzaten sustatzeko (EPE-etan lan-denboraren zenbaketa handiagoa, pizgarri ekonomikoak soldatan, joan-etorrietan eta baita etxebizitzetan ere, udalekin lankidetzan), arazo bera duten beste autonomia-erkidego batzuetan lantzen ari diren bezala.
2. Garraio-zerbitzu egokia bermatzea, urrutien dauden osasun-zerbitzuak irisgarriak zian daitezen.
3. Rural proofinga sartzea osasun-plan eta -estrategietan. Bereziki, Lehen Mailako Arretako Plan berrian ardatzak dituen helburu sektorialetarako, arreta berezia jarrita zonakatzerako erabilitako informazioaren arabera >10.000ko guneetatik edo ospitale batetik urrunen dauden udalerrietan.
4. Osasun Kontseiluaren zerbitzua indartzea, irudi, ahots eta errealitate birtualeko teknologiak aplikatzeak ematen dituen funtzionalitate berriekin.
5. I+G+b-ko funts publikoak bideratzea landa-inguruneko udalerrietako asistentziaren kalitatea hobetzen duten proiektuetara.

### FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK

- Europako eta Estatuko funtsak osasun-zerbitzuak hobetzeko inbertsio teknologikoetarako.
- Europako I+G+b-ko proiektuetan parte hartzea, Euskal Osasun Sistemaren berrikuntza-zentroen sarearekin (Bioef, Kronigune) eta ZTBESrekin.

## EJE 12: ATENCIÓN FARMACÉUTICA

| 12. ARDATZA: Arreta farmazeutikoa |
|---|
| ▪ **H2HS** Landa-eremuko biztanleriaren beharrizanei erantzuteko bereziki diseinatutako f**armazia-eskaintza** sustatzea |
| **C6HO.** Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean,** seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 11/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako dena.
- AGINDUA, 2019ko ekainaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez zehazten eta sailkatzen baitira farmazia-eskualdeak, eskualde bakoitza zer udalerrik osatzen duen adierazita.
- 26/2023 Dekretua, otsailaren 21ekoa, botikategien baimentze-prozedurari, baldintzei eta funtzionamendu-araubideari buruzkoa.
- Osasun Sailaren Marko Estrategikoa 2021-2024

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- **2019ko ekainaren 21eko Aginduak** Osasuneko sailburuaren 2015eko apirilaren 24ko Aginduan jasotako **farmazia-eskualdeen konfigurazioa eguneratzen du.** Agindu horren bidez, farmazia-eskualdeen sailkapena argitaratzen da, eskualde bakoitzak zein udalerrik osatzen duten adierazita. Bestalde, Aginduak xedapen gehigarri bat gehitzen du, eta horren bidez farmazia-eskualdeen sailkapen berriak indarrean dagoen guardiako txanden antolaketaren gainean dituen zenbait eragin ebatzi nahi dira.
- Aginduak 3 eranskin ditu, lurralde historikoko bana: Landa-eremuko udalerriak 3 eremuetan sar daitezke (A, B edo C), osasun-eremuekin lotzen baita, EAEko Ordenazio Farmazeutikorako 11/1994 Legearen 10.1 eta 11.3 artikuluei jarraikiz. Eremuak mugatzeko kontuan hartzen den biztanleria-tamaina biztanleriaren bolumena da:
- 3.500 biztanle eremu batean (landa- edo hiri-eremua den berariaz aipatu gabe), 2.800 edo 2.500, osasun-eremuekin duten erlazioaren arabera, farmazia-bulego bat baimentzeko. Lege beraren 25. artikuluak xedapen bat ezartzen du, batetik, 800 biztanle baino gutxiagoko udalerrien beharrei erantzuteko eta, bestetik, farmazia-bulegoa izan arren, urruntasuna dela-eta, hurbilen dagoen establezimenduarekiko komunikazio-zailtasunak direla-eta... botikategiak irekitzeko aukera ematen dieten eremuak edo auzoak dituzten udalerrien beharrei erantzuteko. Beraz, esan daiteke aintzat hartzen dela landa-lentea.
- Osasun Sailaren 2021-2024 Marko Estrategikoari dagokionez, adierazi behar da biztanleria osoari eragiten dion farmazia arloarekin lotutako alderdiak jasotzen dituela (51. or.). Zehazki, honako hau adierazten du: *"Era berean, farmazia-bulegoek euskal osasun-sisteman duten integrazio-maila sendotu eta handituko da, **komunitatera bideratutako zerbitzuak emanez,** sendagaien erabilerari, prebentzioari eta osasunaren sustapenari dagokienez, eta arreta farmazeutikoko programak garatuz".*

## 12. ARDATZA: Arreta farmazeutikoa. H2HS/C6HO

### AUKERAK

- Landa-eremuko udalerri guztiak daude farmazia-eskualde batean sartuta.
- Medikamentuen erabilerari, prebentzioari eta osasunaren sustapenari buruzko ikuspegi komunitarioa iraganean baino nabarmenagoa da orain.
- Landa Ingurunearen Garapenaren Legea bera eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako erronka demografikotik eratorritako lehentasunak.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Azpiegituraren kokapenak ez dio jarraitu landa-garapenarekin eta haren lehentasunekin lotutako irizpide bati, biztanleriari dagokion irizpideari baizik.
- Guardiako farmazien eskaintza oso mugatua da, eta ondorioz, udalerrien arteko joan-etorriak egin behar dira askotan eta garraio publikoaren eskaintzarik ez dagoen edo eskaintza oso mugatua den ordutegietan.
- Farmaziaren Legeak lizentzia berriak udalerri handietan eta eskualde-buruetan ematea ahalbidetzen du.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan ez bezalako egoerarik. Zonakatzea biltzen duten biztanleriaren arabera egiten da
- Zonak mugatzeko erabiltzen den irizpidea populazioarena da, ez bereziki landatarra/hirikoa izatea.
- Irisgarritasunak, kasu honetan joan-etorrien distantzia eta denbora gisa, kontuan hartu beharreko faktorea izan beharko luke, populazioaz eta populazio-bolumen handiagoaz edo txikiagoaz gain. Osasunarekin lotutako gaiek erantzun azkarrak eskatzen dituzte kasu askotan.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza-Osasun Saila-Farmazia Zuzendaritza**
- **ESIak**
- **Farmazia elkargoak**

| 12. ARDATZA: Arreta farmazeutikoa. H2HS/C6HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **TXIKIA** | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ ABE-etan ez dago beste landa-eremuetan (2 eta 3 EREMUAK) ez bezalako egoerarik. Zonakatzea biltzen duten biztanleriaren arabera egiten da.<br>▪ Faktore garrantzitsutzat hartu behar dira joan-etorrietan emandako denbora, distantzia edo garraio publikoa erabiltzeko aukerak.<br>▪ Proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako, baina etorkizuneko LGEPen esparruan eskualde bakoitzaren kasuistika identifikatu beharko da. |
| **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)** | |
| 1. Landa-eremuetan 24 orduko zerbitzua bermatzea (teknologietan oinarritutako hornidura-modalitate irekiak eta malguak).<br>2. Rural proofinga aplikatzea gaur egun populazio-bolumenean oinarritzen den zonakatze farmazeutikoak zer egokitza- pen-maila beharko lukeen baloratzeko, zerbitzu farmazeutikorako irisgarritasun-mailan eragiten duten beste irizpide batzuk kontuan hartu gabe, hala nola guardiako zerbitzua ematen duen herri-gunera joateko denbora. | |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)** | |
| 1. Osasun Sailarekin batera, aztertzea rural proofinga landa-eremuetan nola aplikatzen den eta haren aplikazioak egungo zonakatze-araudian duen eragina aztertzea, guardiako farmazia-zerbitzuak garaiz eta forman eskuratzea bermatzeko.<br>2. Kontuan hartzea farmazia azpiegitura sanitario gisa eta osasun publikoko politiken eta gizarte-zerbitzuen babes gisa duen zeregina, zehazki, adineko pertsonei arreta ematekoa; izan ere, aholku eta antena funtzioa bete dezakete hauskortasun-, kalteberatasun- edo bakardade-egoerak detektatzeko, eta ekintza positiboko neurriak proposa ditzakete, landa-kokapenak eragindako desabantailei aurre egiteko. | |
| **FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK** | |
| ▪ Ez dira identifikatu. | |

## 13. ARDATZA: GIZARTE-ARRETA

| 13. ARDATZA: Gizarte-arreta |
|---|
| ▪ **H4HS. Gizarte-ongizateko ekipamenduen garapenean laguntzea,** talderik kalteberenei arreta berezia emanda. |
| **C6HO.** Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez,** bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
- Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024
- Adinekoekiko Euskal Estrategia 2021-2024
- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plana 2023-2026
- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2018-2021
- Euskadi Lagunkoia

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- **Gizarte-zerbitzuen esparruko eskumenak hiru administrazio-mailetan daude banatu- ta:** EJ-Gizarte-politiken plangintza orokorra eta betiON telelaguntza-zerbitzua; **foru-aldundiak,** bigarren mailako arretako gizar- te-zerbitzuak: Autonomian mugak izatearen ondoriozko beharrei erantzuteko eguneko zentroak eta adinekoentzako, desgaituentzako eta osasun mentaleko arazoak dituztenentzako egoitza-zentroak, beste programa eta prestazio ekonomiko batzuk (LPPE, FIZPE, ZLP), bai eta lehen mailako arretako zerbitzuekin mendekotasun-mailaren eta **tokiko esparrua**ren balorazioa ere: informazioa, ELZ (Etxeko Laguntza Zerbitzua), eguneko arretako zerbitzuak, tutoretzapeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak, maila mankomunatuan kudea daitezkeenak, hala nola Araban eta Bizkaian oro har, eta Gipuzkoan Tolosaldearen kasuan, eta bakarrik edo beste erakunde-maila batzuekin koordinatuta gara ditzakeen beste programa batzuk. Ekipamenduei dagokienez, erantzukizuna duten administrazioak foru- eta udal-administrazioak dira. **Horrek konplexutasun handia sortzen du landa-eremuaren** edo ”rural proofingaren” **ikuspegia babesteko edo txertatzeko** orduan, erakunde eta zerbitzu kopuru handi bat interpelatzen baitu.
- **Araban eta Gipuzkoan landa-eremuko adinekoei arreta emateko zentro espezifikoak garatu dira-** Araban Eguneko Arretarako Landa Zentroak deitzen dira eta Gipuzkoan Balio anitzeko Landa Zentroak; Bizkaian, berriz, ez dago halakorik.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 7. artikuluak Legea arautzen duten printzipioak zehazten ditu, eta, besteak beste, honako hauek aipatzen ditu: c) Berdintasuna eta Ekitatea eta d) Hurbiltasuna; beraz, legearen hedapenak bermatu egin behar ditu printzipio horiek.
- Aztertutako planetako bakar batean ere ez da landa-eremuari buruzko ezer aipatzen; lotura plan horien eta beste plan orokorrago batzuen arteko erlaziotik dator. Zehazki, “Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren” hedapenaren eta “Lehen Mailako Arreta Planaren” arteko loturaz ari gara.
- **Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa** urrian onartu da Gobernu Kontseiluan, eta **Euskadirako gizarte-zerbitzuen mapa eguneratzen** ari dira gaur egun, baina oraindik ez dira argitaratu (gaur egun 2023-2026 II. Plan Estrategikoaren laburpen batera sartzen gara).

Arabak eta Gipuzkoak gizarte-zerbitzuen mapa bana dute argitaratuta, Gipuzkoak 2020ra arte eguneratuta. Bizkaiak, ordea, ez du halakorik. Hiru lurralde historikoetan dagozkien ekipamenduen zerrenda jasotzen da. Bi kasuotan, hau da, Plan Estrategikoan eta Gizarte Zerbitzuen Mapan, kontuan hartu beharko litzateke, halaber, lurraldeko pertsonen banaketa, proposamenak egitean aztertu beharreko beste alderdi bat den aldetik.

- **12/2008 Legeak honako hau ezartzen du: "biztanle kopuruaren aldetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarrizko jardun-eremuak 5.000 biztanlekoa izan behar- ko du, edo, nekazaritza-inguruetan edo gune bereziki behartsu edo andeatuetan jardun behar badu, 3.000 biztanlekoa.** Berdin dio biztanle-kopuru hori udalerri bakarrean bildurik edo hainbatean banaturik dagoen". Legeak hau zehazten du, halaber: "Oinarrizko eremua izango da oinarrizko gizarte-zerbitzuen lurralde-eremua (edo, hala balegokio, oinarrizko gizarte-zerbitzuen unitateena) zedarritzeko biztanle-eremua, eta 29. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera integratzen dira oinarrizko gizarte zerbitzuetan". Bestalde, **Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Ingurunearen Garapenaren 7/2022 Legeak euskal landa-eremua berriz zonakatzeko oinarriak ezartzen ditu.** Oinarri horren gainean, lurralde-garapeneko programen (LuGP) esparru estrategikoan, Euskadiko udalerrien sailkapen bat egiten da, haien landatartasunaren arabera. Beraz, **egokia litzateke "landa-eremuen" irismena eta definizioa bateratzea, gizarte-zerbitzuen mapa berria eta mapa horretatik eratortzen diren estrategiak eta inbertsioak ezartzean.**

- **Mendetasunari lotutako prestazio ekonomikoei dagokienez, bizilekua ez da pertsonak bereizten dituen faktore bat,** eta baldintzak betetzen baditu, onuraduna izango da. **Kasu honetan ez da diskriminaziorik antzematen.**

- **Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen ondoriozko gobernu-/kontsulta-organoetan ez da aurreikusten landa-eremua ordezkatzen duten erakundeak egongo diren.** EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoan aipatzen da, zeharkakoa denez, Jaurlaritzako hainbat sailekin koordinatu behar dela: osasuna, hezkuntza, enplegua eta etxebizitza. Ez da inolako aipamenik egiten landa-ingurunearen berezitasunaz, adinekoek eta mendekoek zerbitzuak eskuratzeko duten arazoaz (kasu askotan, beren bizi-ingurunetik kanpo esleitzen zaizkie baliabideak), eta aurreragoko foru-mapak planifikatzeko input gisa sartzeaz.

- Lurralde historikoek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskumenen banaketaren eta abiapuntuaren ondorioz, **ekitaterik eza gertatzen dela gizarte-arreta behar duten pertsonek jasotzen duten mailan eta irismenean; izan ere, hainbat proiektu daude lurralde historikoen arabera.**

- **Landa-eremurako programa interesgarri bat Euskadi Lagunkoia da;** izan ere, adinekoek beren eguneroko bizitzako habitatari buruz duten ikuspegia ahalbidetzen eta ikusarazten du, eta diseinuan egokitzeko eta adinekoek parte hartzeko planak proposatzen ditu. **Berez, Gizarte Berrikuntzako programa bat da.** Gaur egun, proiektuaren web-orriak jasotzen duenez, 74 udalerri daude guztira, eta horietako asko hiru lurralde historikoetako landa-eremukoak dira. Araban eta Bizkaian, batzuk arreta bereziko eremuetan daude (Aulesti eta Ea Bizkaian. Añana, Armiñon, Arraia-Maeztu, Berantevilla, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Erriberagoitia-Ribera alta, Kuartango, Lantaron, Leza, Gaubea, Villabuena/Eskuernaga eta Zanbrana Araban).

- **Arabako Eguneko Arretarako Landa Zentroen eredua interesgarria da,** bai eta landa-inguruneetako etxebizitza komunitarioen eta egoitza txikien beste esperientzia batzuk ere; izan ere, adinekoen zaintza-beharrei erantzuteko aukera ematen dute eta ez dute haien bizi-ingurunetik lekualdatu behar (Aia, Bernedo, Ea, Gatika).

## 13. ARDATZA: Gizarte-arreta. H4HS/C6HO

### AUKERAK

- Interes-eremua da euskal administrazio publikoentzat
- Kalitatezko ekipamendu-sarea
- Abian diren plangintza-esparru berriak, zeinetan sar daitekeen "rural proofinga" (foru-baliabideen mapak), adibidez, EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2023-2026. Plan horretan aipatzen da, zeharkako denez, Jaurlaritzako hainbat sailekin koordinatu behar dela: Rural proofinga (9. or.).
- Zahartzeari eta bizi-luzetasunari heltzeko programak. Horiek osasunaren prebentzioa eta sustapena azpimarratzen dute, eta landa-eremuko udalerrietan bultzada handiagoa eman beharko litzaieke edo modu proaktiboan babestu beharko lirateke.
- Erantzun beharreko eskaria gero eta handiagoa da.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Lurralde historiko bakoitzean estalduren eta zerbitzuen egoerek zaildu egiten dute baterako diagnostiko bat egitea.
- Etxeko zerbitzuen eskumena duen toki-eremuak (udalak edo udalerrien mankomunitateak), kasu askotan, ez ditu baliabide ekonomiko nahikoak gero eta handiagoa den eskariari erantzuteko, edo beste lehentasun batzuk ezartzen ditu aurrekontuak banatzean.
- Ez da aurreikusten landa-ingurunerako berariazko irtenbiderik, hau da, askotariko zerbitzuak hartzen dituzten ekipamendu mistoak: eguneko arreta-zentroa, etxebizitza komunitarioa, eguneko zentroa, egoitza txikiak, Arabako Eguneko Arretarako Landa Zentroak izan ezik, baina horiek ez dira mendekotasunen bat duten pertsonentzat.
- Gomendatutako ELZaren ratioen azpitik gaude. Zerbitzu horrek berariazko eredu bat behar du landa-ingurunean.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Landa-ingurunearen berariazko tratamendua dago arau-esparruan, baina berrikusi egin behar da Landa Garape- nerako Lege berriaren arabera eguneratzeko; gizarte-zerbitzuen berariazko planetan ez da ezer aipatzen edo gutxi aipatzen da.
- helburu sektorial bat da, eta oso tokiko arreta eskatzen du, foru-aldundien eta udalen aldetik.
- Lurralde historiko bakoitzaren barruan xehetasun-azterketa bat egin behar da gomendioak bideratzeko, aintzat hartuta Pertsonarengan Oinarritutako Arretaren (POA) ikuspegi berria, eta kontuan hartu behar dira adinekoak eta haien landa-ingurunea.

### BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK

- Araban eta Gipuzkoan, adinekoei arreta emateko berariazko zentroak garatu dira landa-eremuan.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza-Berdintasun, Justizia eta Gizarte Zerbitzuetako Saila-Gizarte Zerbitzuetako Sailburuordetza**
- **Foru-aldundiak – Lurralde historiko bakoitzeko Gizarte Politiketako Saila**
- **EUDEL-Udalak**
- **Mankomunitateak. Kuadrillak**

| 13. ARDATZA: Gizarte-arreta. H4HS/C6HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **OSO HANDIA** | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Landa-ingurunearen berariazko tratamendua dago arau-esparruan, baina berrikusi egin behar da eta ez da kontuan hartzen gizarte-zerbitzuen berariazko planetan.<br>▪ Ardatz honen ondoriozko jarduketak lehenestea ABE-etan. Nolanahi ere, etorkizuneko LGEPek eskualde bakoitzaren berariazko beharrak jaso ahal izango dituzte. |
| **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)** | |
| 1. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea eguneratzea, Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legeak emandako lurralde-erreferentziako termino berria kontuan hartuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarrizko jarduketa-eremuak eta hortik eratortzen den araudia zehazteko, rural proofinga txertatze aldera.<br>2. Ikuspegi hori aintzat hartzea Jaurlaritzaren gizarte-zerbitzuen mapetan, bai eta foru-aldundienetan eta etorkizuneko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoetan ere. | |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)** | |
| 1. Landa-eremua zehazten duen biztanleria-erreferentzia berria aitortzea, gizarte-baliabideen plangintza berrietan kontuan hartzeko.<br>2. Rural proofinga Plan Estrategiko berrian eta Gizarte Zerbitzuen Mapan sartzea.<br>3. Onartzea gizarte-baliabideetarako irisgarritasuna garraio publikoko zerbitzu baten bidez ziurtatu behar dela.<br>4. Eusko Jaurlaritzan landa-garapenaren arloan eskumena duen saila/zuzendaritza eta foru-aldundiak sartzea foru-eskumeneko gizarte-zerbitzuen mapak egitean.<br>5. Eusko Jaurlaritzan landa-garapenaren arloan eskumena duen saila/zuzendaritza sartzea gizarte politiken koordinazioan, dagoeneko koordinazio hori egiten duten gainerako sailekin batera.<br>6. Euskadi Lagunkoia ekimena sendotzea landa-eremuko udalerrietan oro har eta ABE-etako udalerrietan bereziki, eta baliabideak ematea landa-errealitatera egokituko berariazko programak hedatzeko.<br>7. Landa-eremuko udalerrietako ordezkariekin batera aztertzea foru-zerbitzuen zorroetan landa-eremurako berariazko ekipamenduak hedatzeko/sartzeko beharra.<br>8. HerriLab ekimena sendotzea landa-udalerrietan, oro har, eta ABEko udalerrietan, bereziki, eta landa-errealitatera egokitzeko programa espezifikoak hedatzeko baliabideak ematea | |
| **FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK** | |
| ▪ Laguntza-programa zehatz bat baino gehiago, arlo honetan itun politikoa da batik bat: Foru-aldundiak-Udalak<br>• Gizarte-zerbitzuen arloan berrikuntzari laguntzeko foru-deialdiak. | |

## 14. , 15. ETA 16. ARDATZAK: KULTURA, KIROLA ETA AISIA

| 14., 15. eta 16. ARDATZAK: Kultura, Kirola eta Aisia |
|---|
| ▪ **G4HS. Hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak orokorrean antolatzeko** bidea ematea, eta horretarako, **balio eta funtzio anitzeko ekipamenduak sustatzea,** eta dauden desorekak zuzentzea |
| **C6HO.** Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, **zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean,** seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 2028 KULTURA. PLAN ESTRATEGIKOA

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Udalerri gehienek kirol-ekipamenduak dituzte (frontoia, kultur etxea…) eta biztanleria-maila desberdinei zuzendutako jarduerak eskaintzen dituzte.

- Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute beren udalerrietan kirol- eta aisialdi-instalazioen eskaintza nahikoa egotea, hau da, bizi-kalitatearekin edo bizitza osasungarriarekin lotura estua duten jarduerak egotea.

- Azken urteotan, udalerriek kultura-, kirol- eta aisialdi-ekipamendu txikiak garatu dituzte, eta, horrela, haien estaldura zabaldu dute.

- Dauden kirol-azpiegiturek eta -ekipamenduek etengabeko hobekuntzak eta eraberritzeak behar dituzte, baina garrantzitsuena da gero eta gehiago eskatzen dela jarduera-eskaintza eguneratua eta zabala izatea, batez ere adinekoentzat.

- Udalerri edo landagune bakoitzean egin daitekeen eskaintza espezifikoaz gain, hurbileko eta kalitatezko garraioak zerbitzuen eskaintza hobetzea eta zabaltzea ahalbidetu dezake.

## 14., 15. eta 16. ARDATZAK: Kultura, Kirola eta Aisia. G4HS / C6HO

### AUKERAK

- Landa-eremuetan kultura-aniztasun aberatsa da, eta komunitate baten historian errotutako tradizioak zaintzen dituzte.
- Landa-eremuetan kultura eta tradizioak zaintzea funtsezkoa da komunitateen nortasunari eusteko, kide izatearen zentzua eta kohesio soziala indartzeko, eta kultura-ondarea babesteko.
- Kirol- eta kultura-azpiegituren eskaintza izateak komunitatearen garapena eta dinamizazioa sustatzen du, eta beste udalerri batzuetara joatea saihesten du.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Etengabe aldatzen eta globalizatzen ari den mundu honetan, kulturak eta tradizioak desegin edo desagertzeko arriskua dago.
- Globalizazioak eragin homogeneizatzailea izan dezake tokiko kulturetan. Komunikabideekiko eta bizimodu globalekiko esposizioak, batez ere biztanle gazteenen esposizioak, bertako tradizioak baztertu ditzake.
- Landa-eremuko komunitateek zailtasunak izan ditzakete kalitatezko kirol-, kultur- eta aisialdi-azpiegituren eta -zerbitzuen eskaintza izan dezaten baliabideak eta laguntza eskuratzeko.
- Harreman sozialak sustatzen dituzten topaguneak (tabernak edo antzekoak) falta dira.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Araudi- eta plangintza-esparruek ez dute jasotzen landa-eremuarekin lotutako berariazko jarduerarik.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **EJ**
- **Foru-aldundiak**
- **Udalak**
- **Mankomunitateak**
- **Kuadrillak**
- **Kontzejuak**

| 14., 15. eta 16. ARDATZAK: Kultura, Kirola eta Aisia. G4HS / C6HO | |
|---|---|
| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
| TXIKIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako, baina etorkizuneko LGEPen esparruan eskualde bakoitzaren kasuistika identifikatu beharko da. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Belaunaldi berriak inplikatzeko estrategiak garatzea eta haien parte-hartzea sustatzea landa-eremuko kulturaren eta tradizioen babesean.
2. Kirol-ekipamenduen eta -zerbitzuen oinarrizko eskaintza bermatzea, bizi-ziklo osoan jarduera fisikoa garatzea ahalbidetzeko, eta, horrekin batera, behar horiei erantzuteko landa-eremuko biztanleak hiri-inguruneetara joatea saihesteko.
3. Landa-ingurunean kultura- eta aisialdi-ekipamendu eta -zerbitzuen oinarrizko eskaintza bermatzea.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)**

1. Landa-ingurunean kultura-ekosistema anitza bultzatzea, kultura- eta aisialdi-eskaintza sendotzeko, kultura- eta sormen-sektorea indartzeko eta enplegu-aukerak sortzeko.
2. Harreman sozialak sustatzen dituzten topaguneak (tabernak edo antzekoak) egokitzea landa-eremuetan.
3. Euskadiko landa-eremuko udalerrietako kirol-azpiegituren mapa eguneratzea eta etorkizuneko LGEPen esparruan dauden arrakalak estaltzea.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- BIZKAIAN UDALAZ GAINDIKO KIROL-INSTALAZIOETAN HOBEKUNTZAK EGITEKO LAGUNTZAK
- GIPUZKOAKO KIROL EKIPAMENDUEN PLANA 2023-2025

## 7.3.5 C5HO. GIZARTE-BERRIKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA IKERKETA: BERRIKUNTZA LANDA-INGURUNEAN TXERTATZEA, ERALDAKETA SOZIAL, DIZIPLINA ANITZEKO ETA SISTEMIKOAREN ARDATZA DELAKOAN

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C5HO. Berrikuntza** landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan. |
| **ARLOA** | GIZARTE BERRIKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA IKERKETA |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **D3HS.** Lanaren antolaketarako eredu berriak garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horien garapenaren bidez, kalitatezko enplegua lortzeko eta belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoek, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0 abeltzaintzak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuko dira.<br>▪ **J1HS.** Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetza bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharrizanak bete ditzaten.<br>▪ **J2HS.** Gaikuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartzea, landa-inguruneko eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dezaten eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboa eduki dezaten. Horrekin batera, prestakuntza hori euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuko da.<br>▪ **J4HS.** Euskal landa-ingurunean berrikuntza sozialaren eredu jakin bat garatzea; eredu horren oinarriak dira eragile anitzeko ikuspegiak, baterako sorkuntza, herritarren zientzia eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-formula berrien aldeko apustua. |
| **JARDUKETA-ARDATZAK** | 17. Gizarte-berrikuntza.<br>18. Trebakuntza eta berrikuntza<br>19. Ikerketa |

# 17., 18. ETA 19. ARDATZAK: GIZARTE-BERRIKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA IKERKETA

**17., 18. eta 19. ARDATZAK: Gizarte-berrikuntza, Trebakuntza eta Ikerketa**

- **D3HS.** Lanaren antolaketarako eredu berriak garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horien garapenaren bidez, kalitatezko enplegua lortzeko eta belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoek, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0 abeltzaintzak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuko dira.
- **J1HS.** Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetza bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharrizanak bete ditzaten.
- **J2HS.** Gaikuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartzea, landa-inguruneko eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dezaten eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboa eduki dezaten. Horrekin batera, prestakuntza hori euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuko da.
- **J4HS.** Euskal landa-ingurunean berrikuntza sozialaren eredu jakin bat garatzea; eredu horren oinarriak dira eragile anitzeko ikuspegiak, baterako sorkuntza, herritarren zientzia eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-formula berrien aldeko apustua

**C5HO.** Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan.

## ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- Ardatz Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030ArantzazuLab. Gizarte-berrikuntzako laborategia, gobernantzaren berrikuntzaren erreferentziazko zentroa eta herritarren topagunea
- Arantzazulab. Gizarte-berrikuntzako laborategia, gobernantzaren berrikuntzaren erreferentziazko zentroa eta herritarren topagunea
- Gizarte berrikuntzako, ikerketako eta garapeneko jarduerak bultzatzeko dirulaguntzak
- Gipuzkoako Herritarren Batzarra
- LABEAN proiektua.
- Arabako Gizarte Berrikuntzako Jardunbide Egokien Katalogoa
- ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO PLANA EUSKADI 2030 ZTBP2030

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Gizarte-berrikuntzaren kontzeptua ez da oso ezaguna eta ez dago oso garatua gure herrialdean. Behetik gora sortzen diren proiektuetan oinarritzen da. Zerbitzu, produktu eta eredu berrien proiektuak eta ekimenak dira, gizarte-arazo bati erantzuna ematen diotenak edo behar bat egungo alternatibek baino modu eraginkorragoan edo efizienteagoan estaltzen dutenak, edo gizarte-harreman berriak, sinergia berriak eta lankidetza-eredu berriak sortzen dituztenak, gizartearen erronka handiei aurre egiteko beharrezkoak diren gizarte-portaeraren aldaketak sustatzeko.
- Hortaz, kontzeptu hori landa-ingurunean proiektatzen badugu, landa-ingurunearen berariazko arazoei erantzungo dieten eta/edo gizarte-harreman berriak, sinergia berriak eta lankidetza-eredu berriak sortuko dituzten proiektuak eta ekimenak sustatu beharko lirateke.
- Ez da identifikatu landa-ingurunean gizarte-berrikuntza sustatzen duen plataforma egonkorrik. Herrialde, lurralde historiko eta toki mailan, badaude proiektuak eta pilotatzeak, baina ez daude egituratuta. Batzuetan, gizarte-berrikuntza gizarte-sustapenarekin eta gizarte-

erronkei erantzuteko gai diren negozio-ideia berrien bultzadarekin lotu da, eta ikuspegi horretatik, maizago sartzen da ekonomia-sustapeneko programetan gizarte-ongizateko programetan baino, politika publikoaren ikuspegitik. Ildo horretan sar liteke HAZI Fundazioak sustatzen duen LABEAN proiektua.

- Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Ardatz 2030 Planak bere esparru estrategiko eta jarduketa-ardatzetako batean aintzat hartzen ditu landa-ingurunean eragina izango duen gizarte-berrikuntzako eredu bat garatzeko gai diren elementuak. Zehazki, Gobernu Irekiaren eremua, zeinak honako hauek hartzen dituen: komunikazio publikoa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea eta lankidetza. Lantzen dituzten gaien artean daude Elkarlan sariak eta Herri Ekimenak.

- ArantzazuLab, ardatz hori garatzen lagun dezakeen gizarte-berrikuntzako euskal laborategia da. Proiektua bultzatzen duen Fundazioa honako hauek osatzen dute: Frantziskotarrak, GFA, Kutxa Fundazioa, Oñatiko Udala, MONDRAGON eta Eusko Jaurlaritza. Arantzazun dago, eta hori dagoeneko indar handiko gertaera sinbolikoa da, baina bere helburua da gure gizartearen erronkei buruz hausnartzen eta haiei erantzuten laguntzea. Landa-ingurunean gizarte-berrikuntzako eredu bat zehaztea da haien helburuetako bat. Gipuzkoan, GFAk hala aginduta, herritarren partaidetzarako Gipuzkoa Batzarra proiektua garatu dute.

- LABEAN: Landa-ingurunean berrikuntza soziala sortuz HAZI Fundazioak garatutako proiektu pilotu batda, hiru LGErekin (Izki, Añana eta Enkarterri), gizarte-berrikuntzan oinarritua: “Abangoardiako lan-tresnen bidez, ekimenak eta pertsonak astindu, lagundu, dinamizatu eta konektatu ahal izateko, Euskadiko landa-eremu behartsuen garapen sozioekonomikoa bultzatu nahi du: Añana, Arabako Mendialdea eta Enkarterri”.

- Arabaren kasuan, Arabako Foru Aldundiak Arabako Gizarte Berrikuntzako Foroa (AGBF) sortzeko ekimena proiektu interesgarria izan zen, baina ez dirudi jarraitutasuna izan zuenik. 2018an, gizarte-berrikuntzako jardunaldi bat antolatu zuen, zeinetan AGBFko kideek Arabako lurraldearen egungo egoera ezagutzeko eta mapatzeko beharra identifikatu zuten, garatzen ari diren gizarte-berrikuntzako proiektu eta ekimenei dagokienez. Hori egin zen, baina hortik aurrera ez zen ia ezer aurreratu. Berreskuratu litekeen lan-esparrua da.

- Zailtasunak daude ikerketa landa-inguruneko bizi-kalitatearen esparruarekin lotzeko. Ikerketaren arloan, ikuspegi orokor batetik, ez dago landa-ingurunerako berariazko araudirik edo plangintzarik arlo horretan, horiek argi eta garbi bideratzen baitira ekonomiara, osasunera eta energiara, batez ere. Landa-inguruneari dagokionez, lotura argia du nekazaritza-sektorearekin eta, ondorioz, sektore horretan berrikuntza lantzen duten eragile nagusiekin.

## 17., 18. eta 19. ARDATZAK: Gizarte-berrikuntza, Trebakuntza eta Ikerketa. D3HS, J1HS, J2HS, J4HS / C5HO

### AUKERAK

- Ekimenak eta pertsonak mugiarazteko, laguntzeko, dinamizatzeko eta konektatzeko aukera, landa-eremuetako gizarte- eta komunitate-garapena ahalbidetuz.
- Besteak beste, LABEAN, Open Eskola, ArantzazuLab proiektuak eta Eusko Jaurlaritzari ardatz hori garatzen lagun diezaioketen antzeko beste esperientzia batzuk garatzea.
- Gizarte-berrikuntzaren, trebakuntzaren eta ikerketaren bidez, biztanleria finkatzen, landa-eremuak sozioekonomikoki dinamizatzen eta komunitatea sortzen lagundu daiteke.
- Landa-inguruneko bizi-kalitateari dagokionez, osasunak eta energiak berariazko tratamendua dute ikerketaren esparruan, azpiegiturak eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Gizarte-berrikuntzaren kontzeptua ulertzeko eta ezagutarazteko zailtasuna.
- EAEn ez dago gizarte-berrikuntzaren arloko berariazko plangintzarik edo araudirik; beraz, ez eta landa-ingurunerako ere.
- Herrialde, lurralde historiko eta toki mailan, badaude proiektuak eta pilotatzeak, baina ez daude egituratuta.
- Nolanahi ere, gizarte-berrikuntzari buruzko ezjakintasuna orokorra da.
- Askotan etereoak edo gauzatzen zailak diruditen proiektuak izaten dira, eta denbora behar izaten da aldaketak hautemateko. Ekimen horiei estaldura eman diezaieketen dirulaguntzak urterokoak dira eta horrek ez du laguntzen horiek hedatzen.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Ardatz honetan ez da sartu lurralde-ikuspegia.
- Hedapenak ZEAak izan beharko lituzke lehentasunezko eremu, baina ez horiek bakarrik. Zeharkako eremua da, eta entitate guztiak landa-izaerakoak dituzten udalerriak ere barne hartu beharko lituzke.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza**
- **Foru-aldundiak**
- **Udalak**
- **Arantzazu Gaur Fundazioa**
- **HAZI Fundazioa**
- **LGEak**

**17., 18. eta 19. ARDATZAK: Gizarte-berrikuntza, Trebakuntza eta Ikerketa. D3HS, J1HS, J2HS, J4HS /C5HO**

| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
|---|---|
| ERTAINA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako, baina etorkizuneko LGEPen esparruan eskualde bakoitzaren kasuistika identifikatu beharko da. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Euskadiko landa-eremuetan gizarte-berrikuntza garatzen lagunduko duen ingurunea sortzen laguntzea, lurralde hori eraldatzeko oinarri gisa, dituen erronkei eta aukerei aurre egiteko, honako hauen bidez:
   - Ardatz 2030ek gizarte-berrikuntzako eredu bati eman diezaiokeen estaldura aztertzea, Gobernu irekiaren eta herritarren parte-hartzearen kontzeptuaren hedapen operatibotik abiatuta.
   - LABEAN proiektua Euskadiko landa-eremu guztietara hedatzea:
     - Labean eskualdeetan sortutako lan-ildoei laguntzen jarraitzea.
     - Labean eredua eta haren ikaskuntzak beste landa-eskualde batzuetan errepikatzea.
     - Landa-inguruneko gizarte-berrikuntzako ekimenak sarean biltzen laguntzea.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)**

1. Arantzazu Gaur Fundazioan (orain, Lehendakaritza) ordezkatuta dagoen Jaurlaritzako Sailarekin akordio bat sinatzea, landa-eremuan sortzen eta finkatzen den landa-lentea integratzeko gai den gizarte-berrikuntzako eredu bat elkarlanean eraikiko duen berariazko proiektu bat abian jartzeko.
2. LABEAN proiektuak abian jarritako ekimenei jarraipena ematea eta eredua beste landa-eskualde batzuetara eramatea.
3. Landa-eremuetan gizarte-berrikuntzako mapak egitea.
4. Proiektu eta eragileen artean sinergiak sortzea eta dinamizatzea, beste testuinguru batzuetan proiektu arrakastatsuak aplikatzea eta etorkizunean ezarri beharreko beharrak eta hobekuntzak detektatzea.
5. Gradu batzuetako prestakuntza-planetan, “landa-eremuko” espezialitateak (medikuntza, maisutza...) sortzeko aukera baloratzea, ezagutza holistikoa eta espezializatua behar izaten baitute.
6. Prestakuntza-eskaintza landa-inguruneko espezializazio-sektore adierazgarrienetan oinarrituta diseinatzeko aukera baloratzea: landa-ingurunerako lehentasunezko prestakuntza-titulazioen portfolio bat diseinatzea, modalitate presentzialak eta birtualak konbinatuko dituena.
7. Landa-nodoetatik gertu dauden eta Interneterako konexio ona duten “teleprestakuntzako” zentroak kokatzeko aukera aztertzea (ikasleek kilometro gutxi batzuk baino ez lituzkete egin beharko).

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- Ez dira identifikatu.

## 7.3.6 C2HO. ERALDAKETA DIGITALA: IKTAK ERABILTZEA BIZI-KALITATEA HOBETZEKO ETA LANDA-INGURUNEAREN ISOLAMENDUA ARINTZEKO

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C2HO. IKTak erabiltzea** landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. |
| **ARLOA** | ERALDAKETA DIGITALA |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **I2HS.** Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema berriak ikertu eta bultzatzea, IKTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez. |
| **JARDUKETA-ARDATZAK** | 20. Eraldaketa digitala |

## 20. ARDATZA: ERALDAKETA DIGITALA

| **20. ARDATZA: Eraldaketa digitala** |
|---|
| ▪ **I2HS.** Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema berriak ikertu eta bultzatzea, IKTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez. |
| **C2HO.** IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025

### AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

Estrategia, batik bat, honako hauetan oinarritzen da:

- **Euskadiko 5G konektagarritasunaren helburua:** Lurralde osoan eta industria-, hiri- eta landa-eremuan 5G teknologiaren ezarpena bultzatzea eta bizkortzea, administrazioek, zenbait ekintzaren bidez, teknologia hori heda dezaten erraztuz eta enpresa-erabilerako kasuak sustatuz, betiere teknologia hori ezartzen eta zerbitzuak garatzen laguntze aldera.
- **EI16.** Enpresetan **Banda Zabal Ultralasterraren eta 5Garen erabilera erraztea:** Enpresa-esparruan banda zabal ultralaster finkoaren eta 5G konektagarritasun mugikorraren eskuragarritasunari ahalik eta etekin handiena aterako dioten proiektuak bultzatzea, haien ezarpena bizkortzeko eta hainbat sektoretan proiektuak garatzeko, hala nola industrian, utilitateetan,

logistikan, mugikortasunean eta osasunean. Bereziki azpimarratuko da **landa-eremuetako proiektuen garapena.** Eremu horietan, enpresa-sakabanaketa handiagoa eta enpresen tipologia direla eta, 5G teknologiaren ahalmen guztia agerian utziko duten proiektuak garatu ahal izango dira.

- **EI10. Desberdintasun digitala murriztea, honako hauen bidez:** (i) Pertsonak beren bizi-eremu digitaletan (kontsumitzaile eta herritar sozial gisa) eta lan-eremuan txertatzeko aukera emango duten oinarrizko gaitasun digitalen hobekuntza bultzatu eta babestuko da, eta (ii) adinagatik, hezkuntza-mailagatik, landa-eremuetan bizitzeagatik edo desgaitasunagatik zailtasun bereziak dituzten pertsonen aukera-berdintasuna erraztuko da. Gainera, informazioaren gizartearen bilakaera bultzatuko da, oztopo fisikorik gabeko eta neurri txikian arautako testuinguru digitalean eskubide-berdintasuna eta eskubideen babesa zaindu daitezen (**IRISGARRITASUNA).** Adinagatik, hezkuntza-mailagatik, landa-eremuetan bizitzeagatik edo desgaitasunagatik **zailtasun bereziak dituzten pertsonen** aukera-berdintasuna erraztuko da. Gainera, informazioaren gizartearen bilakaera bultzatuko da, oztopo fisikorik gabeko eta neurri txikian arautako testuinguru digitalean eskubide-berdintasuna eta eskubideen babesa zaindu daitezen.

- **KZgunea** Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren mendeko proiektua da eta haren helburu nagusia da gizon-emakumeen gaitasun digitalak sustatzeko zerbitzuak ematea, eten digitala murrizteko eta, hala, Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren (EEDE2025) helburuak lortzen laguntzeko. Euskadin 236 zentro ditugu 208 udalerritan; hortaz, sarea oso zabala da.

| 20. ARDATZA: Eraldaketa digitala. I2HS /C2HO |
|---|
| **AUKERAK** |
| ▪ Azpiegituren arazoa konpondu ondoren, landa-ingurunean bizi den biztanleriaren profil demografikoa kontuan hartuta, beharrezkoa izango da pixkanaka trebatzea.<br>▪ KZGuneen sare zabala, emakumeen eta gizonen gaitasun digitalak sustatzeko tresna, eten digitala murrizteko eta, horrela, Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren (EDE2025) helburuak landa-ingurunean babesteko. |
| **GARAPENERAKO OZTOPOAK** |
| ▪ Tokiko erakunde publikoek, aurrekontu eta giza gaitasun urrikoek, administrazio digitalaren erronkari ere egin beharko diote aurre. |

| LURRALDE-DIAGNOSTIKOA |
|---|
| **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)** |
| ▪ Araudi- eta plangintza-esparruek ez dute jasotzen landa-eremuarekin lotutako berariazko jarduerarik, baina aintzat hartzen dute eta aipatu egiten dute. |

| ERAGILE GARRANTZITSUENAK |
|---|
| ▪ **Eusko Jaurlaritza**<br>▪ **Foru-aldundiak**<br>▪ **Udalak**<br>▪ **Mankomunitateak. Kuadrillak** |

| 20. ARDATZA: Eraldaketa digitala. I2HS /C2HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **ERTAINA** | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Helburua da landa-eremu guztietan banda zabal ultralasterra eta 5G izatea, bai eta desberdintasun digitala murriztea ere. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Banda zabal ultralasterra landa-eremuetara hedatzen dela bermatzea, eta, hala, enpresen lehiakortasunari eustea eta landa-eremuetako bizi-kalitatean lurralde oreka ziurtatzea. Banda Zabalaren Hedapen Planen (BZHP) denbora-luza- pena. Eremu zuriak 0ra murriztea.
2. Landa-lurraldearen zatirik handienean mugikorren estaldura bermatzea.
3. Landa-eremuko biztanleriaren desberdintasun digitala murriztea eta landa-eremuetako biztanleek adinagatik, hezkuntza-mailagatik, generoagatik edo desgaitasunagatik zailtasun bereziak dituzten pertsonen aukera-berdintasuna bermatzea.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)**

1. Euskadi Banda Zabala Programarekiko erakundearteko konpromisoa berrestea eta lehentasunezko epeak ezartzea.
2. Administrazio publikoen arteko lankidetza indartzea sare eta azpiegitura publiko digitalak instalatzeko edo ustiatzeko.
3. Hiri-ingurunearen aldean, telekomunikazio-zerbitzuak (estaldura mugikorra, satelitea, banda zabala…) eskuratzeko prezioetan diskriminaziorik ez dagoela bermatzea.
4. Neutraltasun teknologikoa sustatzea (landa-inguruneko pertsonei askatasuna ematea beren beharretara ondoen egokitzen den teknologia aukeratzeko), gaitasun handiko azpiegituren (ez zuntza bakarrik) eta landa-ingurunera egokitutako irtenbide integratuen hedapena bizkortzeko, ingurunearen premien arabera.
5. Oinarrizko gaitasun digitalen hobekuntza bultzatzea eta laguntzea, pertsonak beren bizi-espazio digitaletan, kontsumitzaile gisa, herritar sozial gisa, eta lan-esparruan integratzea ahalbidetzeko, eta, horretarako, gaur egun eskuragarri dauden baliabideak indartzea, hala nola KZGuneak.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- Eusko Jaurlaritzak Eraldaketa Digitalaren arloan egiten duen aurrekontu-ahalegina 1.400 milioi eurotik gorakoa da 2021-2025 aldian.

## 7.3.6 C4HO. ONDAREA: LANDA-INGURUNEAREN NATURA-, KULTURA- ETA NORTASUN-ONDAREA ZAINTZEA

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOAK** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C4HO. Landa-ingurunearen natura-, kultura-** eta identitate-**ondare** materiala nahiz immateriala **babestea.** Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira. |
| **ARLOA** | **ONDAREA** |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **G5HS. Landa-eremuko kulturaren eta ondarearen ezagutza, zabalkundea eta balioa** sustatzea, gizarteak orokorrean landa-ingurunean dauden prozesu eta balioen berririk ez daukala-eta, egoera hori gainditzeko modua delakoan.<br>▪ **G6HS. Landa-eremuetako natura-, historia-, kultura- eta paisaia-ondarea berreskuratzea, kontserbatzea, garatzea eta zabaltzea,** euskararen erabilera eta sustapena zeharka bultzatuz. |
| **JARDUKETA-ARDATZAK** | 21. Kultura-ondarea kontserbatzea<br>22. Kultura-ondarea hedatzea<br>23. Euskara sustatzea |

## 21. ETA 22. ARDATZAK: KULTURA-ONDAREA KONTSERBATZEA ETA HEDATZEA

| **21. eta 22. ARDATZAK: Kultura-ondarea kontserbatzea eta hedatzea** |
|---|
| ▪ **G5HS. Landa-eremuko kulturaren eta ondarearen ezagutza, zabalkundea eta balioa sustatzea, gizarteak orokorrean landa-ingurunean dauden prozesu eta balioen berririk ez daukala-eta, egoera hori gainditzeko modua delakoan.**<br>▪ **G6HS. Landa-eremuetako natura-, historia-, kultura- eta paisaia-ondarea berreskuratzea, kontserbatzea, garatzea eta zabaltzea, euskararen erabilera eta sustapena zeharka bultzatuz.** |
| **C4HO. Landa-ingurunearen natura-, kultura-** eta identitate-**ondare** materiala nahiz immateriala **babestea.** Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira |

## ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA

- 6/2019 LEGEA, EUSKAL KULTURA ONDAREARENA
- KULTURA 2028 PLAN ESTRATEGIKOA

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Euskadik ondare-baliabide material eta immaterial ugari ditu. Horien zati handiena landa-ingurunean dago, eta bizi-kalitatearen eta gizarte-kohesioaren aldetik aukera handiak eskaintzen ditu.

- Landa-ingurunean, garrantzi berezia hartzen du ondare etnografikoak. Honako hauek osatzen dute ondare etnografikoa: historikoki erabilitako leku, higiezin eta instalazioek, eta elementu horien arkitektura- edo paisaia-ezaugarriak forma tradizionalen adierazgarri izaten dira; kultur tradizioen edo jarduera sozioekonomiko tradizionalen adierazpen historikoa osatzen duten ondasun higigarriek eta iraganetik jaso ditugun jarduera eta ezagutzek, denak ere kultura eta bizimodu tradizionalaren adierazpide eta forma garrantzitsuak; azkenik, ondare immaterialak, hau da, gure arbasoengandik ezagutu eta jaso ditugun kultura-adierazpen bizi ukiezinak.

- Monumentu-elementuetatik haratago, kulturen adierazpenek landa-ingurunean utzitako aztarna agerian geratzen da kulturan, naturan eta paisaian bertan. Funtsezko elementua da euskal nortasunaren baieztapenerako eta landa-eremuko biztanleriaren gizarte-kohesiorako. Izan ere, FAOk babesten duen Munduko Nekazaritza Ondarearen Sistema Garrantzitsuak (MNOSG) izugarrizko paisaia naturalez gain landa-eremuetan bizitzeko bitartekoak sortzen dituzten, eta, aldi berean, **biodibertsitatea, ekosistema erresilienteak eta tradizioa eta berrikuntza** modu paregabean uztartzen dituzten nekazaritza-jarduerak ere irudikatzen ditu.

- **Beste eskualde batzuetan ez bezala, ez dago landa-eremuko kultura-ondarearen legezko kategorizaziorik edo landa-eremuko kultura-ondarerako berariazko laguntza-lerrorik.**

- Arazo orokorra dago euskal kultura-ondare babestua mantentzeko eta kontserbatzeko. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek badituzten finantzaketa-lerroak, horretarako aurrekontuak ez dira nahikoak 6/2019 6/2029 Legearen edukiei erantzuteko.

- Nolanahi ere, arazo orokorra da, ez landa-ingurunearen berariazko arazoa.

| 21. eta 22. ARDATZAK: Kultura-ondarea kontserbatzea eta hedatzea. G5HS eta G6HS /C4HO |
|---|
| **AUKERAK** |
| ▪ Landa-eremuek kultura-aniztasun aberatsa eta ondare materiala eta immateriala hartzen dute. Kasu batzuetan landa inguruneak berezkoa duen eta hari soilik dagokion ondarea da, gizarte osoarentzat onuragarria dena, hala nola sektore primario tradizionalaren inguruko kultura-sistemei lotutakoa, Gesaltza-Añanan MNOSGen ildotik balioan jar daitekeena.<br>▪ Kultura-ondarea kontserbatzeak eta hedatzeak landa-komunitateen identitateari eusten laguntzen du, bai eta kide izatearen sentimendua indartzen eta gizarte-kohesioa hobetzen ere, kultura-ondarea zainduz.<br>▪ Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak ondarea berreskuratzeko eta gizarteratzeko sinatutako hitzarmena- ren esperientzia (Arabako landa-eremuetan eragin handia duena) baliatzea, beste lurralde batzuetara hedatu ahal izateko. |
| **GARAPENERAKO OZTOPOAK** |
| ▪ Landa-ingurunean ez dago berariazko araudirik edo plangintzarik arlo horretan. Arazo orokorra dago euskal kultura-ondare babestua mantentzeko eta kontserbatzeko. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek badituzten finantzaketa-lerroak, horretarako aurrekontuak ez dira nahikoak 6/2019 6/2029 Legearen edukiei erantzuteko.<br>▪ Demografiaren aldaketek, hala nola gazteak hiriguneetara migratzeak, arriskuan jar dezakete tradizioen transmisioa eta antzinako ezagutza.<br>▪ Globalizazioak eragin homogeneizatzailea izan dezake tokiko kulturetan. Komunikabideekiko eta bizimodu globale- kiko esposizioak, batez ere biztanle gazteenen esposizioak, bertako tradizioak bazter ditzake, eta arrisku hori bereziki garrantzitsua da landa-eremuko kulturei eta tradizioei dagokienez. |

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

**LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**

- Araudi- eta plangintza-esparruek ez dute jasotzen landa-eremuarekin lotutako berariazko jarduerarik, baina aintzat hartzen dute eta aipatu egiten dute.

**BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK**

- Kulturaren Plan Estrategikoak aipamen berezia egiten dio zenbait eremutako ondarea berreskuratzeko lehentasunari. Zehazki, Arabako ondarea oro har berreskuratzeari eta gizarteratzeari buruz hitz egiten du, AFArekin (2022-2025) egindako hitzarmen baten bidez (62-63 or.).

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza**
- **Foru-aldundiak**
- **Udalak**
- **Mankomunitateak. Kuadrillak**
- **Elkartze-mugimenduak eta herritarrak**

## 21. eta 22. ARDATZAK: Kultura-ondarea kontserbatzea eta hedatzea . G5HS eta G6HS /C4HO

| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
|---|---|
| TXIKIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako, baina etorkizuneko LGEPen esparruan eskualde bakoitzaren kasuistika identifikatu beharko da. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Kultura-ondarea babesteko legeria rural proofing ikuspegiaren arabera eguneratzeko aukera aztertzea.
2. Landa-eremuekin lotutako ondare materiala eta immateriala ikertzea, babestea eta kudeatzea.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)**

1. Landa-eremuko Ondarea Behatzeko Gida erreferentziatzat hartzea eta erakundeen arteko lankidetza indartzea, eta, horretarako, ondare batzordeetan eta HAKOBA Kulturan (Erakunde Publikoak Koordinatzeko Batzordea) landa-lentea txertatzeko aukera aztertzea.
2. Landa-eremuetako kultura-ondarea ikertu, babestu eta kudeatzeko programak garatzea, arreta berezia jarriz ondare immaterialean, nekazaritza-sistema tradizionaletan, ondare genetikoan, etnografikoan, emakumearen zereginean, landa-eremuko ondarean oinarritutako garapen sozioekonomikoko ereduetan (paisaiarekin eta naturarekin oso lotuta daudenak), eta abarretan.
3. Lankidetza indartzea kultura-sektorearekin ez ezik, ekonomia-sustapeneko, turismoko, ingurumeneko eta hirigintzako sektoreekin ere, eta jasangarritasuna lehen mailan jartzea, landa-eremuko euskal ondareari balioa emateko.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024 (DPE 2021-2024)
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: Ondarea birgaitzeko laguntzak
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: Gipuzkoako kultur ondarea zaharberritzeko eta sendotzeko diru laguntzak
- ARABAKO FORU ALDUNDIA: Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko TOKI-ERAKUNDEEK sustatutako kultura ondarea kontserbatu eta zaharberritzeko esku-hartzeetarako dirulaguntzak

# 23. ARDATZA: EUSKARA SUSTATZEA

| 23. ARDATZA: Euskara sustatzea |
| --- |
| ▪ **G6HS.** Landa-eremuetako natura-, historia-, kultura- eta paisaia-ondarea berreskuratzea, kontserbatzea, garatzea eta zabaltzea, euskararen erabilera eta sustapena zeharka bultzatuz. |
| **C4HO. Landa-ingurunearen natura-, kultura- eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea.** Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira |

## ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa
- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena
- ESEP - Euskara Sustatzeko Ekintza Plana
- ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa)
- 6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeak honako hau dio: “honako ondasun hauek osatzen dute euskal kultura-ondarea: arte, historia, arkeologia, paleontologia, etnologia, antropologia, hizkuntza, zientzia, industria edo paisaia edo arkitektura aldetik, edo kulturaren beste edozein alderdiren aldetik, balioa duten Euskadiko kultura-ondasun guztiek (higiezinak direla, higigarriak edo immaterialak), aintzat hartuak izateko eta belaunaldi arteko transmisiorako interesa badute.”

- EAEko mapa soziolinguistikoa sailkatzeko orduan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau espazio ezartzen ditu, udalerri bakoitzean bizi diren euskaldunen arabera. Udalerri bat arnasgunetzat hartzeko, zenbatesten da herritarren artean euskararen ezagutza % 80koa edo handiagoa izan behar duela. Hau da, biztanle gehienek euskara jakin eta euskaraz hitz egiten duten lurralde soziolinguistikoa da, eta familiaren hizkuntza-transmisioa ia euskara hutsean ematen da.

- EAEko errealitate soziolinguistikoa askotarikoa da, bai lurraldeen artean, bai lurralde bakoitzaren barruan, eta euskararen bizi-indarra gaztelaniarena baino askoz txikiagoa da. Hizkuntza gutxitu guztiek bezala, euskarak ere bizitzeko nitxoak behar ditu. Eremu euskaldunenak, arnasgune deiturikoak, euskararen birikak dira. Beraz, planteatu daitezkeen esku-hartzeek aintzat hartu beharko lukete, zalantzarik gabe, euskararen egoeraren ikuspegia, administrazioaren harreman sozial, politiko, ekonomikoetan erabiltzeko ohiko hizkuntza gisa, ondare-elementu izatetik haratago. Badira urte batzuk arnasgune horiek zaintzen eta hainbat motatako esku-hartzeak arautzen ari direla.

- Arnasgune diren udalerri horietako gehienak, beren biztanleria-ezaugarriengatik eta ezaugarri sozioekonomikoengatik, landa-eremuetako esku-hartze arlokoak dira. Ia ehun udalerri eta 140.000 biztanle baino gehiago.

- Arnasguneen lurralde-egoera desberdina: Gipuzkoako udalerrien ia erdia (% 46,6) arnasguneak dira, Bizkaiko % 22,3 eta Araban udalerri bakarra.

## ARNASGUNE:

- ABE-etako 61 udalerrietatik 22: Arreta Bereziko Eremuen % 36 arnasguneak dira
- EGLetako 99 udalerrietatik 40: Entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udalerrien % 40 arnasguneak dira.
- LHSetako 91 udalerrietatik 5: Landa-habitata sakabanatuta duten udalerrien % 5,5 arnasguneak dira

| Lurralde historikoa | Udalerria | KATEGORIA | % |
|---|---|---|---|
| Bizkaia | Ereño | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 89% |
| Bizkaia | Aulesti | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 89% |
| Bizkaia | Ziortza-Bolibar | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 88% |
| Bizkaia | Nabarniz | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 87% |
| Bizkaia | Morga | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 85% |
| Bizkaia | Ea | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 80% |
| Bizkaia | Errigoiti | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 80% |
| Gipuzkoa | Orexa | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 95% |
| Gipuzkoa | Errezil | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 94% |
| Gipuzkoa | Zerain | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 93% |
| Gipuzkoa | Elduain | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 91% |
| Gipuzkoa | Gaintza | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 91% |
| Gipuzkoa | Gabiria | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 91% |
| Gipuzkoa | Baliarrain | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 91% |
| Gipuzkoa | Gaztelu | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 91% |
| Gipuzkoa | Beizama | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 89% |
| Gipuzkoa | Larraul | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 89% |
| Gipuzkoa | Orendain | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 89% |
| Gipuzkoa | Altzaga | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 89% |
| Gipuzkoa | Mutiloa | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 85% |
| Gipuzkoa | Hernialde | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 84% |
| Gipuzkoa | Leintz-Gatzaga | ABE: Arreta Bereziko Eremuak | 80% |

| Lurralde historikoa | Udalerria | KATEGORIA | % |
|---|---|---|---|
| Araba | Aramaio | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 82% |
| Bizkaia | Ajangiz | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 92% |
| Bizkaia | Amoroto | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 91% |
| Bizkaia | Arratzu | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 90% |
| Bizkaia | Kortezubi | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 89% |
| Bizkaia | Elantxobe | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 88% |
| Bizkaia | Gizaburuaga | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 88% |
| Bizkaia | Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 87% |
| Bizkaia | Etxebarria | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 87% |
| Bizkaia | Muxika | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 85% |
| Bizkaia | Murueta | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 85% |
| Bizkaia | Mendata | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 84% |
| Bizkaia | Dima | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 83% |
| Bizkaia | Garai | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 83% |
| Bizkaia | Ispaster | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 83% |
| Bizkaia | Mendexa | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 82% |
| Bizkaia | Zeanuri | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 80% |
| Bizkaia | Gautegiz Arteaga | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 80% |
| Gipuzkoa | Abaltzisketa | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 94% |
| Gipuzkoa | Albiztur | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 92% |
| Gipuzkoa | Aduna | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 91% |
| Gipuzkoa | Amezketa | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 91% |
| Gipuzkoa | Berastegi | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 91% |
| Gipuzkoa | Alkiza | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 89% |
| Gipuzkoa | Altzo | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 88% |
| Gipuzkoa | Aia | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 88% |
| Gipuzkoa | Ataun | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 87% |
| Gipuzkoa | Belauntza | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 85% |
| Gipuzkoa | Bidania-Goiatz | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 85% |
| Gipuzkoa | Aizarnazabal | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 84% |
| Gipuzkoa | Ezkio-Itsaso | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 84% |
| Gipuzkoa | Getaria | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 84% |
| Gipuzkoa | Leaburu | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 84% |
| Gipuzkoa | Lizartza | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 84% |
| Gipuzkoa | Segura | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 84% |
| Gipuzkoa | Arama | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 83% |
| Gipuzkoa | Asteasu | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 83% |
| Gipuzkoa | Zegama | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 83% |
| Gipuzkoa | Berrobi | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 81% |
| Gipuzkoa | Zaldibia | EGL: Entitate guztiak landa izaerakoak | 81% |

| Lurralde historikoa | Udalerria | KATEGORIA | % |
|---|---|---|---|
| Bizkaia | Lekeitio | LHS: Landa-habitata sakabanatua | 82% |
| Gipuzkoa | Idiazabal | LHS: Landa-habitata sakabanatua | 85% |
| Gipuzkoa | Azpeitia | LHS: Landa-habitata sakabanatua | 84% |
| Gipuzkoa | Zestoa | LHS: Landa-habitata sakabanatua | 81% |
| Gipuzkoa | Mutriku | LHS: Landa-habitata sakabanatua | 81% |

## 23. ARDATZA: Euskara sustatzea. G6HS /C4HO

### AUKERAK

- Hain euskaldunak ez diren eremuetan (hain euskaldunak ez diren landa-eremuak barne), euskararen ezagutza-mailak gora egin du azken urteotan.
- Landa-eremuetan hizkuntza-ondare aberatsa izatea, jakintza tradizionalei, toponimiari, euskalkiei eta abarri lotuta.
- Ia arnasgune-udalerri guztiak landa-eremuko udalerriak dira; beraz, horientzat ad hoc estrategia bat gara daiteke.
- Gainera, Gipuzkoan lotura zuzena dago arnasguneen eta landa-eremuen artean, eta neurri txikiagoan Bizkaian.

### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- Eremu soziolinguistiko euskaldunenetan nolabaiteko geldialdia sumatzen da, eta euskararen bilakaera beheranzkoa da.
- Euskaraz bizi ahal izateko baldintzak pertsonen beren jardunaren araberakoak dira, baina baita erakundeenak ere, eta horiek batzuetan ez dute bermatzen euskaraz bizi ahal izateko eskubidea.
- Testuinguru indibidual zein kolektiboen konplexutasunak eta aniztasunak (aldaketa soziodemografikoak, lurralde-antolamendua, hirigintza, IKTen garapena…) eragina dute hizkuntzaren garapenean, eta, hori dela eta, batzuetan zaila izaten da euskaraz bizi ahal izateko baldintza egokiak izatea.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Arau- eta plangintza-esparruek arnasguneekin lotutako berariazko jarduerak biltzen dituzte. Arnasgune gehienak ABE-etako (Arreta Bereziko Eremuak) eta EGLetako (Entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udalerriak) udale- rrietan daude. Ia ehun udalerri eta 140.000 biztanle baino gehiago.

### BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK

- Lurralde historikoen arabera, aldeak daude arnasguneei dagokionez: Gipuzkoako udalerrien ia erdia (% 46,6) arnasguneak dira, Bizkaiko % 22,3 eta Araban udalerri bakarra.

| ERAGILE GARRANTZITSUENAK |
|---|
| ▪ **Eusko Jaurlaritza**<br>▪ **Foru-aldundiak**<br>▪ **Udalak**<br>▪ **Mankomunitateak. Kuadrillak**<br>▪ **HABE** |

| 23. ARDATZA: Euskara sustatzea- G6HS /C4HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **TXIKIA** | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Proposatzen diren lehentasunak eta gomendioak orokorrak dira landa-eremu guztietarako, baina etorkizuneko LGEPen esparruan eskualde bakoitzaren kasuistika identifikatu beharko da, egoera soziolinguistikoa askotarikoa baita. |
| **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)** | |
| 1. Eremu euskaldunetako administrazio publiko guztiek eskaintzen dituzten zerbitzuetan euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatzea, bai eta hizkuntza-paisaian agertzen dela bermatzea ere.<br>2. Euskararen erabilera bermatzea landa-eremuetako bizi-esparru guztietan. | |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)** | |
| 1. ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) arnasguneetan lehentasunez hedatzea.<br>2. Euskararen erabilera biziberritzeko neurriak zabaltzea, euskararen errealitate soziolinguistikoa hain mesedegarria ez den eta “berreskuratu beharreko ondaretzat” hartzen den gainerako landa-eremuetan.<br>3. Landa-eremuetako hizkuntza-ondarea berreskuratzeko eta ikertzeko lanak egitea.<br>4. Lankidetza-mekanismoak ezartzea euskara arloan funtsezkoak diren eragileekin, besteak beste HABErekin, Kontseiluarekin eta Soziolinguistika Klusterrarekin. | |
| **FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK** | |
| ▪ DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024 (DPE 2021-2024)<br>▪ A multzoa: Esparru ez formalak<br>▪ B multzoa: Euskal hiztunen aktibazioa<br>▪ C multzoa: Erdaldunak eta etorkinak<br>▪ D multzoa: Edukiak interneten<br>▪ E multzoa: Familia bidezko transmisioa<br>▪ F multzoa. Jardunaldiak<br>▪ G multzoa: Irakurketa | |

## 7.3.8 HOA1. LURRALDE-ANTOLAMENDUA. EUSKAL LANDAGUNEAREN LURRALDE-ANTOLAMENDUA BEHAR BEZALA EGITEA, IKUSPEGI INTEGRALA, SISTEMIKOA ETA SEKTORE ANITZEKOA EDUKIKO DUEN LURRALDE-GARAPENEKO EREDU JASANGARRI OREKATU BATEN ARABERA

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOAK** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **A1HO.** Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat. |
| **ARLOA** | LURRALDE-ANTOLAMENDUA |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **A1HS.** Bidea ematea Lurralde Antolamenduko Gidalerroak **(LAG),** lurralde-plan partzialak **(LPP),** lurralde-plan sektorialak **(LPS)** eta hiri antolamenduko plan orokorrak (HAPO) **onartzeko edo berrikusteko prozesuak l**andagunea zaintzeko lagungarriak izan daitezen, eta 9. artikuluan aurreikusten diren lurralde-garapeneko programetan **(LuGP)** jasotako beharrizan eta estrategiak kontuan har daitezen horiek idaztean.<br>• **A3HS.** Euskal Autonomia Erkidegoko **Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adieraztea eta adostea** landagunea kontserbatzeari dagokionez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diren irizpideak. |
| **JARDUKETA-ARDATZAK** | 24. Lurralde-antolamenduko tresnak |

## 24. ARDATZA: LURRALDE-ANTOLAMENDUKO TRESNAK

| **24. ardatza. Lurralde-antolamendua** |
|---|
| ▪ **A1HS. Bidea ematea** Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak **(LAG),** lurralde-plan partzialak **(LPP),** lurralde-plan sektorialak **(LPS)** eta hiri antolamenduko plan orokorrak (HAPO) **onartzeko edo berrikusteko prozesuak** landagunea zaintzeko lagungarriak izan daitezen, eta 9. artikuluan aurreikusten diren lurralde-garapeneko programetan **(LuGP)** jasotako beharrizan eta estrategiak kontuan har daitezen horiek idaztean.<br>▪ **A3HS.** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adieraztea eta adostea landagunea kontserbatzeari dagokionez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diren irizpideak. |
| **A1HO.** Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat. |

## ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- 04/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)
- Lurralde Plan Partzialak (LPP)
- Lurralde Plan Sektoriala (LPS)

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- LAGak berrikusterakoan, "landa-habitata" sartu da lurralde-antolamenduko eremuetako bat bezala, hiri-habitataren, ingurune fisikoaren eta azpiegitura berdearen, mugikortasunaren eta logistikaren, paisaiaren, natura-ondarearen eta baliabide turistikoen, eta baliabideen kudeaketaren maila berean.
- LAGek honako helburu hau ezartzen dute: landa-inguruneak hiri-ingurunearen bizi-maila bera izango duela bermatzea, bereziki ekipamendu eta zerbitzu publikoen eskuragarritasunari dagokionez.
- LAGek landa-habitaterako zenbait helburu zehazten dituzte, LuGP honen helburuei zuzenean laguntzen dietenak eta LuGPn definitutako ardatzetako askori eragiten dietenak. Honako hauek dira:
    - Landaguneen izaera eta irudia zaintzea, lurralde osoaren elementu erabakigarriak baitira.
    - Landaguneetan gizarteratzea, pobrezia murriztea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea.
    - Landa-inguruneak hiri-ingurunearen bizi-maila bera izango duela bermatzea, bereziki ekipamendu eta zerbitzu publikoen eskuragarritasunari dagokionez.
    - Baliabideen efizientzia sustatzea eta nekazaritza-, elikagai- eta basogintza-sektoreetan klima-aldaketara egokitzeko gai den eta karbono gutxiko ekonomia bateranzko igarobidea bultzatzea.
    - Nekazaritza-jardueraren aintzatespen soziala sustatzea, ez bakarrik elikagaien ekoizle gisa, bai eta berezkoak dituen beste kanpo-efektu batzuen ekoizle gisa ere (ingurumena babestea eta berroneratzea, paisaia eta biodibertsitatea zaintzea, lurraldearen kudeaketa orekatua, landa-ingurunea eta euskal kultura-ondarea zaintzea, ondasun eta zerbitzuen hornidura iraunkorrean baliabide jasangarriak kudeatzea).
- LAGek landa-habitaterako gidalerro batzuk zehazten dituzte, LuGP honen helburuei zuzenean laguntzen dietenak. Honako hauek dira:
    - Landa-inguruneari ekipamendu eta komunikazio egokiak ematea, eta oinarrizko zerbitzu publikoak hobetzea, hala nola garraioa, energia, ura, telekomunikazioak eta herritarren segurtasuna.
    - Teknologiaren erabilera eta banda zabalerako sarbidea sustatzea, landa-eremuetan bizi diren pertsonen bizitza- eta lan-kalitatea hobetzeko, eta landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen artean dagoen arrakala murrizteko.
    - Genero-ikuspegia txertatzea nekazaritza-sektoreko esparru guztietan, eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean jasotzen diren neurriak gauzatzea, aintzatespena eta eskubide profesional, sozial eta fiskalak, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna lortzeko.
    - Garraio publikoaren eta/edo garraio-zerbitzuen sarea eskariaren arabera hobetzea.
    - Landa-ingurunean bizi diren pertsonen aintzatespen soziala ikusaraztea, elikaduraren eta lurraldearen zaintzaren hornitzaile gisa egiten duten lanagatik, eta emakumeei arreta berezia eskaintzea.
    - Landa-gizartea mantentzea, gure kultura-, arte-, historia-, eta etnografia-ondareari, eta errito eta ohiturei eusten baitie eta haren balioak eta bizimoduak gure idiosinkrasiaren parte baitira.

- Une honetan, LAG berriak oinarri hartuta, LPP batzuk berrikusten hasi dira. Eta, era berean, LAGek beraiek aurreikusten dute Itsasertzeko LPSa eta Ibaien eta Erreken LPSa berrikustea, klima-aldaketara egokitzeko. Nolanahi ere, plangintza-prozesu motela da. Halaber, gaur egun Euskadiko Energia Berriztagarrien LPSa idazten eta izapidetzen ari dira.

- Adierazi behar da ez dagoela korrelazio zuzenik zenbait eremu funtzionalen eta dagozkien LGEen artean, eta alderdi hori bereziki garrantzitsua da honako kasu hauetan: Enkarterrialde (Bilbo metropolitarreko eta Enkarterriko udalerri batzuk hartzen ditu), Gorbeialde (Araba Erdialdeko, Arratiako, Aiarako eta Bilbo Metropolitarreko udalerri batzuk hartzen ditu), Jataondo (Bilbo Metropolitarreko eta Mungialdeko udalerri batzuk hartzen ditu), Mairuelegorreta (Araba Erdialdeko eta Debagoieneko udalerri batzuk hartzen ditu), Urkiola (Arratiako, Debabarreneko eta Durangaldeko udalerri batzuk hartzen ditu).

- Eremu funtzionalei dagokienez, azpimarratzekoa da Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalak 5 LGEtako udalerriak hartzen dituela (Añana, Izki, Lautada, Mairuelegorreta eta Gorbeialde), Vitoria-Gasteizko udalerriaz gain, eta, era berean, Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalak honako 3 LGE hauetako udalerriak hartzen ditu: Enkarterrialde, Gorbeialde eta Jataondo.

### 24. ardatza. Lurralde-antolamendua. A1HS, A3HS / A1HO

#### AUKERAK

- LAGak berrikusterakoan, “landa-habitata” sartu da lurralde-antolamenduko eremuetako bat bezala, hiri-habitataren, ingurune fisikoaren eta azpiegitura berdearen, mugikortasunaren eta logistikaren, paisaiaren, natura-ondarearen eta baliabide turistikoen, eta baliabideen kudeaketaren maila berean.
- Era berean, landa-ingurunearen ikuspegia zabaltzen du, produkzio- eta ekonomia-alderdiei ez ezik, bizi-kalitatea barne hartzen duen landa-habitataren aintzatespenari ere lotuta.
- LAGek honako helburu hau ezarri dute: landa-inguruneak hiri-ingurunearen bizi-maila bera izango duela bermatzea, bereziki ekipamendu eta zerbitzu publikoen eskuragarritasunari dagokionez.
- LuGPen esparruan garatutako udalerrien sailkapena oso tresna baliagarria da lurralde-antolamenduko tresnek (LPP, LPS...) landa-habitataren lurralde-diagnostikoa egiteko.
- LAGen arabera, pixkanaka egiten ari diren LPPen berrikuspenak landa-habitaterako bertan ezarritako helburuak bete behar ditu. Era berean, LPPek landa-habitaterako LAGek definitutako gidalerroak gauzatuko dituzten zehaztapenak definitu behar dituzte.
- LPPak izapidetzea aukera bat da Lurralde Antolamenduarekin Bizi Kalitaterako LuGPa hitzartzeko.

#### GARAPENERAKO OZTOPOAK

- LAGen arabera, LPPek landa-habitata zaindu behar dute, beren idiosinkrasia kontuan hartuta, plangintzako beste esparru estrategiko batzuei ematen zaien garrantzi berarekin, hala nola hiri-habitata, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea, garraio-azpiegitura eta abar. Nolanahi ere, egungo LAGen alderdi hori LPPen berrikuspenean behar bezala ez sartzeko arriskua dago, alderdi berria baita.
- LAGek eta, ondorioz, gainerako antolamendu- (LPP, LPS) eta hirigintza-tresnek (HAPO) zenbait muga jasotzen dituzte, eta muga horiek landa-eremuen garapena oztopa dezakete (etxebizitza-parkearen hazkundea, lehen sektoreko jardueraren garapena…).
- Gerta liteke LPPren lan-eskala (1:35000) nahikoa ez izatea landa-inguruneko oinarrizko ekipamendu eta zerbitzuen eskaintza eta eskaria xehetasunez zehatu ahal izateko, eskualde bakoitzeko biztanleguneen egituraren arabera.
- Landa Ingurunearen Garapenaren Legea onartu berria denez, oraindik ez dira plangintza-tresnak diseinatu (LGEPak eta TGPak). Tresna horiek diseinatu ondoren, hitzartzeko gaitasun handiagoa izango da landa-eremuko bizi-kalitateari dagokionez, beste sail batzuek bezala, hala nola Garraioak, Ingurumena edo Ondarea, batzuk aipatzearren, zeinak urte batzuk daramatzaten beren eskumen- eta plangintza-esparrua hedatzen.

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA LANDA-EREMUEN SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA

**LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**

- Araba Erdialdea, Arabako Errioxa, Busturialdea - Artibai eta Enkarterri dira ABE gisa definitutako udalerri gehien dituzten eta ABE gisa definitutako udalerrietan biztanle gehien dituzten 4 eremu funtzionalak. Lau eremu funtzional horietan 44 ABE udalerri identifikatu dira (guztira 89 dira). Araba Erdialdea da ABE gisa sailkatutako 19 udalerrietan biztanlerik handiena duen eremu funtzionala (10.473 biztanle guztira). Arabako Errioxan, eremu funtzionaleko 14 udalerrietatik 11 definitu dira ABE gisa (3.973 biztanle), eta biztanleria osoaren % 33,97 osatzen dute.
- EGL udalerriak 14 eremu funtzionaletan daude (Donostialdea izan ezik). Guztira, 123.872 biztanle. LHS kategorian sailkatutako udalerriek 2.039.163 biztanle biltzen dituzte (14 eremu funtzionaletako biztanleria osoaren % 92,98).
- **Lurralde historikoen** arabera, Arabak 29 ABE udalerri biltzen ditu (ABE udalerri guztien % 47,54) eta ABE udalerrietako biztanleria osoaren % 47,33. Bizkaiak 17 ABE udalerri biltzen ditu (ABE udalerri guztien % 27,87) eta ABE udalerrietako biztanleria osoaren % 39,06. Gipuzkoak 15 ABE udalerri biltzen ditu (ABE udalerri guztien % 24,59) eta ABE udalerrietako biztanleria osoaren % 13,61.

(ZEA Zona de Especial Atención. TER: Todas las Entidades Rurales. HRD: Hábitat Rural Disperso)

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza-Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila**
- **Arabako Foru Aldundia. Ingurumen eta Hirigintza Saila**
- **Bizkaiko Foru Aldundia. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila**
- **Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa Departamentua**
- **Udalak**

## 24. ardatza. Lurralde-antolamendua. A1HS, A3HS / A1HO

| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
|---|---|
| MEDIA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Lehentasunezkotzat jotzea landa-ingurunean bizi-kalitatea bermatzea bost eremu funtzionaletan, Arreta Bereziko Eremu gisa identifikatutako udalerrien biztanleriaren % 89 biltzen baitute: Arabako Errioxa, Enkarterri, Busturialdea, Araba Erdialdea eta Tolosaldea. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Landa-habitata lurralde-antolamenduan txertatzea, landa-inguruneak hiri-ingurunearen bizi-maila bera izango duela bermatzeko, bereziki ekipamendu eta zerbitzu publikoen eskuragarritasunari dagokionez.

**ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)**

1. LPPen eta LPSen diagnostikoan LuGPren esparruan garatutako sailkapena kontuan hartzea.
2. Honako hauek zehatutakoa txertatzea lurralde plan partzialak eta lurralde plan sektorialak idaztean eta izapidetzean: Landa Ingurunearen Garapenaren Legea, lurralde-garapeneko programak (LuGP), landa-garapeneko eskualde-planak (LGEP) eta tokiko garapen planak (TGP). Horiek idazketa-fase guztietan eta izapideen une garrantzitsuetan txertatu ahal izango da: aurrerapena, hasierako onespena eta behin betiko onespena.
3. LGEPak garatuta ez badaude, LPPak eta LPSak idaztean, hala dagokionean, LGEPen zehaztapenak txertatzeko beharrezko mekanismoak aurreikustea.
4. LGEak eragile aktibotzat hartzea lurralde-antolamenduko tresnak zehaztean eragileek parte hartzeko prozesuetan, eta, bereziki, hainbat LGEtan sartutako udalerriak barne hartzen dituzten eremu funtzionaletan.

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- Ez da aurkitu landa-garapenean eragin zuzena duen lurralde-antolamendurako finantza-laguntzako programarik.

## 7.3.9 HOC3. ETXEBIZITZA: ETXEBIZITZARAKO IRISPIDEA IZATEA, EREMU BAKOITZAREN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK ETA PAISAIA- ETA INGURUMEN-ARLOKO EZAUGARRIAK ERRESPETATZEN DITUEN HIRIGINTZA BATEAN OINARRITUTA

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOAK** | **EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako** |
| **HELBURU OROKORRA** | ▪ **C3HO.** Landa-ingurunean etxebizitzarako irispidea izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta |
| **ARLOA** | **ETXEBIZITZA** |
| **HELBURU SEKTORIALAK** | ▪ **F1HS. Kalitatezko etxebizitza-politika bat** bultzatzea, **landa-ingurunearen beharrei eta aukerei egokituta,** ingurune hori ohiko bizileku gisa erakargarri bihurtuko duena, espekulazioa saihestuko duena eta landa-inguruneko gazteei bidea emango diena etxebizitza eskuratzeko.<br>• **3FHS.** Ondare higiezina hobetzen eta kontserbatzen laguntzea, eta hala, ondare horren nortasun kulturala zaintzea. |
| **JARDUKETA-ARDATZAK** | 25. Etxebizitza-eskaintza<br>26. Ondare higiezina birgaitzea |

## 25. ETA 26. ARDATZAK: ETXEBIZITZA-ESKAINTZA ETA ONDARE HIGIEZINA BIRGAITZEA

| 25. eta 26. ardatzak: Etxebizitza-eskaintza eta ondare higiezina birgaitzea |
|---|
| ▪ **F1HS. Kalitatezko etxebizitza-politika bat** bultzatzea, **landa-ingurunearen beharrei eta aukerei egokituta,** ingurune hori ohiko bizileku gisa erakargarri bihurtuko duena, espekulazioa saihestuko duena eta landa-inguruneko gazteei bidea emango diena etxebizitza eskuratzeko.<br>▪ **3FHS. Ondare higiezina hobetzen eta kontserbatzen l**aguntzea, eta hala, ondare horren nortasun kulturala zaintzea. |
| **C3HO.** Landa-ingurunean **etxebizitzarako irispidea izatea,** eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta. |

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA

- 3/2015 LEGEA, Euskadiko Etxebizitzarena
- Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023
- Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- Landa-ingurunean **zailtasunak daude etxebizitza eskuratzeko eta biztanleria berria finkatzeko,** eta arazo horrek bereziki Araban du eragina. Egoera horretan eragiten duten arrazoiak honako hauek dira:
  - Alokairuko etxebizitzen eskaintza murritza da, eta batzuetan ez dago eskaintzarik ABEetan, familia-etxebizitza nagusien parkearen % 9,5 soilik dira alokairukoak, EAEko batez bestekoaren % 13,5aren aldean.
  - Jabetzan hartzeko etxebizitza berrien sustapen-bolumen txikia.
  - Etxebizitza-parke zaharkitua.
- Etxebizitzaren Legeak etxebizitzaren eskubide subjektiboa ezartzen du: "Administrazio-auzotasuna **Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duen pertsona orok eskubidea du etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko,** etxebizitzarik izan ez eta lortzeko beharrezko baliabiderik ere ez duten guztiek". Hala ere, ez Lege horrek, ez 2022-2026 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak ez dute ezartzen landa-eremuetako etxebizitza-politikaren berariazko ikuspegia eskatzen duten lurralde-orekarekin lotutako jomugarik edo helbururik.
- Etxebizitzaren Legeak, halaber, ezartzen du **etxebizitzaren arloko baliabide publiko guztiak, birgaitzekoak izan ezik, alokairu soziala sustatzera bideratu behar direla.** Betebehar horrek euskal administrazio publiko guztiei eragiten die, beren erakunde-maila guztietan.
- **Landa-ingurunean jabetzako etxebizitza librearen sustapena murritza da, sustatzaileentzat ez baita errentagarria.** Eskaintza-urritasun hori larriagotu egiten da Etxebizitzaren Legeak etxebizitza babestuen garapen berriak alokairukoak izateko aukera baino ez duelako ematen; hala, desagertu egiten da landa-eremuan jabetzan hartzeko etxebizitza babestuen sustapen berriak garatzeko aukera.
- **Alokairu sozialeko programetan gehieneko errentari buruz definitutako irizpideak, hau da, gehieneko errentak familia-unitate bakoitzeko 39.000 €-koa izan behar duela,** zaildu egiten du laguntza horiek jasotzea; izan ere, landa-eremuko biztanleriaren zati handi ba- tek atalase hori gainditzen du dituen ezaugarri sozioekonomikoengatik eta errentak sortzeagatik.
- Landa-eremuetan e**txebizitza hutsen ehunekoa handiagoa da** (% 9,8) EAEko batez bestekoaren aldean (% 4,4). Etxebizitzaren Legeak **kanona sortu du** hutsik dauden etxebizitza gisa deklaratutako higiezinentzat, baldin eta justifikatutako arrazoirik gabe 2 urtez baino gehiagoz **hutsik egon badira.** Adierazpen hori Udalak edo Eusko Jaurlaritzak egin dezakete, eta udalek kudeatu eta likidatzen dute kanona.
- Etxebizitza babestuaren eskaria Etxebiden inskribatutako pertsonen arabera zehazten du Eusko Jaurlaritzak. Nolanahi ere, landa-eremuetako eskatzaileak gehienbat sustapen bat gauzatuko dela jakin ondoren inskribatzen dira erregistroan. Horrek esan nahi du etxebizitza babestuaren eskaria azaleratu eta kontabilizatu gabe dagoela.
- **Etxebizitzaren Gida Planak landa-inguruneko udalerrietarako berariazko jarduerak zehazten ditu,** populaziorik gabeko gune horietan alokairu babestua sustatzeko eta biztanleriari eusten zaiola bermatzeko. Hala ere, dokumentu honek bereizketa gutxi egiten ditu hiri- edo landa-inguruneetako udalerrietako birgaitze-jarduketei dagokienez.
- Landa-eremuetan alokairuko etxebizitzen defizita leheneratzeko, **Eusko Jaurlaritzaren alokairua sustatzeko jarduketen aginduak** laguntzaren intentsitatea eta zenbatekoa handitzen ditu, baldin eta laguntza hori etxebizitzak edo zuzkidura-ekipamenduak birgaitzeko ematen bada, eta etxebizitza horiek alokairu babestuko etxebizitza gisa erabiltzen badira landa-ingurunean edo despopulatzeak eragindako eremuetan. Agindu horretan (VII. kap.), 5.000 biztanletik beherako udalerriak hartzen dira landa-eremutzat, bai eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietan dauden 5.000 biztanletik beherako herriguneak edo herriak ere. Oro har, laguntza horien eskaria txikia da, eta, batik bat, Araban biltzen dira.
- **Arabako Foru Aldundiak zenbait kenkari** ditu

**PFEZean,** landa-eremuan biztanleria finkatzen laguntzeko, hau da, 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan. Kenkari hori ehuneko 2 puntutan handitzen du l**anda-eremuetan kokatutako ohiko etxebizitzetarako alokairua**gatiko kenkaria, ordaindutako zenbatekoen % 35eraino eta % 25eraino **gazteek landa-inguruneko udalerrietan etxebizitzak erosteko.** Era berean, badu **20.000 biztanletik beherako udalerrietako 1.500 biztanletik beherako guneetan etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntza-lerro bat.** Toki-erakundeak zein pertsona fisikoak izan daitezke laguntza horien onuradun.

- 2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak zein 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Planak erakundeen eta herritarren parte-hartzea sustatzeko zenbait jarduketa eta organo definitzen dituzte, eta horrek lagundu egin dezake Euskadiko etxebizitza-politiketan rural proofinga eta landa-lentea aplikatzen.

## DIAGNOSTIKOA

**Euskadin, familia-etxebizitzen % 85 nagusiak dira** (ohiko bizileku gisa erabiltzen dira urte osoan edo urtearen zatirik handienean). Dena dela, zenbat eta handiagoa izan udalerriaren landatartasun-maila, orduan eta txikiagoa daehuneko hori. **ABE-en kasuan, balio hori % 55,9koa baino ez da, e**ta gainerako familia-etxebizitzak bigarren egoitzak dira edo hutsik daude. **Araba da ABE-etako etxebizitza nagusien ehuneko txikiena (% 50,9) duen lurralde historikoa (Bizkaian eta Gipuzkoan % 60,1 eta % 68,6, hurrenez hurren).**

**Familia-etxebizitzen parkearen banaketa, tipologiaren arabera (2021)**




**Familia-etxebizitzen parkearen banaketa, edukitza-araubidearen arabera (2021)**




Bestalde, Euskadin, **familia-etxebizitza nagusien parkearen % 13,5 alokairu-araubidekoak dira,** eta % 84,5 jabetzakoak 2021ean. Zenbat eta txikiagoa izan landatartasun-maila, orduan eta handiagoa da balio hori.

**ABE-etan ehuneko hori zertxobait txikiagoa da, % 9,5ekoa,** eta jabetzako familia-etxebizitza nagusien ia % 90 dira. Lurralde historikoei dagokienez, **ABEtzat hartzen diren Gipuzkoako udalerriak** dira alokairuko etxebizitzen ehuneko txikiena dutenak **(% 7,6)**, Gipuzkoako (% 14,8) eta EAEko (% 13,5) batez bestekoaren ia erdia.

Lotura zuzena dago landatartasun-mailaren eta etxebizitza nagusien parkearen antzinatasunaren artean. **ABE gisa sailkatutako udalerriak dira parkearen antzinatasun handiena dutenak,** 58,8 urte, Euskadiko batez bestekoaren (47,9 urte) aldean. Aldiz, 3. kategoriako udalerrietako (landa-habitata sakabanatuta duten udalerriak) etxebizitza nagusien parkean, batez besteko hori 45,4 urtera arte murrizten da.

Etxebizitza-parke zaharkituena duten 20 udalerrietatik 17 ABEtzat hartzen diren guneak dira, eta salbuespen bakarrak honako hauek dira: Dima (70,6 urte), Kortezubi (74 urte) eta Guardia (95,5 urte, EAEko zaharrena), guztiak 2. kategoriakoak dira (entitate guztiak landa izaerakoak dituzten udalerriak).

### Etxebizitza nagusien batez besteko antzinatasuna (2022)




Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2021ean egindako Etxebizitzaren Erabilerari buruzko inkestak agerian uzten du udalerri txikienetan (2.500 biztanletik beherakoak)**aurri-egoeran ez dauden etxebizitza hutsen** ehunekoak Euskadiko batez bestekoa bikoizten duela (% 9,8 eta % 4,4, hurrenez hurren). Gainera, gune horietan biltzen da etxebizitzaren merkatuan sartzeko kudea daitezkeen etxebizitza hutsen ehunekorik handiena (% 67, eta EAEko batez bestekoa, berriz, % 56).

2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan Euskadiko etxebizitza guztien % 7,2 baino ez da biltzen; baina, etxebizitza hutsen ehunekoari dagokionez, ehunekoa % 16,2ra igotzen da, eta merkatuan sar litezkeen 5 etxebizitza hustetatik ia 1 udalerri txikietan dago.

### Euskadiko etxebizitzen banaketa, udalerriaren tamainaren arabera



| 25. eta 26. ardatzak: Etxebizitza-eskaintza eta ondare higiezina birgaitzea. F1HS, F3HS /C3HO |
|---|
| **AUKERAK** |
| ▪ Etxebizitzaren Legeak birgaitzea lehenesten du obra berriaren eraikuntzaren aurretik, eta horrek erraztu egiten du idiosinkrasiari eustea eta landa-inguruneko udalerrietako ondare higiezina kontserbatzea.<br>▪ Etxebizitzaren Gida Planak zenbait jarduketa zehazten ditu landa-eremuetan eta eremu hustuetan alokairu babestuko etxebizitzen sustapena bultzatzeko. Ikuspegi hori mantendu eta areagotu egin beharko litzateke 2023-2026 Gida Plan berrian.<br>▪ Etxebizitza hutsen kanona egotea, higiezinen parke hori alokairurantz dinamizatzea ahalbidetzeko.<br>▪ Eusko Jaurlaritzak hainbat laguntza publiko ematen ditu alokairu babestua sustatzeko, eta Arabako Foru Aldundiak, bestalde, etxebizitzak birgaitzeko. Laguntza horiek aintzat hartzen dituzte landa-eremuen berezitasunak.<br>▪ 2022-2030 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak eta 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Planak estrategia eta jarduketa-ildo batzuk ezartzen dituzte, gainerako erakunde publikoekiko eta Eusko Jaurlaritzako organismoekiko lankidetza eta koordinazioa sustatzeko eta bideratzeko. Horrek erraztu egin dezake rural proofinga sartzea etxebizitza eskuratzearekin eta higiezinen ondarea birgaitzearekin lotutako politika publikoak definitzeko prozesuetan.<br>▪ NGEU funtsak iristearekin batera, eraikinen birgaitze energetikorako laguntzak sortu dira:PREE 5.000 (erronka demografikoko udalerrietarako berariazko programa).<br>▪ Landa-eremuetan etxebizitzak sustatzeko jabetza-formula berriak: erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatibak edo etxebizitza kolaboratiboak. |
| **GARAPENERAKO OZTOPOAK** |
| ▪ Ez Etxebizitzaren Legeak ez Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak ez dute berariazko aipamenik egiten edo ez dute ikuspegi berezirik definitzen udalerrietan eta landaguneetan beharrezkoak diren etxebizitza-politikei buruz, lurralde-oreka handiagoa lortzeko eta ingurune horietan biztanleria finkatzea errazteko.<br>▪ HAPOek eta arau subsidiarioek maiz zaildu egiten dute higiezin zaharrak eta handiak (baserriak) hainbat etxebizitzatan banatzea eraikinaren beraren barruan.<br>▪ Herritarren beharretara egokitzen diren etxebizitzen eskaintza (jabetzakoak zein alokairukoak) eskasa da. Horrek zaildu egiten du biztanleria berria finkatzea, eta larriagotu egiten ditu landaguneetako despopulatze-prozesuak.<br>▪ Landaguneak etxebizitza-merkatua tenkatuta dagoen hiriguneetatik hurbil daudenez, hiriguneetako biztanleek etxebizitza gehiago eskatzen dituzte landa-ingurunean, bizi-kalitate handiagoa lortzeko. Hori dela eta, gentrifikazio-fenomenoa gertatzen da, eta, ondorioz, zaildu egiten da udalerri horietako biztanle gazteenek etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzea.<br>▪ Birgaitze-jarduketak behar dituzten higiezinen kopurua handia da. Higiezin horiek batzuetan husten eta narriatzen ari diren hirigune historikoetan daude.<br>▪ Eraikin bat birgaitzea garestiagoa da eraikuntza berri bat egitea baino.<br>▪ Landa-eremuko udalek gaitasun eskasa dute, bai ondare higiezina birgaitze aldera jarduketak gauzatzeko finantzari dagokionez, bai etxebizitza hutsen adierazpenak eta kanon berria kudeatzeko langileei dagokienez. |

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA:

### LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)

- Landa-eremuetan, etxebizitza nagusien ehunekoa EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da ( % 55,9 eta % 85,1, hurrenez hurren). Arabako ABEak osatzen dituzten udalerrietan etxebizitza nagusien kopurua bereziki txikiagoa da ( % 50,9): 2 etxebizitzatik 1ean bakarrik bizi da norbait urtearen zatirik handienean edo urte osoan.
- ABE-etan, alokairu-araubideko familia-etxebizitzen ehunekoa EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da (% 9,5 eta % 13,5 hurrenez hurren). Gipuzkoa da ABE-ek alokairuko familia-etxebizitzaren ehuneko txikiena duten lurraldea (% 7,6), Euskadiko batez bestekoaren ia erdia.
- Landa-eremuetako etxebizitza nagusien parkea zaharragoa da. ABE udalerrietako etxebizitza nagusien batez besteko adina 58,8 urtekoa da; EAEko batez bestekoa, berriz, 47,9 urtekoa. Bizkaia eta Araba dira ABE-ek etxebizitza-parke zaharkituena duten lurralde historikoak (62,5 eta 60,6 urte, hurrenez hurren); Gipuzkoako higiezinek, berriz, 51 urte dituzte.

### BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK

- Etxebizitza-eskaintzaren arazoa desberdina da landa-inguruneko udalerriaren kokapenaren arabera. Biztanlegune handietatik hurbil dauden edo presio turistikoa duten udalerrien kasuan, eskaera handia dago, eta, ondorioz, prezioek gora egin dute. Beste gune batzuetan, erosteko zein alokatzeko etxebizitzen eskaintza urria da, parkea txikia baita.
- HAPOek eta arau subsidiarioek zaildu egiten dute higiezin zahar eta handietan zenbait etxebizitza egitea. Horrek eragin desberdina du lurralde historikoaren arabera. Bizkaian eta Gipuzkoan, arazoa batez ere sakabanatutako baserrietan dago; Araban, berriz, hiriguneetan gertatzen da, zenbaitetan ondare historikoa izateagatik babestuta dauden higiezinetan.
- Aurreko puntuarekin lotuta, Araban babestutako higiezinak birgaitzeko zailtasunak direla eta, landaguneetako hirigune historikoak hustu egiten dira, eta, ondorioz, narriatu egiten dira, eta, aldiz, eremu berrietan hirigintza-garapen berriak gauzatzen dira.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza – Etxebizitza Saila**
- **Etorlur - Gipuzkoako Foru Aldundia**
- **Foru-aldundiak**
- **Udalak**

| 25. eta 26. ardatzak: Etxebizitza-eskaintza eta ondare higiezina birgaitzea. F1HS, F3HS /C3HO | |
|---|---|
| **JARDUKETAREN LEHENTASUNA** | **LURRALDE-TRATAMENDUA** |
| **MEDIA**<br>Álava:<br>MUY ALTA | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Etxebizitzak eskaintzeko eta sustatzeko jarduerak ABEtzat hartzen diren udalerrietan ardaztea, batez ere hirigune historikoetan dauden higiezinen (bizitegi-erabilera izan edo ez) birgaitzean oinarrituta.<br>▪ Baserri batean hainbat etxebizitza egin ahal izateko hirigintza-araudia malgutzeari lotutako jarduketak oro har EAEko landa-lurralde osoan aplikatuko dira. |
| **BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)** | |
| 1. Landa-eremuetan etxebizitza-eskaintza handitzea, batez ere higiezinak birgaituta, eta alokairura zein jabetzan erostera bideratuta.<br>2. Hirigintza-araudia malgutzea eta landa-ingurunearen errealitatera egokitzea. | |
| **ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)** | |
| 1. EAEko landa-eremuetako etxebizitzen benetako eskaintza eta eskaria ebaluatzeko azterlan bat egitea, eremu bakoitzean garatu beharreko jarduketen lehentasunak ezartzeko.<br>2. Etxebizitza Sailaren, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren eta etxebizitzaren arloko gainerako erakunde publikoen (Etorlur, Alokabide, Visesa) arteko koordinazioa areagotzea, rural proofinga honako hauetan aplikatzeko: (i) definitzen diren etxebizitza-politiketan; (ii) plan eta estrategietan, besteak beste, 2023-2026 Etxebizitzaren Gida Plan berrian (ii) laguntzen aginduetan; eta (iv) Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean eta Etxebizitzaren Gida Planean diseinatutako gobernantza-tresnetan.<br>3. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza- eta birgaitze-politiketan Bizi Kalitaterako LuGPko udalerrien sailkapena aplikatzeko aukera aztertzea.<br>4. Udalei eta landa-eremuko toki-erakundeei laguntza teknikoa emateko estrategia bat garatzea, laguntzak izapidetzen eta etxebizitza babestuen (alokairukoak zein tasatuak) proiektuak garatzen laguntzeko.<br>5. Alokabidek kudeatutako alokairu-programak landa-ingurunearen errealitatera egokitzea - Landa-eremuko Alokabide bat sortzea.<br>6. Higiezinen jabe diren pertsona fisikoentzat landa-ingurunean ohiko etxebizitza bihurtuko diren etxebizitzak eta higiezinak birgaitzeko berariazko laguntza-lerro bat sor daitekeen ala ez baloratzea, etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-efizientziarako egungo finantza-neurriak osatzeko (1., 2. eta 3. lerroak).<br>7. Laguntzen zenbatekoa handitzea (gaur egun 1.500 €/m2) Alokairu babestua sustatzeko jarduketei buruzko 2021eko abenduaren 7ko Aginduaren esparruan alokairu babestura bideratutako higiezinak birgaitzeko jarduerak egiten dituzten udalei edo landa-inguruneko erakundeei, administrazio publiko horien finantza-gaitasun eskasa aintzat hartuta.<br>8. LGE-ek izan dezaketen zeregina aztertzea, hitzarmenak eta/edo enkarguak sinatuta, herritarrei birgaitzearen arloko programei buruzko arreta eta aholkularitza emateko.<br>9. ABE-etako landaguneak BIE (Birgaitzeko Integratuko Eremuak) edo LJE (Lehentasunez Jarduteko Eremuak) eremutzat hartzeko aukerak aztertzea, Etxebizitzaren Gida Planean definitutako birgaitze integraleko laguntzen berariazko politikez edo laguntzak sendotzeko politikez balia daitezen.<br>10. Arabako Foru Aldundiaren adibideari jarraikiz, foru-aldundiek udalerri edo landagune batean ohiko etxebizitza bihurtzeko higiezin bat alokatzen, birgaitzen edo erosten duten pertsona fisikoei PFEZn kenkari fiskalak aplikatzeko aukera aztertzea.<br>11. Erabilera lagatzeko kooperatibek etxebizitzak sustatzeko sor ditzaketen aukerak aztertzea eta landa-inguruneko udalei horren berri ematea. Formula berri horrek etxebizitzaren edukitza-araubide mistoa eskaintzen du, alokairuaren eta jabetzaren artekoa. Formula berri horrek Kooperatibari lurzorua lagatzen dion edo birgaitzeko higiezin bat eskaintzen dion udalaren lankidetza eskatzen du. Kooperatiba arduratzen da etxebizitzen sustapenaz eta Eusko Jaurlaritzaren alokairua sustatzeko laguntzak eskuratu ahal izango ditu, obrak egiteko. | |

**FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK**

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren etxebizitzak eta eraikinak osorik birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-efizientziarako laguntzak (1., 2. eta 3. lerroak).
- 2021eko abenduaren 7ko AGINDUA, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua eta etxebizitzen eta bizitoki-eraikinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketei buruzkoa: Landa-inguruneetan alokairu babestura bideratzeko etxebizitza pribatuak mobilizatzeko dirulaguntzak eta despopulatzearen aurkako neurriak
- PREE 5000 (erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako energia-birgaitzeko programa) NGEU funtsetatik eratorria eta EEEk finantzatua. Epea 2023/12/31n amaitu zen.
- Bizitegi-eraikinak birgaitu eta Eusko Jaurlaritzaren SEEPren 3, 4 eta 5 Programen energia-efizientzia sustatzeko laguntzak. Funtsak agortu egin dira eta leihatila itxita dago gaur egun.
- Arabako Foru Aldundiaren PFEZ zergaren kenkariak
- Toki-erakundeetan etxebizitzak zaharberritzeko Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak, 20.000 biztanletik beherako udalerrietako 1.500 biztanle baino gutxiagoko biztanleguneetako toki-erakundeei eta pertsona fisikoei zuzenduak
- 2023 ekitaldian lurralde-berrikuntzarako, jarduera sozioekonomikoa suspertzeko eta despopulatzearen aurka borrokatzeko toki-erakundeek sustatutako proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
- Alokairuko etxebizitza sozialak sustatzeko funts berria, SEEPren eranskinetik datorrena. Funts horrek 4.000 milioi euro bideratuko ditu estatu mailan, alokairu sozialeko etxebizitzen parkea arrazoizko prezioan handitzeko, eta lehendik dagoen etxebizitza sozialen parkea maileguen edo abalen bidez hobetzeko.

## 27. , 28., 29. ETA 30. ARDATZAK: ERRONKA DEMOGRAFIKOA, PARTAIDETZA ETA ARRETA KOMUNITARIOA, GENERO-BERDINTASUNA ETA GAZTERIA

### ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA:

- Gardentasun eta Herritarren parte hartzearen Proiektu-Legea
- Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategia-Esparru orokorra eta dokumentu operatiboa
- Ekintza komunitarioa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa
- Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria
- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa, eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana
- ARABAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. FORU PLANA 2022-2026
- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa
- BIZKAIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. FORU PLANA 2021-2024
- 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa
- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. FORU PLANA GIPUZKOAN 2020-2023
- 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena
- Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 estrategia
- Gazte Planaren 2023ko Plan Operatiboa

## AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK: Azken eremu hori zabala eta askotarikoa da. 4 eremuetako bakoitzean aintzat hartu beharreko gaiak azaltzen dira.

### Erronka demografikoa

- Euskal estrategia hau, **argi eta garbi, Bizi Kalitaterako etorkizuneko LuGPrako indargarri bat da.** Estrategiak ikuspegi integral eta progresiboa du; ikuspegi hori bat dator 2030eko Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuekin, eta honako politika hauek inplikatzen ditu: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, soziosanitarioa, edo osasuna, migrazioa eta gizarte-prestazioak, gaitasunak garatzeko laguntzak, bai eta hiri- eta landa-dimentsio bikoitza ere, epe labur eta ertaineko ekimenekin eta lau sektoreen arteko lankidetzarekin (publikoa, enpresa, hirugarren sektorea eta familia, sare komunitarioekin batera). **Lehentasunezko helburuen artean, Estrategiak identifikatzen du beharrezkoa dela *"politika publikoen emaitzak eta eragina kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzea, landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari erantzuteko".*** Horretarako, zeharkako ardatzetako batek zerikusia du **planak berak honela deskribatzen duen landa-errebalorizazioarekin:** Landa-garapenerako politika integrala bultzatzea, lurralde-orekan eta gizarte-kohesioan oinarritua, landa-ingurunearen zahartzea eta despopulazioa lehengoratzen lagunduko duena eta Euskadiko landa-eremuak bizitzeko eta jarduera sozioekonomiko bideragarriak eta jasangarriak egiteko gune erakargarriak izan daitezen lortuko duena, hau da, bizi-kalitatearekin eta lehiakortasunarekin.

### Partaidetza eta arreta komunitarioa

- Gipuzkoak herritarrek parte hartzeko estrategia bat garatu du, eta estrategia horrek kontuan hartu du landa-ingurunea: "12. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza. Ekintza honen ebaluazioa input interesgarria izango da lan-esparru bat emateko. Lan-esparru horrek, partaidetzako gizarte-berrikuntzako ekimenekin batera, berariazko eremu bat osa dezake etorkizuneko Bizi Kalitaterako LuGPn. Bestalde, etorkizunean Gardentasunari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Legea onartuz gero, proposamenak txertatzeko estaldura izan daiteke.

### Igualdad del género (Gobierno Vasco)

- 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 Legea garatzen duenak, landa-lentea diskriminazio anitzeko faktore gisa jasotzen du, oro har, eta berariaz eskubide sozialen eta indarkeria matxistaren atalean.

- Dekretu horretan, Emakunderen egitura organiko eta funtzional berri bat eratzen da, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendeko erakunde autonomo gisa. Identifikatzen diren egiturak honako hauek dira: Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua, Erakunde arteko Batzordea eta Aholku Batzordea.

- Jaurlaritzaren mailan, Zuzendaritza Kontseiluan eta Erakunde arteko Batzordean parte hartzen duten sailek (hezkuntzaren, lanaren, osasunaren, industriaren, kulturaren eta gizarte-politiken arloan eskumenak dituztenak) landa-garapenaren arloan eskumena duen erakundea aipatu gabe, sail eskudunaren bidez edo hari atxikitako organismo autonomoaren/erakunde publikoaren bidez.

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planari dagokionez, landa-lentea ez da sistematikoki sartu plangintza osoan; izan ere, landatartasun-baldintza ez da dokumentu osoari aplika dakiokeen intersekzionalitate-kontzeptutzat hartzen. Nolanahi ere, landa-inguruneari zuzendutako berariazko zenbait helburu jasotzen ditu, eta horiek planifikatzeko aintzat hartzen dira landa-inguruneko emakumeei buruz egindako azterlanak.

- Bereziki aipatu behar da **2015ean Emakume Nekazarien Estatutua onartu izana.** Horrenbestez, Euskadi izan zen lehen sektorean eta landa-ingurunean emakumeen lan-egoera arautu zuen lehen autonomia-erkidegoa, emakume nekazarien lana ikusgarriago egiteko eta ustiategien titular izateko. EMA laguntza-lerroa aipatu behar da, berariaz diseinatu eta argitaratu baita estatutuan aipatutako helburuak betetzea bultzatzeko.

### Genero-berdintasuna (foru-aldundiak)

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-araudiak eta indarrean dauden azken berdintasun-planak aztertuz gero, ondorio hau ateratzen da: foru-arauek ez dute landatartasunaren kontzeptua aintzat hartu beharreko aldagaitzat hartzen, baina bai berdintasun-plan batzuetan. Horietan, landatartasuna intersekzionalitatearen parametrotzat hartzen hasi dira. Plan horiek, nahiz eta landa-ingurunean emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea murrizteari lotutako berariazko helbururen bat aintzat hartzen duten, oro har eremu bakarrera mugatzen da: Araban, ahalduntzeari ematen diote garrantzia; Bizkaian, esparru ekonomikoari eta enpleguari; eta, azkenik, Gipuzkoan, planean ez da landatartasun kontzeptua jasotzen, landa-inguruneko udalerrien Zuzendaritza aipatzeaz gain.

- Bereziki nabarmendu behar da **Laia Eskola,** Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren (2016-2020) funtsezko proiektua; izan ere, bere lanak partaidetza soziopolitikoa indartuko duten tresna eta dinamiken bidez garatzen jarraitzen du, eta, aldi berean, berdintasunaren alde dauden emakumeekin eta gizonekin lan egiten du. Genero-berdintasuna eta landa-eremuan genero-berdintasuna lantzeko modua gizarte-berrikuntzarekin eta herritarren partaidetzarekin lotzen dira.

### Gazteria

- **Gazteriaren Legeak aintzat hartzen du landa-eremua,** gida-printzipioetatik abiatuta, eta hirugarren lekuan honako hau adierazten du: *“Lurraldetasuna, hurbiltasuna eta deszentralizazioa. Politikak eta zerbitzuak lurralde bakoitzaren ikuspuntura eta errealitatera egokituko dira, eta pertsonek, taldeek eta komunitate hartzaileek parte hartuko dute; arreta berezia ipiniko zaie landa-eremuaren berezitasunei”.* **7. artikuluan,** EAE-ko erakundeek hartzen dituzten **konpromiso**ei buruzkoan, 15. puntuan honako hau dio: **“Landa-eremuko gazteentzako programa espezifikoak sustatzea, aukera-berdintasuna eta zerbitzu publikoetarako irispidea bermatzeko, bai eta bizitza proiektu propioa garatzea bermatzeko ere”.** Era berean, Gazteriaren Euskal Estrategiaren esku hartzeko ildoen barruan, Gazteria eta landa- eta itsasertz-inguruneko berariazko eremu bat txertatzen du, eta argi geratzen da Bizi Kalitaterako nahiz Lehiakortasunerako **LuGPekiko** lotura. Kudeaketa- eta gobernu-sailetan, landa-ingurunea ordezkatzen duten pertsonak ere kontuan hartzen ditu.

| SEKTOREKOAK EZ DIRENAK |
|---|
| **AUKERAK** |
| ▪ Esparru arauemaile eta estrategikoak rural proofinga txertatzea bultzatzeko: Erronka demografikoa 203, Gazteriaren Legea…<br>▪ Herritarren partaidetza bultzatzeko esparrua arauemaileak: Ardatz 2030 eta Gipuzkoan non ikasi/ hedatu esperientziak.<br>▪ Lege-mailako arau-esparruak eta landa-ingurunean gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko berariazko finantza-lerrak: Emakume Nekazarien Estatutuaren Legea eta hari lotutako EMA laguntzak.<br>▪ Landa-eremuan ibilbidea egin duen eta antolatuta dagoen garapen sozioekonomikoaren ereduan dagoen genero-ikuspegia, ikus Arabako Laia eskolaren adibidea.<br>▪ Landa-eremuetan biztanleriari eta gazteei eusteko pizgarriak. |
| **GARAPENERAKO OZTOPOAK** |
| ▪ Aurrekontu-zuzkidurak eta baliabide nahikorik ez izatea esparru arauemaileak hedatzeko<br>▪ Herritarren partaidetza eraginkorra lortzeko zailtasunak, lurralde-eremu guztietan<br>▪ Erakunde-mailan, landa-garapenaren arloan eskumena duten sailek ez dute parte hartzen EMAKUNDEren Zuzendaritza Kontseiluan eta Erakunde arteko Batzordean.<br>▪ Emakumeen eta gizonen berdintasuna orokorrean arautzen duten lege, politika eta planetan, “landatartasuna” aldagaia ez da aintzat hartzen intersekzionalitatearen kontzeptua garatzen denean.<br>▪ Landa-eremuan gazteei eusteko benetako aukerarik ez izatea<br>▪ Politika sektorialak lurralde-eremuekin lotzeko zailtasuna, landa-eremuen beharrak lehenesteko, hiri-eremuen aurretik. |

## LURRALDE-DIAGNOSTIKOA:

**LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**

- Arau- eta plangintza-esparruek ez dute jasotzen landa-eremuarekin lotutako berariazko jarduerarik, baina orokorrean jasotzen dute, hala nola erronka demografikoak, ***non landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari erantzutea***z hitz egiten den, edo Gazteriaren Legeak.

**BESTE LURRALDE-KONTSIDERAZIO BATZUK**

- Berdintasuna: foru-arauek ez dute landatartasuna aintzat hartu beharreko aldagaitzat hartzen, baina bai berdintasun-plan batzuetan. Horietan, landatartasuna intersekzionalitatearen parametrotzat hartzen hasi dira. Lurralde bakoitzak gai desberdinetan jartzen du arreta.

## ERAGILE GARRANTZITSUENAK

- **Eusko Jaurlaritza**
- **EMAKUNDE**
- **Euskadiko Gazteriaren Kontseilua**
- **Foru-aldundiak**
- **Udalak**
- **Kuadrillak eta mankomunitateak**

## SEKTOREKOAK EZ DIRENAK

| JARDUKETAREN LEHENTASUNA | LURRALDE-TRATAMENDUA |
|---|---|
| **Erronka demografikoa: TXIKIA**<br>**Partaidetza: ERTAINA**<br>**Berdintasuna: TXIKIA**<br>**Gazteria: HANDIA**<br>**Araba: OSO HANDIA** | **LANDA-EREMUEN udalerrien araberako SAILKAPENA AINTZAT HARTUTA (hiru kategoria)**<br>▪ Lotura zuzena dago Erronka demografikoaren esparruaren eta Gazteriaren Legearen eta landa-eremuen artean, eta, beraz, lehentasunezkotzat jotzen da bi ardatz horiek ABE-etan ardaztea. |

**BERMEKO LANDA-MEKANISMOA APLIKATZEKO LEHENTASUNAK (lehentasunezko jarduketa-ildoak) (ZER)**

1. Gazteriaren Legea garatzeko legegintzako dekretu bat sustatzea, euskal landa-eremuaren espezifikotasuna jasotzeko, hari eragiten dioten politika sektorial nagusiei aplikatuta: hezkuntza, etxebizitza eta enplegua.
2. EMAKUNDEko Erakunde arteko Batzordean parte hartzea, berdintasun-politiketan eta sustapen-tresnetan rural proofinga bermatzeko.

## ITUNAK EGITEKO GOMENDIOAK (NOLA)

1. Erronka demografikoaren estrategiaren esparruan berariazko aurrekontu bat adostea, landa-eremuan emantzipazio- eta berdintasun-ekimenak bultzatzeko
2. Partaidetzaren eremua: landa-eremuko biztanleriaren ikuspegia sartzea jarduketa berrietan. Horretarako, funtsezkoa da landa-eremuko biztanleak protagonistatzat hartzea eta entzute aktiboko mekanismo eraginkorrak garatzea. Rural proofinga ezartzeko, herritarrekin kontsultak egin behar dira, batez ere tokiko erakundeen eta LGEen bidez. Horregatik, gizarte zibilak ekimen horietan inplikatu behar du, eta tokiko eta eskualdeko estrategiak definitzen parte hartu.
3. Landa-garapenaren arloan eskumena duen erakundea euskal sektore publikoko erakundeei buruzko dekretuan sartzea eta, horrela, EMAKUNDEko Erakunde arteko Batzordean parte hartu ahal izatea.
4. Arauak berrikustean eta berdintasun-plan berriak (autonomikoak zein foru-mailakoak) eguneratu eta diseinatzean, INTERSEKZIONALITATEAren kontzeptuaren arabera garatzen denean, landatartasuna aintzat hartu beharreko aldagai gisa aipatu behar da berariaz. Gomendatzen da berdintasun-planetan aintzat hartzea urtero argitaratzen diren landa-eremuko emakumeei buruzko azterlanak, landa-inguruneko biztanleei zuzendutako berariazko helburu eta jarduketak diseinatu ahal izateko. Ziurtatu behar da landa-lentea ez dela soilik eremu espezifiko batean jartzen (ikusten da egungo planetan erakunde bakoitzak ardatz hauetako batean jarri duela arreta: genero-indarkeria, enplegua eta ahalduntzea), hau da, jarduketa-ardatz guztietan hartu behar da kontuan, eta, horretarako, landa-eremuko biztanleriari zuzendutako ekintza zehatzak diseinatu behar dira.
5. Gazteriaren Legea hedatzen aktiboki parte hartzea.
6. Berdintasunaren, gazteriaren eta partaidetzaren eremuak gizarte-berrikuntzarekin batzea/lotzea Bizi Kalitaterako LuGP hau garatzean.

## FINANTZA-LAGUNTZA JASOTZEKO AUKERAK

- 2023. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak
- Gazte-emantzipaziorako tokiko planak egiteko eta ekimenak diseinatzeko dirulaguntzak 2022
- Berdintasuna sustatzeko hainbat laguntza-lerro, partikular, elkarte, enpresa, erakunde eta erakunde publikoentzat. (EMAKUNDE)
- Emakume Nekazarien Estatutua bultzatzeko laguntzak (EJren Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritza)
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jarduketetarako.
- Emakumeen elkarteentzako eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuentzako dirulaguntzak, asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeen parte-hartze soziala bultzatzeko
- Emakumeen elkarteentzako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuetarako (Bizkaia)
- Bizkaiko lurralde historikoan 7.000 biztanletik beherako udalentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako
- Arabako eta Trebiñuko kuadrillek eta udalek sustatzen dituzten emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko programak eta/edo jarduerak garatzeko dirulaguntzak
- Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako jarduerak garatzeko.

# 08.
# ERANSKINAK



# ERANSKINAK


| | | | |
|---|---|---|---|
| 8.1 | \| | **LEGEAREN HELBURUAK** | *Pág. 192* |
| 8.2 | \| | **KARAKTERIZAZIO-ADIERAZLEAK** | *Pág. 204* |
| 8.3 | \| | **JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-ADIERAZLEAK** | *Pág. 214* |
| 8.4 | \| | **BEREN LANDA-EREMUEN ARABERAKO UDALERRIEN ZERRENDA** | *Pág. 223* |
| 8.5 | \| | **NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAREN LPS-AREN TXOSTENA** | *Pág. 225* |

## 8.1 LEGEAREN HELBURUAK

<table>
<tr><th>KODEAK HO</th><th>HELBURU OROKORRAK</th><th>HELBURU ESTRATEGIKOAK (EREMUA)</th></tr>
<tr><td>A1HO</td><td>I) Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat.</td><td rowspan="4">a) EAEko landa-espazioa sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak okupatutakoa eta mendi-eremuak, EAEko lurraldea egituratzen duen eta lurraldearen paisaia bereizgarriena osatzen duen funtsezko elementu gisa.</td></tr>
<tr><td>A2HO</td><td>II) Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna, euskal landagunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun- eta enplegu-iturria eta euskal gizartearentzako oinarrizko ondasunen hornitzailea delako, lurraldearekiko errespetua duen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduen alde eginez</td></tr>
<tr><td>A3HO</td><td>III) Natura-ondarea eta paisaia zaintzea, ikuspegi integral batetik. Ikuspegi horrek uztartu egingo ditu ingurumen-babesari, -kontserbazioari eta -leheneratzeari buruzko araudien betetzea baliabideen aprobetxamendu jasangarriarekin, garapen sozioekonomikoarekin eta gizarteak naturaguneez gozatzearekin, horietan bizi direnen bizimodua eta jarduerak errespetatuz.</td></tr>
<tr><td>A4HO</td><td>IV) Energia sortzeko iturriak deszentralizatzea eta landa-ingurunea energiaz hornitzeko instalazio txikiak bultzatzea. Horiek bateragarriak izango dira ingurumena eta lurraldea zaintzearekin eta mantentzearekin.</td></tr>
<tr><td>B1HO</td><td>V) Euskal landa-ingurunean ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzea; xede horrekin, enpresa-dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzailetza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digita¬letan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte.</td><td rowspan="2">b)Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz.</td></tr>
<tr><td>B2HO</td><td>VI) Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jar¬dueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorri¬tako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak.</td></tr>
</table>

| KODEAK HO | HELBURU OROKORRAK | HELBURU ESTRATEGIKOAK (EREMUA) |
|---|---|---|
| **C1HO** | VII) Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea, haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin. | c) EAEko **landa-biztanleen ongizate-maila** hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako. |
| **C2HO** | VIII) IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. | |
| **C3HO** | IX) Landa-ingurunean etxebizitzarako irispidea izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta. | |
| **C4HO** | X) Landa-ingurunearen natura-, kultura- eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea. Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira. | |
| **C5HO** | XI) Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan. | |
| **C6HO** | XII) Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. | |

| | | HELBURU OROKORRAK --> | LURRALDE-ANTOLAMENDUA | NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA | ONDARE NATURALA ETA PAISAJISTIKOA | ENERGIA | EKINTZAILETZA ETA BARNE-EKINTZAILETZA | ENPRESEN DIBERTSIFIKAZIOA | AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK | IKT | ETXEBIZITZA | NORTASUNAREN ONDARE NATURALA ETA KULTURALA | BERRIKUNTZA | OSASUNA ETA HEZKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **... kon-tuetan** | **KO-DEA** | **HELBURU SEKTORIALAK** | **HOA 1** | **HOA 2** | **HOA 3** | **HOA 4** | **HOB 1** | **HOB 2** | **HOC 1** | **HOC 2** | **HOC 3** | **HOC 4** | **HOC 5** | **HOC 6** |
| **A) Lurral-de anto-lakuntza** | **A1HS** | I) Bidea ematea Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (LAG), lurralde-plan partzialak (LPP), lurralde-plan sektorialak (LPS) eta hiri antolamenduko plan orokorrak (HAPO) onartzeko edo berrikusteko prozesuak landagunea zaintzeko lagungarriak izan daitezen, eta 9. artikuluan aurreikusten diren lurralde-garapeneko programetan (LuGP) jasotako beharrizan eta estrate¬giak kontuan har daitezen horiek idaztean. | X | | | | | | | | | | | |
| | **A2HS** | II) Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren abenduaren 23ko 17/2008 Legeko II. titulutik sortutako araudian jasotzen diren tresnak, nekazaritza-lurrak babestekoak, garatzea eta aplikatzea, tresnok fun¬tsezkoak baitira nekazaritza-lurrak bertan behera uztea eragozteko eta haren artifizializazioa saihesteko, elikagaien hornidurarekiko betetzen duten funtzioa babestua. | X | | | | | | | | | | | |
| | **A3HS** | III) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adieraz¬tea eta adostea landagunea kontserbatzeari dagokionez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diren irizpideak. | X | | | | | | | | | | | |
| **B) Neka-zaritza, basogint-za eta elika-duraren arloan..** | **B1HS** | I) Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna handitzea, eta horretarako produktuen berezitasune¬rako pizgarriak ematea kalitatean, ingurumen-jasangarritasunean eta elikadura-segurtasunean oinarritu-ta; ekoizpen naturala eta ekologikoa sustatzea; sektorea egituratzen laguntzea asozia-zionismoaren eta kooperatibismoaren bidez, eta merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak optimizatzeko, arreta berezia eskainita garapen endo¬genoko jarduketei eta merkatu-rik hurbilenetan egin beharreko sustapenari. Lehentasunezko arreta eskainiko zaie familia-ustiategiei, bereziki horien titularra emakumea edo nekazari gaz-tea denean. | | X | | | | X | | | | | | |
| | **B2HS** | II) Baso-kudeaketa jasangarria eta orekatua bultzatzea, baso autoktonoak eta jarduera tra¬dizionalaren osagarri izango diren aukera-nitxo berriak sustatuz eta enplegu egonkorrak, seguruak eta kalitatezkoak sortuz eta mantenduz, horretarako bitartekoak ezarrita. | | X | | | | | | | | | | |

| HELBURU OROKORRAK --> | | | LURRALDE-ANTOLAMENDUA | NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA | ONDARE NATURALA ETA PAISAJISTIKOA | ENERGIA | EKINTZAILETZA ETA BARNE-EKINTZAILETZA | ENPRESEN DIBERTSIFIKAZIOA | AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK | IKT | ETXEBIZITZA | NORTASUNAREN ONDARE NATURALA ETA KULTURALA | BERRIKUNTZA | OSASUNA ETA HEZKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **... kon-tuetan** | **KO-DEA** | **HELBURU SEKTORIALAK** | **HOA 1** | **HOA 2** | **HOA 3** | **HOA 4** | **HOB 1** | **HOB 2** | **HOC 1** | **HOC 2** | **HOC 3** | **HOC 4** | **HOC 5** | **HOC 6** |
| **B) Neka-zaritza, basogint-za eta elika-duraren arloan..** | **B3HS** | III) Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Planarekin koordinatuta, nekazaritzako elikagaien industriaren garapena indartzea, bereziki lehen sektorearen eragile den horren garapena, eta elikaduraren balio-ka-tean integrazio bertikala egiteko prozesuak ere bai; horren haritik, balio-kate horretan garrantzi handia-goa emango zaie ekoizleei, gastronomia-ondarea erreba¬lorizatzeko eta balio erantsi handiagoa sortzeko bitartekoak baitira. | | X | | | X | X | | | | | | |
| | **B4HS** | IV) Nekazari-errentari eusten laguntzea, Nekazaritza Politika Erkidearen finantza-baliabideak optimizatuz eta behar bezala kudeatuz. | | X | | | | | | | | | | |
| | **B5HS** | V) Belaunaldi-aldaketa bultzatzea sektorean, familia-nekazaritzarekin batera, eta ema-kumezko nekazariei protagonismo handiagoa ematea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean xedatutakoarekin bat. | | X | | | | | | | | | | |
| | **B6HS** | VI) Erraztea eta ikuskatzea lehen sektoreak ekoizpen-kostuak baino prezio handiagoak jaso¬tzen dituela bere produktuen truke, horrela ezartzen baitute Estatuko araudiak (Elikadura Katearen Legea) eta Europakoak, sektore bideragarri eta lehiakorrari eusteko helburuarekin. | | X | | | | | | | | | | |
| | **B7HS** | VII) Euskal nekazaritza-ekologiako ondarea mantentzea eta bultzatzea. | | X | | | | | | | | | | |
| | **B8HS** | VIII) Lehen sektoreko produktuak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea sustatzea, bana¬keta- eta merkaturatze-kanalak sustatuz. | | X | | | | | | | | | | |

| | | HELBURU OROKORRAK --> | LURRALDE-ANTOLAMENDUA | NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA | ONDARE NATURALA ETA PAISAJISTIKOA | ENERGIA | EKINTZAILETZA ETA BARNE-EKINTZAILETZA | ENPRESEN DIBERTSIFIKAZIOA | AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK | IKT | ETXEBIZITZA | NORTASUNAREN ONDARE NATURALA ETA KULTURALA | BERRIKUNTZA | OSASUNA ETA HEZKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **... kon-tuetan** | **KO-DEA** | **HELBURU SEKTORIALAK** | **HOA 1** | **HOA 2** | **HOA 3** | **HOA 4** | **HOB 1** | **HOB 2** | **HOC 1** | **HOC 2** | **HOC 3** | **HOC 4** | **HOC 5** | **HOC 6** |
| **B) Neka-zaritza, basogint-za eta elika-duraren arloan.** | **B9 HS** | IX) Europar Batasunaren Baserritik Mahaira estrategia babestea eta hori garatzen laguntzea. | | **X** | | | | | | | | | | |
| | **B10 HS** | X) Kontratazio publiko arduratsuko baldintza-agiriak sustatzea, gizarte- eta ingurumen-irizpi¬deak lehenesteko helburuarekin. | | **X** | | | | | | | | | | |
| **Hezike-ta-maila (lanbi-de-heziketa eta goi-mai-lako hezike-ta, %-a)** | Goi-mailako ikasketak edo lanbide-heziketako ikasketak dituzten biztanleen proportzioa. | Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak egoteak garapen ekonomikoa bultzatu dezake, ezagutza eta trebezia espezializatuak dituztelako. Ekonomia dibertsifikatzen, enplegua sortzen eta enpresa-aukera berriak sustatzen lagundu dezakete. Gainera, hala nola nekazaritzan edo nekazal industrian jardunbide berritzaileak eta teknologia aurreratuak txertatzeko prestakuntza handia izaten dute, eta, beraz, enpresa-lehiakortasuna handitu daiteke eta jardunbide jasangarriak erabiltzea susta daitezke. | Udalerria | Zenbat eta handiagoa goi-mailako ikasketak edo lanbi-de-hezi-ketakoak dituzten biztanleen ehunekoa, orduan eta inpaktu positibo handiagoa adierazle konposa-tuan.<br>⊕ | Eustat | Urtekoa |

| **Adierazlea** | **Definizioa** | **Justifikazioa** | **Desagregazio-maila** | **Inpaktua** | **Iturria** | **Neurtzeko aldia** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Biztanleriaren bizi-kalitatea eta ongizatea** | | | | | | |
| **Udalerriko biztanleria** | Bizitokia erreferentziako lurraldean duten pertsona guztiek osatzen dute biztanleria; alegia, EAEko udalerriren batean erroldatuta daudenek erreferentziako urteko abenduaren 31n, bertan egon edo ez egon. | Udalerriko biztanleria baliabideak, zerbitzuak eta politika publikoak planifikatzeko oinarrizko adierazle bat da. Biztanleria kontuan hartuta, zenbat baliabide esleitzen diren erabaki daiteke, zerbitzu publikoei eta azpiegiturei dagokienez. Horrez gain, eragina du aniztasunean, lan-merkatuan, jasangarritasunean, erronketan eta aukeretan. | Udalerria | | | |
| **Maskulinitate-tasa** | Gizon-kopurua 100 emakumeko. | Adierazle honen bidez, biztanleria baten barruan dauden genero-desberdintasunak identifika daitezke. Maskulinitate-tasa oso handia edo oso txikia denean, baliteke desorekak egotea gizonen eta emakumeen baliabide-banaketan, boterean eta aukeretan.<br>Landa-ingurunea hirigunea baino maskulinizatuagoa dago, eta horrek ondorio negatiboak ditu, zeren emakumeek biztanleria finkatzen laguntzen baitute neurri handiagoan, jendegabetzea murrizten eta dibertsifikazio ekonomikoa bultzatzen. Gizarte bat orekatua badago, bideragarritasuna, nortasuna, aurrerabidea eta kohesioa bermatuta daude. | Udalerria | Zenbat eta maskulinitate-tasa handiagoa, orduan eta inpaktu negatibo handiagoa adierazle konposatuan.<br>⊖ | Eustat | Urtekoa |
| **Zahartze-indizea** | 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa udalerrian. | Biztanleria zahartzeak eragina du babes sozialeko sisteman, hazkunde ekonomikoko tasan, etab. Eta, halaber, kontuan hartu behar da kolektibo horrentzako baliabideak planifikatu eta esleitzen direnean.<br>Oro har, biztanleriak zahartze-tasa handiagoa du landa-ingurunean hiriguneetan baino, gazteek jende gehiago bizi den inguruneetara ihes egiten dutelako. Bestalde, biztanleria zahartu ahala, arreta medikoko zerbitzuak, epe luzerako arreta eta osasun-zerbitzu orokorrak neurri handiagoan eskatzen dira. | Udalerria | Zenbat eta handiagoa 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa, orduan eta inpaktu negatibo handiagoa adierazle konposatuan.<br>⊖ | Eustat | Urtekoa |

| Adierazlea | Definizioa | Justifikazioa | Desagregazio-maila | Inpaktua | Iturria | Neurtzeko aldia |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Biztanleriaren bizi-kalitatea eta ongizatea** | | | | | | |
| **Biztanleriaren hamar urteko bilakaera** | Biztanleriaren aldaketa 2011tik 2021era bitarte, ehunekotan. | Biztanleriaren bilakaera neurtuz, baliabideak eraginkortasunez planifikatu eta eslei daitezke beharrei erantzuteko. Gainera, zerbitzuak eta aukerak eskuratzeko garaian sortzen diren desberdintasunak identifikatzeko lagungarria da.<br>Orobat, biztanleriaren aldaketa ikusita, landa-ingurunea bizitzeko erakargarria den edo ez ikus daiteke. Ildo horretan, eremu batzuek biztanle dezente galdu badituzte, uler daiteke ez direla oso erakargarriak. | Udalerria | Zenbat eta handiagoa biztanleriaren azken 10 urteetako aldaketa positiboa, orduan eta inpaktu positibo handiagoa adierazle konposatuan. | Eustat | Urtekoa |
| **Banda zabala (%)** | Telefonia mugikorreko sareetan Interneterako konexio mugikorra duten atarien ehunekoa, telefono mugikor bat, modem eramangarri bat, tableta bat edo beste gailu bat erabilita. | Banda zabala eskuratuz, abiadura handiko Internet erabil daiteke, eta, hortaz, urrutiko heziketa sustatzen da, heziketa-arrakala murrizten da eta landa-eremuak erakargarriago bihurtzen dira bizilagun berriak ezartzeko. Konektibitateak komunitatea indartu ere egiten du, komunikazioa hobetu eta jarduera komunitarioetan parte hartzea areagotzen duelako. Aldi berean, urrutitik lan egiteko aukerak eta ekintzailetza bizkortzen ditu, eta, hala, tokiko garapen ekonomikoari laguntzen dio. | Udalerria | | Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa | Urtekoa |
| **Etxebizitza nagusia (%)** | Entitate aztergaiko etxebizitzen artean, gutxienez pertsona bat erroldatuta dagoen etxebizitzen proportzioa. | Etxebizitza nagusi gisa erabiltzen diren etxebizitzen ehunekoa jakinda, jabetzak nola erabiltzen diren eta biztanleria egonkorra ote den ere jakin daiteke.<br>Era horretan, landa-ingurunean etxebizitza lortzeko egon daitezkeen erronkak agerian jartzen dira. Etxebizitzen proportzio nabari bat etxebizitza nagusi gisa erabiltzen ez bada, arazoak daudelako izan daiteke; adibidez, etxebizitza eskuragarririk ez egotea edo baldintza egokiak dituzten etxebizitzak ez egotea. Landa-inguruneetan, etxebizitza nagusien proportzioa txikiagoa izaten da, besteak beste, ingurune horretan modu jarraituan bizitzea erakargarria ez delako, zerbitzuak falta baitira eta etxebizitza lortzea zaila baita.<br>Etxebizitza nagusien ehunekoan aldaketak gertatzen direnean, landa-ingurunean joera demografikoak daudela esan nahi ohi du. Esate baterako, bigarren etxebizitzen kopurua handiagotzen bada, baliteke turismoa handiagotu izana edo erretiratu gehiago egotea. | Udalerria | Zenbat eta etxebizitza nagusien proportzio handiagoa, orduan eta inpaktu positibo handiagoa adierazle konposatuan. | Eustat | Urtekoa |

| Adierazlea | Definizioa | Justifikazioa | Desagregazio-maila | Inpaktua | Iturria | Neurtzeko aldia |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Biztanleriaren bizi-kalitatea eta ongizatea** | | | | | | |
| **Zerbitzuetan diharduten establezimenduen kopurua (txikizkako saltokiak eta jatetxeak)** | Txikizkako saltoki eta jatetxea gisa katalogatutako (CNAEko 47 eta 56 kodeak) zerbitzuetan diharduten establezimenduen kopurua, dagokion entitatean. | Horrelako establezimenduak egotea landa-inguruneko bizi-kalitatea hobetzeko lagungarria da. Entretenimendurako, kulturarako eta jarduera sozialetarako aukerak eskaintzen dituzte, eta horrek bizitza komunitarioa aberasten du. Tokiko biztanleak gelditu daitezen ere laguntzen du, eta enplegu-iturri garrantzitsua da. Elkarreragin sozialerako eta komunitatea indartzeko espazioak eta aukerak eskaintzen dituzte, halaber. | Udalerria | Zenbat eta establezimendu gehiago, orduan eta inpaktu positibo handiagoa adierazle konposatuan. ⊕ | Eustat | Urtekoa |
| **Errenta pertsonala (osoa eta sexuaren araberakoa)** | 18 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzaren eransketa, lanaren errentek, jarduera ekonomikoen ondoriozko errentek, transferentziek edo prestazio sozialek eta kapital higigarri eta higiezinagatik jasotako transferentziek osatzen dutena. | Errenta pertsonala neurtuz, udalerri bateko biztanleen ahalmen ekonomikoari eta ongizateari buruzko informazioa lortzen da, eta udalerrien arteko berdintasun ekonomikoa ebalua daiteke.<br>Zenbat eta errenta pertsonal handiagoa, orduan eta aukera gehiago daude osasun-zerbitzuak, hezkuntza, aisialdia, kultura eta kalitate oneko etxebizitza lortzeko, baita biztanleen ongizatean eragina duten beste alderdi batzuk lortzeko ere. | Udalerria | Zenbat eta errenta pertsonal handiagoa, orduan eta inpaktu positibo handiagoa adierazle konposatuan. ⊕ | Eustat | Urtekoa |
| **Mugikortasunaren adierazlea** | Ministerioak justifikatzea falta da. | | | | | |

# 8.4 BEREN LANDA-EREMUEN ARABERAKO UDALERRIEN ZERRENDA

| | Arreta bereziko eremuak - ABE | Landa-entitate guztiak dituz-ten udalerriak | Landa-habitat sakabana-tua duen udalerria |
|---|---|---|---|
| 1. | Altzaga | Abaltzisketa | Abadiño |
| 2. | Añana | Aduna | Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena |
| 3. | Añana | Aia | Agurain/Salvatierra |
| 4. | Armiñón | Aizarnazabal | Amorebieta-Etxano |
| 5. | Arraia-Maeztu | Ajangiz | Amurrio |
| 6. | Artzentales | Albiztur | Andoain |
| 7. | Artzentales | Alegia | Anoeta |
| 8. | Baliarrain | Alegría-Dulantzi | Aretxabaleta |
| 9. | Baños de Ebro/Mañueta | Alkiza | Arrasate/Mondragón |
| 10. | Barrundia | Alonsotegi | Arrigorriaga |
| 11. | Beizama | Altzo | Astigarraga |
| 12. | Berantevilla | Amezketa | Azkoitia |
| 13. | Bernedo | Amoroto | Azpeitia |
| 14. | Busturia | Antzuola | Balmaseda |
| 15. | Campezo/Kanpezu | Arama | Barakaldo |
| 16. | Ea | Aramaio | Basauri |
| 17. | Elduain | Arantzazu | Beasain |
| 18. | Elvillar/Bilar | Areatza | Berango |
| 19. | Ereño | Arrankudiaga-Zollo | Bergara |
| 20. | Errezil | Arratzu | Bermeo |
| 21. | Erriberagoitia/Ribera Alta | Arratzua-Ubarrundia | Berriz |
| 22. | Errigoiti | Arrieta | Bilbao |
| 23. | Forua | Artea | Deba |
| 24. | Gabiria | Artziniega | Derio |
| 25. | Gaintza | Asparrena | Donostia / San Sebastián |
| 26. | Galdames | Asteasu | Durango |
| 27. | Gaztelu | Ataun | Eibar |
| 28. | Harana/Valle de Arana | Atxondo | Elgoibar |
| 29. | Hernialde | Ayala/Aiara | Elorrio |
| 30. | Iruraiz-Gauna | Bakio | Erandio |
| 31. | Karrantza Harana/ Valle de Carranza | Barrika | Ermua |
| 32. | Kripan | Bedia | Errenteria |
| 33. | Kuartango | Belauntza | Eskoriatza |
| 34. | Lagrán | Berastegi | Etxebarri |
| 35. | Lanciego/Lantziego | Berriatua | Galdakao |
| 36. | Lanestosa | Berrobi | Gernika-Lumo |
| 37. | Lantarón | Bidania-Goiatz | Getxo |
| 38. | Lapuebla de Labarca | Dima | Gorliz |
| 39. | Larraul | Elantxobe | Güeñes |
| 40. | Leintz-Gatzaga | Elburgo/Burgelu | Hernani |
| 41. | Leza | Elciego | Hondarribia |
| 42. | Meñaka | Elgeta | Ibarra |
| 43. | Moreda de Álava/ Moreda Araba | Etxebarria | Idiazabal |
| 44. | Morga | Ezkio-Itsaso | Igorre |
| 45. | Mutiloa | Fruiz | Irun |
| 46. | Nabarniz | Gamiz-Fika | Irun |
| 47. | Navaridas | Garai | Iruña Oka/Iruña de Oca |
| 48 | Orendain | Gatika | Iurreta |
| 49 | Orexa | Gautegiz Arteaga | Lasarte-Oria |
| 50. | Peñacerrada-Urizaharra | Getaria | Laudio/Llodio |
| 51. | Samaniego | Gizaburuaga | Legazpi |

| | Arreta bereziko eremuak - ABE | Landa-entitate guztiak dituz-ten udalerriak | Landa-habitat sakabana-tua duen udalerria |
|---|---|---|---|
| 52. | San Millán/Donemiliaga | Gordexola | Leioa |
| 53. | Trucios-Turtzioz | Ibarrangelu | Lekeitio |
| 54. | Ubide | Ikaztegieta | Lemoa |
| 55. | Valdegovía/Gaubea | Irura | Lezo |
| 56. | Villabuena de Álava/ Eskuernaga | Ispaster | Markina-Xemein |
| 57. | Yécora/Iekora | Itsasondo | Mungia |
| 58. | Zalduondo | Izurtza | Muskiz |
| 59. | Zambrana | Kortezubi | Mutriku |
| 60. | Zerain | Labastida/Bastida | Oiartzun |
| 61. | Ziortza-Bolibar | Laguardia | Ondarroa |
| 62. | | Larrabetzu | Oñati |
| 63. | | Laukiz | Ordizia |
| 64. | | Leaburu | Ordizia 65. |
| 65. | | Legorreta | Orio |
| 66. | | Legutio | Orozko |
| 67. | | Lemoiz | Ortuella |
| 68. | | Lezama | Pasaia |
| 69. | | Lizartza | Plentzia |
| 70. | | Loiu | Portugalete |
| 71. | | Mallabia | Santurtzi |
| 72. | | Mañaria | Sestao |
| 73. | | Maruri-Jatabe | Sondika |
| 74. | | Mendaro | Sopela |
| 75. | | Mendata | Soraluze-Placencia de las Armas |
| 76. | | Mendexa | Tolosa |
| 77. | | Mundaka | Ugao-Miraballes |
| 78. | | Munitibar- Arbatzegi Gerrikaitz | Urduliz |
| 79. | | Murueta | Urnieta |
| 80. | | Muxika | Usurbil |
| 81. | | Okondo | Valle de Trápaga-Trapagaran |
| 82. | | Olaberria | Villabona |
| 83. | | Ormaiztegi | Vitoria-Gasteiz |
| 84. | | Otxandio | Zaldibar |
| 85. | | Oyón-Oion | Zalla |
| 86. | | Ribera Baja/Erriberabeitia | Zamudio |
| 87. | | Segura | Zarautz |
| 88. | | Sopuerta | Zestoa |
| 89. | | Sukarrieta | Zizurkil |
| 90. | | Urduña/Orduña | Zumaia |
| 91. | | Urkabustaiz | Zumarraga |
| 92. | | Zaldibia | |
| 93. | | Zaratamo | |
| 94. | | Zeanuri | |
| 95. | | Zeberio | |
| 96. | | Zegama | |
| 97. | | Zierbena | |
| 98. | | Zigoitia | |
| 99. | | Zuia | |

# 8.5 INFORME PTS AGROFORESTAL

## NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN EBALUAZIOA

## (Batzorde Teknikoaren memoria)

1. SARRERA .......................................................................................... 3

2. I. ATALA: NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAKO LPS-AREN I. KAPITULUTIK VII. KAPITULURA ......................................................................................... 4

3. II. ATALA: NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAKO LPS-AREN KARTOGRAFIA .................13

4. III. ATALA: NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO LPS EREDUA. PLANTEATU NAHI DEN LPS EREDUARI BURUZKO GOGOETAK. ......................................................15

## 1. SARRERA

2018ko urrian, Nekazaritza eta Basogintzako LPSa behin betiko onartzen duen Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren 177/2014 Dekretuaren 9.2 artikuluan ezarritako lau urteko epea igaro zen, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak Nekazaritza eta Basogintzako LPSa betetzeari eta lurralde-antolamendu partzialean eta sektorialean eta hirigintza-plangintzan duen eraginari buruzko txostena egiteko. Hori dela eta, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzari eskatu zion Nekazaritza eta Basogintzako LPSa betetzeari buruzko balorazio-prozesu hori aktibatzeko.

Azken horrek, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari agindu zion EAEko nekazaritza-administrazioei eska ziezaiela Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren funtzionamenduari buruzko ebaluazio espezifikoa, plana indarrean sartu zenetik; emandako informazioa aztertu ondoren, Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren etorkizuneko aldaketaren irismena, funtsezkoa ala ez-funtsezkoa, ebaluatzeko xedez.

Esparru horretan, ebaluazio hori eskatu zitzaien nekazaritza-arloan eskumena duten foru-administrazioei, eta hiru lurralde historikoetatik jaso ziren txostenak. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak txosten bat egin zuen 2020ko uztailean, eta txosten horretan, oro har, sektoreko administrazioek egokitzat jo zituzten gogoeta guztiak bildu ziren.

Txosten hori Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzara bidali zenetik ia urtebete igaro ondoren, eta erantzunik jaso gabe, "Nekazaritza eta Basogintzako LPSa Ebaluatzeko Batzorde Teknikoa" sortu da, administrazio sektorial guztietako langileek osatua, tresna horren berrikuspenean are gehiago sakontzeko eta hainbat alderdi identifikatzeko:

- ✓ LPSaren disfuntzioak; arau-esparru gisa, administrazio bakoitzak uste izan duena eragin negatiboa dutela sektoreko eta landa-garapeneko alderdietan.
- ✓ zenbait gai eguneratzeko beharra (adibidez, LAGak argitaratzea).
- ✓ aldatu nahi den LPS ereduaren inguruko hausnarketetatik eratorritako eduki berriak garatzea.

Batzordeak landutako ekarpenak honako atal hauetan egituratu dira:

- I. atala: Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren I. kapitulutik VII. kapitulura
- II. atala: Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren kartografia
- III. atala: Nekazaritza eta Basogintzako LPS eredua. Planteatu nahi den LPS ereduari buruzko gogoetak.

## 2. I. ATALA: NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAKO LPS-AREN I. KAPITULUTIK VII. KAPITULURA

### 2.1. *1. artikulua. Lurralde Plan Sektorialaren helburuak*

LPSa aldatzeko planteatzen ari diren helburuak honako hauekin lotzen dira:

- ✓ Nekazaritza eta Basogintzako LPSa Lurraldea Antolatzeko Tresnatzat hartzea, tresna arautzailea ez ezik, nekazaritza- eta basogintza-sektorearen egoera diagnostikatuko duen, jarduteko lehentasunak aginduko dituen eta lurzorua babesteko eta sustatzeko tresnak antolatuko dituen benetako tresna sektoriala izango dena.
- ✓ gidalerro sektorialetara eguneratzeko aukera (adibidez, baso-kudeaketaren atala) eta goragoko mailako beste tresna batzuetara (LAG, klimarekin lotutako estrategiak, etab.).
- ✓ LAG berrien beharrezko egokitzapena eta garapena (2019).
- ✓ LPSean sartu beharreko eduki berriak, nekazaritza-lurra sustatzearekin eta nekazaritza-lurra zaintzearekin eta sustatzearekin lotutako ikuspegi berriekin lotutakoak (ikus txosten honetako 4.2 atala).
- ✓ Landa Garapen Jasangarriaren erronkak sartzea.
- ✓ Lurzoruaren erabileren eta jardueren sistematizazio orokorra landa-ingurunea dinamizatzeko eta biziberritzeko premiekin bateratzea (nekazaritza-jardueraren dibertsifikazioa, jarduera osagarriak...)
- ✓ Landa-eragile eta -populazioen inplikazioa eraginkorra izatea antolamendu- eta babes-politiken barruan, haien parte-hartze aktiboaren bidez
- ✓ LPSerako ezarritako egungo helburuak eguneratzea. Horietako bat ez da lortu, antza, honako honekin lotuta dagoena: *"Gaur egungo landa-panorama zehaztea: nekazaritza-jarduerak, ustiategi produktiboenak, lehentasunezkoak, uzte-arrisku handiena dutenak, mehatxurik handienak... non dauden jakitea sustatzea*. "

Helburu horien irismena ikusita, administrazio sektorialek interpretatzen dute planteatutako aldaketak *"hasieran aukeratu eta onartutako plangintza-eredua aldatzea dakarrela, eta, horren ondorioz, eredu desberdin gisa agertzen dela, eta, beraz, berritzat jo daitekeela, eta ez soilik desberdina alderdi zehatz eta osagarrietan"*. Aldaketa hori funtsezko aldaketatzat jotzen da, lurraldea antolatzeko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 18. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Era berean, oro har, dokumentu osoan literalitate jakin batzuk berrikusi beharko lirateke, anbiguoak direnez nahasgarriak izan baitaitezke lotura edo derrigortasun mailaren inguruan (gomendatu, saiatu, adostu...).

### 2.2. 2. artikulua. Antolamendu-eremua

Indarrean dagoen LPSak 1997ko LAGen irizpideak garatu eta xedatzen ditu, zehazki *Ingurune Fisikoaren Antolamendua kapituluko "5.2. Ingurune fisikoaren elementu eta prozesuei buruzko jarraibide orokorrak" eta "6.8. Ingurune Fisikoaren Antolamenduaren kategoriak" atalei dagozkienak, epigrafe batzuk Ingurune Naturalaren alderdi zehatzei buruzko beste LPS batzuetan berariaz garatuak izan arren.*

Proposatzen den aldaketaren helburuetako bat LAG berriak egokitzea eta garatzea denez, horren bidez egokitzat jotzen diren atalak garatzea proposatzen da.

Hori guztia, epigrafe batzuk beste gai batzuei buruzko beste tresna batzuen bidez ere garatzekoak badira ere (adibidez, HHP ezartzeko irizpideak, etab.).

LPSaren egungo antolamendu-eremuari dagokionez, EAEn nekazaritza-erabilerak dituen lurzoru osoa kontuan hartzea planteatzen da (haren sailkapena edozein dela ere).

### 2.3. 3. artikulutik 6. artikulura, beste tresna batzuekiko koordinazioari buruzkoak

Indarrean dauden LAGek, 37. artikuluan (" Lurralde plangintza partzial eta sektorialaren arteko koordinazioaren arloko gidalerroak"), antolamendu-tresnen arteko desadostasunak koordinatzeko eta ebazteko mekanismoak jorratzen dituzte.

Artikulu honen edukiaren arabera, LPParen eta LPSaren arteko desadostasunen aurrean, LPSaren irizpidea hartu behar da kontuan EAE osoari edo eremu funtzionaletik gorako eremuei aplikatu beharreko gaiak direnean, besteak beste, nekazaritza-ingurunearen babesa aipatuz.

Bestalde, lurralde-plangintza partzialari dagokionez, "LPParen irizpidea LPSaren gainetik jartzea, Eremu Funtzionalaren lurraldeari datxezkion gaiak direnean" aipatzen da, eta zalantza izanez gero LPParen alde interpretatzen da.

Ildo horretan, gomendagarria litzateke LPSen aldaketak bere irizpideak gailendu beharko liratekeen arloen definizioan sakontzea.

### 2.4. 3. artikulua. Plana ingurumen-araudiarekin edo natura-inguruneari buruzko araudiarekin koordinatzea

LPSaren aldaketak eguneratu egin beharko lituzke Ingurumenari edo Natura-inguruneari buruzko araudiaren eta figuren erreferentziak (GIL bezalako figura berriak, Natura 2000 Sarearen eguneraketak, etab.).

### 2.5. 6. artikulua. Beste tresna batzuekiko koordinazioa

LPSaren aldaketak beharrezkoa den koordinazioa jorratu lezake LPSaren 6. artikuluan aipatutakoez bestelako tresna eta figurekin, haiekin interferentziak sortu baitira. (Plan bereziak, espazio libreen mugaketa, paisaiaren zehaztapenak, etab.).

### 2.6. 7. artikulua. Lurralde Plan Sektoriala osatzen duten dokumentuak

LPSaren aldaketak NAAEParen garapena barne har lezake (protokoloaren azken bertsioa, NAAEPa garatzeko aginduari jarraiki, zeina sektore-esparrutik berrikusi eta Lurralde Antolamendura bidali baitzen 2019ko azaroan), bai eta haren zehaztapen batzuen aldaketa baloratzea ere. Administrazio sektorialak kezkatuta agertu dira NAAEPari dagokionez LPSa garatzeko Aginduaren izapidetze-egoeraren inguruan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Batzordeak onartu zuena eta hainbat alderdi zehazten zituena, prozedurazkoak zein operatiboak. Alderdi horien zehaztasun-ezak ziurgabetasun handia sortzen jarraitzen du gaur egun.

Era berean, NAAEParen neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileekin lotutako guztia garatzeko aukera ere balora liteke (NAAEPa garatzeko Aginduaren III. eranskina).

### 2.7. 9. artikulua. Indarraldia

Antolamendu-tresnen jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, eta indarrean dauden LAGetara egokitzeko, adierazle egokien multzo bat garatu beharko litzateke (LAGen 36. artikulua), eta horien definizioa eta eguneratzeko mekanismoa LPSen finkatu ahal izango lirateke.

### 2.8. 10. artikulua. LPSaren araudia aplikatzea

10. artikuluaren erregulazioak interpretazio-desadostasun ugari ekarri ditu Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren zehaztapenek udal-plangintzarekiko, lurralde-plangintzarekiko eta plangintza sektorialarekiko duten izaera lotesleari dagokionez. Hori dela eta, komenigarria litzateke artikulu horretako epigrafeen literaltasuna berrikustea, horri buruzko idazkera argiagoa emanez.

Horrela, adibidez, d) epigrafeak ezartzen du kategoria bakoitzean sartu beharreko erabileren araubidea bat etorriko dela Plan honekin. Termino hori ez da oso zehatza, kontuan hartuta Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea funtsean aldatzen duten hirigintza-plangintzako proposamenak daudela (LPS honek egokitzat edo onargarritzat jotzen dituen erabilerak debekatuz, edo LPSak debekatutzat jotzen dituen erabilerak onargarritzat joz). Artikuluaren idazketan, kategoria bakoitzean sartu beharreko erabilera-araubidea Nekazaritza eta Basogintzako LPSak ezarritakora egokitzea eskatu beharko litzateke. Ildo beretik, aplikazio-artikuluan xedatu beharko litzateke kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera-araubidea ezin duela aldatu gainjarritako baldintzatzaileekin lotutako araudiak; izan ere, askotan, erabilera- araubide hori aldatzen du, loteslea dela alde batera utzita, eta nekazaritzako zenbait erabilera bateraezin bihurtzen ditu.

Era berean, e) epigrafean berariaz jasotzen da udal-, lurralde- eta sektore-plangintza idazteko eta onartzeko izapideetan Nekazaritzaren Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa aplikatuko dela, D dokumentuaren, I. eranskinaren arabera... Erregulazio hori ez da oso argia, eta disfuntzio asko sortu ditu, lehenik eta behin aipatutako I. eranskina ez dagoelako. Horrez gain, eremu jakin batzuetatik interpretatu da ez dela aplikagarria ez lurralde-plangintzan ez sektore-plangintzan, nahiz eta idazkera argia izan, paragrafo berean aipatzen baita Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearen 16. artikuluak balio agrologiko handiko lurzoruei buruzko proiektu edo jarduketa administratiboetarako eskatzen duen txostena, eta abar.

Beraz, alderdi horiek guztiak askoz ere argiago eta garatuago erregulatu beharko lirateke, Protokoloa aplikatuz egindako txostenak eta aipatutako 16. artikuluaren arabera egindakoak (foru-eskumenekoak) Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzak bere eskumenen esparruan egindako txosten sektorialetatik argi eta garbi bereizteko.

Ildo horretan, beharrezkoa litzateke 177/2014 Dekretua garatzeko Aginduan aurrera egitea, bi sailburuordetzak batera lantzen ari diren NAAEPari dagokionez.

Bestalde, egokia litzateke udal-plangintzak AVE lurzoruaren mugaketa handitzeko mekanismoa zehaztea. Horretarako, LPSak adierazten du bere helburu orokorren arabera justifikatu behar dela.

### 2.9. *11. artikulua. Lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako eraikuntza berriak eraikitzeko baldintzak*

2. epigrafean, nekazaritzako jarduerarekin lotutako eraikin berriak ezartzeko, nekazaritzako gaietan eskumena duen foru-sailaren aldez aurreko baimena eskatu behar dela aipatzen da, titularrak nekazariak direla eta instalazioak kasuan kasuko araudira egokitzen direla egiaztatzeko.

Terminologia horrek nahasmen handia sortzen du foru-organoetan, eta ez dakite zergatik hitz egiten den baimenaz, titularrak nekazariak direla eta instalazioak araudira egokitzen direla egiaztatzeko eskatzen ari direnean.

Era berean, epigrafe berean, ez da koherentea nekazaritzaren arloan eskumena duen Foru Departamentuaren aldeko txostena eskatzea. Agian, txosten horretan, foru-aldundiek egiaztatu ahal izango lukete eskatzen dena, baimenaren baldintza ezabatuta.

Lurzati hartzailearen gutxieneko azaleraren dimentsioaren betekizuna lurralde historiko bakoitzerako definitutako gutxieneko laborantza-unitatearekin lotzea alderdi problematikoa da; izan ere, 168/1997 Dekretuak Arabarako 1 eta 3 ha arteko gutxieneko laborantza-unitateak definitzen ditu, Gipuzkoarako 1 ha-koak eta Bizkairako 0,75 ha-koak. Udalerri askotan oso gutxi dira Lurzoru Urbanizaezinean eraikinak ezartzeko behar den azalera betetzen duten lursailak, eta horrek zailtasun handiak sortzen ditu nekazaritza-jardueran aritzeko, lurzatiaren kontzeptuari dagokionez askotariko interpretazioak eragiteaz gain (lurzati jarraitua, katastroko lurzati etena, etab.).

Horregatik, beharrezkoa izango litzateke baldintza hori berrikustea, indarrean dauden lurzatien neurriak bezain handiak ez dituzten beste irizpide batzuen arabera definituz, edo, are gehiago, eraikinerako gutxieneko azalera bat ez ezartzeko aukera baloratuz. Nolanahi ere, azalera hori gutxieneko beste baldintza batzuk betetzeak baldintzatuko du, eta horrela aprobetxamendurako interes txikiagoko lurzati txikiak okupatuko dira. Gainera, hedadura handieneko lurzatiak komunikazio-bideetatik edo beste zerbitzu batzuetarako sarbidetik urrunen daudenak izan ohi dira, eta horrek inpaktu handiagoa izatea dakar.

Indarrean dauden LAGak egokitzeari eta garatzeari dagokionez, landa-habitaterako ezarritako gomendio-jarraibideen artean honako hau aipatzen da: "nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari lotutako instalazioak eta eraikinak eraikitzeko eskatzen diren baldintzak malgutzea eta homogeneizatzea, nekazaritza-ustiategi profesionalen garapena erraztuz".

Nolanahi ere, oro har, beharrezkotzat jotzen da Nekazaritza eta Basogintzako LPSean aipatzen diren txostenak egiteko prozedura bat finkatzea (egiteko uneak, epeak, eskatzaileak, agintaritza eskuduna, edukia loteslea edo ez-loteslea, etab.).

### 2.10. 12. artikulua. Nekazaritzako ustiategiari lotutako etxebizitza isolatua

Zehaztasun handiagoa behar da 12. artikuluko 1. puntuaren idazketan, udal-plangintzari ematen dizkion ahalmenei dagokienez. Izan ere, desadostasunak daude interpretatzerakoan ea soilik arautzen duen lotutako oin berriko etxebizitza eraikitzeko baimena ematea, edo Udalari ahalbidetzen dion nekazaritza-abeltzaintza eta landazabala kategorian nekazaritza-ustiategiari lotutako bizitegi-erabilera isolatua debekatzea, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak onargarritzat jotako erabilera dela kontuan hartuta, eta, beraz, haren erabilera-araubidea bete gabe.

Bestalde, baserriari dagozkion atalak eguneratu egin beharko lirateke, LAGetan sartu diren aldaketak kontuan hartuta. LAGen proposamenari dagokionez (20. artikulua), eta baserrien banaketari lotuta, LPSak aipamenen bat egin dezake banaketa horrekin batera baserrien ingurunea babesten duten nekazaritza-erabilerak mantentzea bermatzen edo sustatzen duten neurriak eranstearen komenigarritasunari buruz (LGetarako lotutako etxebizitza hobestea sartu den antzera).

### 2.11. 13. artikulua. Abeltzaintzako instalazio intentsiboak

Beharrezkotzat jotzen da artikulu horren 3. puntua berrikustea. Puntu horretan ezartzen denez, ganadua gobernatzeko eraikuntzak estali gabeak izan behar dira, instalatzeko lur-mugimendurik behar ez duten material mugikor edo erraz desmuntagarrietan oinarrituta. Instalazio intentsiboak direnez, kasu askotan ez dute zentzurik eskakizun horiek (adibidez, janleku bat estali gabea izatea).

### 2.12. 15. artikulua. Baso-kudeaketa

Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren aldaketa aukera gisa ikusten da basogintzaren eremuarekin lotutako zenbait alderdiren erregulazio egokia sartzeko, basogintzaren arau-esparruaren izaera loteslea islatzen eta argituko dutenak, beste administrazio batzuetatik datozen arauen esku-sartzeak saihesteko.

Bestalde, beharrezkoa da egungo edukiak eguneratzea, ezinbesteko elementuak erantsiz (baso-kudeaketa jasangarria, bioekonomia, zerbitzu ekosistemikoak, korridore ekologikoak, azpiegitura berdea, etab.), bai eta onartu zenetik sortu diren erregulazio eta jarraibideetatik erator daitezkeen edukiak ere (klima-aldaketari buruzko araudia, natura-ondarea, babestutako habitatak, etab.).

Gainera, LPSak erronka global berriekin lotutako zenbait gaitan (jasangarritasuna, klima aldaketa, etab.) sektoreak egindako aurrerapenak ikusaraztea egokia den baloratu beharko litzateke.

### 2.13. 14. artikulua eta 16.etik 22.era bitarteko artikuluak Hondakin organikoak kontrolatzea, ureztatze-putzuak, aisialdiko baratzeak, bordak eta aterpeak, ingurumena eta paisaia babestea eta integratzea, itxiturak eta hesiak, landa-bideak, nekazaritza-herrixkak

LPSean artikulu horietan jorratutako gai sektorialei buruz jasotako gogoetak eguneratu beharko lirateke: horietako batzuk garatu eta eguneratu, gai berriak sartu, batzuk kentzearen egokitasuna baloratu, etab. Hori guztia LPSa argitaratu zenetik aurrera garatu diren edo orain LPSaren bidez garatu nahi diren irizpide sektorialetan oinarrituta (adibidez, 4.2 atalean adierazitako eduki berriak).

Besteak beste, planteatzen da LPSak neurri handiagoan garatzea sortzen hasi diren baratze-espazioen eremua, batez ere hiri-inguruko espazioan.

### 2.14. 24 – 45 artikuluak, III. kapitulua Lurzoruaren erabileren eta jardueren definizioa

LAGen Ingurune Fisikoa Antolatzeko Matrizea xehatzen duen tresna Nekazaritza eta Basogintzako LPSa izanik, kapitulu honetan jasotako erabilerak eta horien definizioa LAGetan aintzat hartutakoetara egokituz eguneratu beharko lirateke. LAGek xehapen batzuk sartu dituzte erabileretan, gainera, kasu batzuetan, erregulazio bereiziak dakartzatenak (adibidez, ibilgailuak aire zabalean aparkatzeko erabilera edukieraren arabera bereiztea, obra zibiletatik datozen arrokak eta lurrak betetzeko berariazko erabilera kontuan hartzea, edo abeltzaintza-eraikuntza intentsiboak “nekazaritza-industria” erabileraren barruan kontuan hartzea).

Egokitzapen horretaz gain, lurzoruaren erabileren eta jardueren definizioa berrikusi eta egokitu beharko litzateke. Batetik, lehen mailako baliabideen aprobetxamenduari dagokionez, irizpide sektorialetatik abiatuta (Lehen eraldaketa, jarduera osagarriak, nekazaritza-industriak...); eta, bestetik, oro har, argi eta garbi adierazi ez diren eta errepikariak izan daitezkeen erabilera batzuk neurri handiagoan sartzeko edo banakatzeko.

### 2.15. 46-53. artikuluak. IV. kapitulua. Antolamendu-kategoriak

Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala antolatzeko kategorien eta mendi gainkategoriaren definizioa berrikusi beharko litzateke. Antolamendu-kategorien egungo definizioa ez da karakterizazio objektibo eta zehatz batetik abiatzen, kontzeptu generiko batzuei baitagokie. Kontzeptu horiek berrikusi eta eguneratu egin behar dira, beste aldagai batzuk gehituta.

LPSak nekazaritzako lurzoru guztia babesteko beharra azpimarratu beharko luke (LAGetan ezarritakoarekin bat etorriz), dagokion kategoria edozein dela ere.

“Baso” kategorian, Euskal Autonomia Erkidegorako eremu estrategikotzat hartzea proposatzen da, udal-plangintzarentzat loteslea izan dadin haren mugaketari eta araudiari dagokienez.

### *2.16. 54-60 eta 71-76 artikuluak, Gainjarritako baldintzatzaileei buruzkoak*

Gainjarritako baldintzatzaileek eragindako eremuak eguneratu behar dira (paisaia-figura berriak, Natura 2000 Sarea, etab.).

### *2.17. 61. artikulua. Erabileren eta jardueren kalifikazioa, horiek arautze aldera*

Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren 2b motako erabileren definizioak, lehendik dauden guneetan oinarritutako hirigintza-hazkundeei buruzkoak, udal-plangintzak planteatutako hazkundeei buruzkoak baino ez dira; LPSaren kategoria jakin batzuen gainean planteatuz gero, nekazaritza-ingurunearen gaineko eraginaren balorazio espezifikoari ekiteko beharra adierazten dute.

Egiaztatu da horrelako hazkundeak beste esparru batzuetan ere gerta daitezkeela (adibidez, LPP), eta horren erregulazioa matrizetik kanpo geratzen da, eta aipatutako antolamendu-kategoriekin bat etorriz gero, nekazaritza-ingurunearen gaineko eraginaren balorazio espezifikoari ekiteko beharretik kanpo.

Bestalde, 61. artikuluaren 3. puntuak nekazaritza-ingurunearen gaineko eraginaren balorazio espezifikoa eskatzen du hirigintza-hazkunde horietarako, baldin eta Nekazaritza eta Basogintzako LPSak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala – Balio Estrategiko Handi gisa kalifikatutako eremu batean planteatzen badira; aldiz, LPSaren erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizean sartutako azalpenetan (62. artikulua) honako hauetara zabaltzen dira eremuak: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala – Balio Estrategiko Handia, Trantsizioko Landa Paisaia, Baso Mendi Mehatza, Basoa edo Ingurumen Hobekuntza.

Aurreko guztia oinarri hartuta, beharrezkotzat jotzen da aipatutako 2b erabileraren definizioa berrikustea, erabilera horrek kontuan har ditzan lehendik dauden guneetan oinarritutako hirigintza-hazkundeak, edozein esparrutan planteatzen direnak, eta nekazaritza-ingurunearen gaineko eraginaren balorazio espezifikoa behar duten LPSeko antolamendu-kategorien erreferentzia zuzen dadin. Azken horri dagokionez, garrantzi berezikotzat jotzen da LPSaren erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizean adierazitako guztiak kontuan hartzea (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala – Balio Estrategiko Handia, Trantsizioko Landa Paisaia, Baso Mendi Mehatza, Basoa edo Ingurumen Hobekuntza), sektorean izan dezakeen eraginari dagokionez hazkunde mota horiek izan dezaketen garrantziagatik.

Bestalde, lehen adierazi den bezala, Nekazaritza eta Basogintzako LPSean aipatzen diren txostenak egiteko prozedura zehatz definitu beharko litzateke (egiteko uneak, epeak, eskatzaileak, agintaritza eskuduna, edukia loteslea edo ez-loteslea, etab.).

### *2.18. 62. artikulua. Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea*

LAGen erabilerak arautzeko matrizeak Nekazaritza eta Basogintzako LPSekoekin bat ez datozen erabileren erregulazio batzuk jasotzen ditu, eta, beraz, azken hori ere eguneratu beharko litzateke zentzu horretan. (Adibidez: Balio Estrategiko Handiko lurzoruetan eta Mendi-larreetan baso-erabilera debekatzea, ibilgailuak aire zabalean aparkatzeko erabilera edukieraren arabera era bereizian erregulatzea, etab.).

Edonola ere, komeniko litzateke matrizea berrikustea, kontuan hartuta, praktikan, matrizean ezarritako erabilera-araubidea nahiko laxoa dela nekazaritza-lurzoruen gaineko erabileren onargarritasunari dagokionez (adibidez, AVE lurzoruetan bi erabilera baino ez daude debekatuta: lotu gabeko etxebizitza isolatua eta lehendik zeuden guneetan oinarritu gabeko hirigintza-hazkundeak), are gehiago AVE lurzoruetan Araba Erdialdeko eta Guardiako EFen kasuan.

LAGek (2019) zuhurtasun batzuk jasotzen dituzte sektore-ikuspegitik interes berezikoak diren lurzoruen okupazio-prozesuen aurrean (HHPari, azpiegituren erabilerei, hirigintza-garapenari eta abarri dagokienez), eta LPSen bidez ekin ahal izango litzaioke horiek garatzeari.

Bestalde, komenigarria litzateke adieraztea Nekazaritza eta Basogintzako LPSarekin koherentea den erabilera-araubidea mantendu behar dela antolamendu-kategorietan, horien gainean beste figura edo sistema batzuk zedarritzen diren kontuan hartu gabe (adibidez, gainjarritako baldintzatzaileak, Lurzoru Urbanizaezineko Sistema Orokorrak, etab.).

## 3. II. ATALA: NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAKO LPS-AREN KARTOGRAFIA

Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planaren kartografia eguneratzearen garrantzia azpimarratu behar da, kontuan hartuta kartografia hori ez dela berrikusi tresna hau behin betiko onartu zenetik.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE · Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · Bizkaia foru aldundia diputación foral

Denbora hori igaro ahala, udal-plangintza ugari onartu direnez, beharrezkoa da horietan mugatutako hiri-lurzoruen eta lurzoru urbanizagarrien mugak, sistema orokorrak eta abar egokitzea, bai eta LPSeko antolamendu-kategorietako udal-azalerei buruzko datuak ere.

Plangintzak aztertzeko hobekuntza-puntu gisa, gomendagarria litzateke kartografiak plangintzei buruzko informazio eguneratua izatea, Lurzoru Urbanizaezinean sistema orokorrak mugatzeari dagokionez (espazio libreak, ekipamenduak, plan bereziak, etab.). Kasu batzuetan, kezka sortzen du horrelako sistemak mugatzeak; izan ere, eragindako antolamendu-kategorietan aldaketarik eragin gabe, erabilera eta araudia aldatzea dakarte, eta horrek eragin sektorial garrantzitsuak ekar ditzake; bai eta udalerrian nekazaritza-lurzoruak eskuragarri izatearen ideia okerra ere.

Era berean, baliteke kartografia deseguneratuta geratu izana, beste gai batzuetan egindako aurrerapenen eraginez: uretan, higaduran, Gune Babestuetan, etab.

Eguneratze horrez gain, beharrezkotzat jotzen da LPSaren antolamendu-kategorien mugaketak berrikustea eremu jakin batzuetan; izan ere, kasu askotan, errealitatearekin bat ez datozen formak eta mozketak dituzte (antzeko ezaugarriak dituen lurzati bat, hainbat kategoriatan banatua, moztuta diruditen formak orban batzuetan, etab.), eta akatsak antzeman dira eremu batzuei kategoriak esleitzean (adibidez, AVE lurzoruetan LPSa onartu baino lehenagotik industria-jarduerak egotea, etab.).

Funtsezkotzat jotzen da xehetasun handiagoko kartografia bat izatea, aintzat hartutako antolamendu-kategoria bakoitzean lurzoruak sartzea justifikatzen duten irizpide argiekin.

Nekazaritza eta Basogintzako LPSa bezalako lurraldearen antolamendurako tresna batek kartografia zehaztugabea, okerra eta deseguneratua izateak disfuntzio ugari sortzen ditu lurraldean esku hartzeko proposamenak ebaluatzerakoan.

Bestalde, nekazaritzako lurzoruaren/espazioaren bilakaeraren jarraipena egitea ahalbidetuko duen kartografia "bizia" izateko aukera baloratzen da, LPSeko kategorien mugaketa eguneratzeko eta aldatzeko prozedura izango duena (SIGPACi egiten zaizkion erabilera-aldaketaren alegazioekin bat etorriz).

# 4. III. ATALA: NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO LPS EREDUA. PLANTEATU NAHI DEN LPS EREDUARI BURUZKO GOGOETAK.

Aldaketaren helburuei dagokienez sartu den bezala, administrazio sektorialek planteatu dute beharrezkoa dela LPS bat izatea, ez soilik arautuko duena, baizik eta benetan sektoriala izango den tresna bat, nekazaritza-sektorearen egoera diagnostikatuko duena, jarduteko lehentasunak aginduko dituena eta lurzorua babesteko eta sustatzeko tresnak artikulatuko dituena.

Esparru horretan, LAGak beharrezkoa duen egokitzeaz eta garatzeaz gain, eta eremu sektorialarekin lotutako gidalerroak eguneratzeaz gain, planteatutako aldaketak ikuspegi berriak garatzea planteatzen du.

## *4.1. LAGak onartzearen ondoriozko eguneratzeak (128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa)*

Txosten honen aurreko ataletan, hainbat aipamen egin dira Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren edukietako batzuk LAGen edukietara eguneratzeko beharrari buruz.

LAG berriek, gainera, lurralde-antolamenduko tresna guztietan **jarraipen- eta ebaluazio-sistemak** sartzeko beharra adierazten dute, bai eta **adierazle egoki** sorta bat eskuratzeko beharra ere (36. artikulua), eta hori kontuan hartu beharko du LPSak.

Kontuan izanda Lehen Xedapen Iragankorrean zortzi urteko epea ematen dutela, indarrean jartzen denetik, LPPak eta LPSak haren edukira egokitzeko, une egokia izan daiteke Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren funtsezko aldaketa bat egiteko, lehen azaldutako gaiak berrikustea eta LAGen edukira egokitzea ahalbidetuko duena, haiekin lerrokatuz, batez ere landa-habitatari eta nekazaritza-jarduerari buruzko jarraibideei dagokienez.

## *4.2. Ikuspegi berriak*

Nekazaritza eta Basogintzako LPSak nekazaritza-lurzoruaren babesa du ardatz, eta ez ditu landu nekazaritza-lurzoruaren sustapenarekin lotutako gaiak. Berrikuspena/aldaketa esparru egokia izan liteke alderdi horiek txertatzeko, titulartasun publikoko nekazaritza-lurren nekazaritza-kudeaketaren hobekuntza sustatzeari dagokionez 17/2008 Legean adierazitakoa garatuz, bai eta administrazio eskudunek zehaztu ditzaketen beste sustapen-modu batzuk ere.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa Bizkaia foru aldundia diputación foral

LAGek ikuspegi berriak jorratzen dituzte nekazaritza-lurra zaintzearekin eta sustatzearekin lotutako gaietan, eta oso interesgarria litzateke ikuspegi horiek sektoreko tresnetatik garatzea eta zehaztea. Nekazaritza eta Basogintzako LPSa ingurune fisikoaren arloko LAGak garatzeko tresnetako bat denez, LPS hori berrikustea izan liteke gai berri horiei guztiei heltzeko esparrua. Hala ere, beste tresna batzuk ere (berrikusten ari diren LPPak, sentsibilitate sektorialaren mailaren araberako udal-plangintzak, etab.) ikuspegi berri horiek sartzen ari dira.

- ✓ hurbileko kontsumoa sustatzea,
- ✓ elikagaien nahikotasuna eta segurtasuna,
- ✓ elikadura-subiranotasuna
- ✓ HHParen inguruko jarraibideak,
- ✓ hiri-baratzeak eta hiri-ingurukoak,
- ✓ nekazaritza eta abeltzaintzako arlo estrategikoak,
- ✓ nekazaritza-azalera erabilgarria mantentzea,
- ✓ baserrietako nekazaritza-jarduerak mantentzea,
- ✓ nekazaritza-erabilerako lurrak berreskuratzea,
- ✓ nekazaritza-ustiategien jarraipena,
- ✓ erosketa berdea
- ✓ azpiegitura berdea, aisialdiko baratzeetarako espazio gisa
- ✓ nekazaritza-jarduerak mantentzera eta abandonatutako edo desagertzeko arriskuan dauden lurrak kudeatzera bideratutako jardun-programak garatzea
- ✓ lurralde-antolamenduko tresnen jarraipen-sistemetarako adierazleak garatzea,
- ✓ landa-habitat bat, bere antolamendua tresna propioan egingo dena (Nekazaritza eta Basogintzako LPS). Lehen sektorea zaintzea eta sustatzea, eta herritarrentzako zerbitzuak hobetzea duena premisatzat, horrela, haren bizi-maila hiri-habitatarenarekin parekatzeko.
- ✓ Klima-aldaketa
- ✓ Zerbitzu ekosistemikoak
- ✓ Genero-ikuspegia
- ✓ Basoen kudeaketa jasangarria
- ✓ etab.

Gasteizen, 2021eko maiatzaren 7an

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO